


Lan eta lan, emakumea Bergaran

Juan Martin Elexpuru, Idoia Etxeberria

Lan eta lan, emakumea Bergaran

**XX. mendearen lehen
erdiko bizimodua**

Juan Martin Elexpuru Arregi
Idoia Etxeberria Elorza



Azterlan hau Badihardugu euskara elkarteko bi kidek egin dute, Bergarako Udalak eskatuta.

Juan Martin Elexpuru bergarra da, Uberakoa. Euskal Filologian doktore, idazlea eta besteak beste *Bergara aldeko hiztegia* lanaren egilea.

Idoia Etxeberria oñatiarra da, baina ama Bergarakoa du. Kazetaria eta filologoa da, eta azken urteotan genero ikuspegia lantzen jardun du.





Lan eta lan, emakumea Bergaran

XX. mendearen lehen erdiko bizimodua

Juan Martin Elexpuru
Idoia Etxeberria



Izenburua: Lan eta lan, emakumea Bergaran

*Egiletza: Badihardugu Euskara Elkarteak. Juan Martin Elexpuru Arregi,
Idoia Etxeberria Elorza.*

Argitaratzailea: Bergarako Udala

Lehenengo edizioa: Bergara, 2014

Diseinu grafikoa: Gertu Inprimategia. Oñati

Inprimaketa: Gertu Inprimategia. Oñati

I.S.B.N. 978-84-938106-3-4

Lege Gordailua: SS-338/2014

cc-by-sa Euskal Herriko Ahotsak proiektuko testigantzak

*cc-by-sa testua: Badihardugu Euskara Elkarteak.
Juan Martin Elexpuru Arregi,
Idoia Etxeberria Elorza.*

© Bergarako Udala

Azaleko argazkia: Bergarako Udal Artxiboko bilduma (L. M. Lonbide)

ESKERRAK

Eskerrak eman nahi dizkiegu aldez edo moldez lan hone-
tan parte hartu duten guztiei. Bereziki euren bizipenak kon-
tatu dizkiguten emakumeei. Eta baita ere informazioa eta
argazkiak lortzen lagundu digutenei, besteak beste Arantxa
Aiastui, Patxi Berraondo, Angelita Elorza, Lourdes Elorza,
Maddi Garcia, Jone Miren Hernandez, Arantzazu Loidi,
Arantzazu Oregi, Olatz Pagaldai, Lorentzo Laskurain,
Iñaki Mujika eta Aran Unanue.

Hitzaurrea	9
1. Aurkezpena	11
Lana eta demografia, mende hasieran	13
Bergara, ehunaren herria	14
2. Nesken ikasketak	17
2.1. Ikastetxeak	18
Ospitaleko Eskola	20
Mariaren Lagundia Ikastetxea: Ensenanza	21
Frontoiko Eskola	26
Gerra aurreko ikastola	28
Gerraosteko ikastolaren sorrera	30
Auzoetako eskolak	31
Baserritarren ikasketak	34
Eskolaz kanpoko ikasketak	37
“Escuela del Hogar”	39
2.2. Goi mailako ikasketak	41
Magisteritza, Erizaintza, Idazkaritza eta Merkataritza	42
Unibertsitateko ikasketak	44
3. Bergarako emakumeen ogibideak	51
3.1. Lantegietako langileak	51
Bergarako lantegiak, mende hasieran	51
Emakumea Bergarako lantegietan	53
Ehungintzako langileen testigantzak	56
Beste lantegi batzuetako beharginak	66
Lantegietako ohiturak eta baldintzak	68
3.2. Jostunak eta bordatzaileak	73
Josten ikastea	73
Jostunak	77
Jostunen lan baldintzak	81
3.3. Zerbitzariak	87
Baserritarrak neskame	87
Aberatsen etxeetan zerbitzari	89
Sukaldariak	92
Umezainak eta inudeak	93
Hotelak eta apopilo-etxeak	95
Neskameen denbora libre	97
Neskameen lan baldintzak	98

3.4. Emakumea osasungintzan	100
Erizainak.....	100
Emaginak.....	103
Kuranderak eta sasimedikuak	107
Mojak gaixoak zaintzen.....	108
3.5. Maistrak	110
3.6. Idazkariak, bulegariak eta telefonistak	118
Idazkariak eta bulegariak	119
Telefonistak.....	123
Emakumeak ardura postuetan	125
Espezializazioa lanean	129
Bulegarien lan baldintzak.....	130
3.7. Merkataria, tabernariak eta negozio arduradunak	130
Merkataria eta dendariak.....	131
Tabernak, jatetxeak eta gozotegiak	136
Ile-apaintzaileak	143
Negozioen jabeak	145
Emakumezko “merkataria” 1930eko erroldan	148
3.8. Baserritarrak	149
Baserriko lanak	150
Baserriko “etxeko lanak”	152
Kalera saltzera.....	154
Baserriko ekonomia.....	158
Ezkontzearen garrantzia, baserrian	160
Baserritik kanpo lan egitea.....	164
Lana eta festa, baserrian	167
Emakume baserritarrak 1930eko erroldan.....	168
3.9. Beste lanbide batzuk	170
Abarketagileak.....	170
Arropa-garbitzaileak, “lixiberak”	171
Lisatzaileak	172
Koltxonerak.....	172
Trapu-biltzaileak	172
Errekadistak.....	173
Arrain-saltzaileak	174
4. Emakumea, politika eta gerra	177
4.1. Emakumea politikagintzan	177
Emakume Abertzale Batza: Emakumeetakoak	178
Beste emakume talde batzuek	185

4.2. Gerraren ondorioak emakumeen bizitzan	188
Hildako emakumezkoak.....	188
Emakumeak, etxeko ekonomiaren arduran.....	189
Ihesaldia.....	190
Emakumeen kontrako errepresioa	192
Gerrako eta gerraosteko ekonomia.....	195
4.3. Frankismoaren ondorioak	197
Sección Femenina.....	198
5. Lana eta familia	201
Familiaren ardura	202
Umeen zaintza	203
Etxeko ekonomia.....	205
Etxeko lanak	207
Heriotzarekin lotutako erritualak	208
Auzoa, familiaren luzapena	209
Ezkondutako lana	210
6. Lana eta aisia	217
Umetako jolasak	217
Emakumeak eta kirola	220
Zinema, dantza eta erromeriak.....	222
Kalean gora eta behera, pasean	227
Emakume aitzindariak	228
Aisialdia baserri eta auzoetan.....	232
Erromeria giroko koplak.....	236
7. Emakumea eta erlijioa	239
Erlijioarekin lotutako taldeak	242
Moja joateko ohitura	244
8. Emakumeak eta artea.....	247
Musika.....	248
Bergarako Orfeoia	250
Dantza	252
Antzerkia	254
Pintura.....	257
9. Ondorio modura	259
10. Lekukoak.....	263
11. Bibliografia	271



Jaione Isazelaia
Bergarako alkatea

Historia garaileek idazten dutela diote, garaileek eta gizonezkoek, noski! Emakumea, hein handi batean baztertuta geratu da historia ofizialetik. Hala ere, jakin badakigu emakumeok bizitza publiko zein pribatuan ekarpen garrantzitsuak egin ditugula.

Ez bakarrik emakumeak historian zehar egindako ekarpenak, beste hainbat gauza ere kontatu gabe geratu ohi dira. Gerrak, konkistak, hitzarmenak, eta hauetan protagonista nagusiak izan diren gizonezkoen izenak buruz ikasi ditugu, inolako testuinguru barik, zentzu handirik hartu ez arren. Zorionez arkeologiak eta historiografia modernoak arreta berezia jartzen diete ekonomiari, antolaketa sozialari, teknologiari eta eguneroko bizitzarekin zerikusia daukaten alderdiei, eta horiekin batera generoari.

Eskuetan dugun ikerlan hau Bergarako Udalaren I. Berdintasun Planaren (2010-2013) testuinguruan kokatzen da. Berau burutzeko enkargua Badihardugu Euskara Elkarteko kide diren Juan Martin Elexpuru eta Idoia Etxeberriari eman zitzairen. Badihardugu Elkartek ibilbide luzea du euskalkiak prestigioatzen eta euskaldun hiztun jatorren historiak jaso, sailkatu eta argitaratzen. Historia hauek guztiak **ahotsak.com** web orrian edonoren eskura aurki ditzakegu.

Begarako Udalak historia horietako batzuk erreskatatuz bere ekarpentxoak egin nahi izan dio historiaren puzzleari eta begi-bistan jarri nahi izan du Bergarako historian emakumeak izan duen papera.

Lerro hauen bitartez eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu lan hau posible egin duten emakumeei, besteak beste, eskuzabaltasunez euren bizipenak gurekin partekatu dituztelako eta herriko historia hobeto ezagutzeko aukera eman digutelako.

Bejondaigula!

Bi helburu nagusi ditu ikerketak honek: batetik, Bergarako emakumeen historia jasotzea eta, bestetik, bertako emakumeek herriari egindako ekarpenak ezagutaraztea. XX. mendean Bergaran emakumeek izan duten bizimodua eta egin duten lana azaleratu nahi dira.

Ikuspegi askotatik jorra daiteke Bergarako emakumeen historia: familia, hezkuntza, ekonomia, politika, erlijioa, aisialdia, sexualitatea, artea, gizarte mugimenduak... Alabaina, alor denak jorratuz gero ikerketa orokorregia geratuko zen, sakontasunik gabea. Izan ere, elizak eta debekuek emakumeengan izan duten eragina aztertzen hasita bakarrik lan mardula egin daiteke.

Lan mundua izan da gure ikerketaren ardatza. Emakumeak lanarekin izan duen harremana XX. mendean. Lan mundua ikertzerakoan, beste hainbat eremu ere ukitu ditugu: hezkuntza, familia, aisialdia, erlijioa... Zera izan baita azterlan honetako interesguneetako bat, emakumeek familia, aisia eta lana nola uztartzen zituzten jakitea.

Zein ziren garai hartako emakumeen lanak? Bergarako emakume gehienak etxekoandre izan ohi ziren. Kanpoan lan egiten zutenek etxeko lanak ere egiten zituzten normalean; gainera, ezkonduetakoan lana uzten zuten (diru arazoak zituztenek, baserritarrek eta familian negozioa zutenek izan

ezik). Etxe barruko lanari ataltxo bat eskaini diogu, baina dirua irabazteko bidea ematen zuten lanei erreparatu diegu batez ere, hau da, ogibideei.

Ikerketarako gure helduleku nagusia adineko emakumeen testigantzak izan dira, Bergaran 1888 eta 1945 urteen bitartean jaiotako emakumeak. Bi edo hiru belaunalditako emakumeen lan-esperientzia ezagutzeko aukera izan dugu, eta bide batez, gaur egungo bizimodura gerturatu gaituzten aldaketak ikusteko.

Horretarako, **www.ahotsak.com** proiektuan jasota zeuden elkarriketak aztertu ditugu lehenik, 40 emakume bergararri egindako grabazioak. Horietako batzuek aspaldi hil ziren. Helburu diferenteekin egindako elkarriketak dira, hainbat garaitan eginak, antzinakoenak 80ko hamarkadakoak. Emakumearekin eta lanarekin lotutako pasarteak identifikatu ditugu, eta informazio aberatsa jaso dugu horietatik. Gero, 2013. urtean zehar, beste bederatzi emakume bergarar elkarriketatutako ditugu, denak gerra aurrean jaiotakoak, bat izan ezik. Ogibideren batean nabarmendutakoak guztiak. Administraria, kimikaria, musikaria, bordatzailea, jostuna, dendaria, irakaslea, margolaria eta enpresa bateko kudeatzailea. Elkarriketatutako pertsona guztien izenak azpimarratuta datoz azterlanean.

Beste informazio-iturri batzuk ere erabili ditugu, jakina. Zorionez, az-

terketa ugari egin da gure herriaren lehenaldiaz. 1990eko hamarkadan bederatzi lan monografiko eder argitaratu zituen Udalak Bergarako historiari zuzendutako bilduman. UNEDeko irakasleak izan ziren egileak. Gure lane-rako oso baliagarriak izan zaizkigu, batez ere talde lanean egindako *Casa y familia y trabajo en la historia de Bergara* (1993) izenburua duena. Eta badira beste batzuk ere gure herriaren histori-az dihardutenak, Antonio Urzelai 'Abrain' en *Bergara: irudi eta kondaira* (1993), esaterako, edo Algodonera de San Antonio ehun fabrika-ren historia aztertzen duen *El mundo azul de Tavex* (1996).

Udal Artxiboa ere jorratu dugu apur bat. Erroldak, zerga-bilketak eta bestelako agiriak aztertuz beste inon aurkitzen ez diren datuak eskura daitezke. Emakumearen lan-jarduerak ez

dira aintzat hartu izan, eta nekez agertzen da aipamenik agiri zaharretan, baina aurkitu aurki daitezke, paperak ondo arakatuz gero. Esate baterako, negozioaren jabea emakume alarguna denean, emakumeak lantegi batean diharduenean, edo eta ogibidez jostuna edo irakaslea denean.

Izen propioak bilatzen ere saiatu gara. Eta ehundik gora izen-abizen lortu ditugu. Hainbat emakumeren kasuan biografia laburrak ere osatu ditugu; ahalik eta ogibide gehienei lotuta egin dugu hori.

Esan bezala, emakumea eta lana Bergaran, XX. mendean, da ikerketa honen gaia. Mendearen lehen erdian ipini ditugu batik bat begiak. Baina aurreko garaiei eta ondorengoei begiratutxo bat bota diegu, gauzei bere tes-tuingurua emate aldera.



❖ *Bergarako ikuspegi orokorra, XIX. mendearen amaieran.* Bergarako Udal Artxiboko bilduma (E. Biain)

Lana eta demografia, mende hasieran

XIX. mende bukaeran Bergarak 6.000 biztanle inguru zituen. Nola joan da hazten? Bereziki XX. mendean jarriko dugu arreta. Hona hemen biztanleriaren bilakaera, errolden arabera:

Urtea	Biztanleak	Hazkudea %
1877	6.194	0,28
1900	6.196	0,00
1910	6.761	0,88
1920	7.435	0,83
Angiozar eta Ubera biltzen dira		
1930	9.307	
1940	9.499	0,20
1950	10.373	0,88
1960	13.162	2,41
1970	15.148	1,42
1975	15.933	1,02
1981	15.759	-0,18

Bergararen hazkundean lanak izan duen eragina ikusiko dugu segidan, zertzelada handietan:

Taulan ikus daitekeenez, 1877tik 1940 arte % 25 inguru hazi zen Bergarako biztanleria. 1927an Angiozar eta Ubera auzoak Bergarara bildu zirela kontuan izan barik, jakina (1.000 biztanle inguru). Igoera apal samarra da. Aipatzekoa da ehun-lantegietara herri askotako jendea etorri zela lanera. 1930eko erroldan Euskal Herriko beste herri batzuetan jaiotako asko agertzen da: Zumarraga, Elgeta,

Lesaka, Irun, Ermua, Zumaia, Elgoibar, Deba... eta baita kanpoko bana-ka batzuk ere: Madril, Leon... Emakume gehienak ehungintzarekin lotutako lanetara etortzen ziren. Neskameak ere bazeuden tartean. Sasoi horretan izan ziren biztanleen behe-rakada eragin zuten faktoreak ere: Ameriketarako emigrazioa (askotan legez kanpo egina), gripe izurritea (1918-19) eta 1936ko gerra.

1940tik 1970era igoera handia izan zen, % 60 ingurukoa. Hala ere, igoera hori gerraostean edo gose garaian (1940-1950) baino gehiago 1950etik 1970era gertatzen da, hau da, industrializazioa eta inmigrazioa direla bide. Etorkinak kasu honetan Euskal Herrikan kanpokoak dira gehienak.

Garraioak eta industria dira Bergarako hazkundean zeresan handia izan zuten bi faktore aipagarri: Trena 1888an iritsi zen Bergarara (*Ferrocarriles Vascongados*, Bilbo-Durango-Zumarraga linea), eta komunikazio-gune garrantzitsu bilakatu zen. 1919an Bergara-Gasteiz linea (*Anglo-Vasco-Navarro*) jarri zuten.

Algodonera, Bergarako lehen ehun-lantegia, 1846. urtean jarri zuten; gehiago sortuko ziren pixkanaka. Lasagabaster, esaterako, 1893. urtean eta Movilla 1897. urtean. XX. mendearen hasieran, berriz, Unión Cerrajer de Mondragón enpresa sortu zen, eta horren ondorioz Labe Garaietako auzo guztia. Burdina eta ehuna, biak ziren industria esanguratsu eta osasuntsuak. Hasieran ehungintzako lantegietan arduratuta zeuden burdinaren industriak konpetentzia egingo zielako; izan ere, ehungintzan soldat-ak dezente txikiagoak ziren, eta lan-

gileak galtzeko beldur ziren. Horregatik, Labe Garaietako lehenengo langileak kanpotik ekarri zituzten.

XX. mendearen hasierarekin batera, mahoiairen kontsumoa handitzen joan zen (I. Mundu Gerrak Europan eragindako krisiak ere izan zuen eraginik horretan), eta 1920ko hamarkadan, oraindik horretan jarduten zuten enpresa berriak sortzen ziren; denak elkarren lehian ibiltzen ziren. Kotoiaren gune bihurtu zen Bergara.

Gerraosteko industrializazioaren ondorioz, eskaria handitu egin zen, eta Espainiako estatu osoan ekoizten ziren laneko arropen % 90 Bergaran ekoiztera iritsi ziren. 1970 inguruan 16 chungintza-enpresa zeuden Bergaran, eta guztira 2.000 langile ziren, emakumeak gehienbat.

Bergara, ehunaren herria

Duela sei edo zazpi mila urte ikasi omen zuen gizakiak ehuna egiten linuzko eta artilezko haria erabiliz. Emakumeen lana izan da batik bat chungintza.

Bergara bere ehun-lantegiengatik izan da ezaguna azken 150 urtean, baina aspaldikoa da tradizioa. 1497koak dira ordenantza ezagun batzuk, *Ordenanzas de los pañeros vergareses del siglo XV* izenez argitaratu zirenak. *Confirmación de unas hordenanças de los fazedores de los paños de Vergara*, dio agiri originalaren hasierak. Ehungileek beren lana nola egin behar zuten arautzen da. Hamar ehungileren izenak, ehundegien jabeak ziurrenik, azaltzen dira, eta denak dira gizonezkoak. Dena den, horrek ez du esan nahi haria ere beraiek egiten zutenik.



❖ *Algodonera ehun-lantegia, mende hasieran.* Bergarako Udal Artxiboko bilduma (E. Biain). Eustaquio Agirreolea

Ehungintza industria handia zegoen, nonbait, Bergaran, XV. mendean. Baina hurrengo mendeetan ez da industria honen aipamenik agertzen. Desagertu egin zen, itxura guztien arabera. Burdinazko produktuak egingo dira batik bat herriko lantegietan; iltzeak, aiztoak eta guraizeak batez ere.

Antzinatetik, etxe askotan egiten zen haria artilez edo linuz, eta ehundegi txikiak nonahi izaten ziren barne kontsumorako. Lehengai bila ere ez ziren urrin joaten, linazia soroan ereinda hartzen baitzen linua, eta ardiak moztuta artilea.

Nolanahi ere, XIX. mendearen erdi aldera arte ez da berpiztuko Bergaran

ehungintza industrialia. Orduan, industria modernoa ezartzeko prozesuan bete-betean sartu zen Bergara. Burdinaren merkatuaren aldeko apustua egin zuen, baita ehungintza sektorearen alde ere. Ehungintzakoa zen Bergaran ezarri zen lehen industrietako bat, Oriako Brunet etxearen ondoren Gipuzkoako bigarren ehundantegia. 1846an Fois, Silva, Blanc y Cía elkarteak sortu zen, laster Algodонера de San Antonio bihurtuko zena. Kotoizko ehunaren joskintza eskala handian egiteko. Fabrika hori izango zen beste ehundantegi askoren mintegia eta herriaren jarduera industrialak markatuko zuena mende eta erdiz.

Bergaran, neskek 1732. urtetik dute oinarrizko ikasketak egiteko aukera. Hori ez da herri denetan gertatu: Bergarako Soledadeko Nesken Eskola moja ikastetxea aurreratua izan zen sasoirako. Han 6 urtetik 16 artera arteko neskak onartzen zituzten, 60 ikasle gehienez ere, eta debaldekoa zen. Eskolaren helburua, garaiko pentsamoldeari jarraituz, kristau eta etxekoandre onak sortzea zen; beraz, kristau ikasbidea-rekin batera, josten eta beste “emakume-zereginak” egiten erakusten zu-

ten, eta baita irakurtzen eta idazten ere; gaztelaniazko gramatika eta ortografia, besteak beste (ikasleek debekatuta zuten eskola barruan euskaraz egitea). Soledadeko eskolan moja frantziskotarrak ziren maistrak. Doña Clara Berroeta izeneko serora zuten buru. Zuzendaria, ordea, gizonetza zen: Manuel Elkorro. Baita eskolako araudia idatzi zuena ere: Aita Larramendi jesuita eta euskaltzale famatua. Soledadeko eskola Mariaren Lagundia moja ikastetxeak ordezkatu zuen, 1799. urtean.



❖ *Mariaren Lagundia moja ikastetxea, mende hasieran.* Bergarako Udal Artxiboa (E. Biain).
Egilea: Eustaquio Agirreolea

1857. urtera arte, baina, hezkuntza ez zen derrigorrezkoa, ez nesken-tzat ez mutilentzat. Moyano Legeak ekarri zuen derrigorrezko hezkuntza, 6 urtetik 9 urte bitarteko umeentzat. 1909ko beste lege batek, berriz, 12 urtera luzatu zuen derrigorrezko hezkuntza. 6tik 12rako tartea hartu zuen, orduan. Esan beharra dago, hala ere, dezente kostatzen zela lege hori betearaztea. Izan ere, haurrak lanean jartzen zituzten, lantegian zein baserrian.

1925. urtean, umeak eskolara bidaltzen ez zituzten gurasoei isunak jartzen hasi ziren. Mariaren Lagundiko moiei ere pasa zieten abixua, ikasleen asistentzia kontrolatzeko. Fabriketan 11-12 urteko neskatokak lanerako hartzen zituztela salatzen zuten moiek: *“Esa costumbre perniciosa, establecida en las fabricas de esta localidad de admitir a niñas de once y doce años en sus talleres con perjuicio evidente de la salud fisica y formacion moral e intelectual de las niñas”*¹.

XX. mendearen hasieran ikasketak ez zieten gaur egungo garrantzirik ematen. Mutilen kasuan, ogibide bat ikasi, eta lehenbailehen lana aurkitzea zen ohikoena. Eta nesken ikasketak oraindik eta garrantzi gutxiago ematen zieten. Josten eta kontuak egiten ikasten bazuten, nahikoa zuten. Guraso askorentzat doktrina jakitea inportanteagoa zen eskola bera baino.

Neskek aukera gutxiago zuten ikasteko mutilek baino. Gainera, herrian bertan ere ez zegoen aukerarik goi mailako ikasketak egiteko. 50eko

hamarkada arte, akademia jarri zuten arte, Batxilerra mojetan interna zedutenek soilik egin zezaketen. Eta karrera ikasteko, berriz, Bergaratik kanpora joan beharra zegoen. Batak zein besteak kostu ekonomiko handia suposatzen zuten. Familia oneko alaben esku zegoen bakarrik.

Mutilek Bergaran karrera ikasteko aukerarik ez zuten, baina lanbide heziketa bai. 1903an Escuela de Artes y Oficios ireki zuten, eta bertako ikasle denak mutilak ziren. 1929. urtean, berriz, Bergarako Udalak Elementala lanbide eskola jarri zuen, ehungintzako lantegien laguntzarekin. Besteak beste Mekanika ikasketak egin zitezkeen han. Emakumeek ez zuten halako aukerarik.

2.1. Ikastetxeak

Neskek eta mutilek ez zituzten ikasketak elkarrekin egiten. Bergarako ume gehienek aparte ikasi zuten: neskek mojetara edo Frontoiko Eskolara joaten ziren. Mutilak, berriz, fraidetak edo eskola publikora. Mariaren Lagundia moja ikastetxean debaldeko eskolak eman zituzten hasieratik. Horregatik, 1908an herriko nesken eskola publikotzat hartu zuten, ofizialki. Izan ere, herrietan eskola publikoak jartzen hasi zirenean, Bergaran horren beharrik ez zegoela ikusi zuten. Pribatua eta erlijiosoa zen arren, moja ikastetxeak hutsunea betetzen zuela. Frontoikoa, berriz, eskola pribatua zen.

¹ Urra Olazabal, Manuela. *La Compañía de María en Bergara/ Bergarako Mariaren Lagundia*. Eusko Jaurlaritza, 1999.

Aipatutako bi ikastetxe horiez gainera, bazen hirugarren aukera bat ere, haur txikientzat: Ospitaleko Eskola. Haurtzaindegi modukoa zen. Aldi batez, II. Errepublikara garaian, ikastola ere egon zen Bergarako Batzokian; ikasketak euskaraz egiteko aukera ematen zuen, gainerako ikastetxeek ez bezala. Bi eskola hauek neska-mutikoentzat ziren, mistoak; elkarrekin zeuden gelan.

Herriguneko eskolez aparte, auzoetan ere hainbat eskola zeuden. Auzo eskola batzuek mistoak ziren, eta beste batzuetan mutilak maisuarekin egoten ziren eta neskak maistrarekin; batzuetan, herrigunetik urruti gertzen zirenetan, ikasleek 14 urte arte ikasten zuten.

Bergarako neskek eskura zituzten ikastetxeak, XX. mendearen lehen erdian:

Ospitaleko mojen haur-eskola	Pribatua	Mistoa (neska-mutilak elkarrekin)	Debaldekoa
Mariaren Lagundia moja ikastetxea	Publikoa	Neskak bakarrik	Debaldekoa (ordainpeko aukerak ere bai)
Frontoiko Eskola	Pribatua	Neskak bakarrik	Ordainduta
Ikastola Batza (1933-1936)	Pribatua	Mistoa (elkarrekin)	Ordainduta
Auzo-eskolak	Gehienak publikoak	Mistoak (elkarrekin zein bereizita: mutilen gela eta neskena)	Gehienak debaldekoak

Ospitaleko Eskola

Bergarako neska-mutiko asko ibili ziren Ospitaleko moja eskolan, Sor Eufemia irakaslearekin (ikus haren biografia *Maistrak* atalean). Urte askoan ume txikientzat soilik izan zen, haur-eskola modukoa. Han ikasi zuten, besteak beste, Asuntxi Uribesalgok, Maria Victoria Arizmendik eta Elisabet

Agirrezabalek, mojetara joan aurretik.

Hori bai, 40ko hamarkadan, ikasketak luzatzeko aukera eman zuten. Lide Oregi hantxe ibili zen; bost urte-ekin hasi 1940. urtean, eta 13-14 urte bete artean: “*Ni eskolara joan nitzan Ospitalera, eta hor ibili nitzan... kurso horretan tokau zan profesora bat ekartzia, eta etorri zan eta hasi zan*



❖ *Ospitaleko Eskolako ume taldea, Sor Eufemia Barrinzo mojarekin, 20ko hamarkadan, Madalena plazako kapera aurrean. Behetik gora, ezkerretik eskuinera, 1. ilaran: Maritxu Berraondo (1.), Anita Ugarteburu ("Lokonekua") (2.), Amalia Beain (5.), Teresa Bilbao (7.), Julitxu Saizar Alberdi (9.), Asunción Ibarzabal (10.), Jasone Marcó Gantxegi (11.). 2. ilaran: Ramonita (Frantxuleten iloba) (2.a), Pilar Zulaika Txintxurreta (3.), Maritxu Alberdi (4.), Isabel Muruamendiaraz (5.), Josefina (Martokokoia) (6.), Yayo (7.), Esperanza Zulaika Txintxurreta (9.), Felipa Mujika (10.). 3. ilaran: Pilar Gallastegi (2.), Mari Tere Etxeberria (4.), Maria Zorita Jauregi (5.), Maria Asunción Basterra (6.), Eusebia Akizu (7.), Elena "Zurra" (8.), Lide Mujika Zubeldia (9.), Miren Osinaga Agirre (10.), Avelina Sarasola (11.). 4. ilaran, zutik: Maxima (1.), Isabel Torre (2.), Pilar (Frantxuleten iloba) (3.), umezurtza (4.), Carmen Ibarzabal (5.), Maria "la mejicana" (6.), Maria "Silveriorena" (7.), Torre (8.), Ignacia Etxaniz Artetxe (9.). Atzean bakarrik: Sor Eufemia maistra. Bergarako Udal Artxiboko bilduma, Fernando Unamuno Zorita*

ya... zeatik lehenau 'parvulitos' baka-
rrik zeuan, eta hori bukatuta erten egi-
tten zeban, baina gure sasoian etorri
zan profesora hori, eta orduan horrek
jarraipen bat emun zoskun, eta han
jarraitu neban ba nik ez dakitt, ha-
mahiru-hamalau urte arte edo". Mais-
tra hori Sor Rosario zen, Sor Eufemia
bezalaxe jatorriz Burgosko probin-
tziakoa. Oregik dioenez, Ospitaleko Es-
kola mutilentzat ere bazen, baina
adin batetik aurrera aparte egoten zi-
ren.

Mariaren Lagundia Ikastetxea: Enseñanza

Sei urtetik aurrera, mutil gehienak Se-
minariora joaten ziren, eta neskak mo-
jetara, Enseñanzara. 4 urtetik 14 urte
bitarteko ikasleak hartzen zituzten.
Hiru motako ikasleak zeuden han: in-
ternak (bertan bizi ziren), pentsio er-
dikoak (zerbait ordaintzen zuten) eta
externak (debaldekoak). Mariaren La-
gundian sorreratik zegoen barnetegia.
Pentsio erdiko aukera, baina, 1899.
urtean sortu zen.



❖ *Mariaren Lagundiko ikasle taldea 20ko hamarkadaren bukaeran. Internak, lorate-
gian. Eserita, ezkerreko lehenengoa, Florita Sañudo Lasagabaster da, Lasagabaster chun-
lantegiko jabeen alaba. Zutik, ezkerretik hasita 4.a, Maria Victoria Oiarzabal Basterri-
ka bergararra da, Don Roman medikuaren alaba. Bergarako Udal Artxiboko bilduma, Ana
Julia Irigoien Oiarzabal*

Externek osatzen zuten ikasle multzo handiena, familia askok ez baitzuten ikasketak ordaintzeko dirurik. Elkarrizketatutako emakumeen artean, asko dira externa ibilitakoak: Asuntxi Uribesalgo, Gloria Agirrebeña, Eulalia Elkoro, Florita Izuskiza, Pilar Murgoitio, Maria Victoria Arizmendi, Lucia Farras, Barrenetxea-Arando ahizpak, Petra Juaristi...

Juana Maiztegi externa ibili zen hasieran, eta 'mediopensionista' gero, Jaunartzea egin ostean. "*Pagatzen zan 'seis pesetas' hillian. Dezente izengo zan*". Hark zioenez, alde nabarmena zegoen bata edo bestea izan. "*Alde haundixa*" zegoen, "*distinziño haundixak egitten zittuen*". Externek ez zuten uniformerik, baina mediapensionistek bai. Urdin iluna; jairako, lepo zuriarekin. Internek ere uniformea zuten, baina diferentea. "*Kategorixa gehixagokua*".

Asuntxi Gallastegi eta bere hiru ahizpak ere mediapensionistak ziren. Ezin zuten internekin hitz egin. Ezta externekin ere; debaldekoak gutxia-gotzat hartzea ohikoa zen. Lucia Farrasen arabera, jolaslekuan ere askoz toki handiagoa zuten ordaintzen zutenek. Pentsio erdiko ikasleen kopurua nahiko handia zen. 1926-27 ikas-turtean, adibidez, 72 interna eta 60 pe-diapensionista zeuden.

Dolores Altunak dioenez, mojek diferentzia handiak egiten zituzten ikasleen artean: ezin izaten ziren elkarrekin egon. Urtean egun bakar batean biltzen ziren ikasle guztiak; lorategira joaten ziren, prozesioan. Kanpotik neska asko joaten ziren, familia aberatsetakoak. Haiek astean behin irteten ziren kalera pasiora, asteazkenetan.

Elisabet Agirrezabal ere mediapensionista zen. Interna asko kanpotarrak zirela dio, madrildarrak eta; haiek bazuten batxilerra ikasteko aukera, baina beraiek ez. Oso bizkorra zela esan zioten bere aitari mojek. Baina ezin zuten interna sartu, oso garestia zelako; bere sasoiari bergarar bakarra zegoen interna: Maria Victoria Oiarzabal eta Florita Sañudo bergararrak ere (ikus 21. orriko argazkia) interna egon ziren. Agirrezabalek ikasgai solteak hartu behar izan zituen, ikasketak osatzeko. Ordainduta jasotzen zituzten aparteko eskolak.

Eskolan ikasten zutena aipatu zuen Juana Maiztegi: "*Historia sagrada, dotrinia... eta aritmetikia. 'Sumar, restar y multiplicar y dividir'. Gero geografía be bai*". Eulalia Elkorok gogoan zuen liburuak mojek uzten zizkietela; *Historia de España*, adibidez. Mapak ere egiten zituzten. Dioenez, internek irakasleak ere diferenteak zituzten.

Ikasketak ez ziren berdinak ikasle guztientzat: internak aparte egoten ziren, eta gainerakoek baino aukera gehiago zuten. Aipatu dugu Batxilerra egin zezaketela, eta Magisteritza zein Merkataritza tituluak ateratzeko bertan prestatzea ere posible zen, nahiz eta gero azterketak kanpoan egin. Gainerakoek "kultura orokorra" ikastearekin konformatu behar zuten. Maribi Arregi oñatiarra interna egon zen Mariaren Lagundian. Hamaika urterekin sartu zen. Merkataritza egiteko prestatu zen han, eta gero Donostian egin zuen azterketa. 1926tik zegoen aukera hori.



❖ *Maribi Arregi, 2011. urtean aho-tsak.com-erako egindako elkarrizketan.*

Hori bai, ikastetxean bertan bazen eskola partikularrak hartzeko aukera, ikasle guztientzat, ordainduta: kontabilitatea, mekanografia, takigrafia... Idazkari moduan lan egiteko prestatzen ziren neska batzuek, eta bulegoetan topatzen zuten lana. Eli-sabet Agirrezabal izan zen horietako bat. Takigrafia eta mekanografia ikasi zituen mojetan, eta bulego batean hasi zen lanean gero, Aretxabaletan, 30eko hamarkadaren bukaeran. Agirrezabalek dienez, frantsesa eta alemana ere aparte ikasten ziren, ikastetxean bertan.

Mojak 1838an hasi ziren eskola partikularrak ematen. Hauek ziren sa-soi batekoak: pianoa, kantua, harpa, mandolina, bandurria, lauda eta gitarra. Hizkuntzak (frantsesa, ingelesa eta euskara), marrazketa, pintura, sukaldaritza, gozogintza eta kortea. Interna zeudenek ere aparte ordaintzen zituzten horrelako klaseak. Bordatzen eta josten ikasle denek ikasten zuten.

Maria Victoria Arizmendik matematikarako erraztasun handia zuen. Zortzi anai-arreba ziren, lau neska eta lau mutil. Baina bere amak denek ikasketei eman zien garrantzia. Maria Victoria “externa” zegoen, eta ezin zuenez Batxilergoa ikasi, amak klase partikularrak hartzera bultzatu zuen: kontabilitatea, mekanografia eta takigrafia. Irakasle onak zeudela dio. “*Horrekin neska asko kolokatzen zien fabriketan*”.

Miren Azkaratek ere kontabilitatea eta mekanografia ikasi zituen mojetan. Berak 13 urte zituenean, 1942. urte inguruan, jarri ei zuten kontabilitatea ikasteko aukera; aurretik ez zegoen. Asuntxi Uribesalgok marrazketa ematen zuen han, partikular; huraxe ikas-tea komeni zitzaion, gero bordatzaile jardun behar zuelako, etxeko tradizioari jarraituz. Maripaz Alustizak Madre Dolores Gaunarekin egin zituen lehen marrazkiak. Moja hura artista zela dio, oso irakasle ona.

Pianoa jotzen ikasteko gogoz gertatu zen Uribesalgo: “*Nik beste piano bat ikasi bihar neban eta!*”. Musika ikasteko aukera ere bazegoen mojetan. Eulalia Elkororen (1921-2012) hitzetan: “*Gero aparte emoten zeбен... musikia nahi zeбенak ikasi, hori be bai. Pianuak eta zeren, nahi zebanak ikasi, horrek ya pagau biha ziñuan aparte. Ta externak bazeren afiziñua zeukena eta ba ikasi zeбенak. Haura aparte pagau biha ziñuan, baiña bazeukazun, e, haura ikasteko opziñua bazeukazun*”. Asuntxi Gallastegik Musika karrera ikasi nahi zuen, baina hori ezin zen; horretarako interna izan beharra zeukan.

Etxean dirurik ez bazen, ez zegoen partikularrik. Petra Juaristik, adibidez, ez zuen aukerarik izan. Mojek esan zieten gurasoei balio zuela ikasteko, baina dirurik ez zen etxean. Lanean hasi behar izan zuen, oso gazterik. Lehengo bizimodua diferentea zela zioen. Bere amak-eta ez zutela irakurtzen ere ikasi.

Hori bai, lanean zebiltzan 14 urte-tik gorako neskei eskolak ematen zizkieten mojek, debalde. 1896an igandetan hasi ziren eskola horiek ematen. 1911tik aurrera iluntzeetan, gau-eskola. Eulalia Elkoro mojetako gaueko eskolara joaten zen 30eko hamarkadan, Otazua ehun-lantegian lanean zebilela. “*Fabrikara joan arren, nahi baldin baziñuan zeeze ikasi, ikasi zeikezun, zeatik oportunitadiak bazeren. Monjetan be, monjetan be ipini zebe gabeko eskolia. Gure moduan eta*

beste askon moduan, behin 14-15 urte ezkerio, edo aurretik, urten eskolatik eta ba fabrikara lanera. Eta gero ipini zebe, gabian nahi zebanak joan, oportunitadiala joateko”. Maistra ona jarri zietela dio: “*Monja ona, ez erozein, ipini zoskuen. Matematikak, eta gramatikia. Dana, nahi ziñuan dana. Eta orduan askoz hobeto aprobetxatzen ziñuan gaztiago edo txiki-xagua ziñanian baiño. Hori dudaik pe ez, e. Nahi zebanak ikasi... hoiixe, sakrifikau egin biha ziñala pixkat. Lana egin da gero hara joatia... eta orduan ez zeuan ‘fin de semana’ eta histori-xaik. Orduan zapatuan be lana egitten zan. Goiz eta atsalde*”.

Moja askok jardun zuten irakasle. Mariaren Lagundiko mojak klausurakoak ziren. 1930eko erroldan ikus daitekeenez, sasoi hartan 66 moja zeuden Mariaren Lagundian. Burua Ama-



❖ *Mariaren Lagundia ikastetxearen aurreko aldea, mende hasieran.* Bergarako Udal Artxiboa. B.K.E. fondoa. Egilea: Eustaquio Agirreolea

lia Aizpiri zen (Markina, 1864). Moja gehienak Euskal Herrikoak ziren (gehienez gipuzkoarrak, 19 herritakoak, baina arabarrak, bizkaitarrak eta nafarrak ere bazeuden). Hiru moja frantsesak ziren, bat ingelesa, beste bat irlandarra, eta gainerakoak Madril, Valentzia, Guadalajara, Burgos, Santander eta Zamorakoak. Lau moja bergarar zeuden: Inmaculada Gaytan de Ayala (1881ean jaioa), Paz Atxa Rotea (1888), Carmen Irigoien (1888) eta Juana Unamuno (1896). Urte hartan, 54 ikasle zeuden interna. Leku askotakoak. Kanpotik etorriak: Santander, Zamora, Leon eta Burgos. Bizkaitarrak: Gernika, Portugalete, Bilbo, Lekeitio, Sestao... Nafarrak: Iruñea, Lekunberri... Gipuzkoarrak: Eibar, Deba, Pasaia, Zestoa, Beasain, Donostia, Tolosa, Oiartzun eta Zumarraga. Bergararik ez.

Pilar Murgotiok Madre Concesión zuen gogoan. Barrenetxea-Arando ahizpek Madre Maria Concepción, Madre Anunciación eta Madre Consuelo aipatu zituzten. Txikienekin Madre Dolores egoten ei zen. Gerra aurretxean ibili ziren mojetan. II. Errepublikara garaian. Eskola erdaraz zen arren, moja batek doktrina euskaraz ematen ziela kontatzen zuen Erritxe Barrenetxea-Arandok. Madre Maria Gloriak. “*Sukarrietakua zan, eta etortzen zan euskerazko dotriña emotera. Eta gero ‘Xabiertxo’ ta irakurtzen ta... ‘Lutelestia’ be bai Madre Maria Lurdesek ta... Euskeraz irakurtzen, akordatzen naiz urte pare batian edo izen-go zan*”. 1934. urtean, udalak diru laguntza eman zuen, euskaraz erakusteagatik. Muxikako Juana Ajuria-Ausokoak laguntza eskatu zuen, eta hala hasi ziren euskarazko eskolak

ematen. Madre Soledad zen beste moja euskaldunetako bat; hark doktrina erakusten zuen.

Eulalia Elkorok gogoan zuen II. Errepublikara garaian mojek abitua kendu behar izan zutela. 1935. urtean gertatu zen hori. 1931tik heziketa laikoaren aldeko hainbat pauso eman zituen gobernuak. “*Ni sartu nitzanian, gerra aurretxean, guregana etortzeko abitua kendu egin zotsen. Gero ba inpresio haundia egin zoskun geuri be bai, bakizu. Baiña gero ohitu zien. Baiña gureana etortzeko bakarrik jantzen zien hola, e? Bestela, barruan normal jantzita. Mediapensionistei ta honei, monja jantzita emoten zotsen. Baina gu publiku giñen ta. ‘Escuela’ publikua zan guria*”. Aipatu dugu lehenago ere: Bergaran mojen eskolak betetzen zuen neskendako eskola publikoren funtzioa.

Gero, baina, euskararen kontrako jarrera nagusitu zen ikastetxean, urte askoan. Florita Izuskiza gerraostean ibili zen han. Dena erdaraz ematen zuten mojek. Gainera, *Cara al Sol* kantatu behar zuten, Espaloian. Beraiek ez ziren joaten, eta gero errieta egiten zieten. “*Kastigau egitten zoskuen*”. Urte pare bat han egin eta gero frontoira joan zen eskolara, mojetan ez zebilelako gustura.

II. Errepublikara aurretik ere, mojek dena erdaraz erakusten zutela zioen Juana Maiztegik. Primo de Riveraren diktadura garaian. “*Erdaraz egin bihar zan han. Han euskeria askok nik uste dot ahaztu egin zebala. Aurretik uste dot euskerazko dotriña emoten zebela, e?*”. Berak erdaraz ikasi zuen doktrina ere. Hori bai, ez zituzten euskaraz hitz egiteagatik zigortzen. Eli-

sabet Agirrezabalek dio sasoi hartan ere euskarazko izenak zeuzkatenei aldatu egiten zizkietela. Berari Isabel deitzen zioten. Pilar Murgoitoren garaian -1905ean jaioa zen- ere erdaraz ziren eskolak. “*Baina bazeuan madren bat edo beste euskeraz zekixena, eta harekin juntatzen giñanian euskeraz*”. Zigorrik ez zuen ezagutu. “*Gero-txuau izan zien horrek*”.

1956. urtean, pentsio erdiko ikasleak eta externak gela bakarrean batu zituzten. Lehenengo maistra sekularrak 1963an hasi ziren.

Frontoiko Eskola

Mutilek Seminarioa fraide ikastetxeaz gainera, eskola publikora joateko aukera zuten, San Pedro plazan. Mojekin ikasten ez zuten neskontzat, berriaz, Frontoiko Eskola zegoen, Kontxita Maiztegi maistrarena (ikus biografia *Maistrak* atalean). Eskola pribatua zen, eta txikia. Bera zen maistra bakarra. Irakasle onaren fama zuen Maiztegi, eta ez zitzaion ikaslerik falta izaten. Aldiko 80ren bat neskatila izaten zituen.



❖ Frontoiko Eskolako umeak, 1936 urte inguruan, txangoa egin zutenean. Ezkerretik eskubira, lurrean eserita: Garbiñe Oregi (belauniko), Rosita Maiztegi, Hipolita Gallas-tegi, ezezaguna, Marta Urriategi, Julia Pildain, Maria Dolores Peña, Kontxi Garitano, Kontxita Narbaiza, Teresa Urriategi, Ines Arregi, Emilia Moreno eta Zezilia Igarza. Erdian aulkian eserita: Pilare Mujika, ezezaguna, ezezaguna, Kontxita Maiztegi maistra, Mari Karmen Lazkano, Paulita Zangitu eta Karmen Lazkano. Zutik: Karmen Pildain, Karmen Iatza, ezezaguna, Benita Garitano, Arantza Oregi, Aurora Telleriarte, Begoña Zubizarreta, Iruñe Azkargorta, ezezaguna, Mari Kruz Urzelai, Maria Pilar Urzelai, Ramonita Agirre, Agustina Larias, Terese Mujika, Presen Lonbide, Irene Larrañaga eta Maria Arrieta. Bergarako Udal Artxiboa. Kultura departamentuko bilduma.



❖ *Juanita Sañudo maistra bere ikasleekin, 1922. urtean.* Bergarako Udal Artxiboko bilduma, Jesusa Igarzabal

Begoña Zubizarreta Maiztegiren eskolan ibili zen, 20ko hamarkadan hasita. Florita Izuskiza ere bai, hamarkada bat geroago. Gela bakarra zela dio Izuskizak, eta neskak bakarrik zeudela. Mutilak Seminariora joaten ziren. 14 urte arte ibili zen han. En-señanza bezalaxe, Maiztegi irakasle-arekin ere dena erdaraz egiten zuten, gerraostean. Euskaraz hitz egiten ia ia ahaztu egin zitzaion Izuskizari.

Luz Telleriarte eta bere bi ahizpak (Aurora eta Sol) ere eskola horretan ibili ziren. Familia errepublikanoak ziren, eta ez zuten alabentzat heziketa erlijiosorik nahi. Telleriarteren arabera, adin askotakoak batera egoten ziren, taldeka antolatuta. Ikasle txikiek 3-4 urte zituzten eta nagusienek 15 urte inguru.

Mariasun Plazaola sei urterekin hasi zen. Hark dioenez, “*hiru mailla edo bazeren*” gela bakarrean. Frantsesa ikasteko aukera ere bazela dio:

“*Gogoratzen naizela, berak frantses be bazekixen, Frantzian egondakua zan. Eta hasi zan ba puxkat frantsesa emuten guri. Eta nik uste dot guk pentsatzen giñuala oso nekeza zala, eta laga egin giñuan, pentsaizu. Bera prest zeuan guri frantsesa emoteko, eta gu oinddio umiak, eta ez giñuan baloratzen hori. Eta laga egin bihar giñuala. Halaxe, gehixao barik laga giñuan*”. Maria Dolores Peñari bere etxera joanda erakusten zion frantse-sa, udan.

Kontxita Maiztegi omenaldia egin zioten, 1969. urtean. Eskola itxi zuen, eta 1971. urtean Maiztegik ikastolako ei utzi zien bere titulua.

Mariñe Barrenetxea-Arandok zioenez, Kontxita Maiztegiren aurretik beste maistra bat egon zen Frontoiko Eskolan: Juanita Sañudo. 20ko hamarkadaren hasieran huraxe zegoen artean: “*Sañudoneko maestria. Ba haretzek euki zeban eskolia. Joaten*

zien lau urtekuak eta hamalaukuak, danak tropan. Eta hantxe puskatien ibili nintzan; gero, sei urtekin harutz (Enseñanزارuntz). Hutsa denbora egin zeban harek, urte bi edo hiru egingo zittuan han. Gero jarri zan maistra bat, oso maestra ona (Kontxita Maiztegi). Oso ondo erakusten zeban. Jubilaziñua hartu arte segidu zeban. Baina gu beti monjetara. Frontoikua pagau egin biha zan!”

Gerra aurreko ikastola

II. Errepublikara garaian, Maria Oianguren Txantxote'ren ikastola ere izan zen. Aranzadi Ikastola 1971ko ekainean sortu zen, baina bere hazia 1933an erein zuen Oianguren irakasleak, Bergarako Batzokiko abertzaleen laguntzarekin (Agustin Lina-

zisoro eta Telesforo Monzon bereziki). Ariznoako Euzko-ikastolak urtarrilaren 8an ireki zituen ateak, geroago Mozos farmazia egon zen tokian, San Pedro kalean. Han neska-mutilek elkarrekin ikasten zuten, euskaraz. Euzko Ikastola Batzako ikastoletako bat zen, Gipuzkoako lehenengoa; gehienak Bizkaian zabaldu zituzten.

Ikastola irekitzean 5 eta 14 urte bitarteko 40 neska-mutiko hasi ziren, eta hurrengo urteetan 62 izatera heldu ziren. Maria Oianguren zen irakasle bakarra, baina Madalen ahizpak arratsaldetan laguntza txiki bat ematen zion, haurrei eskulanak irakatsiz. Ikastolan neska-mutikoak zebiltzan, Batzokikoak eta bestelakoak. Irakurtzen eta idazten ikasten zuten. Euskal liburu dezente erabiltzen zituzten: *Xabiartxo*, *Martin Txilibitu*, *Loretegia*,



❖ Bergarako Euzko Ikastola Batzako umeak, Ariznoa ikastolakoak, 1936 urte inguruan. Iñaki Mujika dago umeen artean. Iñaki Mujika



❖ *Ariznoa Ikastola Batzako andereñoak, umeak eta guraso batzuk Gernikako arbola bisitatzen, 1933 urte aldera. Behetik gora eta ezker-eskuin: 1. ilaran, Itziar Aranzabal, Mirentxu Lizarralde, Patxiko Ubillos, Joxe Hernando, Iñaki Arrieta, Josu Murgizu, Jabier Lazpiur, Xabier Linazisoro, German Ibarra eta Felix Lizarralde. 2. ilaran: Aintzane Marco, Arantxa Arana, Joseba Sotil, Patxiko Azkargorta, Jon Arrieta, Anbortsi Goenaga, Esteban Zabaleta, Tomas Iturbe, Agustin Linazisoro, Felix Narbaiza eta Jose Maria Unamuno. 3. ilaran: Inazio Iturbe, Maria Luisa Narbaiza, Lierni Gallastegi, Matxalen Oianguren (Mariaren ahizpa eta laguntzailea), Julia Beistegi, Maria Oianguren (andereñoa), Jasone Marco, Elisabeth Arana, Miren Linazisoro, Asuntxi Zorita, Rosarito Billar, Paulita Beitia eta Josu Azkarate. 4. ilaran, guraso juntakoak: Bittori Aranburu (EABkoa), Txomin Marco, Agustin Linazisoro eta Anita Txintxurreta (EABkoa). 5. ilaran: Andoni Lazpiur, Joseba Laborda, Jesus Berroia, Migel Oianguren eta Xabier Mujika. Bergarako Udal Artxiboko bilduma, Juste Amenabar*

Lutelestia... Jabier Linazisoro zen ikasleetako bat: “Liburuak? Ba ‘Xabiertxo’, bat. Gero haren moduan ba gauza asko. Kantuan be asko egitten giñuan. Horrek lehengo kantu zaharrak eta, bueno! Mordua dakitt nik. Eta gero irakurri, idatzi... Nik han ikasittakuak dauzkat danak”. Gogoan du behin Gernikara joan zirela txangoan, ikastolatik, eta argazkia atera zutela.

Eduarne Laborda mojetan hasi zen ikasten, baina 11 urte zituela ireki zuten Goiko Plazako ikastola, eta han hasi zen. Erdaraz ikasi zuen mojekin, eta ikastolan euskaraz. Osaba apaiza oso euskalduna zen, eta hark esanda hasi zen ikastolan. “Ta gero geratu nitzan ez euskeraz ta ez erderaz. Kakanahastu, ta ezebez”.

Eskola orduraz kanpo ere joaten ziren batzuek Txantxoterengana, euskaraz alfabetatzera. Elisabet Agirrezabal, adibidez. 14-15 urterekin, arratsaldetan joaten zen lagun taldetxo bat, mojetatik irtenda. Ordu libreetan. Dena euskaraz ematen zuen bakarra zela dio eta debaldekoa zela, euskara ondo ikasteko.

Ikastola hark ez zuen luzaro iraun. Hiru urte. 1936an, Bergara frankisten eskutan erori zenean, ikastola okupatu zuten. Bertako ikasmaterial guztia erre egin zuten. Gerra hasi zenean, Oianguren Beljikara joan zen, ume talde baten kargu (ikus bere biografia *Maistrak* atalean).

Gerraosteko ikastolaren sorrera

Herrian ikastola sortzeko mugimendua hasi zenean, 60ko hamarkadan, bi talde nor bere aldetik hasi ziren antolatzen. Batetik, Lide Mujikaren eta Maria Victoria Arizmendiren akademian (ikus *Eskolaz kanpoko ikasketak* ata-



❖ *Dominika Madinabeitia andereñoa, umeekin.*

la) ikastola jartzeko ideia sortu zen. Josu Oregi zen bultzatzaileetako bat, eta Jose Alberto Amilibiak eman zion lege babesa. Hasieran, haur-eskola jarri zuten: Santa Infancia zuen izena. Dominika Madinabeitia eskoriatzarra izan zen lehenengo andereñoa han; bederatzi umerekin hasi zen. Elvira Zipitriarekin praktikak egina, Madinabeitia tituluduna zen. Ondoren, Lehen Hezkuntza jarri zutenean, Lide Mujikak eta Maria Victoria Arizmendik ere ematen zituzten eskolak. Ordura arte ikasleekin berbazko harremana bai, baina eskolak gaztelaniaz ematen zituzten.

Geroago, beste talde batek ere ikastola jarri zuen, haur txikientzat, Komenio kalean: Koldo Eleizalde ikastola. Don Serafin apaiza eta Linazisorotarrak ziren, besteak beste, bultzatzaileak. Pilare Mujika, Izaskun Gimenoa eta Lupe Olabarria izan ziren han lehenengo andereñoak, guztiak titulu bakoak artean.

Denborarekin, bi taldeak batu egin ziren. Eulalia Elkororen arabera, “*zeuan euskeria emoteko gertautu bastante jente, baina titulo barik. Eta danak batu ziren, eta oso lan ona egin zeber*”. Kontxita Maiztegiren eskola ere batu zitzairen. Eta 1971. urtean Aranzadi ikastola sortu zen, Seminarioan.

Hasieran oso material gutxi zegoen euskaraz. *Xabierto*, eta ia beste ezer ez. Ikastolako hasierako lan baldintzak aipatu ditu Arizmendik. Gabonetan paga bikoitza beharrean, paga erdia izaten zuten, opor garaia haur askori ez zietelako kobratzen. Soldata txikia zuten ikastolan eta Gizarzte Segurantzaz ere gutxi kotizatuta. Lide Mujikaren hitzetan: “*Hasieran ez*

*genuen kobratu ere egiten. Gurasoei ahalik eta gutxien kobratzen genien. Haur asko genituenez, guztiek jarritakoarekin nola hala aurrera egitea lortzen genuen*². Bi ikastolak elkartu zirenean, Maria Victoria hamabost egunez egon zen Hondarribian, matematikako euskal terminologia ikasten.

Haur-eskolako zortzi gelarekin eta OHOk beste 16 gelarekin zabaldu zuten Aranzadi ikastola. Eskolaurreko andereñoak Maria Asun Lete, Maria Pilare Mujika, Lupe Olabarria, Amaia Azkargorta, Izaskun Jimeno eta Edurne Arzelus ziren orduan. Eta OHOk lehen sei kurtsoetan, Mari Karmen Amasorrain, Maria Flora Fernandez de Retana, Pili Fernandez, Kontxita Maiztegi, Lide Mujika, Maria Victoria Arizmendi eta Jose Amilibia aritzen ziren klaseak ematen. Baita Aita Zamora eta Aita Madinabeitia dominikoak ere.

Auzoetako eskolak

San Antonio auzoko ume gehienak Labe Garaietako eskolan zebiltzan, Maria Pilar Larrañagaren arabera. Zerrajerako langileen seme-alabak zirenak bai behintzat. Labe Garaietako eskola 1913an ireki zuten. Udaletik diru laguntza jasotzen zuen (hasieran, 300 pezeta urtean). 1938an ume txikiendako aurre-eskola eraikitzeko baimena lortu zuten.

Labe Garaietan eskola eta eliza zeuden; ekonomatoa gerora etorri zen. “*Altos Hornosen mistua zan eskolia. Neskak eta mutillak ibiltzen zien*”, Larrañagaren esanetan. Gerra aurrean,



❖ *Koldo Eleizalde ikastolako umeak Maria Pilare Mujika andereñoarekin, 1970. urtean.* Bergarako Udal Artxiboa. Miguel Angel Elkoroberezibar fondoa. Egilea: Serafin Esnaola

maistra Doña Julia zen. Julita Ramos (Zumarraga, 1875). Harekin neska bat egoten zen: Enkarna Gonzalez; monja joan zen gero. Umeekin laguntzen zion eskolan; hari Enkarna bakarrik esaten zioten, Doña gabe. Gerra aurrean, Florita Idarreta maistra ere ibili zen. Ramosek urte asko egin zituen maistra moduan, eta 40ko hamarkadan hartu zuen erretiroa. Haren ordeztu Angelita Lizarralde hasi zen; Antzuolakoa zen, Uzarraga auzokoa. Gerora besteak beste Maria Luisa Orue eta Marisol Peña ere ibili ziren Labe Garaietan.

Labe Garaietako eskola pribatua zen. Auzoetan denetik zegoen: auzo eskola batzuek publikoak ziren, Udalarenak edo Estatuarenak, eta Udalak diruz lagundutakoak zeuden bestetik. Baziren beraien kontura eskola partikularrak ematen zituzten maistrak ere. Ume taldetxoak euren kargu hartzen zituzten, oinarritzkoa erakusteko.

² Lide Mujikari *Eskarrik asko, andereño!* webgunerako egin zioten elkarrizketatik hartua.



❖ Julita Ramos Labe Garaietako eskolako maistra umeekin 1927an. Ezkerretik eskuinera: goian, 4. ilaran, Encarna Gonzalez (andereñoaren laguntzailea), Margari Beitia, Cristina Beitia, Nati Alberdi, Angelita Arrieta, Miren Azkargorta, Timoti Elorza, Luisa Inciar-te, Teresa Luarizaristi, Julia Ramos (maistra). 3. ilaran: Carmen Narbaiza, Dolores Luarizaristi, Maria Teresa Kortabarria, Angelita Lazkano, Clarita Agirre, Luisita Azkarate, Blanquita Jauregi. 2. ilaran: Eulogi "Palomero", Elisabet Baquedano, Maria Goikoetxea, Juli Beistegi, Felisa Kortabarria, Kontxita Castañares, Cristina Arietaleaniz, Felisa Garitano, Maria Luisa Pardina, Carmen Goikoetxea. 1. ilaran: Anita Zeziaga, Carmen Etxeberria, Maritxu Iriarte Elkoro, Manolita "Palomero", Aurea Aizkorrialde, Maria Beitia, Casimira Luarizaristi, Elisa Alberdi, ezezaguna. Bergarako Udal Artxiboa, Jose Antonio Etxeberria Luarizaristi

Zubietan, bi maistra zeudela zioen Erritxe Barrenetxea-Arandok. Umetan bera Gerbaxirekin ibili zen, 20ko hamarkadaren amaieran, "Zubitta barrerian. Gero Amillan (Amillaga) be bai, berriz. Bakaziñotan, Amillan. Gerbaxi hamen be, bai... Gero beste maestra bat be bazeuala esaten dabe: Xixili". Natalio Juaristik Lutxi eta Julitta maistrak ezagutu zituen Zubietan.

"Zubittan bi eskola zeren: Lutxi maestria eta Julitta maestria. Eta hori ize ten zan ba: dotrinia ta, katoia leitzen ta... eskribitzen ta... zeoze bai, baina gauza gutxi. Gero ba herriko eskolara, zazpi urtekin. Hauraxe zan inportantia, eta bestiak ba partikularrak, mais-trak eta". Aurretik, Juaristiren amamak eskola ematen zuen Zubieta kalean. "Gure amamak eskolia euki zeban, geu



❖ *Julia Ramos maistrari 1945. urtean egin zioten omenaldiko irudia. 1. ilaran (goitik hasita): Milagros Arozena (1.goa), Jesusa Agirrezabal (2.a), Sole Larrañaga (3.a), Elisabete Argarate (4.a), Jesusa (Balentokoa) (5.a), Eugenia Alberdi (6.a), Josefa Aranzabal "Monte" (7.a), Maria Lizarralde (8.a), Juli Garitano (9.a), Telesfora Agirrezabal (10.a), Natalia Urkiola Laspiur (12.a), Benita Baquedano (13.a), Rosario Ormazabal (15.a), Maria Murua Idigoras (16.a), Asunción Arostegi (17.a), Ester Arrondo (18.a), Garbiñe Irizar Beiztegi (19.a), Maritxu Aizkorrialde (20.a), Angelita Arriaran (21.a), Margari Beitia Bikuña (22.a). 2. ilaran: Mertxe Urbina (1.goa), Mari Carmen Iturbe (2.a), Antonia Madariaga (3.a), Rosario Alzelai Irazola (4.a), Julia Ramos ("Doña Julia" maistra) (5.a), Elena Luarizaristi (6.a), Maritxu Azkarate (7.a), Maritxu Iriarte Elkoro (8.a). 3. ilaran: Maritxu Martinez (1.), Luisita Azkorrialde (2.a), Margarita Urbina (3.a), Leonor Barrutia (4.a), Celestina Urkiola (5.a), Elena Lizarralde (6.a), Edurne Iza Garmendia (7.a). 4. ilaran: Arantxa Goikoetxea Agirreolea (1.goa), Jesusita Zubia (2.a), Maria Luisa Arregi (3.a). Bergarako Udal Artxiboa. Jesus Urkiola fondoa.*

bizi giñan etxian behian: Joxepa, Zuurtikua zan”.

San Lorentzo auzoko eskola ume txikiendako bakarrik zen. Lorentzo Laskurainek dioenez, Manuela maistrak euskaraz hitz egiten zien umeei, 30eko hamarkadaren hasieran. “*Hor hasi bi urtetik eta zazpi arte edo. Etxian ez eukitzeko umiak, ba hantxe.*

Ta kantuan, aittaguria erreza... holaxe. Eta gero haundixauak-eta ba kuadernuakin letrak egin puxkat... Beran ondora jun kuadernuakin eta ikasi, eta bittartian juerga danak. Parte haretan haundixak, eta hemen txikixak eta harutzauan neskak eta dana hola, bai”. Hori bai, San Lorentzon beste maistra bat ere izan zen:



❖ *Baldomera Ugalde maistra umeekin, Zapatarikua tabernaren parean, 1915 urte inguruan. Eskola Zapatarikua baino beherago zegoen. Goiko ilaran lehenengoa, ezkerretik hasita, Maria Andresa Bikuña Markuleta da. Udal Artxiboko bilduma, Juan Cruz Azcarate Arizabaleta*

Baldomera Ugalde. 1915 urte inguruko bere argazki bat dago Bergarako Artxiboan, umeekin ageri dena, eta 1930. urtean maistra zen artean.

Baserritarren ikasketak

Baserri inguruetan ere baziren auzo eskolak. Elosukoa, Basalgokoa, San Prudentziokoa, Uberakoa, Angiozarkoa... Askok zeuden. Haietan hamalau bat urtera arte ikasteko aukera izaten zen normalean, eta batzuetan neska-mutilak elkarrekin egoten ziren gelan (Angiozarren, Osintxun eta Uberan ez). Baina baserrian lan asko izaten zen, eta ohikoa zen eskolara gutxi joatea. Ikasketei kaletarrek baino garrantzia gutxiago ematen zieten normalean. Izan ere, baserriko lanetan jarduteko ez zegoen matematika beharrik.

Lide Oregiren ama, esaterako, baserritarra zen. “Berak esaten dau eskolara neguan joaten zala gehixenbat, zegaittik gero ez zebala eukitzen astirik. Baiña egon zan kurso baten Vitorixan interna zerian: Sagrado Corazon. Colegio del Sagrado Corazon. Baina klaro, etxian falta zala eta ba hurrengo ezin jua, eta berak ba pena hoixe eukan”.

Luis Aranzabalen hitzetan, 30eko hamarkadan Uberako auzoko eskolan neskak eta mutilak banatuta egoten ziren. Maisua eta maistra zituzten. Bergarako Artxiboko datuen arabera, 1929an Maria Carmen Goikoetxea bihurtu zen Uberako maistra, Rafaela San Martin Alfaro ordezkatuta; baina han ikasturte bat besterik ez zuen egin: ondotik Juana Larraza Uribe maistrak hartu zuen bere lekua. 1931tik aurrera Juana Palmira Alvarez izan zen

Uberako maistra, 1955. urtera arte. 1960an Maria Ugalde Altolagirre zen Uberako maistra; umea izan zuen, eta apaiz batek ordezkatu zuen denbora batez (Balbino Aierbek).

Angiozarkoa eta Uberakoa eskola nazionalak ziren. Baita Osintxukoa eta Elosukoa ere. Ixabel Belar zazpi-zortzi urterekin hasi zen eskolan, Angiozarren, 20ko hamarkadaren hasieran. Eta 14 urte arte; Katalina zen bere maistra, Uberakoa. Neskak eta mutilak aparte egoten ziren han ere. Bergarako artxiboko datuen arabera, Angiozarko nesken eskolan 1928. urtera arte Maria Catalina Gaztelu Lamariano izan zen maistra. Maria del Carmen Goikoetxea Gorostarzu jarri

zuten urte hartan. Ez zuen denbora asko egin, 1929an maistra moduan Dolores Gorriti Munarriz ipini zuten eta. Gorriti 1944. urtera arte egon zen, eta ondoren Aurea Arregi Goñik hartu zuen postua (Arregiren senarra ere maisua zen: Jose Garcia). 1952an Maria Cruz Amezaga Gonzalez zen Angiozarko maistra eta 1956an Mercedes Bereziartua Usabiaga.

Gerraostean, 1938an, Maria Teresa Zuzuarregi Lopetegi egin zen Angiozargo eskolako mutikoen kargu (Jose Garciaren ordezkari). Ikasturte bakarra egin zuen han, ondoren beste maisu bat jarri baitzuten mutikoei eskolak ematen. Angiozarren gau-eskola ere egon zen.



❖ *Palmira Alvarez maistra, Uberako eskolako umeekin 1942. urtean. Goitik hasita eta ezker-eskubi joanda: 4. ilaran, Maria Elorza, Felisa Aranzabal, Begoña Agirregomezkorta Otxoa (Okandikua), Francisca Lamarain, Begoña Aranzeta, Martina Arbulu eta Francisca Basauri. 3. ilaran: Teresa Loiti, Isabel Aranburu, Cristina Olañeta, Felisa Gallastegi, Andresa Loiti eta Anastasi Basauri. 2. ilaran: Jesusa Laskurain, Edurne Arbulu, Maria Luisa Markiegi eta Serapia Aranzabal. 1. ilaran: Bittori Aranburu Urkiola, Martina Olañeta, Josefa Loiti, Palmira Alvarez (maistra), Maria Paz Urien eta Rosario Zezeaga.*

Bergarako Udal Artxiboa, Kultura departamentuko bilduma

Rosario Aranzabalek kontuak egiten ikasi zuen, justu-justu, Angiozarko eskolan. “*Hamaika urte baiño lehenao fan nintzan auzo batera kriada*”. Egoerak antzera jarraitu zuen urte askoan: 40ko hamarkadaren erdialdean Angiozarko Nati Arrieta txerria zaintzen egoten zen, komeni ez zena jan ez zezan. “*Bittartian guk ikasten genduan dotriña; txarrixa zaintzen dotriña ikasten genduan*”. Doktrinari eskolari baino garrantzia handiagoa ematen zioten etxean. “*Ni akordatzen naiz zela maistra batek, fan ta amari esan zotzan: ni Bergarara edo... ikasketak segitzeko ta... Bueno, bueno, gure amak buruari obatu. Ez zeuan beste ogibiderik, aittaren zera baiño, ta pentsatzen hori ezin leikela. Igual esaten dozu: ‘Ene ba, hortik o hemendik o bekiea edo bestia’... Ba ez. Ez euen, eta hortxe geratu giñan, bizi-moduak erakutsi dosku dakiguna. Holan da*”. 13 bat urtera arte ikasi zuen, eta gero neskame bidali zuten Arrasatera.

Basalgoko Goimendi auzoan, gerra aurretik Lezeta baserrian maistra bat egon zen, eta Tomas Osorok harekin ikasi zuten zertxobait 30eko hamarkadaren hasieran: Dominga Elkoro, Lezetako alaba. Euskaraz eginez gero, zigorra izaten zuten. “*Ume-umetan hemen Lezetan egoten zan eskola moduko bat gerra aurrian. Basarrixan, sukaldian. Ta denpora ona euanian, han kanpuan euan holako karraju moduko bat edo, aterpe bat, ta hantxe. Juntauko giñan geu hiru ta beste kuak, Olakortakuak... zortzi... hamabi-hamalau bat edo*”. Gero maistra hori Durangora ezkondu zen, eta taberna izan zuen.

San Blas auzoan, Nati Gabilondok pilotaleku ondoko eskolan eta San Juan ermitakoan ikasi zuen zazpi urtetik hamabira arte. Osintxuko Laudatz baserriko Anizeta Agirrek aita eskolazalea zuen, baina hala ere ez zen asko joaten: “*Zenbat egingo nittuan nik, hiru bat urte? Eta kriara neuala atsaldetan bakarrik. Asko ezin ba egin*”. Bestela ere baserrian beti bazen lanen bat umeentzat. “*Ba zenbat lan egoten zan orduan, ardi-zaintzia ta ganau-zaintzia, ittulia... bueno...!*”.

Maritxu Garitano San Kristobalen ibili zen eskolan 30eko hamarkadan, “*eta maistria zonan Tomasa; edadetua zonan, ama-alabak bizi zittunan*”. Tomasa Laskurain Irizar zen; Antzuolan jaioa, 1870. urtean. 1916an joan zen Bergarara bizitzera.

Carmen Garitanoandia San Prudentzion hasi zen eskolan. Baina lapitzik erosteko dirurik ere ez zuen. “*Neri eskolia gustau egitten jaten. Sekula lapitz bat biha bageben, ez geben eukitten! Hori da mixerabliak izatia be bai, e? 1,50 zan lapitza eta kuader-nua*”. Ikasle ona zen bera, gehiago ikasi nahian beti, baina etxean ez zieten ikasketei garrantzirik ematen. “*Ni eskolan ibili banitza, gaur izango nitzan beste gauza bat. Sarritan ittaurre etxian, hurrengo ezin zan fan... giro txarra baeuen ez giñan faten... eta kontau zenbat egun izango ziran!*”. Maistra euskalduna zuten: Basilisa Navarro, Urretxukoa, baina eskolak erdaraz jaso behar izaten zituzten. “*Euskeraz baekixen, baina ez eben gura izaten egittia*”. Basilisa Navarro Ibar-gurenek 40 urte egin zituen San Prudentzion, irakasle lanetan (1927-1967).

Mekolalden 1951. urtean jarri zuten auzo-eskola, Parisgain etxeko bajaran; Matea Monje izan zen maistra, Extremadurakoa. 1954. urtean Magdalena Vera Atienza zen Elosuko eskolako maistra nazionala, eta 1956an Maria Pilar Lonarbide Guridi zen Osintxuko eskolako maistra. Urte horretan, San Juan auzoko eskolan Maria Astigarraga Mendizabal zegoen.

Eskolaz kanpoko ikasketak

Neska-mutil batzuek eskolaz kanpoko ikasketak ere egiten zituzten. Eskolan nahikoa ikasteko aukerarik izan ez zutenek, esate baterako. Pilar Murgoitiok (1905-2006) gaueko eskola aipatzen zuen: “Gero gabeko esko-

lia izaten zan, eta hara be bialdu giñuzen. Guretako kolejixua bezelaxe izan zan ha. Anaia eta ni haraxe, gaban: zazpiretatik zortzi tta erdietara. Ordurako asko zan”. Goenkalean zegoen. “*Neska eta mutil batera, eta maestruak aitta eta semia zien. Eta hantxe ikasi giñuazen gero prinzipalok*”. Gurasoek ez zuten eskolarik; haiek ere gaueko eskolara joandakoak ei ziren.

XX. mendea aurrera joan ahala, partikularrera joateko ohitura zabalduz joan zen. Gehiago ikasteko joaten ziren, oinarritzko ikasketak egin ostean lanerako prestatzeko. 40ko hamarkadaren bukaeran Mariasun Plazaolak kontabilitatea ikasi zuen, hiru urtez: “*Gero ya puxkat nagusi egindakuan, lana egin bihar zan, eta jun*



❖ *Emakume taldea, 1944an. Ezkerretik eskuinera, 1. ilaran (lurrean eserita): Justina Arregi Laspiur eta Miren Linazisoro. 2. ilaran: Manolita Saizar (2.a), Maria Asun Ena (3.a), Carmen Lazkano (4.a). 3. ilaran: Juanita Laskurain (3.a), Maritxu Arregi, (4.a), Iñarra (5.a), Imelda Iturbe Urzelai (6.a), Maria Luisa Berraondo (7.a). 4. ilaran: Fidela Arregi (2.a), Trini Arregi (3.a), Maria Dolores Ugalde 'Txara' (4.a), Margarita Idarreta (5.a). Bergarako Udal Artxiboko bilduma, Elena Odriozola Saizar. Egilea: Indalecio Ojanguren*

nitzan kontabilidadia ikastera beste maistro batengana; oso maistro ona zeuan, Don Elias. Harekin kontabilidadia ikasi neban. Eta gero ba lan egin dot beti ofizinan". Miren Azkaratek ere Don Eliasekin ikasi zuen, baina urte batzuk lehenago; Elias Aspiazu eskola publikoko maisua zen. Azkaratek dioenez, neskak mutilak baino gehiago ziren han, kontabilitatea ikasten. Talde hartatik hiru-edo lanean hasi zirela du gogoan.

Mekanografia ere ikasi zuen Azkaratek. Baita Lucia Farrasek ere. Gasteizen ikasketak egin ostean, eta jada lanean zebilela, bere kasa jarraitu zuen ikasten. Manolita Saizarrekin ikasi zuen mekanografia (ikus argazkian). Oiarbide abizeneko emakume batek ere erakusten zuen mekano-
grafia, Arantxa Aiastuiren arabera. Asuntxi Uribesalgok, berriz, aritmetika ikasi zuen, mojetako ikasketak bukatu ostean, Don Leonardorekin. Uberako maisua zen, eta harekin ere neskak zein mutilak zebiltzan.

Asuntxi Gallastegik dioenez, ba-
zeuden Ena abizeneko maistra batzuk ere. Ahizpak ziren, eta etxean ematen zuten eskola. Natalio Juaristiren arabera, eskola publikoko beste maisu batzuek ere ematen zituzten partikularrak. Eta neskak ere joaten ziren; Marino Basterrarengana, adibidez.

Maisu-maistra askok ematen zituzten klase partikularrak etxean, baina Bergaran akademiarik ez zegoen XX. mendearen lehen erdian. Antza denez, Francisco Peña dentistak jarri zuen lehen akademia. 1951. urte inguruan izan zen, Maria Dolores alaba Bergarara itzuli zenean, Kimikako ikasketak amaituta. Elkarrekin jarri



❖ Lide Mujika Zubeldia, Joseba anaia-
rekin, 1943an. Bergarako Udal Artxiboko
bilduma, Lorentzo Laskurain

zuten akademia: “Gure etxean, gaine-
nean. Orain hotela dagoen tokian ja-
rri genuen. Nire aitaren hobbya ikas-
ketak ziren, bere obsesioa!”. Maria Do-
loresen Matematikak eta zientziako
ikasgaiak erakusten zituen. Bere aitak
Geografia erakusten zuela uste du.

Urtebete besterik ez zuen iraun
akademia horrek. “Gero lana eskaini
zidaten Algodoneran, eta han hasi nin-
tzen. Nire aitak Maria Victoria Ariz-
mendi eta Lide Mujikari lagundu
ziren, eta beste akademia bat jarri zu-
ten. Nire aitak eskolak ematen jarrai-
tu zuen hasieran. Bi-hiru urtean bai.
Eta nik uste dut Don Pepe apaizak la-
tina ematen zuela... Orduan ez zego-
en instituturik, eta akademian ematen
zuten Batxilerra”. Neskei zein mutilei.
Gero Gasteizera edo Donostiara joaten
ziren azterketa egitera. Ordura arte,
Batxilergoa mojetan interna zeuden
neskek soilik egin zezaketen. Hori
bai, Arizmendik dioenez, akademian
mutil gehiago ibili zen neskak baino.

Maria Victoria Arizmendi eta Lide
Mujikaren akademia lehenengo Miz-
pildi kalean egon zen, eta Lasa jate-

txearen aurrean gero. Akademia handituz joan ahala, irakasle berriak hartu zituzten. Haur txikientzat ikastola sortu zuten, euskaraz; San Martin de Agirre zuen izena, baina legezatzeko orduan Don Pepe apaizak (Don Jose Larrea) Santa Infancia izena jarri zion (ikus *Aranzadi ikastolaren sorrera* atala eta *Maistrak* atala).

Aipatzekoa da neskek josten ikastea ohikoa zela. Oinarrizko ikasketekin batera edo ondoren, josten ikastera joaten ziren (ikus *Josten ikastea*, jostunen atalean). Batzuek sukaldaritza ere ikasten zuten. Sasoi batean, Es-

cuela del Hogarrera joaten ziren sukaldean eta josten ikastera. Batzuek musika ere ikasten zuten (ikus *Emakumea eta artea* atala).

'Escuela del Hogar'

Hona hemen Escuela del Hogarri buruzko hainbat datu, Bergarako Artxi-boan aurkitutakoak. 1927an ireki zuten, epaitegiko eraikinaren goiko solairuan. 1934ko araudiaren arabera: *"Tendrá por misión instruir a las obreras de esta localidad, tanto de fábricas como de talleres, en las ense-*



❖ *Escuela del Hogarreko Pia Urriategi eta Josefa Iriondo irakasleak hainbat ikaslerekin, epaitegiko eskaileretan, 30eko hamarkadan. Besteak beste Manuela Alberdi, Teodora Kintana, Manurga, Egaña, Zabaleta, Marina Iturbe, Maria Jesus Galarreta, Eustaquia San Jose, Adelaida Garcia, Carmen Azpeitia, Zurutuza, Carmen Larrañaga "Ormaxabal", Latorre, Maria "Urrupain", Bideluze, Muruamendiaraz, Igartua (zapatagilea) eta Garbiñe Marcó daude. Bergarako Udal Artxiboko bilduma, M^a Teresa Bergara Iturbe*



❖ 1928an Escuela del Hogarreko ikasleak josten ikasten, Pia Urriategirekin (eskumatik 2.a, zutik). Juanita Maiztegi tartean da (erdian, eserita). Beste batzuk: Pilar Idarreta (zutik 1.goa), Ines Larrañaga (zutik 5.a, aurrekoari besoaren neurria hartzen) eta Juli Jauregi (6.a, josteko makinarekin). Bergarako Udal Artxiboko bilduma, Luis M^a Lonbide Gisasola

ñanzas prácticas para la perfecta dirección de un hogar; podrán hacerse extensivas estas enseñanzas a las jóvenes no obreras, cuando y en las condiciones que determine la Junta de Patronato". Honakoa ere badio araudian: "La dirección y administración de la Escuela del Hogar será encomendada a una Junta de Patronato formada por el señor Alcalde como presidente nato, por siete vocales (entre ellos dos o tres señoras) que propondrá la Junta al Ayuntamiento para su nombramiento, y dos más, alumnas de esta Escuela (cuya elección se hará entre ellas mismas)". Irakasleen eginbeharra hau-ze zen: "El mérito del profesorado y la finalidad de la Escuela consiste en en-

señar a las alumnas a administrar un jornal sacando su máximo provecho".

Ikasturtea irailaren 1ean hasi eta maiatzaren 1ean bukatzen zen, eta ikasleak (16 eta 35 urte artekoak) gehienez 30 ziren. Horietatik %10k (hiru ikaslek) matrikula dohainik zeukaten; besteek hilero 10 pezeta ordaintzen zuten. Izena ematen zutenak 30tik gora baldin baziren, lasterren ezkonduko zirenek eta zaharrenek zuten lehentasuna. 19:00etatik 21:00etara ziren eskolak. Besteak beste sukaldaritza, "Corte y Confección de ropa" eta "Plancha y repaso de ropa" gaiak ematen zituzten. "Economía doméstica"ri buruzko hitzaldiak ere bazeuden.

Pia Urriategi (Muinondo Azpikoa baserrikoa) zen josten irakasten zuen irakaslea. Josefa Iriondok sukaldaritza erakusten zuen, eta Manuela Alberdi Muruamendiarazek arropa lisatzen.

15-16 urterekin, Juana Maiztegi jostuna Escuela del Hogarren ibili zen sukaldean eta josten ikasten. 20ko hamarkadaren amaiera zen. *“Ipini zebe Escuela del Hogar, Goiko plazan. Oin juzgaua ta dare... hantxe ipini zebe eskola ‘del hogar’. Atsaldian eta gabian. Fabrikan eta zebiztenak gabian joaten zien. Eta gu joaten giñan atsaldian”*. Urriategik orduan modan zeuden arropak egiten erakusten zien: *“Egitten giñuzen... orduan kamixak eta eruaten zien”*. Baina sukaldaritza zen eskola horretako ikurra, josten beste hainbat tokitan ere ikas ziteke-elako. Aberatsen etxeetan sukaldari zeudenak joaten zirela kontatu zigun. *“Kriadak, kozinerak eta juten zien. Gero gu bixok, nere laguna ta ni. Agirreoleako Miren. Ta beste pare bat be, hiru bat joaten zien kozinerak ez zienak”*. Errezeta onak ikasi zituzten. Lasa hoteleko aitona zen irakasleeta-ko bat. Egun batean sukaldean ibiltzen ziren, eta hurrengoan josten, txandaka.

Neska asko zebiltzan Escuela del Hogarren. Neskentzat bakarrik zen. Maiztegi zioenez, etxekoandre onak izateko prestatzen zituzten han. Batzuek ogibidea ere bilatzen zuten plater goxoak egiten ikasita.

2.2. Goi mailako ikasketak

Hezkuntza sisteman goi mailetara iristea XX. mendeko emakumeen lorpen nagusien artean dago. Bergara ere bilakaera horren erakusgarri da, nola ez. Maria Victoria Arizmendik dioenez, sasoi batean familia oneko alabek ere ez zuten goi mailako ikasketarik egiten; pianoa, pintura eta horrelakoak ikasten ei zituzten. Izan ere, emakumeek etxetik kanpo lan egitea ez zuten begi onez ikusten, are gutxiago aberatsak izanda.

Familia dirudunetako alabak batzuetan Frantziara joaten ziren frantsesa ikastera. Bergaran oso gutxi ziren hori egin zutenak. Diruaz aparte, filosofia jakin bat behar zelako, emakumeen heziketari garrantzia emango ziona. Maria Dolores Peñaren izeba, beraiekin bizi zen aitaren arreba ez-kongabea, Frantzian ikasten egona zen gaztetan. *“Guri frantsesa erakusten zigun. Ez dakit zergatik, baina komentatu batera joan zen ikastera”*. Peñarren familian ikasketei inportantzia handia ematen zieten.

Elisabet Agirrezabalek gogoan du bere garaian -1919an jaio zen- ere neska batzuek Frantziara joan zirela. Legorburutarrak eta Kontxita Saizar, adibidez. Urte guztirako joaten ziren, ikastetxe batera. Baina berari aitak ez zion utzi: *“Aittak ez zeban nahi. Txikixena, etxian”*. Oso neska gutxi joaten ziren hala. Garestia baitzen. *“Puska bat zeukenak”* ziren. *“Gutxikin ezin zan joan. Gu gutxikuak izengo giñan, eta hemen geldittu giñan”*.

Goi mailako ikasketak egiteko, beharrezkoa zen Batxilergo titulua izatea, eta lehenago aipatu dugun mo-

duan, Bergaran neskek ez zuten horretarako aukera handirik. “*Hemen Batxillerra egitteko be ez zeuan orduan. Hemen ez zeuan ezebe. Eskolia, lau operaziñuak ikasi eta akabo*”, dio Florita Izuskizak. Mojetan interna ez zeuden ikasleek jai zuten. Hori bai, baziren beste bide batzuk aurkitzen zituzten bakan batzuek ere. Luz Telleriartek bere kasa ikasi zuen Batxillerra 40ko hamarkadan, maistra batzuekin (Kontxita Maiztegi tarteko). Eta gero Donostian egin zuen azterketa.

Magisteritza, Erizaintza, Idazkaritza eta Merkataritza

Emakumeek egin zituzten goi mailako lehen ikasketak pertsonen zainzarekin eta hezkuntzarekin lotuta daude: Magisteritza eta Erizaintza.

Lan horietan titulurik gabe ere jardun zuten askok lehenago (maistra, emagin, gaixoak zaintzen...), eta emakumeentzat lan apropos moduan zeuden ikusita. Idazkaritza ikasketak ere bazeuden, baina hori ez zuten askok ikasten. Izan ere, Maria Dolores Peñaren esanetan, oinarritzko ikasketekin aski zen lana aurkitzeko: “*Altos Hornoseko ofizinetan garai hartan ez zuten exijentzia handirik. Kontabilitatea baldin bazenekien...*”. Familian negozioa zuten neskek (denda, tailerra...) Merkataritza ere egiten zuten zenbaitetan.

Ikasketa horiek egiteko, Gasteizera edo Donostiara joan beharra zegoen. Hori bai, posible zen ikasgaiak beste tokiren batean prestatu, eta hara azterketak egitera bakarrik joatea. Horixe zen Bergarako hainbat neskak



❖ Saizar Alberdi ahizpak, 1930 urte inguruan: ezkerretik eskubira, Kontxita, Julitxu eta Manolita. Kontxitak Erizaintza ikasi zuen eta Julitxuk Magisteritza; Manolitak konfekzio tailerra zeukan, eta mekanografia ere erakusten zuen. Bergarako Udal Artxiboko bilduma, Elena Odriozola Saizar



❖ *Lucia Farras (erdikoa), 1965ean San Antonioko jaietan sardina-jana antolatzen. Purita Garcia du ezkerrean eta Felisa Martinez eskubian.* Bergarako Udal Artxiboa, Miguel Angel Elkoroberezibar fondoa. Egilea: Serafin Esnaola

egin zutena. Mojetan interna zeudenei aukera hori ematen zieten. Magisteritza eurekin prestatzekoa, adibidez. Maria Pilar Lonarbidek horrelaxe egin zuen Magisteritza eta baita Julitxu Sazarrek ere, Miren Azkaratek gogoratu duenez.

Baziren, hala ere, ikastera Gasteizera eta Donostiara joaten zirenak ere. Lucia Farras eta bere ahizpa ere Gasteizen egon ziren ikasten. Hiru ahizpak izebaren etxera joan ziren, eta hango ikastetxe batean ibili ziren. Farrasen aita kultura handikoa zen; atzerrian egona zen, hizkuntzak ikasten. Ahizpetako bat Magisteritza ikasten hasi zen, baina hamasei urte zituela hil zen, meningitisarekin. Luciak, berriz, Idazkaritza ikasten jardun zuen. Baina

ezin izan zituen ikasketak burutu: aita hil zitzaien, eta lanean hasi behar izan zuen, osabaren lantegian.

Lucia Farrasek hiru urte egin zituen Gasteizko ikastetxean. Han Bergarako neska gehiago ere bazeuden. Maria Luisa eta Mertxe Orueta ahizpak, Don Carlos medikuaren alabak, ikastetxe berean egon ziren. Maria Luisak Magisteritza ikasi zuen, eta Mertzek Erizaintza; lehenengotako erizaina izan zen Bergarako anbulategian (ikus erizainen atala). Mari Kruz Uriarte bergararrak ere Gasteizen ikasi zuen. “*Eta egon zan be bai Jesus Ibañezen andria, Maria Jesus Solsona*”.

Donostian ikasitakorik ere bazen. Maria Dolores Peñak dioenez, bere lehengusina Mari Tere Peñak Merkataritza ikasi zuen Donostian, eta haren ahizpak, Marisolek, Magisteritza. Lide Mujikak ere Magisteritza ikasi zuen. Baita Maria Maria Victoria Arizmendik ere. Arizmendiri, ikasle ona zenez, Enseñanzen beka bat eman zioten Batxilergoa ikasteko; hasi zen, baina ez zebilen gustura. Eta gero, bere kasa, Donostian eta Valladoliden egin zituen Batxilergo ikasketak, eta Donostian Magisteritzakoak.

Miren Azkarateren lagunen artean ez dago inor ikasten jarraitu zuenik. Dioenez, berak horregatik egin zuen lana jostun moduan, alabei ikasketak emateko. Elisabet Agirrezabalen kasuan ere bere inguruko inork ez zuen goi mailako ikasketarik egin; denek irakasgai solteak. “*Kanpora gutxi joaten zien*”. Mutilek aukera gehiago zuten: “*Gizakumiak beti euki dabe eskubide gehixau guk baino*”.

Unibertsitateko ikasketak

Aipatu ditugun ikasketak egitea zaila baldin bazen, are zailagoa beste batzuk. Izan ere, ez zegoen haiek gertuan egiteko aukerarik. Unibertsitateko ikasketak egiteko Madrilera, Zaragozara, Salamancara, Bartzelonara, Valladolidera... horrelako lekuetara joan beharra zegoen. Medikuntza, Kimika, Odontologia, Farmazia... horiek dira Bergarako neskek egin zituzten lehen karrerak.

Espainiako estatuan 1872an sartu zen lehen aldiz emakume bat unibertsitatean ikasketak egitera: Bartzelonan, Medikuntza. Hasieran, ezin izaten zuten klasera joan, probokazioa

ei zelako mutilentzat; gero, irakaslearen ondoan esertzen ziren (1895 arte). Gainera, baimen berezia behar zuten, 1910 arte; data horren aurretik, 36 emakume lizentziatu ziren. Aipagarria da estatuan Ingeniaritza ikasi zuen lehen emakumea euskal jatorrikoa zela, Madrilén jaioa izan arren: Pilar Kareaga; gero Bilboko alkatea izan zen. Gipuzkoako lehen emakume medikue-tako bat, berriz, Maria Luisa Agirre izan zen; 1919an jaioa, Tolosan. 1936an hasi zen Medikuntza ikasten, Tolosako Udalak emandako beka batekin, Madrilén.

Bergaran unibertsitate ikasketak egin zituen lehen emakumea Maria Victoria Oiarzabal Basterrika izan



❖ Maria Victoria Oiarzabal gaztetxotan, 20ko hamarkadan, erregez mozturrotuta. Ezkerretik bigarrena da, zutik. Bergarako Udal Artxiboko bilduma, Ana Julia Irigoien Oiarzabal



❖ *Maria Victoria Oiarzabal Pazkoetan zezenketak ikusten, 1935 urte inguruan; beheko ilaran, ezkerretik 1.goa da.* Bergarako Udal Artxiboa, Toribio Jauregi fondoa. Egilea: Toribio Jauregi

zen. 1915ean jaioa, Don Roman Oiarzabal mediku ezagunaren alaba bakarra zen. Eta Farmaziako ikasketak egin zituen. Gero botika jarri zuen Bergaran. Maria Dolores Peñak dioenez, “Batzokia dagoen tokian eduki zuen farmazia. Eta gero Mozos jarri zen han”. Ondoren, mendi ingeniari batekin ezkondu, eta Malagara joan zen bizitzera. Eta hantxe jarri zuen botika. Elisabet Agirrezabalen arabera, “haura oso majia zan, e, eta gainera listia. Oso listia!”.

Peña dentistaren alabak izan ziren hurrengoak. Ama Madrilera joan zen bizitzera, seme-alabekin, denei ikasketak eman ahal izateko. Maria Dolores Peñak Kimika ikasi zuen eta bere ahizpak, berriz, Odontologia (ikus azpiko taula). Nere Mujika Medikuntza ikasten hasi zen, Salamancan. “*Ni bukatzen ari nintzela iritsi zen bera*”, dio Maria Dolores Peñak. Antza denez, gai-xoaldi bat zela medio, ezin izan zuen karrera bukatu.



Peña ahizpak, Madrilera ikastera

❖ *María Dolores Peña.*

Maria Dolores Peñak eta bere ahizpa Carmenek karrera egin zuten, Madrilen. Lehenengotakoak izan ziren Bergaran. Maria Dolores 1929an jaioa zen eta Carmen 1920an. Euren gurasoek ikasketei emandako garrantzia nabarmentzekoa da. Sei anai-arreba izan ziren, eta denek izan zuten nahi zutena ikasteko aukera. Maria Doloresek bederatzi urte zituela, Gasteizera joan ziren bizitzera, amarekin. Luisa Maria Urmeneta zuen izena. Aita, Francisco Peña, Bergaran geratu zen dentista lanetan. Ondoren, gerra amaitu zenean, ama eta seme-alabak Madrilera joan ziren. Ikasketekin jarraitzeko.

Maria Doloresek Damas Negras moja ikastetxean ikasi zuen: *“Batxiler osoa Madrilen egin nuen, eta karrerako bi urte ere bai. Madrilgo Unibertsitatean. Lehen urtean, ikasgai asko Medikuntzakoekin batera ematen genituen”*. Kimika ikasi zuen, eta normaltasunez gogoratzen du. Ez ei zuen inolako arazorik eduki emakumea izategatik. *“Asko ikasi behar zen, horixe zen arazo bakarra!”*.

Aitak Bergaran segitzen zuen. Senar-emazteak aparte bizi izan ziren urte luzez, seme-alabei ikasketak emateko. *“Ama bai izan zela ausarta! Garai hartako beste edozein emakume baino ausartagoa. Ezer ezagutu gabe joan zen! Gerra-ostea Madrilen pasatu genuen, eta gogorra izan zen, el Hemendik janaria bidaltzen ziguten. Bu!”*. Bederatzi urte pasatu zituen Madrilen, ama hil zen arte, minbi-ziarekin. *“Gero, ni Salamancara joan nintzen karrera bukatzera. Hiru urte. Mutilak gehiago ziren, baina neska dezente geunden. Ni egon nintzenean bai. Residentzian neska asko geunden. Batzuk Medikuntza ikasten, Filosofia ere bai asko, Zuzenbidea ere bai... neska dezente zegoen, bai”*.

Maria Doloresen aita, Francisco Peña, oso ezaguna izan zen Bergaran. Dentista zen ogibidez, eta maisua afizioz. Jakintzari egundoko garrantzia ematen zion. Medikuntza ikasi zuen Madrilen, eta Odontologia Valladoliden. *“Gure aitarekin neska batek ikasi zuen, Madrilen, eta kontuak atera hori noiz izan zen?”*, dio Maria Dolores Peña alabak. Emakumeek ikasketak egitea normala eta beharrezkoa iruditzen zitzaion Peña haginlariari. Bere arreetako bat Frantzian egona zen fran-

tsesa ikasten, eta besteak piano ikasketak egin zituen. “*Baina familia hartan beste ikuspegi bat zuten. Denek ikasi zuten zerbait. Gure aitarekin, ikasketak, besterik ez zegoen!*”.

Orotara hamabi urte egin zituen Bergaratik kanpo Maria Doloresek; Aste Santuan, Gabonetan eta udan soilik etortzen ziren Bergarara. Karrera amaitutakoa bueltatu zen. Familiak egin zuena ez zen batere ohikoa, eta apaiz batek aitari kargu hartu ziola kontatzen du Maria Doloresek: “*Pero que disparate, Francisco, a Madrid a estudiar las dos chicas!’. Infernura gindoazela pentsatzen zuela uste dut*”. Ez zegoen ondo ikusita. Aitak, baina, garbi zuen zer nahi zuen. Ama ere ados zegoen: “*Noski, orduko emakumeak... diferentea zen, ez zen oraingoa. Oraingo batek seguruenez ez zuen sakrifizio hori egitea onartuko, ardura handia zen berarentzat, baina... hala erabaki zuten. Ama ausarta izan zen, eta onartu egin zuen*”.

Francisco Peña tematuta zegoen heziketarekin, eta baita akademia bat irekitzearekin ere, ordura arte Batxilergoa egiteko neskek derrigor interna egon behar zutelako. “*Nire ahizpa interna egon zen, eta batxiler osoa mojetan egin zuen. Pentsatzen dut aitari gutxiago kobratuko ziotela, beraien dentista zelako...*”. Maria Doloresen ahizpak, Carmen Peñak Odontologia ikasi zuen, baina ez zuen horretan lanik egin. Ezkondu egin zen, Asturiasera, eta ez zuen bide horretatik jarraitu. ❖

60ko hamarkadara arte karrera egiten zuten nesken kasuak oso bakanak ziren. Asuntxi Gallastegiren arabera, 1933an jaioa, bera baino gazteagoak hasi ziren karrerak ikasten; 40ko hamarraldiaren hasieran, eta bereziki erdialdera, jaio zirenak: Mariasun Macho (Enpresaritz), Mari Carmen Gallastegi (Ekonomia), Pili Manso (Optika), Casimira Mujika (Medikuntza), Mari Carmen Korkostegi (Filosofia eta Letrak), Mari Kontxi Garitano (Medikuntza)..... *“Baina gure garaixan kanpora ikastera... mutilak batzuk joango zien, baina bestela ez hainbeste, e. Neskak gutxi”*. 60ko hamarkadan ere ez ziren asko izan. Pixkanaka-pixkanaka, gero eta gehiago. Baina urte dezente igaro beharko ziren goi mailako ikasketak orokortu ziren arte. Izan ere, familia gehienetan semeek zuten lehentasuna; ohikoa zen

neskek lana egitea, anaien ikasketak ordaindu ahal izateko.

Asuntxi Gallastegi baino hamabi urte gazteagoa da Maripaz Alustiza, 1945ean jaioa. Urte gutxian aukera dezente zabaldu ziren. Lanbide heziketako ate zenbait ere bai. Alustizak Arrasateko Eskola Profesionalean ikasi zuen, Delineante, 18 urterekin. Eta ez zen neska bakarra. Sei edo zazpi neska zeudela dio berak, Antzuola eta Bergarakoak. Bergarako Elisabet Olabarria eta Antzuolako Mari Karmen Alkorta ditu gogoan Alustizak. Trenez jotzen ziren Bergaratik, eta han bazkaltzen zuten. *“Batzuk delineante industrial ikasi zeuben eta beste batzuk laboratorixoko laguntzaile”*. Hori bai, Maripazen ahizpa bikiak lan egin behar izan zuten, berak estudiantu ahal izateko.



❖ 1960. urtean Mariaren Lagundian Batxilergoko 5. maila egiten ari zen ikasle taldea. Horietako batzuek karrera egin zuten gero. Goiko ilaran, ezker-eskuin: Kontxita Astiazaran, Mari Carmen Gallastegi, Mari Carmen Korkostegi, Mari Carmen Erkiaga eta Casimira Mujika. Behean: Angelita Elorza, Pili Macho eta Pili Manso. Angelita Elorza



Mari Carmen Gallastegi

Ekonomialaria

❖ *Mari Carmen Gallastegi. Jakiunde*

1945ean Bergaran jaiotako ekonomialaria. Irakasle eta ikerlaria, Teoria Ekonomikoan katedraduna da eta EHUko Ekonomia Publikorako Institutuko Ingurumen Ekonomia Unitateko zuzendaria.

Gallastegitarak ez ziren familia bereziki aberatsekoak; aitzak prokuradore moduan egiten zuen lana. Hiru ahizpa ziren, eta hirurek izan zuten ikasteko aukera. Maria Carmenek Valladolideko Unibertsitatean egin zuen karrera: Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziatu zen. Ondoren, Erresuma Batuan eta AEBetan osatu zituen ikasketak: ekonomiako masterra egin zuen London School of Economics zentroan eta doktoretza Brown Unibertsitatean.

Gallastegik hainbat ikerketa proiektu gidatu ditu, ekonomiarekin eta ingurumenarekin lotuta. 30tik gora urtean jardun du irakasle moduan Euskal Herriko Unibertsitatean. Doktore tesiak zuzendu ditu eta doktoretza ikastaroak eman. Hainbat ardura postu izan ditu EHUn (Teoria Ekonomikoa Saileko zuzendaria izan da, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko kide eta Gobernu Batzordeko kide).

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza sailburua izan zen 1991n. Ikerbasqueko Batzorde Exekutiboko presidentea izan zen 2007-2009 urteetan. 2005ean Lucas Mallada Sari Nazionala eskuratu zuen. 2006an Ikerketako Euskadi saria eman zioten; sari hori lortzen zuen lehen emakumea izan zen. Eta 2013an Eusko Ikaskuntza saria eskuratu du.

Aipatzekoa da Gallastegik familia eta lana uztartzen asmatu duela. Ezkondu egin zen, eta hiru seme-alaba izan zituzten. Bide-urratzailea izan dela esan daiteke, zentzu askotan. ❖


3.1. Lantegietako langileak

Bergarako lantegiak, mende hasieran

Algodonera ehun-lantegiak 1846an irekitako bidetik, ehunari lotutako beste industria handi eta txiki asko sortu zen Bergaran: haria eta ehuna egiten zuten hainbat lantegi, jantziak jostera dedikatzen ziren konfekzio tailerrak, tindategiak... Hirugarren sektorean ere eragin handia zuen herriko jarduera industrialak: oihala eta jantzi denda ugari eta onak zeuden herrian, eta emakume asko enplegatzen zen horietan.

“Bergan oportunidadia askoz gehixao euki dogu beste herrittan baiño, e? Zeaittik beste herri batzutan, hamen inguruan, nun lan egingo ziñuan orduan? Ez zeuan ezer emakumien-dako. Algodoneran badakizu zenbat jendek lana egin zeban, Movilla zanian, Lasagabasterrenian, hamen Otazuania... gero hor, mataderua zeuan inguruan be bazeuan beste bat. Gero Narbaizanekua. Aranzabalnekua. Mendiola, eta buenoooo...Hor fabrika mordua zeuan Bergan, e? Badakizu zenbat emakumek egin zeben lana? Beste leku batzutan ez zeren”, zioen Eulalia Elkorok.

Miren Azkaratek ere gauza bera esaten du, beste herri batzuetan ez zegoela halako lan aukerarik emakumeentzat. *“Ez zeuan fabrikak ema-*



❖ *Lasagabaster ehun-lantegiaren ikuspegia; aurrekaldean Deba ibaia eta trenbidea; atzealdean herria. Publizitaterako inprimatutako postala.* Bergarako Udal Artxiboa. Juan Idigoras fondoa, Juan Idigoras Irala

kumiandako, zien ba gizakumien lanak. Eta Bergaran zeukan aukeria emakumiak lana egitteko”. Gehienak 14 urterekin hasten ziren lanean. Elisabet Agirrezabalek dioenez, gezurra esaten zuten, berez 15 eduki behar zirelako.

Maria Pilar Larrañagarentzat hauek ziren ehun-lantegi nagusiak: *“Bergarako textilak: Algodonera, Narbaiza, Movillas, Mugerzan Aranzabal, bi zien Aranzabal, Santamañan Oregi eta Otazua... eta Lasagabaster. Idarretak,*



❖ *Otazua ehun-lantegia, goiko estazio-tik ikusita.* Bergarako Udal Artxiboko bilduma, Ana Julia Irigoien Oiarzabal

Bergakua zan baina zerian zeukan, Aramaixon. Zortzi. Eta Narbaiza Mekolalden. Hor danak, mayorixia andrak lana egitten zeber”.

Larruaren sektorean ere baziren bi lantegi inportante XX. mendearen hasieran, bata larrua ontzera dedikatzen zena eta bestea zapatak egitera. Gu-txiago, baina hauetan ere baziren emakumeak. Banaka batzuek beste lantegi batzuetan ere topatzen zuten lana, bulegoetan batez ere: Labe Garaietan, tailer txikietan...

Ehun-fabrikak

Hona hemen Bergaran izan diren ehungintzarekin lotutako lantegiak, lehena sortu zenetik (Algodonera, 1846) azkena itxi zen arte (Tavesa, 2010). Bat baino gehiago faltako da zerrendan, lantegi txikiak ugari izan baitziren:

- Alcorta y Cía. Mekolalde
- Algodonera de San Antonio. San Antonio
- Aranzabal y Mendiola. San Lorenzo
- Arteche hermanos. Osintxu

- Belamendia Eizaguirre
- Confecciones Vascas
- Felipe Ezpeleta
- Hijos de Arturo Narvaiza (Alcorta y Cía-ren jarraipena). Mekolalde
- Hijos de Miguel Bárbara
- Industrial Eguzkialde. Gaztelu
- Jauregui Hnos
- Jose Zabala Iraeta. Ozaeta
- Movilla, Fernández y Compañía. San Antonio
- Mújica y Otazua
- Oregui, Unzurrunzaga y Cía. Murgertza
- Pedro Lasagabaster. Zurraderokoa
- Pedro Otazua. Goenbolu
- Saizar y Cía. Izurraderokoa
- Sobrinos de Hilaria Muguerza. Masterreka
- Tavesa. Elorregi
- Urdiñola. San Juan
- Vergara Têxtil. San Lorenzo
- Vda de Aguirre e Hijo

Tindategiak

- Errenteri. Bidakruzeta
- Jose Belamendia. San Lorenzo
- Onena. Barrenkalea
- Txarrantxa. Ozaeta

Larru arlokoak

- Fábrica de Curtidos Ortueta y Diaz de Mendivil. Zurraderokoa
- Fábrica de Calzado Vda. de Aranes
- Telleria
- Amenabar

Emakumea Bergarako lantegietan

Demografiaz jarduterakoan esan dugu kanpoko jende asko etorri zela Bergarara bizitzera, ehungintzako lanak erakarrita. Emakumeak gehiago gizonak baino. Izan ere, ehungintza zen emakumeak enplegatzen zituen industria-alor bakarrenetakoa. Eta tartean, alabak bakarrik zituzten familia osoak ere etortzen ziren. Beste herri

gehienetan baino aukera hobe zuten ordaindutako lana bilatzeko. Herriko alabak ziren, jakina, emakume langile gehienak.

1930ean, Espainian biztanleria aktiboaren ehuneko 24 osatzen zuten emakumezkoek; hortik ehuneko 80 ez-kongabeak eta alargunak ziren³. Bergaran, argi dago emakume langileen kopurua dezente altuagoa zela.

EMAKUME-GIZON KOPURUA BERGARAKO EHUNDEGIETAN ETA LARRU-SEKTOREAN

	1902	1902	1920	1920
	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK
Algodonera S. A.	176 (% 55)	147 (% 45)	132 (% 34)	258 (% 66)
Movilla-Fernandez	18 (% 100)	0 (% 0)	60 (% 34)	115 (% 66)
Muguerza	16 (% 100)	0 (% 0)	32 (% 38)	52 (% 62)
Lasagabaster	12 (% 100)	0 (% 0)	29 (% 37)	49 (% 63)
V. da Aguirre	5 (% 13)	35 (% 87)	-	-
Mendibil	41 (% 71)	17 (% 29)	65 (% 71)	27 (% 29)
Oregui	-	-	14 (% 35)	26 (% 65)
Arteche	-	-	9 (% 14)	55 (% 86)
Ortueta (larrua)	51 (% 77)	15 (% 23)	-	-
Aranes (zapatak)	9 (% 75)	3 (% 25)	-	-
DENERA (ehund.)	268 (% 56)	214 (% 44)	341 (% 37)	582 (% 63)

³ *Mujer pasaitarra en el pasado siglo XX* (Rosa García-Orellán)

Ehundegietako datuetan ikusten dugu 18 urteko epean (1902-1920) emakume langileen kopuruak gorakada handia izan zuela: 214tik 582ra zenbaki absolutuetan, % 44tik %63ra gizon-emakume proportzioan⁴.

EHUNGINTZAKO LANGILEAK (1902)

Adina	GIZONAK	EMAKUMEAK
10-16	% 24	% 39
17-30	% 31	% 39
31 >	% 45	% 22

Zenbaki hauek garbi adierazten dute geroago zehatzago azalduko duguna: emakumeak oso gazterik sartzen zirela lanera, eta gehientsuek utzi egiten zutela ezkonduetakoan. Gazteen artean, emakumeak gehiago dira gizonezkoak baino (%39 -%23), baina nagusien artean askoz ere gutxiago (%22 -%45). Algodoneran, 1902an, 147 emakume zebiltzan lanean. Horietatik %77ak 30 urte baino gutxiago zuten.

Neska gazteak lanean hartzea errentagarria zen ehun-lantegietako nagusientzat. Esperientziadunei baino askoz gutxiago ordaintzen zieten. Hona hemen Hijos de Arturo Narbaitza ehun-lantegiko zenbait datu, adibiderako balio dutenak: 1933an ehungileek 5 eta 6 pezeta bitarte irazten zuten egunean, eta hasiberriek, 13-14 urteko neskatilek, 2,30 pezeta.

Haurrak lantegietan

Emakumeekin gertatzen zen bezala, ehun-fabrikak "aukerako" lekuak ziren haurrak lan munduan lehen pausua emateko. Garbitasunak egiten edo apurtzen ziren hariak lotzen, esaterako, beren gorputz txiki eta malguak erraz ibil zitezkeelako makinaren zirrikituen artean. Eta haria edo ehuna egiten zuten makinak zaintzen ere ondo konpontzen ziren, indarra baino gehiago trebezia eskatzen zuten lanak zirelako.

1873an jarri zen indarrean haur-lanari buruzko lehen legedia. Handik aurrera ezingo zen hamar urtetik beherako haurrik enplegatu. Zortzi ordutik gorako lanaldirik ere ezingo zuten egin 17 urtetik beherako neska-mutikoei.

Eskola eman beharko zitzaien lantegian bertan, herrigunetik lau km baino gehiagora zeuden lantegietan enplegatutako 10-14 urte arteko haurrei. 1902an, 14 urtetik beherako 35 haur zebiltzan Algodoneran, eta, enpresaren arabera, horietatik 21ek zekiten irakurtzen eta idazten. Kopuru altu samarra dirudi, eta zalantzan jar daiteke datua, baina kontuan izanda ugarizabak obligazioa zuela haurrei lantegian eskola emateko, baliteke zuzena izatea.

1900. urtean 10 urtetik beherako haurrak hartzeko debekua gogorazten da, legea betetzen ez zen seinale garbia. 1909an Algodoneran egindako ikuskaritza batek hamar urtetik beherako hainbat haur aurkitu zituen la-

⁴ Datu gehientsuak liburu honetatik jaso ditugu: A. Ibañez, A. R. Ortega, A. Santana, M. Zabala. *Casa, familia y trabajo en la historia de Bergara*. Bergarako Udala, 1993.



❖ *Algodonerako emakumezko langileak XIX. mende bukaeran, 1893. urtean. Tartean badaude oso gaztetxoak direnak ere. Sasoi hartan Algodonerak Echaide y Compañía zuen izena.* Bergarako Udal Artxiboko bilduma, Luis Payrós Aguirrezabal. Egilea: Arrillaga

nean, fabrikako ugazabak kontrakoa esan arren, eta gehienek hamaika orduko lanegunak egiten zituzten.

10-16 urtekoak hartzen dira haur-langiletzat. Ideia bat egiteko, 1902an Algodonerako langileetarik %32 hamasei urtetik beherakoak ziren eta Ortueta larru fabrikan %39. Neskak eta mutilak berdintsu, neskak gehiago chungintzan eta mutilak gehiago larruaren arloan.

Maria Pilar Larrañagak ezagutzen zituen fabrikan 8-9 urterekin hasitako langileak: “Nerekin lana egin zaban bat, Lola. Neskazaharra zan, politt askua, neri lanian erakutsi zostana. Eta haura joaten zan lanera ba almazenera, ez dakit ba paineluak edo kon-tatzera... eta dotrinia ikasteko, al-mazenetik urtenda, fabrikatik joaten zien. Baina 8 urtekin edo lanian ha-sitta, e! Eta leitzen eta eskribitzen gero ikasi zebeñ batzuk”. Lola horrekin pri-

meran konpontzen zela dio: “*Ai Lolita Lola’ esanda, zelako dantzak ma-kina bittartian ta!*”.

Lan-banaketa

Gerraostera arte zuzendari, bulegari eta tailerretako maisu eta arduradunak gizonezkoak izango dira nagusi-



❖ *Elisabet Agirrezabal, Vergara Textil ehun-lantegiko kudeatzailea izandakoa, 2013an ahotsak.com-erako egindako elkarrizketan.*

ki. Harrezkero, emakumeak sartuaz joango dira bulegoetan eta ardura lekuetan poliki-poliki. Emakume gerente bat ere ezagutuko du gure herriak: Elisabet Agirrezabal. Vergara Tèxtil ehun-lantegiko gerentea izan zen 1946tik itxi zen arte. Gipuzkoako lehen emakume gerentea. Luze hitz egingo dugu honetaz aurrerago.

Beste lantegi gehienetako lana ez bezala, ehun-lantegietako lana aproposa zen emakumeentzat. Zergatik? Joskintzarekin eta ehungintzarekin lotutako lanak emakumearekin lotzen zituzten. Uste zabaldua hauxe zen: emakumeak gizonak baino garatuago zuela eskuetako trebezia. Ehungintzan funtsezkoa da abilezia hori, batez ere harigintzan eta ehundegian. Horregatik, ugazabek nahiago izaten zituzten emakumeak lan horietarako. Liñuzko ehungintzari begiratzeko badiogu, baina, Debagoienako azken ehuleak gizonetzakoak zirela konturatu gara (ikus Bergarako Udalak argitaratutako *“Linua, ehuna eta artilea”* liburua).

Bazen beste arrazoi bat ere, poto-loagoa, emakumeak ehun-lantegietan lanean aritzeko: arrazoi ekonomikoa. Gaizkien ordaindutako beharrak ziren. Eskulan merkea. Ez da ahaztu behar gizonari baino gutxiago ordaintzen zitzaiola lan berdinetatik. Oso berandu arte, gainera: 1958an, Hijos de Arturo Narbaiza ehun-lantegian, “laguntzaile” moduan neska batek 15,75 pezeta kobratzen zuen asteen eta mutil “laguntzaile” batek, berriz, 27,75 pezeta. Peoiek ehungileek baino gehiago irabazten zuten zenbaitetan. Soldatak 60ko hamarkadan hasi ziren berdintzen.

1902an San Antonioko Algodoneran 147 emakumeetatik 35 irundegian (harigintzan) zebiltzan; sekzioko langileen %58. Ehundegian 91; sekzioko langileen %87,5. Eta inprimaketan 21; sekzioko langileen %12. Ardura karguez gain, Algodonerako tindatzaileak, arotzak, errementariak, koipeztatzaileak eta abar gizonetzakoak ziren.

Ehungintzako langileen testigantzak

Atal honetan ehungintzako langileen ahotsak jaso ditugu. Hainbat eta hainbat emakume ibili ziren ehun-lantegietan lanean, eta hauek zertzelada txiki batzuk baino ez dira, adibide batzuk besterik ez.

■ Algodonera

Lucia Farrasen amak Algodoneran egin zuen lana, ezkondu arte. Eta Luciaren amandrea Algodoneran ibili zen ezkondu eta gero ere, hirugarren umea izan arte. Dioenez, San Antonion neska gutxi joaten zen neskame, fabriketan lana zegoelako. Hamalau urterekin sartzen zen neska asko lanera. Algodoneran ibili ziren bere lagun gehienak ere. Berak pixka bat ikasteko aukera izan zuen, eta administrari moduan egin zuen lana, osabaren torloju lantegian (ikus *Bulegariak* atala).

Petra Juaristi ere Algodoneran sartu zen hamalau urterekin, 1932an, urteak betetzen zituen egunean bertan. Ez zuen asko iraun. Lanean hasi eta berehala, gaixotu egin zen, kotoi hautsa birikietan geratzen zitzaiolako. Medikuek batengana eraman zuten. Orduan, Zaurutzerak bidali zuten osabengana, eta denboraldi luzea egin zuen han.



❖ *Algodonerako langileak, 40ko hamarkadan.* Bergarako Udal Artxiboa. Argazkilaria: Toribio Jauregi

Maria Pilar Larrañagak Algodonerakoa lan polita zela dio, “*baina zikin haundixa egoten zan, e? Hauts haundixa botatzen dotsu! Klaro, algodoiak sekulako... zuri-zuri egindda urte-tzen ziñuan! Ez baldin bazinan orraztu eta gauzak egitten eta, erropak-eta zuri-zuri-zuri egindda. Eta ba hori tragau egitten dozu!*”. Ez ei zuten babes neurrik hartzen, eta asko gaixotu egiten ziren. “*Tejerixakua gure lana baino garbitxuagua zan. Ya zikin gixiau, ya han harixa zeuan, eta gurian artian algodoia. Gurian zikin asko tragatzen giñuan. Sekulako hautsa eta pelusia, eta bueno! Holako hego hai-zia edo egoten bazan, dana harro-harro egitten zan. Ez dakizu zelako lana!*”.

Maria Dolores Peñak kimikari gisa egin zuen lana Algodoneran (ikus *Bulegariak* atala), baina ardura posturik

ez zuen: “*Ardura postuetan beti gizonak, hori garbi dago!*”, dio barrez. Haren arabera, hasieran uste zabaldua zen ehundegiko lanetarako emakumea aproposagoa zela gizonezkoa baino, baina gero gizonezkoak ere hasi ziren lan horietan. Bere ustez, berdin egin zezaketen batzuek zein besteek: “*Makinen funtzionamendua ikastea zen*”.

Maripaz Alustizak dioenez, bere amandarearen sasoian Algodoneran umeei titia emateko leku epel bat zuten. Baina beren denboran ez. Bi ahizpa bikiak ibili ziren Algodoneran. Maripaz 70eko hamarkadan hasi zen, ekoizpena kontrolatzeko bulegoan: langile bakoitzak zenbat metro egiten zuen, eta zenbat kobratu behar zuen aztertzen zuten. Harigintzan ordurako gizonak eta emakumeak zebiltzan, eta emakumeek gutxiago irabazten zuten berdin produzitu arren.



Maria Pilar Larrañaga

Algodonerako langilea

❖ Maria Pilar Larrañaga,
2005ean ahotsak.com-erako egindako elkarrizketan.

Maria Pilar Larrañaga San Antonio auzoan jaioetakoa da, 1926an. Umetan, Labe Garaietako eskolan ikasi zuen, eta gaztetan Algodoneran hasi zen lanean. Bere aitak Labe Garaietan lan egiten zuen. Bere ama, berriz, alargundu zenean bietan ibili zen: Labe Garaietan, garbitzaile moduan, eta Algodoneran. 1941ean, *“emun zotsen lana, ordu biko lana emun zotsen linpiezan amari. Eta gero Algodoneran egin zeban lana amak. Altos Hornosekua eta Algodoneran egin zeban lana, bixetan. Eta bixetakua kobrau zeban nere amak. Tokatzen jakona, bixetakua”*.

Beste ehun fabrika batzuetan ez bezala, Algodoneran prozesua osorik egiten zutela dio Larrañagak: kotoitik tindatutako ehuneraino. *“Oso tela ona egitten zan”*. Kotoi balak trenez iristen ziren Bergarara. Kotoia harrotu egin behar zen lehenengo: *“Kardatan pasau eta garbittu, eta pasatzen zien txurrotan; ‘potiak’ esaten jakon. Oso makina orijinalak zien. Gero, handik ni nebilen makinatara pasatzen zan, eta harek zien bobinauak, erruedakin. Makiniak zeukan aurrekaldian holako bobina bat, eta atzekaldian zeuzken hiru ilara, konektatzen zien zulo batera hiru algodoi ilara, eta urtetzen zeban josteko harixa, baina artian zaon harixa egin barik. Algodoia, baina mehe-mehe-mehia. Eta handik eruaten zan hilanderixara. Eta hilanderixan harixa kaniletan sartzen zan. Eta gero handik bobinetara. Eta gero bihurra; segun ze tela egin biha zan, ba emoten jakon kontestua. Harixan tamainua fuertia emuten jakon. Batzuk bihurrera, beste batzuk kaniletara... eta gero handik urdidorera. Prozesu oso luzia eukitzen zeban!”*.

Haria ehundegira iritsi aurretik, makina askotatik pasatzen zen. *“Tejerixara joan aurretik, urdidorera. Makina haundi bat. Preparatzen zeбен telia egitteko”*. Urdidorak harpa itxura zuela dio: *“Haura joaten zan harixak batzen, zilindro haundi baten. Handik eruaten zan tejerixara. Telia egitteko, gero haura sartzen zeбен tejerixako makinan, rollo haundi haura. Eta ya tejidu egitten zeбен. Oso elaboraziño politta da”*.

Bere garaian pertsona bakoitzak lau makina erabiltzen zituen. Ehundegian, berriz, bi. Gerora, askoz makina gehiago; gero eta automatizatuagoak zeudelako. “Lehenau eskuz egitten giñuan. Hego haizia ta zaonian... algodoia harrotu egitten zan, eta makinetan haura ez zan pasatzen ondo!”. Halakoetan, makinetan aldaketak egiten zituzten: “Zuk ikusten ziñuan. Ba hemen harroegi doia, edo... Ez doia ba ondo...”. ‘A! Piñoia kanbixauko jat’. Geratzen zebeu makinia, kanbixatzen zotsen, erak [kontramaisuek] bazeuken eren taktikia, eta ipintzen zebeu. Batzutan ondo joaten zan eta beste batzutan ba... Hor lan asko egin dou guk, oso lan zerak... Gero esaten zebeu oso ondo ipinita zeuala, baina gero be zeukan beran gora-behera haundixak, zeaittik personia eta makinia ez die igualak”.

Berak gustukoa zuen, baina lan gogorra zela uste du Larrañagak. “Personiak be aguantau egin biha dau hori. Zortzi ordu oso hori han, aguantau egizu temperatura hartan!”. Bero handia egiten zuen. “Gero edadiak be ez die izeten danak igualak, epokak be ez... gauza asko egoten die!”. Bere ahizpak sei hilabete soilik egin zituen Algodoneran; harentzat kartzela baten parekoa izan omen zen. Eibarrera joan zen lanera: “Aizta bixak egitten zebeu Azitainen, Eibarren. 42 urte. Surtidorian, ofizinan”.

“Tintau be bertan egitten zebeu. Horrek gizonak egitten zittuen. Oso tintorexia ona zaon hemen, e! Hementxe Ozetan zaon bat, tintorerixia Felipe Setienek zeukan. Eta gero horrek uste dot saldu zotsala Algodoneriai. Eta Jose Zabalak be bai. Gero, esaten zebeu ura be ona zeukala, inportantzia zeukala. Baina Setienek be euki zeban... txikixa, ezta, baina tejerixia euki zeban. Ta tintau berak egitten zeban”.

Langileen arropa egiten zen Algodonerako telekin. “Mil-rayasa ta kanpotik etortzen zien”. Mahoia zen bertako kolorea. “Azula Bergakua, e! Mahona. Algodoneriak egitten zittuan mahona, eta azulinia. Lehenengo telia Algodoneran egin zebena soñokuak egitteko, algodoizkuak, azulinia. ‘Todas mas guapas que no se qué!’ Eneeee. Ez giñuan asko bihar! Mahona leku danetarako zan. Astegunian beste erropak ez zan jastzen. Danian, danian. Mahona izen da ‘secula-seculorum’, e! Baserriko lanerako, fabrikarako... danerako”. ❖



❖ *Vergara Textil lantegia, 1945 urte inguruan.* Bergarako Udal Artxiboko bilduma, Elisabet Biain Bilbao

■ Vergara Textil

Elisabet Agirrezabal (ikus bere biografia *Bulegariak* atalean) Vergara Textil ehun-lantegian kudeatzaile lanetan hasi zenean, 30 langile zeuden. Gehienak gizonak ziren; tindategian, esaterako. Lan gogorra zen, eta emakumeak ez zituzten horretarako gai ikusten. Are gehiago: lan hori egitea galarazita ere izan zuten, sasoi batean. Oihalgintzan, hori bai, emakumeak ziren nagusi; hasieran makina bat eramaten zuen bakoitzak, baina gero lau.

Prozesua osorik egiten zuten Vergara Textilen ere: kotoia matazetan ekartzen zuten, eta haria egindakoan tela bihurtu, baita tindatu ere. Beraiek Azkoititik ekartzen zuten kotoia, Epelde y Larrañaga lantegitik.

Lantegiarekin lotutako konfekzio tailerra sortu zuten: Confecciones Vascas. Tela Santa Agedara eramaten zuten, bertan josteko. Agirrezabalek berak eramaten zuen tela, kotxean.

■ Movilla

Movilla ehun-lantegia lehenengotako bat izan zen. Gregorio Fernandezek sortu zuen, Valentin Movilla ilobarekin, 1897an. Hasieran Gregorio Fernandez y Sobrino zeukan izena. 18 langilerekin hasi ziren, baina 1905erako 80 zituzten eta 1920rako 175 langile.

Gloria Agirrebeñak Movilla lantegian egin zuen lan urtebetez, oihalgintzan. 14 urterekin hasi zen han, 1926an, bere aita pontekoa kontramaisu zegoelako. Hark eramane zuen, eta urtebete egin zuen oihalgile moduan, bere lehengusina batekin batera. Kanilak jartzen zituzten, hariarekin, eta makinak egiten zuen oihala. Zaindu egiten zuten. Oihalari buelta emateko makina geratu, eta zuzendu. Baina anaiek ez zuten begi onez ikusten arreba lanean egotea: “*Eta gero handik, mutillak, anaiak-eta esan zebela: ‘Hori zeaittik euki biha dogu hor lanian, ekarri hori etxera’.* Eta etara eta atzera etxera ekarri ni. Berriz etxera. Eta gero klaro, ni be etxian ezebe egin barek ezin nitzan egon, ta hasi nitzan joster”. Josten aritu zen aldi batean, harik eta Tabakaleraren biltegian la-



❖ *Gloria Agirrebeña, 2009an aho-tsak.com-erako egindako elkarrizketan.*

nean hasi zen arte. *“Euki neban oka-siñua tabakuen almazenera joateko; nere lagunak zeren han lanian, eta tabakuen almalzenian sartzeko”*.

Pilar Murgoitio ere ‘Movillasenean’ ibili zen lanean. *“Ni neu belaxe ipini nindduen enkargada. Bazien grupuan lana egitten zeбенak, igual izengo zien 14-15 bat, ta harek zaintzen ni. Eta gero ni txarra izan nintzan harendako: ‘Beti begira jan ta! Harrapauko gaittu!’... Lehelengo sartu nitzanian, ipini nindduen makinan. Segiduan, harek neskatillak dominatzeko, ipini nindduen haren zain. Ez zan erreza harek zaintzia! Jesuuus. Eukiko zeбен polemikan bat”*. Hala ere, langileen artean harreman ona ei zegoen.

Murgoitio 14 urterekin hasi zen lanean, 1919. urtean, eta erretiroa hartu artean ibili zen. Neskek eta mutilek antzeko lanak egiten zituztela dio: *“Kasik-kasik lan berdinak. Batak makina baten, bestiak bestian... holaxe”*. Tela egiten zuten ehundegian, haria Bartzelonatik ekarrita. *“Bergaran gozatu”*, eta makinetara. *“Oso politta da. Rolluak*

ipintzen die atzekaldetik aurrera, eta haretzek zaindu, defekto barik joan dañ telia”. Tinteak ere egiten zituzten Movillasenean: *“Kolorante guztiak egitten zien: zurixak, gorrixak, azulak”*.

1934. urtean Movilla lantegian ehungile bakoitzak hiru makina zeuzkan bere ardurapean. Ehundutako metroaren arabera kobratzen zuten, normalean astean 30 pezeta inguru. Aipatzekoa da emakumezko langileek amatasun aseguruia izaten zutela. Emakume ehungileei zenbateko bat kentzen zieten soldatatik (1,85 pezeta, 1935. urtean), gutxi gorabehera hiru hilabetero.

■ Lasagabaster

Lasagabaster ehun-lantegia Eskoriatzako Pedro Lasagabasterrek sortu zuen, 1893. urtean. Hilaria Mugerza izan zuen negoziokide; hark Zurrade-roan zuen tindategian hasi zen Lasagabaster. Mugerzak, baina, bere kontura ere jarraitu zuen: sekaderoa erai-ki zuen etxe ondoan, Masterrekan, eta



❖ *Lasagabaster lantegiko langileak, Villa Aurelia aurrean. Datarik gabea.* Bergarako Udal Artxiboa, Toribio Jauregi fondoa. Argazkilaria: Toribio Jauregi



❖ *Lasagabaster lantegiko langileen argazkia, 50eko hamarkadan.* Bergarako Udal Artxiboa.
Juan Idigoras fondoa

tindatzen jarraitu zuen. Mugerza ezkongabea zen, eta hil zenean, haren iloben esku geratu zen negozioa: 1914an Sobrinos de Muguerza hartu zuen izena. 1920rako 84 langile zituzten.

Lasagabaster lantegiak ere bere bidea egin zuen. 1914. urtera arte tindategia izan zen, eta handik aurrera oihalgintzan hasi zen. Trenak bultzada handia eman zion, geltokia ondoran eraiki baitzuten. 1920an 78 langile zituen, eta 90ra iritsi zen handik urte gutxira. Asko emakumezkoak ziren, harigileak eta oihalgileak. Bulegariak ere bai, 50eko hamarkadatik aurrera (ikus bulegarien atala).

Maria Pilar Larrañagak dioenez, “*Movillassenian eta Lasagabasterrenian-eta kanpotik eruaten zeber haxia. Gero urdidoran preparauko zeber*”. Tindategiko lana gizonezkoek egiten zuten. Mahoiaz gainera, beste hainbat kolore egiten zituzten, baita *mil-rayasa* ere. Eta izarak egiteko tela ere bai.

Florita Izuskizaren izeba bat (amaren ahizpa) Lasagabasterren ibili zen lanean, tela egiten. “*Lasagabasterrek pillua euki zeban emakumiak lanian. Nere tia be handitxek jubilau zan*”. Hona hemen Lasagabaster lantegian erretiroa hartu zuten emakume batzuen izenak, denak ere lanean gerra aurrean hasitakoak, tailerrean: Norberta Ezpeleta (ikus *Emakumeen kontrako errepresioa* atala) eta Jazinta Etxeberria alargunak ziren, eta beste hauek ezkongabeak: Juli Biain, Balbina Arana, Estefania Gaminde, Teodora Kintana, Margarita Ugarte... Bulegoak garbitzen ere emakumezkoak ibiltzen ziren: Jacinta Etxeberria eta Juli Eraña, besteak beste.

■ Oregi

Oregi lantegiaren jatorrian Unzurrunzaga tindategia zegoen, Eusebio Madariagak sortua. Oregui, Unzurrunzaga y Cia enpresa sortu zuten, ehungintza eta tindategia bat egiten zituen. 1920an 40 langile zituzten guztira.

Oregi ehun-lantegian jardun zuen Dolores Altunak, gaztetan. Oihalgile ibili zen. “Makinak zeren, eta batzuk egi-tten zebe kanilak. Horrek lanzadere-tan sartu, eta telia. Mataza batzuk ze-ren, beste makina batzuk, matazak egi-tteko”. Haria eginda ekartzen zuten, eta makinan jarri. “Harixakin matazak le-henengo, eta gero bobinak, eta bobi-netatik kanilak. Kaniletatik ya pasatzen zan, urdidorara. Gertatzen telak egi-tteko zenbat hari biha zan, ze neurri, eta gero pasatzen zien tejexirara. Eta te-jerixan egitten zan telia”.

Altuna kaniletan hasi zen lehenen-go, hasiberrien lana huraxe izaten zen; eta gero tejexirari ibili zen. “Guk be-giratu biha giñuan, akabau baino le-henau, eta geratu, korapilua egin, eta segi”. Langile gehienak emakumeak zi-ren. “Gizakumiak almazenetan gehi-xenak”. Eta tindategian. Mahoizko tela egiten zuten beraiek.

Oregiko langileek 1939an Arantzazu-terateratoko argazki batean, Oregi lantegian zebiltzan emakumeetako bat-zuek agertzen dira, 25 hain zuzen ere.



❖ Oregi ehun-lantegiko langileak Arantzazun, 1939ko uztailean. Ezkerretik eskuinera: goi-ko ilaran, Pilar Madariaga Legorburu, Emiliana Garitano Lizarralde, Martina Elorriaga (soi-neko zuriz), Toribio Etxeberria "Txatxi" (Banco Vizcayako zuzendaria), Joakina Elorza Aias-tui, Larrañaga, Juan Aseginolaza (erdi ezkutatua, ez zen lantegiko langilea), Nikolasa Zangitu Kortabarria, Roman Zabaleta Olabarria (alkondara zuriz), Concepcion Laspiur Inarra, Higinio Igartua Arruti (zapi zuria lepotik), Maria Carmen Ibarzabal, Sebastián Laskurain Zabaleta, Tomasa Lezeta eta Cándido Maiztegi Eiguren. 2. ilaran: Ines Agirre Oteiza (soi-neko zuriz jantzita), Maria Mercedes Oregi Arregi, Blas Ugalde Alberdi, Carmen Unzurrunza-ga Laspiur, Juana Mujika Alustiza, Rufino Bolibar Iribecampas, Maria Jesus Aranzabal Txurruka, Lorenza Fernandez de Jauregui Aspiazu, Margarita Larrañaga Zarragoza eta Lorenza Zangitu (zalan-zazkoa). 3. ilaran: Jose Laskurain Zabaleta, Juan Jose Ausan, Benita Mu-jika Alustiza, Dolores Altuna, Eusebia Usabiaga eta Margarita Garmendia Astarloa. Behe-ko ilaran: Jose Maria Laskurain Zabaleta, Isidoro Aranzabal Txurruka, Eugenio Arriaran Aro-zena, Domingo Oregi Gabilondo, Prudentzia Unzurrunzaga Laspiur, Lorenza Azkorbebeitia Agirrezabal, Teodora Eizagirre, Joakina Aspiazu eta Felix Beitia Barrenetxea Arando. Ber-garako Udal Artxiboko bilduma, Lorentxo Laskurain Gabilondo

■ Otazua

Masterrekako Eulalia Elkor Otazua ehun-lantegian ibili zen gaztetan. “*Hemen, kale honetakuak, ixa danak. Hola pixkat lanera juatekuak, baina beste batzuk badakizu... ‘un poco señoritas’... Nahiz ta igual okerrao egon, baiña lanera joateko...*”. Etxe onetako alabek ez zuten etxetik kanpo lanik egiten; etxean jostea, adibidez, bai, baina lantegira joatea ez zuten begi onez ikusten. “*Eta beste batzuk nahixao ze-ben kriada joatia edo beste zeoze. Fabrikara lana... orduan ez zan bape hori... Oin danak fabrikara sartzeko desiatzen dare, baina orduan ez, e?*”. Askoz hobeto ikusita ei zegoen neskame joatea. Elkorok gero janari dendan egin zuen lana bitzta osoan.

Elkorok dioenez, Masterrekako bere lagunetatik bakarra joan zen mojetara ikastera; 13 urterekin utzi zuen, eta lanean hasi zen, Algodonera.



❖ Eulalia Elkor, 2005ean ahotsak.com-erako egindako elkarrizketan.

■ Arteche Hermanos

Osintxuko Artetxe ehun-lantegian ere emakume asko zebilen lanean. Claudio Artetxek sortu zuen, 1910eko hamarkadan. Ur salto propioa zeukan, tindategia eta ehundegia. Prozesua osorik egiten zuten, Algodonera bezalaxe. 1920an 60tik gora langile ziztuen.

Miren Osa: “*Osintxun be ez dakit zenbat etxe eukazen Artetxek, e, danak beren langillienak*”. Mirenen senarrak, Luzio Urzelaik gogoan du ordutegia: “*Goizeko bostetan kanpaia jo, eta ordubata eta erdiak arte. Ordubata eta erdietatik hamarrak arte. Bi errelebo. Gizon batzuk be bai, gizonak gutxi, enkargau edo hola bat edo bi*”.

Osintxuko Flora Gauba Lete Arteche Hermanos lantegian ibili zen, hamalau urterekin hasita. Hamar bat urte egin zituen, baina bi alditan, gerra aurrean eta ostean. Amak eta ahizpak ere fabrika berean jardun zuten: “*Haura zan Arteche Hermanos. Gu gebizen han ama bi alabakin*”. Tartean krisi gogor bat etorri zen; lana galdu, eta neskame joan zen Bergarara:



❖ Flora Gauba, 2012an ahotsak.com-erako egindako elkarrizketan.

“Gero lanik eza etorri zan. Orduan be krisisa egon zan. Eta Bergarara etorri nintzan neskame”. Urtebete baino gutxiago egin zuen lan horretan. Ezkondu eta gero, lanean jarraitu zuen fabrika: “Baiña nik ezkondu ta gero beste bost urte egin nittuan lanian. Aurretik gerria tokau jatelako. Gero gaixoik jausi nitzan, eta orduan laga egin bihar izan neban”.

Gutxi irabazten ei zuten: “Nik ez dakit zenbat zan. Gero normaldu zanian, esaten zotsun ugezabak: ‘Etorri zeinke arratsaldian lanera?’. Nik ez dakit zenbat zan, orduko pezetia-ta bakarrik pagatzen zien. Hori extrak egin-da, e!”.

■ Tindategiak

Bergarako ehun-lantegi gehienek jatorria tindategi txikiak dira. Eta haiek gizonezkoak zeuden lanean. Esan beharra dago sasoi batean legeak debekatu egiten zuela emakumeei tindatzaile moduan lana ematea, eta lantegiek arau hori normalean bete egiten zutela.⁵

Ehun-lantegietan tindatzaile gisa beharbada ez, baina arropa tindatzen bai ibili zirela emakumeak. Lutoak beltzez jantztea agintzen zuen, eta berandu arte ohikoa izan da arropa tindatzea.

Renteri tindategia, esaterako, 1920an sortu zuen Jose Kruz Imazek, eta bere emazte Brauliarekin eramaten zuen negozioa. Ondoren, Jose Mari eta Nieves Imaz seme-alabak egin ziren tindategiaren kargu, Juli eta



❖ *Onena tindategiko Carmen Azkargortaren ezkontzako argazkia, 1943ko uztailean; ezkondu ostean ere lanean jarraitu zuen. Senarra Lazkano da. Bergarako Udal Artxiboa. Argazkilaria: Toribio Jauregi*

Carmen ahizpen laguntzarekin. Gero, Nievesen alaba Manoli ere bertan ibili zen lanean, eta haren alabak dira orain arduradunak, laugarren belaunaldia. Beraz, Renteri emakumeen esku egon da neurri handi batean.

Onena tindategian ere emakumeek izan dute zer esanik. Miren Azkarete dioenez, gerra aurretik aitzak eta semeak tailerrean -Mugertzan zeukaten tindategia- tindatzen zituzten arropak, eta gero arropa fardoa buruan jarrita etxepera eramaten zuten. Plan txan egiteko gela bat zuten han; amak eta bi ahizpak egiten zuten plantxan, baita enkarguak hartu eta arropa partitu ere. Gerraostean emazteak hartu zuen ardura, alargundu egin baitzen. Carmen eta Iruñe Azkargorta alabek laguntzen zioten. Iruñe Beasainera joan zen bizitzera, eta han ja-

⁵ A. Ibañez, A. R. Ortega, A. Santana, M. Zabala. *Casa, familia y trabajo en la historia de Bergara*. Bergarako Udala, 1993.

rri zuen tindategia. Carmenek eta haren senarrak jarraitu zuten negozioarekin.

Margola izeneko tindategia ere bazegoen. Gerraostean bertako ardura-duna Luisa Agirrezabal alarguna zen (Elisabet Agirrezabalen ahizpa, 'Pairosia' bezala ere ezaguna). 87 urte izan zituen arte ibili zen tindategiko dendan lanean. Luis Payros semeak laguntzen zion.

1930eko erroldan badatoz emakumezko tindatzaile batzuek ere. Ez dakigu lantegietan zebiltzan ala ez:

- Maria Etxezarreta, 19 urtekoa. Goenbolun bizi zen.
- Lucia Solabarrieta. 22 urtekoa. Zarauztarra, 8 urte zeramatzan Bergaran. San Pedron.
- Gervasia Berriotxo. 54 urtekoa. Ezkongabea. San Pedron.
- Luisa Larrañaga Amutxastegi. 22 urtekoa. Aita tindatzailea zuen, eta beste hiru ahizpak ere lanean zebiltzan (jostun eta neskame). Barrenkalean.
- Juliana Alberdi. 34 urtekoa. Ezkongabea. Masterrekan.
- Trinidad Eguren Larrañaga. 27 urtekoa, ezkondua. Urtebeteko alaba zuten. Masterrekan.

Beste lantegi batzuetako beharginak

Badakigu Osintxuko Elisa Gantxegi 12 urterekin lantegi batean hasi zela lanean, baina ez zein lantegi zen (Arte-txe ehun-lantegia izan daiteke, Osintxun baitzegoen, baina baita Soralu-zeko lantegiren bat ere, ama bertakoa



❖ Elisa Gantxegiren argazkia. 1985ean elkarrizketatua.

baitzuen). Bi urte egin zituen han, Gasteizen neskame hasi aurretik. Elosuko Juana Joxepa Lete, 1903an jaioa, ere tailer batean ibili zen lanean. Ez dakigu non, baina bai ordutegia: 06:30ean sartu, 08:30etatik 09:00era gosaldutxo, eta gero 12:00ak arte lana. Arratsaldean, 13:30etatik 18:30era. Egunean hamar ordu, beraz. Larunbatetan ere lana egiten zuten.

Ataltxo honetan beste lantegi batzuk aipatuko ditugu, emakumeak lanean ibili zirenak, ehungintzaz apartekoak. Gehiago ere izango ziren, tailer txikiak batez ere, baina hauek diraguk jaso ditugunak:

■ Labe Garaiak

Zerrajerako tailerrean ez zegoen emakumezkorik: “Emakumiendako nik pentsatzen dot hori lan gogorregia izango zala”, dio Maria Pilar Larrañagak. Bere aita bertako langilea izan zen, eta lan baldintzak oso gogorrak ei ziren. Arrasaten bazebiltzan emakumeak, sarraigintzan batik bat, baina Bergaran prozesuaren lehen zatia egiten zen gehiago: altzairua urtu, eta xaflak zein



❖ *Lide Oregi 1955ean Labe Garaietako laborategiko laguntzaile moduan lanean, 20 urterekin.* Jabea: Lide Oregi

profilak egin, Arrasatera bidaltzeko. Larrañagaren ama garbitzaile moduan ibili zen Labe Garaietan, alargundu zenean: egunean bi orduz. Bulegoetako garbitasunak emakumeak egin izan ditu. Baita beste lantegietan ere.

Labe Garaietan emakumeak ofizian zebiltzan lanean (ikus *Bulegariak* atala), eta laborategian ere bai: Lide Oregi laborategian ibili zen lanean, ezkondu aurretik. Horretaz gain, Labe Garaietan baziren langileentzako jantokia eta ekonomatua, eta horietan lan egiten zuten langile gehientsuak emakumeak izaten ziren. Florita Izuskizaren arabera, aurretik zerrajeran ez zebilen emakume asko. “Gero ekonomatua zabaldu zebeñian, ba bai. Han dendia moduan, ekonomatua. Ipinen zebeñ peskaderixia, karnizerixia, erropia denda... horrek danak. Orduan bai. Ta gero jaten be bai, komedoriak be egon zien. Bertara jun eta erropia erosi, neu be junda nao. Mantak-eta, izarak-eta erosi eta bai. Egon zan”. Doro Jauregi, Beatriz Lazkano, Begoña Madariaga, Mari Tere Alzelai, Margarita Garitano eta Begoña Irastorza zeuden ekonomatoko langileen artean, eta Pilar Umerez jantokian.

■ Zapata lantegiak

Ehunarekin batera, larruak ere izan zuen bere merkatua Bergaran. Hori bai, Antzuola zen larrugintzaren herria. Mende hasieran bi ziren zapatagintzan ziharduten lantegiak Bergaran: Ortueta y Diaz de Mendivil (1903an 37 langile; horietako 7 emakumeak, jostunak) eta Viuda de Aranes (1903an 11 langile, 3 emakume).

Florita Izuskiza: “*Emakumiak gehixenak textilian, eta aurretik, nere ama zapaterixa baten ibili zan. Ta han be emakume pilla bat zebizten. Gizakumiak be bai, baina emakumiak be bai. Ta haura be desagertu egin zan*”.

Geroxeago, Telleria zapata lantegia jarri zuten. Maria Argialde hantxe ibili zen lanean, gerraostean. Antzuolan larru lantegia zuten, eta bertatik eramaten zuten larrua. Kaleko zapatak eta soldaduendako botak egiten zituzten. Kartutxo-gerrikoak ere egiten



❖ *Maria Argialde Telleria gaztetan (ezkerrekoa da). Zapata lantegian ibili zen lanean, gerraostean.*

ziren bertan. Etxera eroaten zuten lana, kartutxerak josteko. “*Bi jostorratz hartu, eta hilobalia. Haura hanka artian hartzen, haura trastia, eta gero jostorratz bi, sartu, estutu... holaxe josten zan*”.

Telleria lantegian emakumezko asko zeuden. “*Guk pasau giñuan kristona. Lana egin? Edozein lan, e!*”. Fabrikan batzuk makinan josten ibiltzen ziren, beste batzuk takoiak pegatzen... Soldata astero kobratzen zuten. “*Han lana egitten nebana... Guk gabeko hamarrak arte lan egitten giñuan, seiretan sartuta. Gero billur galantak pasatzen giñuzen etxerakuan. Orbel zarata batzuk entzundakuan... ‘Válgame Dios!’*”.

Miren Azkaratek Amenabarren zapata tailerra ere aipatu zigun. Gerra aurrean aita eta semea ibiltzen ziren. Gerra garaian haiek hil egin ziren; gerratik bueltan, tailerra berriz ireki eta etxeko alabek jarraitu zuten lanarekin. Justa eta Maria Amenabar ahizpak ziren arduradunak, ezkongabeak. Maria Txantxote'ren lagunak ziren; gerra garaian denak joan ziren ihesi. Laneko zapatak eta botak egiten zituzten, gizonentzat. “*Asko baliio zebeñ emakumiak zien... bai Maria Txantxote, lagunak zien, Idarretanekuekin be lagunak zien... horrek danak lagunak zien. Batzokiko lagunak izango zien*”.

1930eko erroldan agertzen diren zapatagileak:

- Pilar Redondo. 18 urtekoa, Tolo-sakoa.
- Maria Luisa (23) eta Mari Paz (21) Galarreta Telleria ahizpak. Ama

alarguna oihalgile moduan dabil lanean.

- Ignacia Arozena, 27 urtekoa.
- Paula Urzelai. 14 urtekoa. Bere aita tindatzailea da. Lau anai-arreba txiki ditu.
- Rosario Bakaikoa. 19 urtekoa. Nafarroan jaioa, 14 urte daramatza Bergaran.

Lantegietako ohiturak eta baldintzak

■ Lantegietan, ezkontzean lana uztea

Florita Izuskizaren arabera, sasoi batean emakume ezkondu gehienek ez zuten etxetik kanpora lanik egiten. “*Askok lanik be ez: umiak zainddu eta kitto. Gehixenak emakumiak, orduan,*



❖ *Cele Otaño eta Isabel Mujikaren ezkontzako argazkia, 1944an.* Bergarako Udal Artxiboa. Argazkilaria: Toribio Jauregi

lanik be ez. Etxian umiak hazi, gizonak lana egin ta... baina zebiztenak ba textilian gehixenak”.

Benita Gallastegi plazentziarrak ere lana utzi zuen, ezkondu zenean. Soraluzen zebilen, Alberdi laban lantegian. *“Gu ezkondu, eta lana laga. Oin penia daukau. Por qué no seguiriamos?”*. Bergarara ezkondu zen, eta senarraren osaba-izebek bizimodua garraztu zioten. Gainera, independentzia ekonomikoa galdu zuen. Ohitura zegoen ezkontzean lana uzteko. Gerora makina bat lan egin behar izan zuen Gallastegik. Denetarik. Etxean saltzaile lanetan ibili zen. *“Gero peskaderixia be euki neban nik San Lorentzon. Baina gero gaixotu nitzan... gultzurruna. Eta laga egin bihar. Azkenian, interina be bai”*.

Soraluzeko Miren Osak Sacia torloju lantegian egin zuen lana, ezkondu arte. 15 urte ingururekin hasi zen, 40ko hamarkadaren amaieran. Eta 11 urte egin zituen han. Tornille-



❖ Benita Gallastegi, 2009an ahotsak.com-erako egindako elkarrizketan.

rixan taladroan egiten zuen lana; harria ematen ere bai. Osintxutik jende asko joaten zen hara lanera. Lana uztearren 3.000 pezeta ematen zieten. Gero kendu egin zuten, baina Mireni parean tokatu zitzaion. *“Dotia, bai, bai”*. Bi lagunek utzi zuten batera. *“Orduan klaro, ezkondu eta pentsau be ez segitzerikan, iñok pe ez. Han ezkontzen zianak, danak urtetzen zebeñ”*. Mireni ez zitzaion burutik pasa ere egin ezkondu eta lanean jarraitzea: *“Keba, okurridu be ez. Pixkat derri-gortuta genden. Ipintzen zebeñ haura, dote haura... Kendu egin biha zebela, eta guk aurreratu egin giñuan (bodia)”*. Bergarara ezkondu zen, Osintxura.

Ohitura zen ezkonduetakoa lana uztea. Lucia Farrasen amak halaxe egin zuen, Algodoneran. Bera ere presoionatu izan zuten (ikus bere biografia *Bulegariak* atalean), baina jarraitu egin zuen, eta gustura gainera. Dena dela, ezkondu eta gero lanean jarraitzen zutenak ere baziren. Baliteke emakumeren bat edo beste neskazar har apropos gelditzea lana ez uzteko, baina ez du uste horrelako asko izango zenik.

“Nahi izeten zan gizonak diru asko irabazi eta norbera ahal dan onduen bizitzia”, Miren Azkarateren esanetan. “Fabrika hortara [Algodonerara] joaten zan emakume asko, lana egittera, baina emakumiak ezkontzen zienian gehixenak ezkondu eta segittuan lanari lagatzen zotsen. Orduan ez zan lanian segitzeko gogo haundirik. Alargunak eta bai, biharrezkuak ziren; oseake bihartasunak eruaten zittuen, baina bestela, ezkontzen zienian emakumiak lanari laga egitten zotsen.

Klaro, umiak etortzen zien segittuan!”. Ohitura zela dio, baina ez hori baka-
rrik: “*Gainera uste dot ikusten zala*
hola liberaziño bezela edo”.

Elisabet Agirrezabalek dioenez, emakume ezkonduak ere bazebiltzan Vergara Textilen lanean, bizitza dena han eman zutenak. “*Solterak be bai, baina ezkonduak asko. Lehenengotik zeren han, ni hara jun nitzanerako fabrikara harek urtiak zaroien*”. Berak dioenez, gehienek lanean jarraitzen zuten ezkondu eta gero ere. “*Eta hori pargia zeukela, e! Baina gitxik lagatzen zeben*”. Beste leku batzuetan bai, baina beraienean ez. Umeei titia emateko gela bat zuten. “*Gutxi zeren umedunak*”. Umea izatean ba omen zuten eskubidea baja hartzeko, baina kobratu gabe, eta gehienek nahiago izaten zuten lanean jarraitzea.

Maripaz Alustizak dioenez, 70eko hamarkadan ere ezkonduak emakume askok laga egiten zuten lana Algodoneran. Beste batzuek ez, bere ahizpa bikiak, esaterako.

■ Lantegiko lana eta etxekoa uztartzen

Etxeko lanak emakumeak egiten zituen, eta fabrikan zebilenari etxekoak eta lantegikoak pilatzen zitzaizkion. 1884ko testu honek⁶ ondo deskribatzen du Bergarako emakume langileen egoera:

“La mujer trabaja en la casa y también fuera de ella. La que trabaja fuera del hogar es en la fábrica por el deseo de aumentar el haber de la fami-



❖ *Emakumea harrikoa egiten, 60ko hamarkadan.* Bergarako Udal Artxiboa. Miguel Angel Elkorobereibar fondoa. Argazkilaria: Serafin Esnaola

lia. Trabajan en las mismas industrias que los varones y las mismas horas que estos. Las que trabajan dentro del hogar no se dedican a trabajos que se relacionan con el de los talleres, sin que se diferencie la moralidad de la mujer soltera y de la casada que trabajan en la fábrica o en casa. Hay industrias en que los varones hacen un trabajo análogo al de las mujeres y el salario de aquellos es algo mayor que el de las mujeres. Las mujeres no se emplean en industrias insalubres y las que se dedican a las faenas del campo toman tanta parte de trabajo como los hombres, sin perjuicio de atender a todos los trabajos domésticos”.

Maria Pilar Larrañagaren ama seiretan irtetzen zen lanetik, eta bera orduan sartu. Ama-alabak, biak zebiltzan Algodoneran lanean. “*Eta guri oso ondo etortzen jakun: etxia ondo eruatzen giñuan, eztakizu? Errelebuan. Eta seiretan lanera joaten zanak lagatzen zeban afaixa, lehelengua behintzat gertauta*”. Amak bi tokitan egiten

⁶ Bergarako artxiboa: 273 A.M.B Secc E. Neg 3. Caja 108, Exp. 2. Año 1884. In A. Ibañez, A. R. Ortega, A. Santana, M. Zabala. *Casa, familia y trabajo en la historia de Bergara*. Bergarako Udala, 1993.



❖ Maria Pilar Larrañaga gaztetan (esku-makoa), Maria Aranzazu Igartuarekin Ozaetan.

zuen lana: Labe Garaietan interina moduan, eta Algodoneran: “*Ama Algodoneratik etorri, hurrengo egunian bostetan jaikitzen zan Algodonerara joateko haura, e? Eta Altos Hornoskua egin bihar*”.

Bere lanarekin nahikoa ez, eta se-narrari begira egoten zen Larrañaga. Hark Labe Garaietan egiten zuen lana, eta janaria eramatera joaten ziz-tzaion. “*Jan-orduan fabrikara eruan egitten jaun guk. Bai, por ejemplo, goi-zian joaten bazan nere gizona, seire-tan joaten baldin bazan, ba zeoze hartzen zaban, o kafia edo esnia edo... bueno, zeoze hartzen zaban, gauza asko ez, ezta? Baina gero zortzireta-rako berakatz-zopak preparauta, ‘con huevo’ eta... bai, zestotxua. Biha dan modukua, e! Biha dan modukua zes-totxua*”. Gainera, Angiozarko senitar-tekoek ere etxean bazkaltzen zuten, lantegitik etxea urruti zutelako.

Elisabet Agirrezabalek dioenez, emakumeek etxeko lanak ere egin behar zituzten lanetik bueltan, han la-guntzeko norbait ez bazuten. Ama edo. Oraingo amonek ere zaintzen dituzte umeak. “*Baina lehen amandria be la-nian zeuan! Amama lanian eta ama la-nian, hori askotan, Algodoneran be ikusten neban nik txikixa nitzanian, zela etortzen zien andrak umiei titixa emuteko*”. Etxeko norbaitek eramaten zuen umea lantegira, eta berriz buel-ta etxera. Orain hobeto bizi garela dio. Beraiek oporretan aprobetxatu be-har izaten zutela urte guztikoa.

■ Grebak eta lan baldintzak

Miren Azkarate jostunaren ustez, epe luzera begira lantegiko lana alde ede-rrekoa izan zen, beraien kasa lan egin zutenenekin alderatuta. Lante-gietakoek kuota bat ordaintzen zuten, eta pentsio bat izatea lortu zuten.

Lucia Farrasek Bergaran ezagutu zuen lehen huelga Agustin Unzu-rrunzaga “Xabale” hil zenean/ zute-nean izan zen. Orduan Bergara guz-tia geratu zen. “Xabale” Bergaran atxilotu zuten 1947ko huelgan. Poli-ziaren eskuetan hil zen. Batzuek dio-te bere burua bota zuela trenera, beste batzuek bultza egin ziotela (edo torturengatik hil zela). Bergara guztia gelditu zen. Gorpuaren zain zegoen he-rria; San Antonioraino ekarri zuten, baina Bergaran egin behar zitzaion ha-rreka ikusita, berriro eraman zuten Do-nostiara. 1947ko maiatzean izan zen. SOS Arrazakeria-ko Agustin Unzu-rrunzagaren aita zen. Aita hil eta gero jaio zen Agustin. Ama alargunak ate-ra zuen aurrera.



❖ Miren Osa, 2006an ahotsak.com-erako egindako elkarrizketan.

Miren Osak Soraluezko Sacia torloju lantegian egin zuen lana, eta gogoan du hantxe egindako lehen greba. Bera ere irten zen protesta egitera. Beste batzuek barruan geratu ziren. Ez du gogoan greba zergatik egin zuten, baina bai haserreak egon zirela eta guardiak agertu zirela. “*Nik orduan ez nekixen*”. 50eko hamarkadaren erdialdean izango zen, 20 bat urte zituen eta.

Farrasek etxean entzuna du gerra aurretik ugari izaten zirela grebak. Polizia zaldiekin egoten zela Algodonerrako zubia zaintzen. Maria Dolores Peñari ere bere aitak kontaktzen zizkion halakoak. Bere aitak greba bat zuen gogoan, zortzi orduak lortzeko egin zutena. “*Egundoko iskanbila sortu zen, Polizia etorri zen... zaldi gainean...*”. 1934ko iraultzaz ari daitezke. Gerra aurreko grebetan emakume batzuek ere parte hartu zuten. Markatuta geratu ziren; euren lan fitxetan “bolchevique” hitza jarri zieten. Errebol-tariak zirela, alegia. Batzuek lana galdu zuten. Algodonerran ibilitako batzuek beste ehun-lantegi batzuetan hartu zituzten lanean gero, Lasagabasterrenean adibidez. Eta alderantziz ere bai.

3.2. Jostunak eta bordatzaileak



❖ *Jostun taldea XIX. mende bukaeran. Kontxa Barrena eta Ventura Emaldi dira jostunetako bi.* Bergarako Udal Artxiboa. Kultura departamentuko bilduma, Txaro Zabala

Herri guztietan egon dira jostunak, eta asko. Bergaran, baina, beste toki batzuetan baino gehiago. Konfekzio tailer ugari zeuden; langileentzat arropa egiten zuten tailer horietan, ehun-lantegietan ekoiztutako telarekin.

Josten ikastea

Joskintza emakume denek ikasi beharreko zerbait zen. Josten ez zekien emakumea ganora gabekotzat zuten. Ez zen gai izango familia behar bezala zaintzeko. Oinarrizko ikasketekin batera, edo haiek amaitutakoan, nes-

ka gehienek josten ikasten zuten. Batzuek baita lanean ziharduten bitartean ere. Hainbat jostunek erakusten zuten josten Bergaran.

Miren Azkarate zen josten erakusten zutenetako bat: “*Inportantia zan josten jakitzia*”. Zazpi-zortzi ibili ziren berarekin ikasten, dioenez oso giro onean. 19:00etatik 22:00etara. Horietako batek Amenabarrenean egiten zuen lana, zapatagintzan. Bere ikasleetatik bi dedikatu ziren gero jostera. Bere garaikoen artean, berriz, uste du bera izan zela bakarra: “*Josten ikasten asko ibili giñan orduan neskak,*



❖ *Miren Azkarate, 2013an lan honetarako egindako elkarrizketan.*

asko. Baina jostera dedikau oso gutxi, e!”. Etxerako lain jakitea aski zen. Konponketak egin eta arropa xumea josteko. Bera Mugertzako Gregori Ugalde jostunarekin ibili zen lehenengo, eta Katalina Zarautzekin ondoren, Ba-

rrenkalean. Giro polita ei zuten taldean. “Batzuk joaten giñan ikastera, eta beste batzuk ondo pasatzera”.

Miren Azkarateren esanetan, bere aurretik josten erakusten zuten jostun ezagunenen artean, Katalina Zarautzez gainera, Juliana Enekotegi, Angelita Elgoibar eta Angeles Inza zeuden. Zarautz ezkondata zegoen eta hiru seme-alaba zituen. Enekotegi eta Elgoibar ezkongabeak ziren eta Inza alarguna; hark ere bazituen seme-alabak. Angelita Elgoibar Casino gainean bizi zen. Asuntxi Uribe-salgok dioenez, jostun ezagunek izaten zituzten neskak josten erakusteko, baina asko ere ez, bestela ezin zutelako beraien lana egin.



❖ *Angelita Elgoibar jostuna eta bere ikasleak, 1928ko udaberrian, Santa Ana jauregiaren ondoan; bertan ikasten zuten josten. Ezkerretik eskubira: Casimira, Anita (Aristizabal baserrikoa), Carmen Altuna, Maria Bilbao, Rufina Beistegi, Angelita Elgoibar (irakaslea), Nieves Ibarrola, Angelita Azkargorta, Maria Alzelai, Carmen, Catalina Alvarez, Juana Iñarra eta Maria Pikasarri. Bergarako Udal Artxiboa. Kultura departamentuko bilduma. Argazkilaria: Villan*



❖ *Juana Maiztegi, 1969ko argazki batean.* Bergarako Udal Artxiboko bilduma, Lorentzo Laskurain Gabilondo. Estudio Color.

Erratzuneko Petra Juaristik -Gisasola ferreteriakoa- Angeles Inza jostunarekin ikasi zuen josten, Barrenkalean. 14 urterekin josten hasi zen, eta urte batzuk egin zituen, dendan lanean hasi zen arte. Juana Maiztegi jostunak ere (Kontxita Maiztegi maistraren ahizpak) Angeles Inzarekin ikasi zuen josten. “*Ta gero juan nintzan Bilbora. Senidiak zeuzkun. Ta Bilbon egon nitzan kortia ikasten. Kortia eta josten be ba*”. Maria Enekotegirekin. Bueltan, bere kabuz hasi zen lanean. Josten erakusten, Barrenkalean. “*Nik neuk lanik ez neban egitten: neskei erakutsi. Lana, erakusten*”. Neska asko eduki zituen, “*muchas señoritas*”. Nerekin ‘mediapensionista’ ibilittak kuak ziren gehixenak”. Florita Izuzkizak, esaterako, berarekin ikasi zuen. “*Corte y Confección emuten zeban*”. Baita Eulalia Elkorok ere: “*Han be ibi-*



❖ *Marcó akademiako ikasleen argazkia, San Pedro elizako atarian.* Bergarako Udal Artxiboa. Argazkilaria: Toribio Jauregi

li nitzan. Oso gutxi kobratzen zeban harek pe”.

Asuntxi Gallastegik Gregori Ugalderekin ikasi zuen josten, “*Laskurain alkatiaren amarekin*”. Asuntxi Uribe-salgoren izebak, Evarista eta Ines Uribesalgo bordatzaileak, Garcia Zabaleta ahizpekin ikasiak ziren. Asuntxi berak etxean ikasi zuen bordatzen, bi izeba horiekin, elkarrekin bizi baitziren; eta Arrasaten ere bai, Anparo Trencadorekin. Bordatzaileen lana ere beharrezkoa zen, ezkontzako arriorako izarak eta mantelak bordatu egiten zirelako.

Maria Argialderi Eloisa Aranzabal jostunak erakutsi zion josten. Lide Oregiren amak, Luisa Arregik, Maria Zubeldiarekin ikasi zuen josten. “*Gizona zan Sastreria Mujikakua, Mujika; horko sastia zan bere gizona [Anbrosio Mujika], eta gero semiak eta egon die. Sastrexia azkenengo euki dabena ama zan, modistia, eta horrena, horra etortzen zan ikastera*”. Asko joaten ziren, “*kuadrillia. Josten eta kortia be bertan erakusten zotsen*”. Aipagarria da 1930eko padroian Anbrosio Mujika sastre moduan agertzen dela, baina bere emaztea etxekoandre gisa. Zazpi seme-alaba dituztela jartzen du. Horietako batek, Lide Mujika Zubeldiak Magisteritza ikasi zuen (ikus *Maistrak* atala).

Marcó akademian ere josten erakusten zuten, 40ko hamarkadan. Angelita Marco Gantxegi zen arduraduna, 1912an jaioa; konfekzio tailerra zeukan.

Lide Oregiren ama, Luisa Arregi, gero ez zen jostun moduan ibili, baina etxeko arropa denak berak josten

zituen. Enkarguz ere egiten zituen gauzatxo batzuk. “*Gu be zazpi anai-arreba giñan ta... Inguruko konpromisuak egitten zittuan*”. Dotore ibiltzen ziren amak egindako eta konpondutako arroparekin: “*Auzuan [Zubietan] esaten zeben: ‘Bai, zuek majo, dotore asko jantzittakuak zate, zuen amak makiña bat joste egitten zeban ta’. Klaro, josten ez ekixenak orduan geizki biha zeban, zegaittik ez zeuan konfesionautako ezebe eta... ezebe. Baina josten zekixenak ba gauza gutxi ta bere loibenak, zaharraguak zien, ta guri ba bueltia emon eta berri-berrixa letxe ipintzen zoskun. Eta ba itxuria daonez gu dotore joaten giñan. Hori esaten zeben auzoko andrak*”.

Aipagarria da neskek umetatik ikasten zutela josten. Mutilek ez be-



❖ *Angelita Marco (goiko ilaran, esku-makoa), Escuela del Hogarren ibili zen garaian, 1930 urte inguruan. Emakume Abertzale Batzaren argazkian ere bada-go. Bergarako Udal Artxiboko bilduma, Elena Odriozola Saizar*

zala, ikastetxean bertan ere eskulanak egiten zituzten. Enseyntzan ibili zirenek eskuz josten ikasten zuten. Gloria Agirrebeña: “*Eskolan be jostekua egitten giñuan, bordatzen be bai... bainikak ta lan asko egitten giñuan eskolan mojetan. Han ikasi giñuan josten. Eta gero handik egon nitzan etxian josten, beste puskaten egon nitzan*”. Escuela del Hogar ere jarri zuten, lanean zebiltzan neskontzat, eta han ere kortea erakusten zuten (ikus *Escuela del Hogar* atala).

Bestalde, Udaletik ere ikastaroak antolatu zituzten. Singer josteko makinak erabiltzen ikasteko egin zutenak arrakasta handia izan zuen, eta badakigu 1927 eta 1929 urteetan behintzat antolatu zutela.

Jostunak

Aipatu dugun moduan, etxekoandre fina izateko baldintzetako bat zen jostintza neska gehienentzat, ez ogibide bat. Hala ere, Bergaran beste herri batzuetan baino emakume gehiago ibili zen langintza horretan. Izan ere, ehungintzarekin lotutako negozio ugari zegoen herrian: asko izan ziren konfekzio tailer txikietan lanean jardun zutenak. Miren Azkarate jostunak dioenez, batzuek etxean josten zuten. Konfekzio tailer horietan gehienbat langileen arropak egiten ziren, mahoizko galtzak eta buzoak. Arropa zuria egiten zuten batzuek, beste batzuek azula, Asuntxi Uribesalgoren esanetan; gizonezkoek ebaki egiten zuten batzuetan, eta emakumeek josi. Alabaina, sarri prozesu osoa emakumeen esku egoten zen.



❖ *Udaletxeko Pleno aretoan emakume taldea Singer josteko makinak ikastaroa egiten, 20ko hamarkadan.* Bergarako Udal Artxiboko bilduma, Kontxi Irizar Urzelai



❖ *Singer ikastaroan parte hartutako emakume taldea, ur depositoan 1927an. Ezkereskuin: Maria ala Juanita Zabala (3.a, Zabala tabernakoa), Carmen Aranburu (4.a), Angeles Bilbao Bagazgoitia (6.a), Zabala (7.a) eta Candida Bakaikoa (14.a). Hauek dira irudian agertzen diren beste emakumeetako batzuk: Primitiva Moreno (arrain-saltzailea), Pakita Agirrezendoia, Azkarate (Jerónimo Azkarateren alaba), Eusebi Agirre Idigoras, Asuntxi Idarreta, Teresa Amasorrain Zenitagoia, Cecilia Gomez Casado, Trini Arregi, Beatriz Fernandez, Dioni Alkorta Zabaleta eta Tomasa Oiangueren Jauregi. Bergarako Udal Artxiboko bilduma, Kontxi Irizar Urzelai*


Petra Juaristi dendaria konfekzio tailer baterako aritu zen. 14 urterekin hasi zen josten, 1932. urte inguruan, etxean diru beharra zutelako. Prakak josten ikasi zuen. Zela josten zen ikusi, etxera oihala eraman eta etxean josi zuen lehen praka-parea. Hurrengo egunean beste bi enkargatu zizkioten. Macho familiak ematen zion lana. Lan asko zuenean deitzen zioten. Prakak josten zituztenei “pantalonerak” esaten zieten. Luzaroan egin zuen josten Juaristik. Txaketak, ume arropak eta denetik josten zuen. Dendan lanean hasi zenean uzten joan zen.

Eduarne Laborda ere konfekzio tailerrentzat lanean ibili zen bizitzan guztian, etxetik. 16 bat urterekin hasi zen josten, 1939 urte inguruan. Eta ezkondu eta gero ere jarraitu egin zuen. “Gustau egitten jatan jostia. Ta ni egon nitzan ba sastrerixa baten josten, prakak josten. Ta gero ba nik ze-oze dirua irabaztia edo zeoze nahi neban, eta gure amak fabrikara nahi ez sartzia. Ez dakit zegatik, baiña nahi ez. Nere lagun danak fabrikara juaten zien baiña... Ta gero orduan hasi nitzan azulian etxian josten. Ta ni bizi guztian ba hoixe. Oseake buzuak eta pra-

kak eta alkondarak eta horrek. Gure amak itxuria pentsatzen zeban etxian behintzet... 'Fabrikara ez, fabrikara ez'". Hainbat tailerretarako egin zuen lana. "Taillarretatik emoten zotsuen ebagitta ta dana, ta gero zuk etxian josten ziñuan; ta entregau".

Askok ziren konfekzio tailerrak, gehienak txikiak. Batzuk aipatzearen: Maria Dolores Ugalde "Txara", Narcisa Berraondo, Juste eta Maria Amenabar, Julitxu eta Manolita Sainzar, Hijos de Felix Elorza, Alfonso Gallastegi, Claudio Aiastui sastrearena, Orbe, Osinaga, Agirre, Loidi... Langile gehienak emakumezkoak izan arren, batzuetan gizonezkoak ziren negozioaren arduradunak. Hori bai, 1938an Industria Zerga ordaindu zutenen artean emakume bat ageri da: Julia Isasmendi Unzuetak konfekzio tailerra zeukan Bidekruzetan.

Askok izan ziren beraien kabuz kanporako josten jardun zuten gazte txoak ere. Aldi batez zenbaitetan, ezkondu bitartean edo beste lanen bat aurkitu arte. Baina Miren Azkaratek



❖ *Edurne Laborda, 2010ean ahotsak.com-erako egindako elkarrizketan.*



❖ *Petra Juaristi umetan (ezkerrekoa), 1927 urte inguruan dantzari jantzita, Adelaida Soriarekin. 14 urterekin hasi zen josten. Bergarako Udal Artxiboa. Argazkilaria: Gerardo García*

dioenez, bizitza osoan horretara dedikatzen zirenak ez ziren hainbeste ere, kontuan izanda ia neska gehienek zutela josten ikasteko betebeharra. Hori bai, salbuespenak ere bazeuden. Ikasketekin jarraitzen zuten neskek normalean ez zuten josten ikasten. Beste asmo batzuek zituztelako. Lucia Farrasek eta Maria Dolores Peñak, esaterako, ez zuten josten ikasi (ikus *Nesken ikasketak* atala).

Jostun ezagun batzuk aipatu ditugu jadanik: josten erakusten zutenak. Esan beharra dago jostuntzan ari tutakoak asko zirela: Carmen Ugarte *Monzonenekoa*, Maria Arretxe, Maria Larrañaga *Saizabal*... Baina jostun gehienak ez dira inongo dokumentutan azaltzen, ez zutelako euren lanaren parte ematen. Etxean josten zuten, eta bezeroarekin zuzeneko harremana zuten. *Ahotsak.com*-en elkarrizketatu



❖ Dolores Altuna, 2004an ahotsak.com-erako egindako elkarrizketan.

ditugunen artean Miren Azkarate, Asuntxi Uribesalgo, Juana Maiztegi, Dolores Altuna eta Edurne Laborda jostunak daude. Dolores Altuna beste lan batzuetan (Oregi ehun-lantegian eta neskame) ibili ostean hasi zen josten, nahiko berandu. Bere kontura jarri zen, eta ezkontzako soineko zuriak egiten ibili zen. “*Nobixendako ta*”.

Jostun gehienek etxean josten zuten. Alabaina, baziren baserriz baserri ibiltzen ziren jostunak ere. Normalean, baserriko alabak. Maria Alzelai, San Migel auzokoa, halaxe ibili zen. Bera hasi zenean, 20ko hamarkadaren hasieran, “*dos cincuenta*” kobratzen ei zuen eguneko. “*Lana? Edozein ordura arte! Hamarrrak arte igual! Ordurik... Guk ez dogu ordurik ezautu! Oingo moduan zortzi ordu ta? Keba! Hamar ordu, hamabi ordu be igual ta... hurrengo gutxiao ta...*”. Baserrietan bazkaltzen zuen. Eta afaldu ere bai, batzuetan: “*Ondo zetorrenian, berandu zanian; goiz zetorrenian ezebez*”.

Angiozarko Rosario Aranzabalen ahizpa ere jostuna zen. Josteko makina hartu, eta etxerik etxe joaten zen traje edo arropak egiten. Eta Juana

Maiztegi jostunaren ama, Marta Elkoroberezibar, ere baserriz baserri ibiltzen zen josteko makinarekin: “*Haura hartu galtzarpian, enda mendi puntara*”. Hark beste baserri batean ikasi zuen josten: “*Ba hantxe, basarri inguruan zeuan bat jostuna ta harexekin. Eta gero tia zeuan, kortia. Muñondoko tia. Solteria zan bera, tia, eta harek erakusten zotsan ebaitzen. Kortia*”. Pia Urriategi zen Muñondoazpikoa baserriko jostuna, Escuela del Hogarreko irakaslea izan zena. Maiztegiaren ama Bilbora ere joan zen josten ikastera. Ezkondu zenean, Zubietan jarri ziren bizitzen. “*Amak jostun egitten zeban, eta aittak igeltsero*”.

Miren Azkarateren ama ere, Isabel Urkiola, baserriz baserri ibili zen ezkondu aurretik. Konponketak egiten zituen, eta baserrian jaten ematen zioten lanak bukatu bitartean. Maritxu Garitanok dioenez, San Kristobalgo Pilar Lopez ere (Tomasia maistraren alaba) baserriz baserri ibiltzen zen josten. “*Ibiltzen zonan etxeik etxe, josten. Juten zonan basarrira, eta han egitten jonan jatorduok eta zerak*”. Egun pare bat edo egiten zituzten baserri bakoitzean, baina ez ziren bertan lo egiten geratzen. Jatorduak bai, baserrietan egiten zituzten. Baserria oso urruti baldin bazegoen, edo toki txarrean, bertakoak bila joaten zitzaizkien. Astoarekin, adibidez. Makina bertan utzi, eta biharamunean itzultzen ziren.

Baserriz baserri ez ezik, kalean etxez etxe zebiltzanak ere bazeuden, Asuntxi Uribesalgoren arabera. Maria izeneko bat aipatzen du, Goenkalean bizi zena: “*Oruetanera, Ida-*

rretanera... Mariak etxiak hartuta zeuzkan". Mizpildin bizi zen beste bat ere etxez etxe joaten ei zen.

Jostunen lan baldintzak

Jostunek etxean egiten zuten lan. Hala dio Miren Azkaratek. Sarri, ordutegirik ez zuten. Bukatu artean egoten ziren lanean. Asuntxi Uribe-salgok dio izebak eta berak normalean ez zutela gauez bordatzen. Gauez marrazkiak ateratzen zituzten, hurrengo egunerako aurreratzeko. Zenbaitetan, lanpara txiki batekin ere aritu izan dira, presazkoa zenean. Azkarate ere askotan lanak ezin bukatu ibiltzen zen, goizaldera arte lanean. Ordu askoko lana zen. Ezkondu ostean hartu zion neurria hobeto. Dena eskuz egiten zuten, eta astuna zen.

Jostunek eta bordatzaileek ez zuten askorik kobratzen. "*Barregarrikerixia*", Uribesalgoren hitzetan. Maria Victoria Oiarzabali, medikuaren alabari, arreoan egin zioten. 10 pezeta inguru zela du gogoan. Azkarate ere iritzi berekoa da: ez zuten lokal bat ipintzeko beste irabazten; horregatik, bere denborako jostunek eta ile-apaintzaileek etxean egiten zuten lan.

Gehien-gehienek gizarte segurantzarik gabe egiten zuten lan. Bizitza osoa josten pasa zutenak ere larri ibili dira pentsioa jasotzeko. Asuntxi Uribesalgok, adibidez, ez du ezer kobratzen, nahiz eta bizitza osoa bordatzen eman duen. Bere izeba bai, autonomoetan sartu zen, baina bera ez. Ez sartzeko gomendatu zioten, eta ezer gabe dago orain. "*Ez zan aholku ona izan*".

Miren Azkarateri ere kostatu zitzaion paperak egitea. Arrazoiak azaltzen ditu: "*Lehenengo denboretan ez zeuan. Gerora ipini zeбен. Eta gure ama ba ez zan atrebidu sartzen. Orduan iñok be ez zeбан kobratzen, iñor ez zeuan kobratzen zeбанik. Danak, pagatzen zeбенak. Epe bat biha zan kobratzeko. Seguridade Soziala ipini berrixa zan. Oseake kobratzen zeбенik ez zeuan. Notiziarik ez zeuan kobratzen zeбенik. Eta batzuk sartu zien hortan, baina gure ama ez zan sartu. Eta gero ni sartu nitzan oso berandu*".

Emakumea izateagatik baldintzatuta zeudela uste du Azkaratek: "*Emakumian lana... zeuan betik... ez zan segurua. Ez genkigun hurrengo urtian segiduko giñuan edo ez. Ama geixotzen baldin bazan, zaindu egin biha ziñuan, seme-alabak geixotzen baldin bazien zaindu egin biha ziñuzen, zeu geixotzen baldin baziñan tailerra gelditzen zan. Iñok ez zeбан lanik egitten, ze iñok ez zekixen; puntadak emoten bai, baina bestela, ez ebaitzen zekixen iñok, neuk bakarrik, eta ez zeuan segitzeko biderik*". Senarrak irabazten zuenarekin bakarrik ez zien ematen bizimodua atera eta kuota ordaintzeko, bera lan egin ezinik geratuz gero. "*Berandu sartu nitzan. Orduan, gutxi daukat. Daukat zeoze, baina gutxi daukat. Baina ordukuak pelukerak eta... jesus, ez zeuan ezer*". (ikus *Familia eta lana* atala).

Lucia Farrasen hitzetan, konfektzio tailerretakoa ere gaizki ordaindutako lana zen. Eta kasu gehienetan Gizarte Segurantzaren barik. Edurne Labordarena da horren adibide.

*“Bizi guztian josten. Total, ezebez ira-
bazteko. Erendako negoziua ederra
baiña neretako, guretako, ezebe”.
Gutxi irabazten zutenez, ahalik eta
gehien josten saiatzen ziren: “Argixari
begira, eta ba, oindio beste ordu la-
enian, ba josi neike alkondara bat.*

*Segidu egin bihar dozu, zeoze nahi
badozu etara”. Lantegietan ibilitako-
ak hobeto daudela dio: “Fabrikara
jun banintzan gaur sueldua eukiko
neban, eta oin ezebez”.*



Asuntxi Uribesalgo

Bordatzailea

❖ *Asuntxi Uribesalgo bordatzailea,
2013an lan honetarako egindako elkarrizketan.*

Asuntxi Uribesalgo San Pedro kalean jaio zen, 1928an. Aitak Seminarioko in-
prentan egiten zuen lan. Bi senide ziren, mutila eta neska. Bi izeba bizi ziren be-
raiekin etxean, aitarekin bi arreba, bordatzaileak biak ere. Halaxe ikasi zuen ofi-
zioa. 15 urterekin hasi zen haiekin batera lanean.

Enseñanzako mojekin egin zituen oinarrizko ikasketak, baina etxean argi zu-
ten bere bidea zein izan behar zen. Horregatik, mojetan zebilela ere marrazketa
ikasi zuen, ikastetxean bertan baina aparte ordainduta. Berak pianoa ikasi nahi
zuen, baina “*denborarik ez zeuan hori ikasteko*”.

Arreoak egiten zituzten. Estoreak, tapeteak, xukaderak, izarak, mantelak...
Bergaran bordatzaile bakarrak izan ziren sasoi batean. Gerora, makina auto-
matikoekin, gehiago hasi ziren. Soraluzetik eta Antzuolatik ere joaten zitzaizkien
arrea egiteko eskatzera. Oihala bezeroek jartzen zuten. Amonak oihal-denda ja-
rri nahi, baina dirurik ez zuen.

Haria kanpotik ekartzen zuten; Alfonso Gallastegik ekartzen zien Bartzelonatik.
Marrazkiak ere bai. Etxetik egiten zuen lana. Eta etxera ezkondu zen. Hiru ala-
ba izan zituzten. Etxekoandre lanak egitea ere egokitu zitzaion. ❖



Miren Azkarate

Jostuna

❖ Miren Azkarate Donostian,
1968 urte inguruan.

Miren Azkarate 1929an jaio zen, Bergaran. Bidakruzetan bizi izan zen umetan, gero Masterrekan eta ondoren Txomin Irala kalean. Ama baserritarra zen, jostuna izandakoa gaztetan; aitak Alcorta y Compañía (gero Narbaiza) ehun-lantegian egin zuen lan. Lau anai-arrebatan zaharrena zen. Enseñanzen ikasi zuen lau urtetik 14ra arte. Kontabilitatea eta mekanografia ere ikasi zituen. Orduan aita hil zitzaion, eta familia aurrera ateratzeko lan egin beharra egokitu. Tela-denda jarri zuten amarekin. Gero, josten ikasi zuen; baita arropa mozten ere.

Inportantea zen neskek josten ikastea. Hasi zenean ez zuen pentsatzen horretara dedikatuko zenik. Enkarguak egiten hasi zen. Eta 45 urtean jardun du jostun moduan lanean. Etxean josi izan du beti. Josten ere erakusten zuen. Lana eta familia uztartzen asmatu behar izan zuen Azkaratek. Ezkondu, eta hiru seme-alaba izan zituzten.

Enkarguak ezkontzetarako edo jaietarako jantziak izaten ziren. Orduan emaztegaiak beltzez janzten ziren. Zuriz joateko, nobioa eta gonbidatuak frakez joan behar ziren. Horregatik, neska aberatsak ere beltzez joaten ziren. Florita Sañudok hautsi zuen hori, Lasagabaster ehun-lantegiko alabak. Zuriz joan zen.

Barruko arroparik ez zuen josten. Soinekoak, berokiak, trajeak... Jantziak ondo bukatzea gustatzen zitzaion, eta bi proba egiten zituen. Haria Bergarako dendetan erosten zuen, baina botoiak Bartzelonatik ekartzen zizkieten. Lehenengotan bezeroak eramaten zuen tela, eta berak josi; gero, muestrario bidez egiten zuen lana. Tela aukeratu, eta ekarri. Bilbotik, Bartzelonatik, Paristik... Bergarako tela laneko arropa egiteko erabiltzen zen batez ere. ❖

1930eko erroldan “jostun” (“costurera”) eta “modista” asko datoz. Jostunak josten zekitenak ziren, eta modistek arropa diseinatu ere egiten zuten, jostez aparte; “Corte y confeccion” ikasitakoak izango zirela pentsatzen dugu. Denak ziren jostunak, azken batean, eta euskaraz ez zen diferentzia hori egiten: “jostun” esaten zitzaaien denei. Erroldan, baina, kaletar gehienek “modista” direla diote, nahiz eta askotan oso gaztetxoak izan, eta baserrietakoak, berriz, gazteak gehienetan “jostun” (“costurera”) moduan agertzen dira.

Gurasoekin bizi ziren neskak dira asko; gehienak gaztetxoak:

- Irene Gantxegi Barrutia modista. 15 urtekoa. Bidakruzetan.
- Carmen Larrañaga Orue modista. 20 urtekoa. Bizkaitarra, urte bat dararma Bergaran. Bidakruzetan.
- Gertrudis Arriola. Modista. 16. San Antonion.
- Natividad Garikano modista. 17 urte. Osintxun.
- Maria Unamuno modista. 20 urte. San Lorentzon.
- Ana eta Basilisa Garcia Ruiz modistak. 24 eta 18ko ahizpak. Zubiaurren.
- Tiburcia Narbaiza modista. 16 urtekoa. Zubiaurren.
- Rosario Irizar modista. 24 urtekoa. Zubiaurren.
- Nikolasa Zubia modista. 16 urtekoa. Zubiaurren.
- Jacinta Larrañaga modista, 22 urtekoa. Angiozarren.
- Sebastiana Garitano modista, 23 urtekoa. Angiozarren.
- Melchora Maria Mendiaraz modista. 22 urtekoa. Amezelaga baserrian. Elosun.
- Petra (jostuna, 38) eta Tomasa (modista, 24) Gabilondo. Agirre baserrian. Elosun.
- Manuela Larrañaga modista. 26 urtekoa. Gomezkorta baserrikoa. Elosun.
- Gabriela (modista, 25) eta Maria Luisa (jostuna, 14) Alberdi ahizpak. Egiazarpikoan. Elosun.
- Jesusa Gantxegi jostuna. 27 urtekoa. Etxeberrietagañekoa baserrikoa. San Blasen.
- Donata Arando jostuna. 22 urtekoa. Azkargortazpikoa baserrikoa. San Blasen.
- 19 urteko modista. Eskoriatzan jaioa, eta Aretxabaletan bizi izandakoa. San Blasen.
- Benita Amuskibar jostuna. 31 urtekoa. Aizkoi baserrikoa. San Blasen.
- Pia Urriategi jostuna. 40 urtekoa. Muñondoazpikoa baserrikoa. San Blasen.
- Maria Larrañaga jostuna. 19 urtekoa. Irazabaletxeberri baserrikoa. San Juan auzoan.
- 24 urteko jostuna. Aretxabaletan jaioa, 8 urte Bergaran. Agirre baserrian. Goiauzon.
- Pilar Lopez jostuna. 21 urtekoa. Ama maistra dauka (Tomasa Lascurain) eta ahizpa zerbitzaria. San Cristobalen.

- 15 urteko jostuna. Elgetakoa. Gaztelumendin.
- Angela Iturralde jostuna 21 urtekoa. Santa Katalinan.
- Dorotea Mujika jostuna. 27 urtekoa. San Migel auzoan.
- Antonia Martin jostuna, 16 urtekoa. San Migel auzoan.
- Rosario Albistegi modista. 26 urtekoa. Urdingoa baserrian.
- 21 urteko jostuna. Gurasoekin eta zortzi anai-arrebekin bizi da. Gorontsarriazpikoa baserrian.
- Victoria Aranzabal Gaztelurrutia. 16 urtekoa, Abadiñon jaioa. Ahizpa maistrarekin eta ama alargunarekin bizi da. Angiozarren.
- Natividad eta Eulalia Larrañaga Amutxastegi jostunak, 32 eta 26 urtekoak. Gurasoekin (aita tindatzailea da) eta bi ahizparekin bizi dira (28 urteko Tomasa zerbitzaria eta 22ko Luisa tindatzailea). Barrenkalean.
- Evarista (33) eta Ines (29) Uribesalgo modistak. Anaiekin (tindatzailea eta inpresorea) eta gurasoekin bizi dira (aita tindatzailea), San Pedron.
- Asuncion Saizar. Modista. 37. Ezkongabea. Alaba bakarra. Gurasoekin bizi da (aita igeltseroa da). San Pedron.
- Francisca Asula modista. 28 urtekoa. Anaiarekin, haren emaztearekin eta bikotearen lau seme-alabekin bizi da. Angiozarren.
- Benita (32) eta Eusebia (30) Ugalde Larrañaga jostunak. Ama alarguna dute. Anaiak: hargina eta mekani-

koa. Eta 49ko senide bat nekazaria da. Moiuatorrean.

Familia osatu dutenak dezente gutxiago dira. Ezkonduak zein alargunak daude:

- Angeles Inza modista. 41 urteko alarguna. Familiako burua. Alaba ere modista du: Maria Pilar Aranes. Barrenkalean.
- Gabina Gabilondo jostuna. Alarguna. 42 urtekoa. Bi seme eta lau alaba ditu, gehienak tejedoreak. Bidakruzetan.
- Maria Gantxegi modista, 35 urtekoa. Juan Urzelai tejedorearekin ezkondua (36 urtekoa). Bi ume txiki dituzte eskolan. Osintxun.
- Marta Gantxegi modista, 23 urtekoa. Soraluzeko 31 urteko armero batekin ezkondua. Ume txiki bat dute. Osintxun.
- Claudia Gallastegi Gantxegi modista, 42 urtekoa. Senarra arotza da (Bergarakoa, 41 urte). 8 seme-alaba dituzte, lau lanean (12ko neska neskame) eta lau eskolan. Osintxun.
- Gregoria Ugalde Larrañaga modista, 36 urtekoa. Jose Mari Laskurain bizarginarekin ezkondua. Lau ume dituzte eskolan. San Lorentzon.
- Emilia Barrenetxea-Arando modista, 44 urtekoa. Elgetako 44 urteko errementariarekin ezkondua. Bost seme-alaba. 16ko eta 20ko alabak tejedorak dira, 18koa modista eta bi ume eskolan dituzte. San Lorentzon.
- Eulalia Iñarra modista. 36 urtekoa. Senarra metalurgian dabil. Bost ume txiki dituzte. Zubiaurren.



❖ Gregoria Ugalde modista, Jose Mari Laskurain senarra, hiru seme-alaba eta fami-
liako beste kide batzuek, San Martzialgo erromerian 1932 aldera. Ezker-eskuin, ume-
ak: Jose Antonio Laskurain Ugalde, Maria Teresa Urriategi Zabaleta, Maria Josefa Urria-
tegi Zabaleta (besoetan dagoena), Maria Carmen Laskurain Ugalde (ume txikiaren atze-
aldean), Luis Laskurain Ugalde, Candido Urriategi eta Felix Laskurain Ugalde. Nagu-
siak: Juliana Zabaleta (aurreko ilaran, soineko iluna eta umea besoetan), Jose Mari Las-
kurain Zabaleta (eskuan zahatoa daramana), Gregoria Ugalde Larrañaga (atzealdean,
1. emakumea eskubitik), Juanita Arizabaleta (atzealdean, Gregoriaren ondoan), Gui-
llermo Urriategi Gabilondo (sua astintzen). Bergarako Udaltzainboko bilduma, Juan Cruz
Azcarate Arizabaleta

1938. urtean Industria Zerga or-
daindu zuten modistak: Maria Aran-
zabal Arzelus, San Antonion; Angeles
Elgoibar Abendibar, Artekalen; Julia-
na Enekotegi Aranburu eta Lucia Le-
gorburu Altube, Bidakruzetan; Vi-
centa Gisasola Bilbao eta Angeles
Inza Urreztieta, Barrenkalean; Asun-
cion Saizar Albisua, San Pedron; Jua-
na Sotil Etxeberria, Masterrekan; Ma-
ria Zubeldia Elzeaga, Mizpildin. Sote-
ra Zenitagoia Arrieta “sastra” mo-
duan ageri da, San Martin plazan.

1950ean Industria Zerga ordaindu
zuten modistak askoz gutxiago dira:
Angela Elgoibar Amendibar, Moscar-
don. Juliana Enekotegi Aranburuza-

balaga, Bidakruzetan. Juana Sotil
Etxeberria, Bidakruzetan. Bi sastreria
datoz emakumeen izenean: Vicenta
Maidagan Mugikarena, San Pedron,
eta Nicolasa Arregi Alkarainena, Mas-
terrekan. 1938an ez bezala, konfekzio
tailerrak ere agertzen dira emakume-
en esku: Justa Amenabar Gallastegi,
Masterrekan; Maria Oianguren Jau-
regi, Arruriagan; Rosa Loidi Gabilon-
do, Masterrekan; Carmen Odriozola
Unzueta, Artekalen. Celestina Aiastui
Larrañagak zapata tailerra zeukan
Masterrekan.

- Antonio Urzelaireren *Bergara: irudi
eta kondaira. Semblanza Histórica*
liburuan datozen jostunak:

- Juanita Sotil, Masterrekan.
- Martina Idigoras, San Lorentzon.
- Casimiro Telleriarteren alabak, Zubietan.
- Isabel Alberdi, Iturrikuan.
- Dominica eta Angeles Garitano, Konde Panaderokuan.
- Angelita Elgoibar, Barrenkalean.
- Julia Isasmendi, Barrenkalean (Mandosain)

- Angeles Inza, Bidakruzetan. Ube-
ratarrak ahizpak, Barrenkalea 36n
Baserrietan zebiltzanak:

- Maria, Behesagastikoa, Antzuola
- Julia Jauregi, Galartzakoa, Antzuola
- Lorenza Echeberria, Galartzakoa, Antzuola

- Lorenza Echeberria, Pagolakoa, Osintxu
- Pantxika Zangitu, Azkargortakoa, Osintxu
- Josefa Larrañaga, Mekoletakoa, Osintxu

3.3. Zerbitzariak

Neskame, zerbitzari, sukaldari, ume-
zain eta inude ibilitakoen kontuak ja-
soko ditugu atal honetan.

Baserritarak neskame

XX. mendearen hasieran ohikoa zen
neskame joatea, batez ere baserrita-
rrak. Familiak handiak izaten ziren,
eta elikatzeko aho gehiegi izaten ziren
baserrietan. Neskak neskame eta mu-
tikoak morroi bidaltzen zituzten, ar-



❖ *Baserriko familia ugaria, 1946. urtean: gurasoak eta zortzi seme-alaba, oilo eta guz-
ti. Bergarako Udal Artxiboa. Argazkilaria: Toribio Jauregi*

tean umeak zirela. Normalean 11 urtetik gorakoak, baina batzuek baita 8-9 urterekin ere.

Anizeta Agirre zortzi urterekin bidali zuten neskame, 1896an. Izebaren baserrira, Azkortaerdikora. “*Kriara, bai hoixe. Atsaldetan eskolara bialtzeko kondiziñuakin... Eskolan leiru ta eskribiru egitten giñuan, ta kuentak etarutzen be bai; sumarra. Gero hamar urtekin komuniua egin, ta Galartzara, umezain*”. Baina Anizetaren lana ez zen umea zaintzera mugatu: “*Basarrixan eoten zan orduan lana. Ura danian urrin, ta ganau zaintzia, ittulia, gaztaiña zuritzen, berriz, ukatzeko laiñ! Orduko primer platua gaztaiña zan; oin, patataik ez zan sartu be egitten orduan ta*”. Han, Galartzan, “*urtian bost duro irabazten nittuan*”. Eta janzteko zerbait ere ematen zioten, “*kamixia ero*”.

Maria Argialde ere umea zen neskame bidali zutenean aberats-etxe batera. Gogoan du zurezko zoruari distira ateratzen egoten zela, argizaria-ekin, belauniko jarrita. Arropak labaderoan garbitzen zituen, eskuz, ur hotzarekin. Plantxa ere egiten zuen. “*Ta kosiñia be zeoze bai, ta bengala ta lana...*”. 20ko hamarkada zen.

Dominga Beitia araoztarra (Oñati) 11-12 urterekin beste baserri batera bidali zuten, Kakotegira, izebaren etxera neskame. “*Bere umiak eskolara, eta ni esniakin Atxabaletara. Eta hamaiketako etxera ez banetorren, egurra! 60 litro esne partidu, ateik ate, neu baiño haundixaguak marmitak*”. Handik Plentziara joan zen, ahuntzak zaintzera, “*beste tia zahar bateana*”, eta ondoren Bergarara (aurrerago aipatuko dugu).

“*Ni 13 urtekin fan nitzan Arrasaterakriada*”, dio Nati Arrietak ere. 1953ko kontuak dira. Ordurako Nati bazekien etxeko lanak egiten. “*Etxian beti egitten ziñuan. Zeatik ba zaharraguak edadia zakenian urten egin bihar zaben etxetik. Bata batera eta bestia bestera, ba kriada lanera. Etxian ezin zaben egon, han sartuta. Eta ba zaharraguak zelan faten ziran etxetik, gero ba geratzen ziñan zeu, eta geratzen zanak egin bihar izaten zeban ba etxeko lanak. Ta modu hortan ba: erropak garbitzeko be ba eskuakin*”.

Neskame joatea ohikoa zela dio Arrietak: “*Lehen holan zan. Pixkat haundi egitten ziñanian ba klaro, es-tudixatzeko, ba ez dakitt eukiko giñuan erreztasunik, baiña erreztasunak euki arren ba laguntza be biha da ta... Horreatik, gure zea, gu pixkat haundixak egitten giñanian, nahikua txikixak ondiokan, 13 urte, 12 urte ta zea, bata kriada eztakit nora eta bestia kriada badakit nora. Ta bueno, orduan kriada joaten ziñan lekuan, ba hobeto bizi ziranak ziran, ta ba jaten ziñuan ondo ta ba hantxe; irabazi asko barik, baiña kriada*”. Arrasaten oso ondo egon zela dio Arrietak, “*oso oso*”.



❖ Nati Arrieta, 2008an ahotsak.com-erako egindako elkarrizketan.

ondo”. Arropa-denda zuten, eta berak lagundu egiten zien. “*Oso onak izan ziran harek. Eta bueno, etxian baño hobeto. Baiña beti etxera begira. Hori beti*”.

Mariñe Barrenetxea-Arandoren arabera, “*basarritik danak joaten zien. Etxerako gelditzen zan bat. Semia edo ezkontzen zan, eta haren andria zetorrenian, ba ya bertokuak danak kanpora*”.

Batzuk baserriz baserri ibiltzen ziren neskametzan, senargaia aurkitu arte. Besteren menpe egotea ez baitzen egoera aproposena. Ezkontzea salbaziotzat zuten gehienek. Hori bai, badi-ra baserriren batean bizitzen betiko geratutako morroiak eta neskameak ere.

Carmen Garitanoandia, San Prudentzio auzoko Elorrigoiti baserrian jaioa, 14 anai-arrebatatik seigarrena zen. 13 urterekin Segurara joan zen neskame, okindegi batera. Handik Bergarako Ugarte baserrira, eta 17 urte zituela Oñatiko Murgia auzoko Biain baserrira. “*Nik amaren onduan oso denpora gutxi pasau dot. Zortzi urte egin nittun kriada*”. 21 urterekin auzo bereko Azkarretara ezkondu zen, eta 8 seme-alaba izan zituen. Ezkon-duta, baina, neskame zegoenean baino okerrago izan zela dio: “*Ezkondu eta gero esklaba. Aurretik domeketan behintzet librauten neben; gero, ez euen domekarik ez ezebez*”.

Benita Unamunok zioenez, batzuek Arabara joaten ziren erdaraz ikastera. Lanera ere bai: “*Baitta neskak be, garixa ebaitzera. Irabaztera*”. Juana Joxepa Lete 13 urterekin Arabara bidali zuten, 1916. urtean. “*Hamahirukin Araban basarrixan egon ni-*

tzan, e! Bittorixatik harutz zer aldera, Miranda aldera”. Urtebete egon zen erdaraz ikasten. “*Erdera biharra, kartia leitzeko eta*”.

Aberatsen etxeetan zerbitzari

Adin batetik aurrera, baserrietako neskak etxe dotoreetara joaten ziren lanera. Kategoriaz igotzea zen. Kaltetarrak, berriz, normalean ez ziren baserrietara joaten; kalean bertan egoten ziren neskame, etxeren batean. Baina esan beharra dago Bergaran beste toki batzuetan baino gutxiago gertatzen zela hori. Izan ere, 14 urterekin ehun-lantegietan hasten ziren lanean. Gehiago irabazten zuten. 1930eko erroldan ikus daitekeenez, dirudunen etxeetan inguruko herrietako neskameak zituzten, bertakoak baino gehiago: Elgeta, Aretxabaleta, Antzuola, Arrasate, Soraluze, Oñati... Baita urrutiagokoak ere: Durango, Donostia, Gasteiz, Madril, Segovia...

Oñatiko Araatz auzoko Dominga Beitia lehenengo bi baserritan eta gero Bergarako etxe batean egon zen neskame. Josu Oregiren etxean, hiru urtean. Han dontzeila eta umezaina



❖ Dominga Beitia, 2009an ahotsak.com-erako egindako elkarrizketan. Bergaran egon zen neskame, oregitarren etxean.


ere bazituzten. Bera sukaldeko arduraduna zen. Hilean 400 pezeta irabazten zuten. Ehun-lantegia zuten oregitarrek, San Lorentzon.

Eugeni, Mariasun eta Maria Angeles Ubera ahizpen arabera, baserrietan begi onez ikusten zen neskak neskame joatea, “*zeozertxon truke*”, baina lantegietan eta tailerretan lana egitea, ordea, ez. Edadeko andrekin bizitzera ere joaten ziren batzuek, laguntzaile moduan: “*Señorita de compañía esaten dana, berai laguntziarren, bera bakarrik ez egotiarren ba pagatzen zotsan. Eta igual berak bertan lo egin. Andra edadetuak, bakarrik erenak edo... jende diruduna, normalian*”.

Angiozarko Abelina Arrieta Larrañaga 13 urterekin bidali zuten neskame, 1937an, etxe batera. “*Eta nik hiru duro nekazen hillian. Orduan asko, jornala zan hiru duro. Gure ama zain kobratzeko, umiei, bestiei erua-teko. Ze ba, nun jaonan ba orduan dirua? Etxaonan diruik eta*”.

Pilar Murgoitoren gurasoek Bergarako Untzeta jauregian egiten zuten lana. Casajarako markesentzat. Amak neskame eta aitak gurdi-gidari. Ama bergarra zen, Ugarte baserrikoa. “*Ama jostuna. Etxian egitten zeban josten, baina kriada joan zan, zerbait ikastiarren. Orduan, kolejixua, eta holaxe eruan zeben Untzuetakora*”. Amama joan zen, alabarekin, hara: “*Hauxe da gure alabia, eta zerbitzera nahi dogu etartzia*’. Eta hari gustau. Detaile fiñak ei zeuzkan nere amak. Oso andra politta zan. Eta Jesus, ekarri dabe Markesenera neska bat oso politta’. Zazpi neska-eta egoten zien. Asko”.

Markesek “*aberats bizimodua*” zuten. “*Harek eren teatruak be, talde osua alkilau eta palaziuan emuten zeben. Bergako haundiki danai inbitaziñuak egindda. Gu be hantxe egoten giñan begira, artistei. Dotoriak ziela, eta pozik*”. Beraiekin eta bertako umeekin harreman ona zuten; “*kolejixotara joan artian*”. Bazkaltzera ere eramaten zituzten batzuetan, anaia eta bera. “*Bazkai ona. Zerbidu, mutillak. Neskak zeuzken, baina mutillak beti elegantiguak zien neskak baino, eta komedorian-eta mutillak*”. Kriau asko zituzten: “*Kozineria eta kozinerian or-*



❖ *Untzeta jauregia, mende hasieran. Casajarako markesena zen. Pilar Murgoitoren gurasoek bertan egiten zuten lana. Bergarako Udal Artxiboko bilduma, Elisabet Biain Bilbao. Argazkilaria: Fototipia Thomas*

dezkua be bai. Laguntzekua. Jazteko lagunok eta gainerakuok”.

Markesa-eta Bergaratik joan zirenean, Murgoitioren gurasoak Movilla chun-lantegiko ugazabarentzat hasi ziren lanean. “*Beti aberatsekin gure aitta. Kotxerua zan, eta planta onekua gizona. Eta aberatsei gustatzen jakue plantia lehelengo. Eta amak kozinera egitten zeban han. Baina ez bi ta hiru neska, e! Zazpi ta, beratzi ta*”. Jauregia egin zuten Movillasekoek. Hara joan ziren bizitzera, espoloir. “*Gero nik hantxe zerbidu neban. Kriada. Gure amak-eta be harek esaten zeben kriada, eta geu be holaxe, neskame. Ni be uniformiak in joaten nitzan zerbitzera. Diferente ohittu giñan, beti nagusixak esandakua egitten eta. Oin iñok kasoik be egitten jaue, ala? Oin, iñok be ez*”.

Ixabel Belar 18 urte arte baserrian egon zen. Ondoren, 1932. urtetik aurrera, zerbitzen egon zen hainbat lekutan: lehenengo Bergarako Lasa jattetxean, gero Donostian eta Madrilen, Llobregateko Kondearen etxean. Gerra hasi zenean, etxera itzuli zen, eta gerraostean Bergarako Movilla oiha lantegiko ugazabaren etxean jardun zuen neskame, hiru urtean. Ezkondu



❖ Ixabel Belar, 2009an ahotsak.com-erako egindako elkarrizketan.

zen arte. Edurne Labordaren gurasoek, berriz, Telesforo Monzonen etxean egin zuten lan.

Bergaratik kanpo joaten ziren asko. Dolores Altuna Areetara joan zen neskame, gerra aurretik, Pilar Kareagaren etxera. Aristokratak zirela dio. “*Ni komedorian nenguan, uniformia eta kofiakin, dotore*”. Sukaldaria eta don-tzeila ere bazituzten. Hark jantzen laguntzen zien. “*Gero interinia be juten zan. Danetakua*”.

Osintxuko Anizeta Agirre -1888an jaioa- Bilbon egon zen zerbitzen. Mercedes Agirre ahizpa, berriz, 16 urte rekin Madrilera joan zen lanera, 1905ean; Manuel Taramonaren etxera. Hiru urte egin zituen han. Oso ondo egon zela dio, eta primeran jaten zutela. “*Enee! Jana bai, bueno... Gabian be emoten oskuen arrautzak, berdura eta okelia gaiñian. Ta baso haundi bat ardao eguardixan eta gabian, e. Ta danok eraten giñuen, iñok ez zaban izten haura. Ardaua edarra*”. Bueltan, berriz babarruna jatera ohitu behar! “*Babiai heldu bihar atzera. Ta ni konformau. Ni edozekin konformatzeko klasia naiz. Ona be gustau, baiña eskasaua bada be nik ez dot despreziauko*».

Mercedesek denetik egiten zuen Madrilen: arropa garbitu, plantxatu, etxea garbitu... “*Koziñeria aparte, koziñia bakarrik egittekua. Gero señoria jantzi ta eraztekua beste bat. Ta beste batzuk ba alkondarak-eta plantxatzeko ta. Bakoitzak bere lanak*”. Ugazabak ikusi ere ez zituzten egiten sarritan. “*Bera jantzi bihar ebana juten zan, tinbria jotene banian ta*”. Ez zuten askorik irabazten, baina Bergaran neskame zeudene bano gehiago bai:

“Zera, hillien bost duro. Handik jantzi biher: galtzak eta zapatak eta barruko erropia be zeoze behintzet...”.

Sukaldariak

Aberatsen etxeetara zerbitzera joaten ziren emakumeen artean, batzuek sukaldari lana egiten zuten. Aipatu dugu Anizeta Agirre Bilbon egon zela. Sukaldari lanetan jarri zuten han: “Señoriak esan zela egin, ta nik egin. Makiña bat modutako gauzak, ta asmau egin biher ze ipini diferentie. Arraiña ta beste milla gauza... Bueno, pipar reillenuak eta. Fritotan be arrautza ego-sixa bexamelakin batuta, mingaiña albardauta...”. Agirre sukaldari ona izan zen; hala zioten bere etxekoek.

Agirrek zazpi-zortzi urte egin zituen Bilbon, Pepe Lekerikaren etxean zerbitzen. Nazio Batuen Erakundeko Espainiako enbaxadorea zen Lekerika, eta euren parientea egiten zen. Osintxuko Ola baserritik hara joan zenean, Anizetak tutik ere ez zekien erdaraz: “*Dana aldrebes! Baiña belaxe ikasi neban, e!*”. Hiztegi bat lortu zuen, eta hitzak ikasi zituen. “*Dana, dana. Gauza danen izenak. Dizionari-xua, dotriñiaren pare!*”. Osintxura bueltatu zenean, ‘Lekerikaneko señora’ esaten zioten batzuek, erdara ondo zekielako.

Bilbon hilean lau duro irabazten zituen Anizetak. “*Hiru be irabazten zebenak asko zeren ta... neskak serbio domestikuan mordua zain, lekua sortzeko zain*”. Neska gazteek jabo-



❖ *Bi emakume sukaldean, janaria prestatzen.* Bergarako Udal Artxiboa, Miguel Angel Elkoroberezibar fondoa. Argazkilaria: Serafin Esnaola

nadurak eta lixibak egiten ikasten zuten, eta arropa errepasatzen, handi-
kien etxeetan lana aurkitzeko.

Dolores Altunaren ama, Katalin Garitano, ere sukaldaria zen. Bilbon ikasi zuen ofizioa, eta hantxe zebilen lanean, bere senarra izango zena eza-gutu zuenean. Bergarara etorri ziren, ezkontzeko. Garai batean Escuela del Hogarren ere erakusten zuten sukal-daritz (ikus *Escuela del Hogar* atala).

Umezainak eta inudeak

Gauza jakina da umeen zaintza lanak emakumeek egiten zituztela, etxean zein etxetik kanpo. Gaztetxotatik has-ten ziren horrelako langintzetan. Ba-serrietan neskame egoten zirenek umeak zaintzea izaten zuten egin be-harrekoen artean. Eta berdin gertatzen



❖ Arizkar baserriko Juliana Igarza 14 urterekin Hernanira bidali zuten, ume-zain. 1934. urtea zen. 17rekin hil zen, gerra garaian, bala baten ondorioz.

zen aberatsen etxeetan ere: kanpoko neskak hartzen zituzten umezaintza-rako. Gaur egun ere halaxe da, baina lehen umeak hartzen zituzten sarri, neskatoak, eta hala merkeagoa ate-ratzen zitzairen: nagusiei baino gu-txiago ordaintzen zieten. Atal honetan inudeen jarduna ere ikusiko dugu. Aberatsen umei titia ematera joaten ziren emakumeak ziren inudeak. Ge-rraosterako desagertu egin zen lan-gintza hori, baina XX. mende hasieran bizi-bizi zegoen artean.

Juana Maiztegiren ama, Marta El-koroberezibar, Bilbora bidali zuten umezain. “*Amandriak esaten ei zeban etxerako bat biha dala, mairorazgua, eta ba bestiak zeoze ikasi eta dirua ira-baztera joan bihar. Eta gure ama le-helengo egon zan, ez dakit 9 urtekin edo esaten zeban berak, Bilbon niñe-ra*”. Umeekin egunero-egunero Atxu-riko geltokira joaten omen zen, tren-a ikustera: “*Makinia ikustera, makina haretan bera zela joan zan...*”. Buel-tatzeko irrikaz zegoen. 15 urterekin, berriz, etxe dotore batera joan zen. Jangelan jarri zuten, zerbitzen, eta te-lefonoa ere hartzen zuen. Erderaz ez zekien, baina ikasi zuen. “*Ikasi zeban, bai! Klaro, bihako! Berak esaten zeban ‘que fue’... berandako kolegixua izen zala*”.

XIX. mendearen azkenetako kon-tuak dira aipatutako horiek, eta XX. mendearen hasieran egoera antze-koa zen. Anizeta Agirre hamar urte-rekin Galartza baserrira umezain bi-dali zutenean, 1898an, Soraluzeko ume bat zaintzen eduki zuten. Haren ama inude joanda zegoen, aberatsen baten umeari titia ematera. “*Egon ni-tzan ni urtebete pasau edo. Umia*

zeuken kanpokua hazten. Inude juten zien orduan andrak. Beren umia kanpuan itzi, ta inude. Ta Plazentziako umia zeuken Galartzan, ta haxe zaintzen. Haura eruen zebeu ba etxera". Geroago ere asko eta asko izan dira umezain ibilitako neskak. San Juan auzoko Arizkar baserriko Juliana Igarza, adibidez, 14 urterekin Hernanira bidali zuten, umeak zaintzera (ikus argazkia).

1910ean jaioa zen Hilari Gantxegik ondo azaltzen zuen inudea zer zen: "Aberatsak familixia izeten ebanian, berak ez otsen umiari bularrik emoten. Ta ume jaixoberrixa eukan andria biher zan hari bularra emon ta hazteko. Haura zan inudia. Erak elejitzen



❖ *Inudea umearekin, 30eko hamarkadan.* Bergarako Udal Artxiboa, Jesus Urkiola Laspiur fondoa

eben, konpontzen zien ta bi urtien enjeneral, umiari bi urtien emoten otsen horrek bularra, ta bi urtian inude". Gantxegiren arabera, herrira, etxera bueltatutakoan jantzi desberdinak erabiltzen zituzten: belarritakoak, tertziopelozko arropak, etab. "Distingida etorten zien: bai jantzixan, bai buruko illiak...". Berak ezagutu zituen batzuek.

Inude joateko usadioa aspaldikoa da. Lide Oregiren amama, Antzuolako Inurrigarro baserriko Josefa Iturbe, ere inude joan zen. "Orduan ohittura haundixa zeuan, itxuria daonez. Eta gure amama be Palenziara joan zan inude. Nere aittan ama. Gure aitta hazi zebeu Uberako basarri baten". Familia askotan gertatzen ei zen hori: "Nere aman aitzia ta koiñetia ta be egon zien. Geruago harek, Bilbon. Gure aman aiztiakin batera egon zan beste bat horko basarri batekua; bikixak zeuzken, itxuria, Bilbon etxe horretan, eta bi inude Bergatik eruanda. Nahiko normala izan bihar zeban ba hori, basarritik eta hori. Diru bat irabazten zala. Errialetan kontatzen zan orduan, nik ez dakit zenbat. Eta gero eukitzen zebeu kontaktu bat, eta bialtzen zotsen handik erropak eta gauzak eta".

"Baiña asuntua zan diru batzuk irabaztia. Ez dakit zenbat denbora egingo zebeu, eta diruakin etortzen ziela; eta sekulako uniformiakin ibiltzen ziela, ba", dio Oregik. Inudearen zeregina ume jaioberriari bularra eman eta hura zaintzea izaten zen. Haurrak bularra uzten zuenean, etxera itzultzen zen. Bere umeengana.



❖ *Norberta Atxotegi, Bernardina Elorza alaba zaharrenarekin. Atxotegi 1897. urtean inude joan zen Liverpoolera, Patxi bigarren umea izan zuenean. Angelita Elorza*

Urrutiago ere joaten ziren. Norberta Atxotegi begararra Erresuma Batuan egon zen inude, Liverpoolen. Bigarren umea, Patxi, jaio zenean joan zen, 1897an; guztira bederatzi seme-alaba izan zituen. Jatorriz Gernikakoa zen emakume baten familiarekin egon zen Liverpoolen. Iritsi zenean, mediku batek esnea aztertu zion, eta balekoa zela esan. Ez zuen ingelesik ikasi. Gaztelania bai, apur bat. Konfesatzea nahi zuela eta, apaiz erdaldun baten-gana eramane zuten behin. Bera euskaraz hasi zen konfesatzen, eta apaizak esan ei zion: “*Eso no lo entiende ni el diablo!*”.

XX. mendearen hasierako kasuak ere topatu ditugu. Benita Unamunoren ama Madrilera joan zen inude, gerra aurrean. “*Nere ama inude jua ei*

zan bai Madridera, eta erderaz tautik be ez. Gure amak esaten eban, bera ezkondu zanian hiru behi eukela, eta bat zorra. Inude, irabaztera. Ume pillia... Gu be zazpi anai-arreba giñan”. Natalio Juaristiren ama ere Madrilera joan zen inude. 1912. urtea zen. Birtarte horretan, Goenbulun hazi zuten Natalio; 7-8 hilabete zituenean bidali zuten hara. Amak bi urtetik hirura egin zituen Madrilan, bi mutil hazi zituen eta. Emakume batzuek erdi derriortuta joaten ziren inude, beraien borondatearen kontra, etxean diru falta zegoelako. Ondo ordaindutako lana zen.

“Gure ama be nahi zebe iñude bialtzia”, zioen 1917an jaioa zen Mariñe Barrenetxea-Arandok. “Bai, hementxe albu an d a bat zeuala, Joxe Txikiren ta ama ei zan, iñudiak billatzen zittuana. Gurian aittak esan zotsala: ‘Bueno, umia alde batera, ni beste batera, eta zu beste batera? Ez, ez, ez. Daonakin baiña etxian!’ Ama ez zan joan iñude. Klaro, irabazi egi tten zan, ezta? Disparatia! Madridera eta Sevillara ta... Zu, baina gizona gatzia etxian laga, umia be bai, eta norbera joan! Hori horraittio ez da ama izetia. Ez jatzu pentsatzen? Diru ona izengo da, baiña...”. Denbora asko egi ten zuten etxera etorri gabe. Bueltan, norberaren umea ez ezagutzeko moduan. “Umia ya eskolarako moduan!”. Erritxe ahizpari ere ez zitzaion ondo iruditzen: “Umia pena, ama falta dalako. Amandako be bai... ta gizona, ta ze ze fundamento!”.

Hotelak eta apopilo-etxeak

Hoteletan ere emakume asko zebilen lanean. Zerbitzariak zein garbitzaile-

ak. 1920. urte inguruan Mercedes Agirre Donostiako Hotel Devan egon zen lanean. Lau hilabete egin zituen han, eta ez zuen egun bakar bat libratu. “Horrek gerokuak dia. Ez euan orduan libretzaik. Ezta bape. Bapez. Ezta urten be”. Ez zuen Donostia ikusi ere egin. “Hirurogetamar duro irabazi nittuen”. Jaten oso gaizki ematen zieten dio. “Txakurrak be jan ezinddakua. Gaizki egon giñan, oso gaizki”. Jana beraiek zerbitzen zuten, baina ez zieten sobratzen zena hartzen uzten. “Guk ze lan egin giñuan han! Ze lan!...”.

Bergarako Idarreta hotelean, Bidakruzetan, 1930ean sei pertsona zerbitzan zerbitzari moduan lanean; horietako bost neskak ziren: Eskoria-tzakoa, Elgetakoa, Bergarakoa... Ariznoa hotelean ere hainbat zeuden. Maria Pilar Larrañaga, esaterako, hantxe egon zen zerbitzen; aurretik Eibarren ibili zen kamarera lanetan. “Eguazte-na izeten zan domekia bezelakotxia. Illuntzian seirak aldian frontoian ego-

ten zan partidua, eta gero Ariznoan zaon sala de fiesta. Bailia egoten zan. Etortzen zien jendia frontoirako zera, afai-pasaria egitten zebe... komedora halaxe [beteta] eukitzen giñuan, e! Eta guria bakarrik ez, e!”. Giroa egoten zen herrian. Tabernetan eta dendetan zerbitzari moduan ere neska asko ibiltzen ziren (ikus dendarien eta tabernarien atalak, aurrerago).

Maria Jesus Osa Zestoako bainuetxera bidali zuten lanera, 15 urterekin, kartoizko maleta batekin. 1955. urtea zen, eta gelak garbitzera joan zen. 30 neska inguru zeuden han lanean. Bi hilabete egin zituen, uda batean. “Hille bixan etxeko notizia barik egon nitzonan, e!”. Nagusiek jenio bizia zutela dio, eta berari laguntzen zion neska haiekin haserretu eta joan egin zela. Horregatik, berak bakarrik egin behar izaten zituen lanak. “Ehunen fregaua egunero egitten neban. Eta etxian beti hasarre ibiltzen giñan lau plater garbitzeko... Goizeko ordubixetan eta hiruretan ohera, e! Ta pagau zenbat ba? 2.000 peseta edo zan orduan”. Hori bai, lana kotizatu egiten zieten.

Langile ugari zeuden, eta bainuetxean bertan egiten zuten bizimodua. “Kuartuak egitteko, hall-ak, komedorrak... klaro, azkenengo sartzen zanak galtzen zaban han be! Ta azkenengua ni nintzan. Ta urten be ez, e! Urten be ez”. Eta goseak edukitzen zituztela dio Maria Jesusek.

Altzolako bainuetxera ere joan zen Maria Jesus. 19 urte zituen orduan. Han oso ondo jaten zuten, baina ez ziren hainbeste dibertitzen. “Erresaixua errezaui bihar egunero!”. Kofia jantzi-ta zerbitzen zuen han ere, uniforme-arekin. Eta berandu arte egiten zuen



❖ *Emakume taldea, hotel bateko langileak seguruenez, Anbrosioneko kantoiari.* Bergarako Udal Artxiboa, Toribio Jauregi fondoa

lana. “*Ordubixetan joan, eta goizeko bostetan jaiki!*”. Jangelan egoten zen bera. Oheak ere egiten zituen. “*Gogorra zan, e!*”. Esaten zieten guztia egiten ei zuten.

Etxean apopiloak hartzeko ohitura oso zabalduta zegoen Bergaran. Ugari ziren “pentsio” bihurtutako etxeak. Eta lan hori ere emakumeen esku zegoen: apopiloek jaten eman, haien arropa garbitu eta gelak txukuntzea. Konta ezin ahala etxetan zeuden apopiloak. Ohitura hori gerraostean areagotu egin zen, inmigrazioarekin, baina aurretik ere bazen. Emakume ezkonduak, alargunak zein ezkongabeak aritzen ziren lan horretan, etxeko ekonomiari bultzada emateko. Emakume helduak izaten ziren. Apopiloak gizonezkoak ziren emakumezkoak baino gehiago, Labe Garaietako langileak esaterako; ezkontzen zirenean, euren kabuz bizitzen hasten ziren.


Adibide moduan, Bidekruzeta kaleko apopilo-etxe batzuk aipatuko ditugu. Kontxita Igartuak eta Benita Egiak apopiloak izaten zituzten etxean; biak zeuden ezkonduak, eta seme-alaba mordoxka zituzten. Jazinta Etxeberriak ere bazituen apopiloak; hark ere bazituen seme-alabak, baina alarguna zen. Teodora Ugarte ezkongabea zen, eta emakumeak soilik hartzen zituen etxean, ehun-lantegietako langileak eta Bergarara josten ikastera joandakoak besteak beste; inguruetako auzo eta herrietakoak ziren gehienak. Ez zegoen ondo ikusita bakarrik bizi ziren emakumeek etxean gizonezkoak hartzea. Ugartek neskame lanak ere egiten zituen tarteka, beste etxe batzuetan. Izan ere, gelak alokatzen ez zuten diru askorik irabazten; huskeria kobratzen zuten.

Neskameen denbora libre

Anizeta Agirrek Bilbon neskame zegoela ez zuen hiria ezagutzeko aukera handirik izan. “*Ez giñun baztar asko ikusi. Hamabostian behin ordu bi eukitzen giñuzen ta. Hamabostian behin urteeria. Etxian txandia. Bi neska egoten giñan ta. Bat hamabost batian eta bestia bestien, bata jai baten urtetzeko ta bestia... Guk urten orduko izeten zien laurak ingurua. Ta ba udan zortziretan etxera ta neguen seiretan. Kitto. Plazara ta juten giñan*”. Behin Charles Chaplin *Charlot* ikusi ei zuen kalean, Bilbon. Mende hasiera zen, 10eko hamarkada.

Mercedes Agirre ahizpak gogoan du Madrilén neskame zegoela noizean behin antzerkera joaten zirela. Behin, *Aida* opera ikustera joan ziren: “*Hemeretzi erriel pagau neban gero nik entradia, e! Hemeretzi errial orduan gero dirua zan, e, dirua! Gero juten giñan bestelako zazpi errial ta hola pagatzen zan zeretara be juten giñan*”. Bestela, ez ziren irteten: “*Gu ez giñan gero kafietara ta juten sekula be, ez geunkan premiñak be, baiña ez giñan juten sekula be, guk ez giñun gastuik egitten*”.

Carmen Garitanoandiak dioenez, neskametzan igande arratsaldea izaten zuten libre: “*Domeka arratsaldiak libre. Domeka arratsaldia izaten zan ba, bazkaldu ta fregaua egin ta danak egin ta ba, lauretan edo bostetan-edo urtengo giñan. Eta neguan berriz gerotxuago, zazpiretan hasten zan musikia eta zortziretarako edo beratzitarako, beratzitarako ez baziñan faten etxera, oso berandu izaten zan. Atxintxika, zoruan moduan bet*”. 40ko hamarkadaren hasierako kontuak dira. Garitanoandiak kontatzen du Berga-



❖ *Carmen Garitanoandia, 2008an aho-tsak.com-erako egindako elkarrizketan.*

ran neskame zegoela, behin zigortu egin zuela etxekoandreak. “Aurreko domekan gabeko hamaiketan etxera fan nitzalako. Altos Hornosko jaittan eta handik bueltia biajia egoten zan etxera, oiñez joan ta etorri ta hamai-kak jota”.

Garitanoandia askotan festarako gogoz geratzen zen. Gogoan du Asen-tzio Egun batean lanean jardun behar izan zuela: “Lastua ekarten ibiltten ni-tzan egunaz, mutillen moduan. Muti-lla nitzan egunaz. Burdikada lastua-kin etorri nitzan ni, eta jentia fiestan, erromerixan, eta ni etxera”. Etxeko-andreak esaten zion bera lanera joan zela hara, eta ez festara. “Nik mutillen moduan egitten neben lana”.

Neskameen lan baldintzak

Neskameak eta neskameak zeuden. Familia oso aberatsetan, Maria Pilar Larrañagak dioenez, “sekulako kria-dakin ibiltzen zien kalia, badakizu ze-lako neskamiak? Zela jantzitta ibiltzen zien aberatsan umiak zaintzen zi-ttuenak?”. Haiek beste neskame ba-tzuek baino gehiago irabazten zuten. Baina gutxi ordaintzen ei zieten hala

ere, eta kotizatu gabe. Lantegietako langileak gero askoz hobeto zeudela dio; bera, kasurako: “Zure zahartzarua pagauta dao hor. Baina harek ez zo-tsien egin hori. Oin eztao neskameik. Zela egongo da ba neskamia? Baldin badao, gainera, eskatzen dozu zure de-retxo... eta dauzkazun danak, ezta? Baina orduan ez zeukazun”.

Miren Azkaratek dioenez, beraiek umeak zirela, amak umezaina hartu zuen aldi baterako. Goizetarako, berak bitartean etxeko lanak egiteko. Aitak Alcorta y Compañía ehun-lantegian egiten zuen lan, Mekolalden. Alokai-ruan bizi ziren. Familia xumea zen.

Neskamea edukitzeko ez zegoela oso aberatsa izan beharrik dio Larra-ñagak. “Aberatsak izenda bakarrik ez. Fabrika baten kontramaestre zeua-lako, neskame bi etxian zauzken. Kla-ro, baina ze ordaintzen zebeu ba? Zen-bat? Nik ez dakit ze pagatzen zotsen, baina gero ‘ni seguridades sociales ni nada, nada!’ Hola ez dozu eukiko ba neskamia? Eta pentsau, gainera: ‘Ooo, eske oso etxe onian dao!’”.

Neskame batzuk gustura egoten zi-ren. Baina beste batzuk ez. Hanka-pean erabiltzen zituzten. Garitanoan-diak dioenez, neskameak denetik egi-ten zuen: baserriko lanak, etxeko la-nak, janaria prestatu, garbiketa, ume-ak zaindu.... Eta oso zorrotzak ziren eurekin. “Zeatik egon bihar ziñan ‘a lo que mandaban’, eta ‘gaur ez dakotzu jai’, ba etxian egon bihar dozu eta ki-tto. Holaxe bizi izan naiz ni”.

Baserrietan ez ezik, etxe dotoreetan ere egoera petralean zeuden batzuek. Barrenetxea-Arando anai-arreben ama ere neskame egona zen, Donostian.



❖ *Maria Pilar Labaien Aranzabe Valleko kondesa eta beste emakume aberats batzuek (ezkerreko 2.a, zutik, Ana Maria Murua Balzola da), inudearekin, mende hasieran. Ber-garako Udal Artxiboko bilduma, Valleko kontea. Jabea: Pedro Gonzalez*

Erritxek zioenez, etxe ustez aberats ba-tera joan, baina oso gaizki egon zen: “Gosiak beti, amesetan janakin...”. Etxeko andreak esaten ei zion: “*El aire del mar es mucho mejor que un bistec*”. Urtebete baino lehen ahizpak ate-ra egin zuen handik, baina bera aguantatzeko prest ei zegoen, etxe ba-tean urtebete baino gutxiago irautea gaizki ikusita zegoelako. Fama txarra hartzen zuten, langile eskasaren fama. “*Eneee, etxera bialdu zebanian aiztiak, haura zala poza! Artua eta esnia nehi-kua etxian*”.

Osa ahizpen ama ere neskame ibilitakoa zen, Olaberrian. Asteka egi-ten ei zuen lana, Miren Osak dioenez. “*Aste bat eta txandaka. Pentsaizu. Aste bat etxian eta beste aste bat zeran*”. Le-hen neskameekin “*oso exijentiak*” zi-rela dio. “*Diziplina haundixa zeuan or-duan*”. Gustura ez egon arren, askok aguantatu egiten zuten: “*Konduktia*

bajau egitten dala etxe baten urtebe-te ez bazan egitten. Beste leku bate-rako zera bajatu egitten ebala”. Or-duan lana “*astuan moduan*” egin be-har urtebetean. “*Urtebete egin ezkerro... baina obligaziñua urtebete behintzat aguantatzeko*”.

Maria Mugerzak eta haren sena-rrak baserriko neskametzaren gain-



❖ *Erritxe Barrenetxea-Arando, 2003an ahotsak.com-erako egindako elkarriz-ketan.*

beheraren zergatiak azaltzen dituzte. Beraiek Osintxura ezkondu zirenean, baserrian bazituzten *kriauak*. Baina gero ezin topatu ibili ziren. “*Bigarre-na euki giñuanian, ba oin dala 48 urte... [1956an] Ezin zeinken topau! Legazpira juanda nao ni, 13 zeuzke-la eta baten bat, neska gazten bat... esnetarako bihar giñuan, astuakin esnetarako...*”, kontatzen du Evaristo Alberdik. Ezetz esan zioten. “*Tailerrera orduan hasi zan emakumia, eta kitto!*”. Baserrietatik neskak lan-tegietara joateko joera nagusitu ze-nean -hasieran gaizki ikusita baitze-goen-, akabo neskameak.

Mugerzari normala iruditzen zaio horrelako lanik inork nahi ez izatea: “*Porkerixa bat irabazten kriaua eta kriadia, seguroik be ez...*”. Tripa truke izaten zen askotan, gerraosteko gose sasoian. Etxeko beste edozeinen moduan egiten zuten lan. Egun guztia lanean pasatzen zuten. Mugerzak-eta etxeko kriauai urtean behin ordaintzen zieten. Ez dute gogoratzen zenbat, baina gutxi. Gabonetan, berriz, bakailaoa eta etxean egindako ogi bat ematen zieten.



❖ Maria Mugerza, 2004an *ahotsak.com*-erako egindako elkarrizketan.

3.4. Emakumea osasungintzan

Emakumeak ingurukoen ongizatearen ardura hartu izan du, etxean zein etxetik kanpo (ikus *Familia eta lana* atala). Pertsonak zaintzea bere emetasunaren ezaugarri bezala hartu izan da, eta, horrenbestez, osasungintzan antzinatik izan du tokitxo. Sendabek-larrak ezagutu eta erabili ditu, gaixoak zaindu, erditzeetan lagundu... Erizainak eta emaginak hasieran titulu-rik gabekoak ziren; denborarekin, ikasketak jarri zituzten.

Erizainak

Emakumeen ogibidetzat jotzen da erizaintza. Eta esan daiteke lanbide honetan genero esterotipoak bete egiten direla. Erizainak “emazte, ama eta etxekoandre” lanak egin izan dituela, nolabait: medikuen laguntzaile, gaixoen bigarren ama eta osasungintza-ko zerbitzari domestikoak izan dira. Mutilek mediku izateko ikasten zuten, ez erizain izateko. Medikuek errespetuz tratatzen zituzten, berorika; erizainak, berriz, maila apalagokotzat zituzten.

Mende hasieran, Bergarako medikuak Roman Oiarzabal, Carlos Orue-ta, Victorio Mujika eta Francisco Ber-rondo (forentsea) ziren. Denak gizo-nezkoak. Herritarrek errespetuz hitz egiten zieten, apaizei bezalaxe berorika. Erizain lana ere errespetatua zen, baina bigarren mailakotzat jotzen zen.

Ikasketak egiteko garaian, XX. mende hasieran aukera gutxi zuten



❖ *Karmen Mujika erizaina 1930 urte inguruan, Escuela del Hogarren zebile-nean.* Bergarako Udal Artxiboko bilduma, Elena Odriozola Saizar

emakumeek (ikus *Nesken ikasketak* atala). Erizaintza zen horietako bat. Magisteritzarekin eta Idazkaritzarekin batera. Aipatzekoa da ikasketa horiek egin zituzten lehen neska bergararren artean medikuen alabak daudela. Mertxe Oruetak eta Karmentxu Mujikak Erizaintza ikasi zuten. Maria Victoria Oiarzabalek, berriz, Farmazia ikasi zuen, eta gero botika jarri zuen Bergaran.

Maria Dolores Peñak dioenez, Karmentxu Mujika, Don Victororen alaba, Movilla lantegian ibili zen erizain moduan. Eta gero handik Mayc-era pasa zen. Mertxe Orueta praktikantea izan zen (ikus bere fitxa), eta Bergarako anbulatorioan jardun zuen urte askoan.

Ez ziren Erizaintza ikasi zuten bakarrik, hala ere. Gerraostean Mikae-

la Mujikak (ikus bere fitxa) ere atera zuen titulua. Florita Izuskizak dioenez, haren amak -gerran alargundua- beraien tabernan egin zuen lana. “*Horren ama gurekin tabernan lanian ibili zan, eta hori estudixatzen zeuan, eta ya gero bai, hori komadrona ibili zan*”.

Asuntxi Uribesalgoren arabera, Rosario Agirrezendoia (Otxakila okindegikoa) ere erizaina zen: injekzioak jartzen ibiltzen zen. Eta Kontxita Saizar ere bai. Zerrajerako erizaina izan zen hura, eta gero moja joan zen. Gehiago ere izango ziren, zalantzarik gabe.

Bergarako ospitalean eta anbulategian hainbat emakumek egin dute lana. Bentako Kontxita Iturriak, esaterako. Emagin izateko ikasi zuen, eta praktikante moduan egin du lana.



❖ *Zerrajerako erizaina, 1942. urtean. Kontxita Saizar izan daiteke.* Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa



Mertxe Orueta Ariznabarreta

Erizaina

❖ *Orueta familiaren erretratua. Carlos Orueta eta Carlota Ariznabarreta, lau seme-alabekin: Maria Luisa (ezkerreko 1.a), Carlos, Mertxe (atzean) eta Margarita (amaren ondoan). Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jau-regi fondoa*

1927an jaioa, Bergaran. Soralezeko Carlos Orueta medikuaren eta Carlota Ariznabarretaren alaba. Lau anai-arreba ziren, mutil bat -Carlos, aita bezala- eta hiru neska. Mertxek Erizaintza ikasi zuen eta Maria Luisak Magisteritza, biek ere Gas-teizen, Lucia Farras Idazkaritza ikasten ibili zen ikastetxe berean.

Maria Dolores Peñaren arabera, “*Mertxe hemengo lehenengotako erizaina izan zen*”. Eta beste ahizpa ere osasungintzara dedikatu zen: “*Margarita Oruetak pedi-atra egon zenarekin egin zuen lana, baina ez zeukan titulurik, eta gero Batxi-lergoa ikasi zuen, eta ATS eta fisioterapeuta egin zuen Madrilén. Aspacen egon da lanean, Donostian, eta orain erretiroa hartuta dago*”.

Mertxe Oruetak praktikante moduan egin zuen lana Bergarako anbulatorioan, urte askoan. Oso ezaguna zen herrian. ❖

Emaginak

Mende hasieran umeak etxean jaiozen ziren, emaginen laguntzarekin. Emaginak titulu gabeak izaten ziren, eta auzo guztietan izaten zen hortaz zekien norbait. Belaunaldi belaunaldi transmititutako jakintza izaten zen. Amek alabei irakatsitakoa.

Medikuak ere etxez etxe ibiltzen ziren. Askotan, emaginak medikuen laguntzaile moduan joaten ziren erditzeetara. Bergarar asko Don Roman Oiarzabal medikuarekin jaioak dira. Barrenetxea-Arando anai-arrebak, adibidez. Mariñe Barrenetxea-Arandok zioenez, “partera titulodunik ez zeuan orduan. Andrak egoten zien, basarritan eta bestela be bai, partera egitten zezenak, baina titulo barikuak. Eta hori, Don Roman etorri zanian, haurra... esaten zebe asko egin zebala, garbittasuna ta...”. Oiarzabal medikua, jaiotzez ataundarra, 1907an hasi zen Bergaran lanean. Maria Victoria Arizmendi ere Don Roman Oiarzabal medikuarekin jaio zen. Oso ona ei zen. Dioenez, gerra aurrean Bergara zen haur jaioberrien hilkortasun txikiena zuen herria.

Florita Izuskizaren arabera, “Bergara erdi jaiota egongo da Don Romanekin. Eta gure goikuakin, Fernandakin be bai, beste pillat bat”. Berak ere haretzekin izan zuen lehen umea. “Goixan bizi izan zan andra bat, komadrona egitten zebana. Ez zan komadronia, berezkua zeukan. Haretzekin euki neban nik alaba zaharrena hementxe, gela horretantxe [etxean]. Ta haretzek laguntzen zotan, zeaittik jaio zanian kilo eta erdi zeukan, zortzikixa jaio zan. Eta ni hartutzeko be... bueno.... Eta harek jazten zeban



❖ 1947ko ekaineko irudia, Florita Izuskiza (erdikoa) Sanmartzialera bidean, 20 urterekin. Ezkerrekoa Maritxu Gallastegi da eta eskumakoa Arantza Arana. Izuskizak Fernanda ‘Ondarru’ emaginarekin eduki zuen lehen umea, eta Micaela Mujikarekin beste biak. Bergarako Udal Artxiboko bilduma, Arantza Arana Ormaetxea

eta ipintzen zeban tente-tente”. Asuntxi Gallastegi eta Lucia Farras ere Fernandarekin jaio ziren. Fernanda Ondarru esaten zioten, eta Barrenkalean bizi zen.

Asuntxi Uribesalgok Zesari Zubixarkua aipatzen du. Edurne Laboraren ama ere emagina zen. Astiazaran zuen abizena; usurbildarra jaiotzez, emagin baten alaba zen bera ere.

Elisabet Agirrezabalen ama ere emagin lanetan ibiltzen zen: Juana Arrese. “Komadrona, askotara joan zan. Kontajiau egin zan holaxe. Koñata bat gaixoik zeuala, joan zan eta bera kontajiau eta bera hil, ta koñatia osatu”. Berarekin haurdun zegoela ere ibi-

li zen emagin lanetan. “*Marconeko, hemen inprentia egon zan ba? Hango Garbiñe, gero Vitorixara ezkondu zana, berak jaio zeban, eta handik egun batera ni jaio nitzan. Egun bateko diferentzia geunkoun eta berak atendidu zeban haura, pentsaizu*”. Ez du beste emaginik ezagutu San Antonion. Normalean medikuarekin joaten ziren emaginak. Baina medikua iritsi ezin bazen... “*Batian baino gehixautan joango zan bakarrik, segurutik*”.

Soraluzeko Miren Osak dioenez, inguruetan Soraluzeko Lasa “praktikante txikixa” ibiltzen zen erditzeetan laguntzen etxez etxe. Osintxura ere hura joaten zen. Beraien aurrekoei, be-

rriz, parterek laguntzen zietela dio. Euren ezagun bat ere ibiltzen omen zen partera moduan laguntzen: Pantxika, Galtzarikua.

Juana Maiztegiren esanetan, bere amari emakume baserritar batek lagundu zion umeak izaten, etxean. Garbitasuna ere nolanahikoa zela zioen. “*Harek eukiko zittuan azazkalak eta, satsetan erabilita...*”.

Kalean ordaindu egiten zioten medikuari. Baserrietan, berriz, etxeko jeneroa ematen zioten normalean. Emaginei ere zerbait ematen zieten, egingdako lana eskertzeko. Hori bai, batzuetan senideak ziren emagin lana egiten zutenak. 1930eko erroldan ez da emaginik azaltzen.



❖ *Taldetxoa Ospitaleko eskaileretan, 1958. urtean. Ezker-eskuin: Iñaki Zelaia, Ricardo Azkargorta “Riki”, Mercedes Azkarate (jaioberria besoetan duela) eta Josefina Zelaia Salsamendi. Bergarako Udal Artxiboko bilduma, Hilario Azkargorta Zelaia. Argazkilaria: Fernando Azkargorta*

Lehengo emaginak titulu gabeak ziren. Antza denez, Bergaran Mikaela Mujika izan zen (ikus bere fitxa) ikasketadun lehenengoa. Hasieran etxez etxe ibili zen Mikaela. Asuntxi Uribe-salgok lehen bi umeak etxean izan zituen, Don Romanekin eta Mikaela emaginarekin. Beste biak ospitalean, Mikaelarekin. Florita Izuskizak ere maternidadean izan zituen bigarren eta hirugarren umeak, Mikaelarekin. “*Arrasatetik be bai, etortzen zien orduan hona famelixia eukitzera*”.

1954an lehen amatasun klinika ireki zuten Bergaran: *Maternidadia*. Sasoi hartako bergarar gehienak bertan jaiotakoak dira, baita inguruko herrietakoak ere. Ordura arte etxean edo kanpoko ospitaletan jaiotzen ziren. Mikaela Mujikak bertan egiten zuen lan.

Clínica de Urgencia y Maternidad San Martín de Aguirre zuen izena, baina *Maternidadia* bezala ezagutzen

zen. Mizpirualde egoitzaren atzeko aldean zegoen, eta herriko beharrei erantzuteko sortu zen, batez ere, osasun eta garbitasun egoera hobetzeko. Bi zerbitzu nagusi eskaintzen zituen: larrialdietarako arreta eta amatasun-klinika. Klinikaren kudeaketaz “karitateko alabak” mojak arduratzen ziren. Ez zen musu-truk izaten: ohe baka-rreko gelan egoteagatik, 100 pezeta ordaindu behar ziren eguneko; gela bi-koitzean, 75 pezeta eta gela orokorrean, berriz, 50 pezeta. Bergarako amatexea 1977. urtean itxi zuten⁷.

Maria Pilar Larrañagak dioenez, klinika hartan bi praktikante eta erizain bat izaten zituzten; Dioni aipatzen du. “*Seguridade sozialakin zan, baina como particular*”. Bera han operatu zuten: apendizitisa. Maternidadean Daniel Arrieta ginekologoa eta Morlans medikua egoten ziren, Mikaela Mujikarekin batera.

⁷ Informazioa: GURE BERGARA udal aldizkaria. 6. zenbakia



Mikaela Mujika Erizaina

❖ *Mikaela Mujika (eskumakoa), Basurtuko ospitalean erizain lanetan zebilenekoa, gerra garaian*

Mikaela Mujika Gorrotxategi Bergaran jaio zen 1921. urtean, eta emagin ezaguna izan zen. Tituludun lehen emagina. Etxez etxe ibiltzen zen, medikuarekin batera, haurrak mundura ekartzen laguntzen; gerora, baita Bergarako amaetxean bertan ere.

1943. urte inguruan hasi zen Bergaran emagin lanetan. Baina lan horretan aritu aurretik, beste toki batzuetan ere jardun zuen erizain moduan. Gerra denboran, Basurtuko ospitalean egon zen lanean; 1937. urtean, 15-16 urteko gaztetxoa zela. Eta ondoren dentista baten laguntzaile gisa.

Errepublikarrak ziren, eta gerra garian ihesi joan behar izan zuten. Bere aita Federico Mujika zen, Bergarako Zentro Errepublikarreko zaintzailea. Asturiasen Cotoko espetxean hil zuten, preso hartu eta gero.

Mikaela Mujika ezkondua zen. Juan Mari Jauregirekin ezkondu zen, eta alaba bat izan zuten: Maria del Carmen. 2010eko urtarrilean hil zen Mujika, Bergaran, 89 urterekin. ❖

Kuranderak eta sasimedikuak

Emakume askok sendabelarrak erabiltzen zituzten, gaixotasunak osatzeko. Sasoi bateko parteren moduan ikasi zuten haiek ere: etxean, ahoz aho. Aurrekoek nola egiten zuten ikusita. Batzu-batzuek hori zuten ogibide gisa: kuranderak eta kuranderoak ziren. Baina gehienek etxekoentzat eta ingurukoentzat egiten zituzten ukenduak eta enplastuak. Osintxun baze goen bat oso famatua zena: Mugarri baserriko Paula Alberdi.

Hezurrak eta zaintiratuak osatzen zituztenak ere bazeuden. Asuntxi Gallastegiren amak, Margarita Gabilondok, esaterako, zaintiratuak sendatzen

zituen. Eta tokitik ateratako hezurrak sartu. Amaren aitak, aitonak, berriz, baita hezur apurtuak konpondu ere. Herritar asko joaten zitzaizkien laguntza eske. Ez zuten kobratzen. Opariak egiten zizkieten horregatik, pastelak eta. Gallastegi bera auto batek harrapatu zuen, sei urterekin, eta aitonak kainaberak jarri zizkion, igeltsuarekin. 40 egunez edo. Primeran geratu ei zen.

Mozolotegi baserriko Bitorianatxok ere, Bergarako jaiei ongi-etorria egiten dien pertsonaia sorrarazi zuen emakumeak, sendabelarrei buruz asko zekiela zioten. Sorgin fama zuen horregatik.



Paula Alberdi
Belagilea

1922an jaioa, Osintxuko Mugarri baserrian bizi izan zen. Sona handiko belagilea ("kurandera") izan zen bere inguruan. Bere ukendu eta enplastoak oso estimatuak ziren. Oso ondo ezagutzen zituen sendabelarrak: berbena belarra, pasmo belarra, intxusa eta beste asko erabiltzen zituen. Paularen ukenduek denerako balio zuten: azaleko gaitzendako, errearendako, handituendako... "Pomadita Paula", esaten zen, umorez. Ez zen bere sekretuak kontatu zalea eta haren jakinduria gehientsua galdu egin da. Emakume jantzia zen beste gauza batzuetan ere. Bertsozalea, kanta-paperak biltzen zituen. ❖

Mojak gaixoak zaintzen

Askotan erizain lana egitea mojen esku zegoen. Aipatu ditugun karitateko alabek lehenago ere ospitalearen ardura zuten. Gaur egun Mizpirualdeko zaharren egoitza dena ospitalea zen sasoi batean: “Casa de Beneficencia”. Gaixoak zaintzeaz gainera, mojek ume txikiei eskola ematen zieten (ikus *Nesken ikasketak* atala). Guraso barik geratutako umeak ere batzen zituzten mojek gerra aurretik.

Lucia Farrasen arabera, ospitalean Marina Orbe moja bergararra egon zen, baina denbora gutxian. Erizaina zen. 1930eko erroldaren arabera, zortzi moja bizi ziren han. Mojen burua Concepcion Beitia oñatiarra zen. Eta beste 7 mojak Anoeta, Errezil, Donostia, Legorreta, Arleta-Nafarroa, Burgos eta Logroñoakoak ziren. Per-

tsona asko zituzten euren kargu, gehienak adinekoak, baina baita umeak ere. 12, 10 eta 8 urteko Lopez Al-daz anai-arrebak, adibidez.

Siervek, berriz, gaixoak zaintzen zituzten gauez etxeetan. Mariaren zerbitzariak Artekalen bizi ziren mende hasieran; 1905ean joan ziren hara. 60ko hamarkadan etxea bota zutenean, Poligonoan egin zitzairen etxe berria. Unzeta familiak eman zituen lurrak, doan. “*Eta herrixak pagau giñuan, e. Ipini zebe kuota bat. Nahi giñuanak pagatzeko. Eta hillian erak etortzen zien kobratzera. Bakoitzak hainbesteko bat, eta ailegatzen jakuen bankuei pagatzeko. Eta pagau zebe-nian, danoi abisau zoskuen. Eta nahi zebanak jarraitu zeban nahi zebana emoten*”, azaldu zigun Eulalia Elkorok. Hark zioenez, lan handia egiten zuten. “*Siervak kalian egitten zebe lana*.”



❖ *Madalena plaza, Ospitala, Ospitaleko kapera eta mutiko batzuk jolasten, 50eko hamarkadan.* Bergarako Udal Artxiboko bilduma, Elisabet Biain Bilbao

Juan zien, baina horrek gaixuak eta zaintzen zittuzten. Gaua pasatzera joaten zien etxetara”.

“Harek egin zeбен, neretzat, lana oso ona. Zeattik gurasuak etxian egoten zien orduan; oin be bai egoten die eta oin be bai emakumiak eukitzen die. Etortzen zien gabian, eta zuk trankil-trankil lo egitten ziñuan. Ta goizian juten zien. Segun ze etxetan ba afarixa emoten jakon, gabian. Gure etxera etorri zien denbora askuan. Eta harek egitten zeбен lan ona. Zeattik egunez pasatzen dozu, baina gabian hasten baldin bada hori eta gero egunez lana egin bihar... ba hori aguantau egin biha da, e. Laguntza haundixa da”. Bergarako etxe gehienetara joaten zirela zioen Eulali Elkorok.



❖ *Moja taldea, sierben lehengo komentuko elizan, mende hasieran.* Bergarako Udal Artxiboko bilduma, Jesusa Igarzabal. Egilea: Eustaquio Agirreolea

Seinale txarra izaten zen: “Danok pentsatzen giñuan: ‘Ba, hasi da siervia etortzen... hor ez da gauza onik egongo’”. Beharrik ez zegoen etxeetara ez ziren joaten: “Etxe batzutan orduan zela emakumiak etxian egoten zien, lanera ez zien joaten, ba zaindu zeikezun, ezta? Baina beste etxe batzutan? Gizon asko igual eta emakume bat bakarrik... eta joaten zan”.

“Basarritara be joaten zien, klaro. Eruan egin bihar ziñuzen, ezta? Hila-beterako igual”, Elkororen hitzetan. Monjak batzuetan libre egoten ziren, eta beste batzuetan ez. Gogoan zuen baserri batera gauean moja bat joaten zela eta goizean beste bat. Eta baserriarrek lehengo erritmoan jarraitu zuten lanean. “Libre egon ezkerio, zeattik batzutan danak okupauta egoten zien. Segun zenbat gaixo edo ze zeuan”. Hasieran sierbak 20 bat izatera iritsiko ziren. “Baina gero joan egin zien. Gutxi geratu zien. Ondiokan ez da urte asko joan diela. Azpeittin edo zeuken beste bat. Hamen Gipuzkuan hiru edo lau zeuken, komentu hola... eta danak batu zien. Azpeittin”.

Miren Azkarateren ustez ere lan ona egin zuten moja horiek. Beraiek ere kuota ordaintzen zuten hilero. 21:00etatik 07:00etara egoten ziren, etxekoek atseden hartzeko. Afaria ematen zieten.

1930eko erroldan, Mariaren zerbitzariak 12 zirela agertzen da. Burua Plantila Urbeltz zen (Linzoain-Nafarroa). Moja bakarra zen gipuzkoarra, Zaldibikoa: Ageda Erauzkin (1879an jaioa). Bost nafarrak ziren, eta gainerrakoak Burgos, Almeria, Madril, Granada, Santander eta Soriakoak.

3.5. Maistrak

Ikasketen atalean hainbat maistra aipatu ditugu. Hasieran gutxi ziren tituludun maistrak. Elisabet Agirreza-balek dioen moduan, *“klaro, pixka bat espabiladak zirenak...grupua hartu eta erak erakutsi”*. Haurrekin aritzen ziren batez ere, oinarri-oinarrizko gauzak erakusten: kontuak egiten, irakurtzen eta idazten. Maisu titulu gabeak ere izaten ziren, noski. Aski zen kultura apur bat izatea. Irakaskuntzan zebiltzan fraide eta mojek ere ez zuten titulurik, askotan. Ikastetxe publikoetan bai, titulua eskatzen zuten. Irakasleak errespetatuak ziren, Don eta



❖ *Maria Luisa Orueta irakaslea, 60ko hamarkadan.* Bergarako Udal Artxiboko bilduma, Ana Julia Irigoien Oiarzabal

Doña deitzen zieten, baina ez zuten diru asko irabazten.

Aurretik aipatu dugun moduan, Magisteritza dago Bergarako neskek egindako lehenengotako goi mailako ikasketen artean. Besteak beste, hauek atera zuten titulua: Kontxita Maiztegi, Maria Oianguren, Maria Pilar Lonarbide, Julitxu Saizar, Maria Luisa Orueta, Marisol Peña, Lide Mujika eta Maria Victoria Arizmendi.

Sasoi batean maistra asko ezkongabeak izaten ziren, baina urteek aurrera egin ahala, ezkonduak gero eta gehiago dira. Aipatu berri ditugun artean, adibidez, azken hirurak ezkondu egin ziren, eta maistra lanetan jarraitu zuten. Lana eta familia uztartzen asmatu zuten.

Julitxu Saizar Burgoseko probintziara bidali zuten maistra; bueltan, konfekzio tailerrean ibili zen lanean, ahizparekin batera. Maria Luisa Orueta eta Marisol Peña Labe Garaietako eskolako maistrak izan ziren urte askoan. Eskola itxi zuten arte; gero, Labe Garaietako bulegoetan egin zuten lana. Peña lehenengo partikularrak ematen hasi zen, umeei, etxean. Maria Pilar Lonarbide Osintxuko eta Zubieta eskolatan egon zen irakasle lanetan.

Lide Mujikak eta Maria Victoria Arizmendi akademiak ireki zuten, Bergaran, 50eko hamarkadan; gero, 1971. urtean, Aranzadi ikastola sortu zenean, akademia itxi eta ikastolaren parte bihurtu zen.

Atal honetara Bergaran ezagunak izan ziren maistra eta andereño batzuk ekarriko ditugu.



Sor Eufemia

Ospitaleko Eskolako maistra

Sor Eufemia Barrinzo Villandiego 1903. urtean jaio zen, Burgosko Olmillos herrian. 1923an Bergarara etorri zen bizitzera. Karitateko Alaba zen. Mojek Benefizientzia Etxea zuten Mizpildin (gaur egun zaharren egoitza). Ospitalea izateaz gainera, haur-eskola ere bazen. Eta bera zen eskolako maistra. 1930eko errol-dan, orotara zortzi moja zirela ikus daiteke; mojen burua Concepcion Beitia oñatiarra zen.

Bergarako neska-mutiko asko ibili zen Sor Eufemiarekin ikasten. Elisabet Agirrezabalek dioenez, *“txiki-txikittatik berakin danak. Ume danak. Famosia, bera zan hango direktoria, el Harek egitten zittuan emakumian eta gizakumian lanak, danak egitten zittuan Sor Eufemiak”*. Txikia zen, baina ez zen makala.

Lucia Farrasek gogoan du duela urte batzuk Sor Eufemiari omenaldia egin ziotela. Izan ere, urte asko egin zituen umeei eskola ematen. Erretiroa hartu zue-nean, Donostiara joan ei zen bizitzera. ❖



❖ Sor Eufemia (ezkerrekoa) eta beste bi monja Madalena plazako kapera aurrean, umeekin, 20ko hamarkadan. Bergarako Udal Artxiboko bilduma, Fernando Unamuno Zorita



Maria Oianguren, Maria “Txantxote”

Gerra aurreko ikastolako andereñoa

❖ *Maria Oianguren gerra sasoian, Belgikan.*
Intxorta taldea

Maria Oianguren Jauregi maistra ezaguna izan zen Bergaran, gerra aurreko ikastolako andereñoa (1933-1936). “Maria Txantxote” edo “Txantxotesia” deitzen zioten. Familia abertzalekoa zen, eta Batzokiaren bueltan ibiltzen zen; Emakume Abertzale Batzakoa ere bazen. Oso emakume argia zela diote. Magisteritza ikasi zuen Gasteizen.

Eduarne Laborda 1934an hasi zen Ariznoako Euzko Ikastolara joaten (ikus *Gerra aurreko ikastola* atala). Oianguren maistra zorrotza zela dio: “*Maestria ona baiña gogorra...*”. Lezioa ez zekienari atzaparretan erregelarekin jotzen omen zion. “*Regliakin txa! Egurra. Ta nik ba, egixa esanda, oso buru txarra*”. Esan beharra dago sasoi hartan zigor mota hori oso zabalduta zegoela. Elisabet Agirrezabalek dio gogorra izan beste erremediorik ez zuela, hainbeste umerekin. 40 bat ume zituen gelan.

Jabier Linazisoro ere ikastolan ibili zen. “*Haura zan Irakaslea, eta oso ona gaiñera, e! Oso intelijentia, oso emakume intelijentia. Erakusten artistia zan, gaiñera. Ikastola dana berak... Edade diferentetakuak, batzuk ipiñi gauza bat egi-tten, beste batzuk bestia, baiña danak montoi baten. Danok alkarrekin. Unixex...*”. Gela asko zeuden, eta handiena hartu zuten horretarako. Linazisorok lau-bost urte egin zituen hara joaten, gerra hasi zen arte.

1936an Bergarako sei maisu-maistrari diru laguntza eman zien Udalak, Eusko Ikaskuntzak antolatutako udako ikastaroetara joateko. Irakasle horien artean emakumezko bakarra zegoen: Maria Oianguren.

Gerra hasi zenean, Oianguren Frantziara joan zen itsasontziz, ume talde baten kargu. Andereño gisa. Eta gero Frantziatik Belgikara. Linazisorok dioenez, “*Gerratian haura juan zan Beljikara. Eta Beljikan egin zittuan urte batzuk. Han-*

go Anberesko alkatia edo, haren etxian egon zan. Harrezkero, oso relaziño haundixa zeuken gaiñera...". Gerraostean, Bergara itzuli zenean, agintari berriek zigortu egin zuten, eta bi urtez erbestera bidali.

Oiangurenak ez zuen eskolarik eman gerraostean. Ez zioten uzten. Baina ez zen geldirik egon. Miren Azkaratek dioenez, Alkortanekoei tailerra jartzen lagundu zien; izan ere, bere anaia han hasi zen lanean. Aparteko emakumea zela dio Azkaratek. Gero beraien tailerra ipini zuten Ostetan, eta Mariak eramaten zituen kontuak (haren bi ahizpak ere bertan zebiltzan lanean). 1950ean Industria Zerga ordaindu zutenen artean agertzen da Maria Oianguren Jauregi; josteko eta bordatzeko tailerra zuela jartzen du, Arruriaga kalean. Oianguren 2000. urtean hil zen, 89 urte zituela. Ikastolan bere ikasle izandakoek eraman zuten hilkutxa bizkarrean, Linazisorok besteak beste. ❖

Florita Idarreta Sañudo

Gerra aurreko maistra

1912an jaioa, Bergaran. Gerra aurrean Florita Idarreta Lehen Hezkuntzako maistra zen Labe Garaietako eskolan. Idarretatarrak senide asko ziren, eta mutil bakarra. Familia abertzalekoak ziren, eta Batzokian ibiltzen ziren. Astebukaeretan joaten zen Flora, gimnasia eta dantzak ikastera. Emakume Batzakoa zen. Juan Luis Bikuñaren *Bergarako Batzokia* liburuan kontatzen duenez, bazkideen kuotak jasotzen ibiltzen zen, etxez etxe, Sole Lizarralderekin batera. Eta euskarazko doktrina erakusten zien umeei, auzoetan.

Gerra hasi zenean, Bergaratik alde egin zuen. Baina orduan ere eman zituen eskolak Florak. 1937ko otsailean Euzko Jaurlaritzako Lehen Hezkuntzako Zuzendaritza Nagusiak honako agindua eman zuen: Barrikako Udalaren ekimenez, herri horretan sortu berri zuten ikastolan, *Goierri* izenekoan, irakasletza Idarreta Sañudotar Loreren esku uztea. Ikastola hori Euzko Jaurlaritzaren agintepean zegoen⁸.

Gero, umeei batera erbesteratu zen. Pleusle Nech merkatalontzian eraman zituzten Bordelera; espedizioan 500 ume, 20 maistra, garbitzaileak eta 3 apaiz zihoazen. Bordeletik Donibane Garazira joan ziren, eta hiru urte egin zituzten han. Irakasle jardun zuen berak (bere ahizpa Asunek ere bai, baina beste herri batean). “*Testurik ez genuenez, testurik gabe lan egiten genuen*”. Antzerkia ere egitzen zuten. Bizkaiko eta Gipuzkoako andereñoak zeuden. Batzordea antolatu, eta lehendakari izendatu zuten Florita.

Bergarara bueltatu zenean, lanik ez zioten eman Labe Garaietan. Asun ahizpa eta biak etxean eskola partikularrak ematen hasi ziren, orduan. Miren Azkaratek errezeloa du Idarreta ahizpek musika eta frantsesa erakusten zutela gerraostean. Baina alkateak jakin zuenean, debekatu egin zien. Eta azkenean denda jarri zuten.

Etxeko negoziora batu zirela dirudi. 1950eko Industria Zerga ordaindu zutenen artean, bere bi ahizparen arropa dendak agertzen dira, biak Bidakruzetan: Pilar Idarretak tela saltzen zuen, kopuru handietan, eta Carmen Idarretak arropa. ❖

⁸ Euzkadiko Agintaritzaren egunerokoa. 963. or.



Kontxita Maiztegi

Frontoiko Eskolako maistra

❖ *Kontxita Maiztegi*



❖ *Kontxita Maiztegi maistra, bere omenaldia antolatu zuten ikaslee-kin, 1969. urtean. Ezkerretik eskubira, Maria Paz Alberdi Arribas, Larrañaga Aseginolaza, Angelita Garmendia Bikuña, Gallastegi Gantxegi, Kontxita Maiztegi maistra, Sol Telleriarte Egidazu, Arantxa Agirre Azkarate, Mariasun Plazaola Gallastegi eta Miren Lonbide Gisasola. Bergarako Udal Artxiboko bilduma, Lorentzo Laskurain Gabilondo*

Bergaran jaioa zen Kontxita Maiztegi, eta Magisteritza ikasketak egin zituen. Ahizpa jostuna zuen, ama bezalaxe, eta aita, berriz, igeltseroa. Kontxita Frontoiko Eskolako maistra zen (ikus *Nesken Ikasketak* atala). Eskola hori pribatua zen, neskentzat bakarrik. Etxe bakarra zen frontoi inguruan, eta baratzez inguratuta zegoen.

Barrenetxea-Arando ahizpek gogoan zuten noiz hasi zen eskolak ematen. Gerra aurrean. Erretiroa hartu arte jardun zuen. Oso ospe oneko maistra zen. Eulalia Elkorok zioenez, oso ondo gertatuta zegoen: “*Oso ona zan haura, maistra oso ona. Nik ez dakit zenbat jende pasauko zan handik, eta ondo ikasitta, e! Nere lehengusinak be danak han ibili die, eta nere lagunak be bai. Eta ondo, oso ondo ikasi zebe*”.

Gerra aurretik ibili zen Luz Telleriarte, eta ostean ere bai, baina klase partikularrak hartzen. “*Oso irakasle ona zen, baina oso zorrotza. Egia esanda, nik beldurra nion*”. Maria Dolores Peñarentzat, berriz, pertsona maitakorra zen: “*Oso*

maistra ona zen, oso jatorra". Frantsesa ere erakusten zion, eskolatik kanpo, bere etxean udan. Peñak urtebete bakarrik egin zuen Frontoiko Eskolan, Gasteizera joan zelako ikastera, baina oso gustura ibili zen: "*Nik ez nuen Enseñanzara joan nahi, Kontxitarekin nahi nuen*". Mariasun Plazaolaren iritziz, Maiztegi "oso garratza" zen: "*Gauzak ondo erakutsi, eta gainera umiei be... exijitzen zeban ondo egindda gauzak. Oso ona*".

60ko hamarkadaren bukaeran omenaldia egin zioten Kontxita Maiztegi. Omenaldian bere ikasle askok parte hartu zuten (ikus argazkia). ❖



Jesusa Enekotegi

Musika irakaslea

❖ *Jesusa Enekotegi, ezkerrean.*

Jesusa Enekotegi maistrak solfeoa eta pianoa erakusten zituen Bergaran, Bidakruzetan. Maistra izan zen Bilboko kontserbatorioan, eta kontzertuak ematen zituen. Bergararra jaiotzez, Bilbon bizi izan zen aldi batean, eta gero berriro Bergaran. Bilbon egin zituen musika ikasketak. Musika Kontserbatorioa 1920. urtean ireki zuten, eta ez dakigu Enekotegi noiz hasi zen han, baina bai 1925ean bertako ikaslea zela: sari bat irabazi zuen, Migel Arregirekin batera pianoa jotzen.

Asuntxi Gallastegik Enekotegirekin prestatu zuen musika karrera; gero Bilbora joaten zen azterketak egitera. Gallastegirekin batera hainbat neska joaten ziren harengana, musika ikastera: Asuntxiren ahizpa, Maria Jesus Inza, Ana Mari Azkarate... Baita mutilen bat ere. Enekotegik eskatuta hasi zen musika eskolara ematen Gallastegi bera ere (ikus *Emakumea eta artea* atala eta bulegarien atala). ❖



Maria Victoria Arizmendi

**Akademiako maistra eta ikastolako
andereñoa**

❖ *Maria Victoria Arizmendi maistra*

Ikasketen atalean aipatu dugun moduan, Maria Victoria Arizmendik eta Lide Mujikak akademia jarri zuten Bergaran, 50eko hamarkadan. Gerora, Aranzadi ikastolako andereñoak izan ziren biak. Maria Victoria Arizmendi elkarrizketatu dugu azterlan hau egiteko, Bergaran. Lide Mujika Donostian bizi da.

Maria Victoria Arizmendi Barrenkalean jaio zen, 1924an. Aita Elgoibarkoa zuen, Untzon baserrikoa, ogibidez biajantea, eta ama Bergarakoa. Zortzi senide ziren. Ume-umetan Ospitaleko Eskolan ibili zen, eta gero Enseñanza. Hantxe bertan kontabilitatea, takigrafia eta mekanografia ikasi zituen, partikular. Batxilerra egiteko beka eman zioten mojek, ikasteko balio zuelako; Donostian bukatu zuen batxilerra, eta Valladoliden egin zuen azterketa. Donostian atera zuen Magisteritza titulua, bere kontura prestatuta.

Magisteritza amaitu zuenean, ez zuen oposiziorik egin nahi izan, Arabako edo beste nonbaiteko herri txikiren batera bidaliko zuten beldur zelako. Ez zuen herritik urrun joan nahi. Etxean hasi zen klaseak ematen, eta gero akademia jarri zuen Lide Mujikarekin batera. Ikastola sortu zenean, bertako andereño bihurtu ziren biak. Ezkondu, eta semea eta alaba izan zituen. ❖

1930eko erroldan agertzen diren maistrak:

- Dionisia Larrañaga Arregi. Ezkongabea (1873). Zubietan.
- Angela de Ariznabarreta Oñagoitia (Berriz, 1890). Soralezko armagin batekin ezkondua (40). 3 urte Bergaran. 13 urteko semea eskolan. Osintxun.
- Maria Aranzabal Gaztelurrutia (19 urte, Abadiñon jaioa). Ahizpa Victoria modista da, 16 urterekin, eta ama alarguna dute. Angiozarren.
- Dolores Gorriti Munarriz (Iruñea, 1879). Senarra igeltseroa du (Logroño). Semea ere maisua da 20rekin. Angiozarren.
- Maria Ezpeleta Mugica. 23 urtekoa. Aita alarguna du, okina: Felipe Ezpeleta. Bi langile dituzte okin lanetan. 27 urteko anaia ikasten dago eta 31ko alaba 'sus labores'. Goenbolun.
- Basilisa Navarro Ibarguren (Urretxu, 1904). 3 urte Bergaran. Eloregeri auzoan.
- Julita Ramos (Zumarraga, 1875). 18 urte Bergaran. 23 urteko neskaekin bizi da Labe Garaie-tako apaiz etxean.
- Cesarea Askasibar. 25 urte. 'Ausente' dago. Anaia ere maisu: Vicente Ascasibar, 22 urtekoa. Migelena baserrikoak. Angiozarren.
- Juana Larraza Uribe (Donostia, 1908). 'Transeunte' moduan dator, urtebete darama Bergaran. Bide-bitartean bizi da, Uberan, Maria Gaztelu Lamariano alargunaren etxean.

- Baldomera Ugalde Argarate (1876). Familiako burua. Semea: Manuel Ugalde Argarate (txoferra, 32 urtekoa. 22 urterekin izandakoa, dirudienetz solteratan). San Lorentzon.
- Tomasa Laskurain Irizar (Antzuola, 1870). 14 urte Bergaran. Familiako burua. 2 alaba ditu, 26koa neska eta 21koa jostuna: Pilar Lopez. San Cristobalen.

1953 eta 1963 urteen bitartean Bergaran erakutsi zuten maistretako batzuk (Bergarako Artxiboa): Maria Cruz Amezaga Gonzalez, Martina Etxetxipia, Isabel Mendizabal, Maria Ugalde Altolagirre, Maria de Valvanera Jauregizar, Maria Pilar Lonarbide Guridi, Juana Irurtia Lizarraga, Maria Angeles Perez Aldai, Francisca Esteban Molinero, Matea Monje Rodriguez eta Maria del Rosario Curto Sanz.

3.6. Idazkariak, bulegariak eta telefonistak

Datu gutxi dugu gerra aurretik lantokietako bulegoetan ziharduten emakumez. Oso gutxi izango ziren nolahi ere. Gerraostean gehituz doaz poliki-poliki. Ehun-fabriketan, Labe Garaietan, Udalean, Tabakaleran eta beste hainbat lekutan aurkitzen ditugu, eta banaka batzuek ardura handiko lanpostuetan.

Ikasketen atalean aipatu dugun moduan, neska batzuek bulegoetan hasten ziren lanean, kontabilitatea eta mekanografia ikasi ostean. Baina



❖ *Labe Garaietako bi bulegari lanean, 40ko hamarkadaren amaieran. Ezker-eskuin, Arantxa Aiastui eta Miren Retegi.* Bergarako Udal Artxiboa. Jesus Urkiola Laspiur fondoa

esango genuke XX. mendea aurrera joan ahala zabaldu zela joera hori. Ehun-lantegietan oihalgile eta harigile moduan bai, baina mende hasieran oso gutxi ziren bulegoetan lan egiten zuten emakumeak. 1930eko erroldan bulegari bakarra dator, eta etxe-ko negozioan dihardu lanean, teila lantegian: 19 urteko Fidela Arregi. Miren Azkaratek dioenez, moja ikastetxean berak 13 urte zituenean jarri zuten kontabilitatea ikasteko aukera, 1942an; aurretik ez zegoen. Horrek ez du esan nahi eskolatik kanpo ezin zenik ikasi, irakasleren batekin, baina badirudi ez zegoela oso hedatuta.

Telefonistak bai, badatoz erroldan. Bergaran telefono zerbitzua jarri zutenetik, 1910eko hamarkadan, egiten zuten lana bertan.

Idazkariak eta bulegariak

Miren Azkaratek dioenez, lehenengo-lehenengo hiru edo lau bakarrik joaten ziren bulegoetara lanera, baina gero gehiago. Labe Garaietara, adibidez. Asuntxi Gallastegi Labe Garaietan-Zerrajeran- ibili zen bulegari, horretarako azterketa bat gaindituta. Mojetan ikasi zuen. Kultura orokorra. Mekanografia ere bai. Bera kontabilitatearekin hasi zen lanean, 18 urterekin, laguntzaile moduan; 50eko hamarkadaren hasiera zen. Bulegoan neska dezente izatera iritsi zirela dio, bospasei. Don Jose Maria Agirre zuten arduradun moduan. Gallastegi hasi zenean, Amelia Iza zen han denbora gehien zeramatenetako bat; ezkondua zen, eta hiru seme-alabaren ama.



❖ *Elisabete Argarate, zerrajerako langilea zenean, 1942. urtean.* Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa

Arantxa Aiastuik ere bulegoan jardun zuen lanean; 16 urterekin hasi zen, 1949ko otsailean, Miren Retegirekin batera. Labe Garaietako eskolan ikasi zuen 14 urtera arte, eta partikularretan kontabilitatea, takigrafia eta mekanografia ikasita hasi zen zerrajeran lanean. Aiastuik beraiek baino lehen han lanean hasitakoak eta ibilitakoak aipatu zizkigun: Carmen Oiarbide, Susana Iza, Amelia Iza, Elisabete Argarate, Asuntxi Peña, Milagros Durana, Maria Angeles de la Granja, Maria Luisa Peña eta Mari Sol Manso. Ondoren neska gehiago ere ibili ziren zerrajerako bulegoetan: Mari Carmen Etxeberria, Luz Telleriarte, Lide Oregi... Aiastuik aurre-erretiroa hartu arte egin zuen lana, lehenengo Bergaran eta gero Arrasaten.

Asuntxi Gallastegik ez daki ziur bere lehen soldata zenbatekoa izan zen: “662 ala 762 pezeta hillian”. Zerrajeran ondo irabazten zen. “Urte onak zien”. Ez ziren arduratzen ondokoak kobratzen zuenaz, eta ez daki gizonezkoek berdin kobratzen zuten ala ez; konforme bizi zirela dio. Hasieran larunbatetan lana egiten zuten; gero, *sábado ingles* jarri zuten. Denborarekin, dena eskuz egitetik makina elektrikora pasatu ziren, eta gero ordenagailura. 1968an Arrasatera eramán zituzten lanera. Han 7.000 bat pezeta irabazten hasi ziren. Grebak ere ezagutu zituen Arrasaten, 70eko hamarkadan. Aurretik ez. Gallastegik, bulegoan lana egiteaz gainera, etxean piano eskolak ematen zituen (ikus *Emakumea eta artea* atala).



❖ *Luz Telleriarte, Miren Retegi eta Lide Oregi bulegariak 1956. urtean Artxandara egindako irteera batean, Delargs ingeniari belgiarrarekin.*

Lasagabaster ehun-lantegian gerra aurretik emakume bakarra zegoen bulegoan: Flora Lasagabaster, lantegiko jabea. Alargunduta zegoen, eta lantegiaren martxa gertutik jarraitzen zuen; neurri batean gerente lana ere egiten zuen. Bestela, Lasagabasterrean -lantegi gehienetan bezalaxe- 50eko hamarkadan hasi ziren emakumeak bulegoan lanean. Anparo Astiazaran izan zen lehenengoa, eta ezkondu zenean utzi egin zuen. Gozzone Aranburu hasi zen geroxeago; hura Txilera joan zen bizitzera, eta haren partez Mertxe Lazkano hasi zen; ezkondu arte ibili zen hura ere. Gero gazteagoak ere sartu ziren: Angelita Elorza, Lourdes Elorza, Maria Luisa Gallastegi...

Maria Dolores Peñak Kimika ikasketak egin zituen, eta Algodonerako laborategian hasi zen lanean, 23 bat urterekin, 1952an. *“Nik, hasi nintzenean, 10.000 pezeta irabazten nituen, eta oso opor egun gutxi genituen. Metalurgia askoz gehiago zen”*. Hasieran, laneko arropa egiten zuten Algodoneran.

Hogei urtean egon zen han lanean, ehunak eta hariak analizatzen. Algodonerako laborategian zeudenak: *“Nieves Gallastegi ehundegian zegoen, behean, eta azterketa bat eginda laborategian hartu zuten”*; 38 urte egin zituzten batera lanean. Telen erresistentzia neurtzen zuten, eta koloreak ateratzen zituzten, produktuak eskuz nahastuta. Suitzara ere joan zen Maria Dolores Algodoneratik, zuntzei buruz gehiago ikastera.

“Uste dut Algodoneran hasi nintzenean ofizinan bazegoela emakumeren bat. Bazegoen bat, Maria Pilar Iñarra... irten egin zen, ezkontzeko.

Gero denda batean egon zen, haurren arropa denda batean. Eta pena zuen utzi zuelako. Baina orduan irten egiten ziren, ez zuten jarraitzen ezkonduak”, dio Peñak. Purita Etxeberria ere Algodonerako bulegoan ibili zen lanean. Lehenengotakoa izan ei zen, ordura arte bulegoko denak gizonezkoak zirelako. Beatriz Larrañaga eta Maria Jesus Amutxastegi ere sasoi beretsuan hasi ziren, 1960. urte inguruan. Mila Beldarrain eta Alustiza ahizpa bikiak ere ibili ziren, Maripaz bere ahizpa Maria Rosa baino dezentegeroago. Maripaz Alustizaren arabera, bulegoan oso giro ona zegoen; sasoi hartan gehientsuak neskak ziren. *“Baina jefiak beti gizonak”*. Lourdes Mujika, Mari Sol Astiazaran, Lupe Olabarria, Pili Gurrutxaga... horiek ere ibili ziren.

Algodonerakoak Tavesan ibili ziren gero, ehun-lantegiak elkartu zirenean. *“Tavesan, Kontxi sartu zen laborategira lanera. Hiru geunden, hiru emakume laborategian. Eta kimiko bat zegoen”*. Tavesan aldaketa handiak izan zirela dio Maria Dolores Peñak: *“Teknologia aldetik... eta indigoa [bakeroa,*



❖ Maripaz Alustiza, 1970ean, Donostiako taberna batean, Lourdes Mujikarekin. Bergarako Udal Artxiboa. Miguel Angel Elkoroberezibar fondoa. Egilea: Serafin Esnaola



❖ *Emakume taldea, 1935. urtean. Elisabet Agirrezabal dago tartean (koadro argidun blusarekin). Gainerakoak: Elena Loidi, Soledad Jauregi, Miren Azkargorta, Itziar Mujika, Caridad Zabala Iñarra, Inazia Etxaniz, Julia Narbaiza, Maria Arregi, Maria Teresa Arregi, Maria Teresa Berraondo eta Elisabete Argarate. Bergarako Udal Artxiboa. Kultura departamentuko bilduma*

kolorea da! jarri zuten; horrek salbatu zuen lantegia". Modako arroparekin hasi ziren gero, eta koloranteekin. Emakumeak ardura postuetan orduantxe hasi zirela dio: *"Tavesan egon nintzenean, bulegoan bazegoen neska bat zuzendaritzan. Lehen, enkargatu denak gizonezkoak ziren. Asko borrokatu behar izan dugu. Ez zen erraza izan. Demostratu egin behar zenuen"*.

Mariasun Plazaola 18 urterekin Idarreta oihaltzaren hasi zen lanean, 1951. urtean, diruzain moduan, Bidakruzetan. Aramaiotik ekartzen zuten tela, Textil Ibarratik. Bergarako dendetan baino gehiago kanpoan saltzen zuten: *"Mondrauera, Oñatira be bai, Donostiara be bai"*. Biltegi horretan bost esku-langile egoten ziren, eta

hiru bulegari: ugazaba, haren arreba eta Plazaola bera. *"Gero etortzen zian beste mutil batzuk hola kontabilidaria ta eruatara"*. Lanean hasi aurretik, Kontxita Maiztegiarekin ikasi zuen hamabost urtera arte. Gero, kontabilitatea, beste hiru urtez. Mekanografia eta takigrafia ere ikasi zituen Plazaolak, baina han ez zuen takigrafiaren beharrik izan.

Elisabet Agirrezabal 19 urterekin hasi zen lanean, 1938an. Industrias Beroa lantegian, Aretxabaletan, idazkari. Sei aukeratu zituzten azken azterketarako, eta berak ateratu zuen takimekanografia postua. *"Takigrafa, gehixena takigrafia egiten naban gehixena. Telefonuana bai, aurikularrak ipini ta nik takigrafixan hartu ta*

gero traduziñuak egin. Sekretarixa moduan euki niñuen”. Kontuak ere eramaten zituen. Industrias Beroan aluminiozko produktuak egiten ziztuzten. “Ejerzitorako elementuak, platerak, kantinplorak, basuak, danak egitten giñuzen”.

Agirrezabalek ez du gogoan bere lehen soldata, baina txikia zela bai. Bulegoan berdin kobratzen zuten mutilak eta neskek. Bi mutil eta lau neska zeuden. Edurne Peña aretxabale-tarra zen horietako bat. Beste bergarar bat ere bazegoen hasieran, baina Gasteizera ezkondu zen. Bulegoko denak joan ziren Donostiara gero. Carrocerias Villar lantegira. 25-27 urte inguru zituen. Han haur kotxetxoak egiten zituzten, aberatsentzat. Bera administrari moduan egon zen, kontabilitatea eramaten; bi enpresak jabe berenak ziren. Maisu baten etxean egon zen apopilo, beste bi neska-rekin batera. Bost urte egin zituen han, eta ondoren Bergaran eskaini zioten lana, Vergara Textil ehun-lantegiko kudeatzaile bezala. Bergarako lehen emakume gerentea da (ikus Agirrezabalen fitxa, 127. orrian).

Movilla ehun-lantegian badirudi ez zela emakumezkorik egon bulegoetan 60ko hamarkadara arte: Esperanza eta Odis Rodriguez ahizpak hasi ziren arte. Nere Mujikak eta Sarita Calvok, berriz, Mayc-eko bulegoan egin zuten lana; baita Manso abizeneko batek ere. Nerek frantsesa ere erakusten zuen etxean; Frantzian egondakoa zen.

Udaletxean, Maria Gisasola eta Maritxu Erdabide ibili ziren lanean, administrari moduan. Antza denez, gerraostean hasi ziren lan horretan.

Asuntxi Gallastegik dioenez, bere aurreko belaunaldikoak ziren, bere izebaren adinekoak.


Gallastegiren lagun batek, Isabel Aperribaik, errejistroan egiten zuen lan, eta etxean ere bai, Aperribaineko enpresan. Elementalean, berriz, idazkaritzan Begoña Larrañaga eta bere ahizpa egon ziren lanean, eta geroago, Pili Amutxastegi ere bai.

Telefonistak

Goiko plazan zegoen telefono zentrala. Mizpildiko hasieran zuten lokala. Gipuzkoan, Foru Aldundiak izan zuen telefonoen esleipena, 1908tik 1950. urtera arte. 1910ean jarri zuen abian telefono-zerbitzua. 1921erako 190 langile zituen, eta 1.000 biztanleko abonatu kopurua 15ekoa zen. Abonatuak telefono aparatua zuten etxean, baina telefono aparatuen artean komunikazioa ezartzeko, telefonistak beharrezkoak ziren. Izan ere, abonatu bakoitza linea baten bidez zegoen lotuta koadro konmutadorera, eta telefonistek lotzen zituzten lineak, eskuz.

Telefonista lana emakumeek egin zuten hasieratik. Telefonista lanpostua lortzeko azterketa batzuk gainditu behar ziren; bertan, gaztelaniaz eta euskaraz irakurketa eta idazketa probak egin behar zituzten, eta aritmetikako problemak ebatzi. Denborarekin, geografia jakitea ere eskatu zieten. Gipuzkoan 1909an egin zuten lehen deialdia, eta aurkeztu ziren 102 emakumeetatik 69k gainditu zuten azterketa⁹.

⁹ Telefonistei buruzko informazio gehiena webgune honetatik atera dugu: www.aintzinakolan-bideak.net



❖ *Telefonista taldea, lanean, 20ko hamarkadan. Ez da Bergarako zentrala, baina antzekoa izango zen seguruenez.* Telefonica Fundazioa

Dei eskaria sarearen ahalmena baino handiagoa izaten zen, eta, atzerapen handiak egoten zirenez, abonatuak erreklamazioak egitea ohikoa zen. Beraz, sasoi hartako telefonistek pazientzia handia izan behar zuten. Gainera, telefonistak telegrafiaz eta telefonema-zerbitzuaz ere arduratzen ziren: bezeroek eskatutako mezuak idatzi, eta taldeko norbaitek oharrak hartzailearen etxera eramaten zituen. Telefonistek abonatuaren arteko elkarrizketak entzuteko aukera zuten, eta sekretu profesionala gorde behar zuten.

Telefonistena estimatutako lana zen, eta nahiko ondo irabazten zuten: 1930eko hamarkadaren hasieran, arduradunek hileko 300 pezeta irabaz-

ten zuten, bigarren mailako telefonistek 250 pezeta eta hirugarrenenak 150 pezeta. Lantegietako ehungileek, berriz, 120 pezeta inguru irabazten zuten. Telefonoa automatizatzen joan zen neurrian, eskuzko zentralak desagertzen joan ziren, eta horiekin batera baita telefonistak ere.

Asuntxi Uribesalgok gogoan du Bergarako telefonistak zein ziren: Margarita Landa, Pepita Biain... Agustina eta Eladia Ibarzabal ahizpak ziren buruak. Laupabost zirela dio, eta handik hartu zutela erretiroa. Konfrentziak izaten ziren, eta lokutorioak zeuden. Uribesalgok ez du uste telefonistek herritik kanpo ikasketa berezirik egingo zutenik, postua lortze-

ko. Asuntxi Gallastegi ere Pepita Biainekin akordatzan da. Berak ezagututako telefonista denak emakumeak ziren.

1930. urteko erroldan sei emakume telefonista datoz:

- Luisa Altolagirre Garai, 22 urtekoa. Aretxabaletakoa, 13 urte daramatza Bergaran; ama alargunarekin bizi zen, Artekalen.
- Eladia (41) eta Agustina (35) Ibarzabal Irigoien. Ezkongabeak. Anaia-ekin eta izeba ezkongabe batekin bizi ziren, Mizpildin.
- Anparo Larrea Ormazabal, 25 urtekoa. Zegamakoa, 6 urte zeramatzan Bergaran. Lasa hotelean bizi zen.
- Luisa Urtube Ercilla. 27 urtekoa. Arrasatekoa, 3 urte zeramatzan Bergaran. Lasa hotelean bizi zen.
- Margarita Landa. 32 urte. Bergarakoa. Ama alargunaren eta anaia-ekin bizi zen, Bidakruzetan.

Gizonezko telefonista bat ere ageri da erroldan: Marcelino Gallastegi, 23 urtekoa. Bidakruzetan bizi zen hau ere.

Emakumeak ardura postuetan

Lucia Farrasek osabaren torloju eta il-tze lantegian egin zuen lana: Florentino Laskurain *Eibar-Txikiren* taile-rreran. Lucia zen negozioaz arduratzen zena, administratzailea. 18 urterekin hasi zen lanean, bat-batean aita hil zitzaielako, eta etxean diru beharra zutelako. Une hartan, 1944an, Idazkaritza ikasten ari zen Gasteizen. Me-



❖ *Lucia Farras, 2013an lan honetarako egindako elkarrizketan.*

kanografia ere ikasi zuen, Bergaran. 38 urtez egin zuen lan fabrian, 1979an itxi zuten arte. Bederatzi urte falta zitzaizkion erretiro adinera heltzeko; 53 urte zituen, adin txarra beste lan bat bilatzeko. Hogei langile izatera heldu ziren, eta bera zen emakume bakarra.

Aipatu dugu Elisabet Agirrezabal ere: Vergara Textileko enpresa kudeatzailea izan zen. Edurne Aranzabal ere enpresa kudeatzailea izan zen; haren kasuan, enpresa etxekoa zen. Ugazabaren alaba zen. Eta Flora Lagasabaster: alargundu zenetik Lasagabaster ehun-lantegiko jabea zena, kudeatzaile lanetan aritu zen aldi batez. Bestetik, aipatzekoa da Luz Telleriarte Ariznoa Hoteleko arduraduna izan zela.

Luz Telleriartek dioenez, frontoiko arduradunak Doña Regina Gabilondo Garate (1899an jaioa) eta haren senarra –Tiburcio Gabilondo– ziren 40-50eko hamarkadetan. “*Emakume ez-kondua zen, oso ezaguna herrian. Karakter handia zeukan. “Regina Ma-*

traka” deitzen zioten. Asko balio zuela uste dut. Esaten zuten bera zela dena mugitzen zuena. Laguntzaileak izango zituela pentsatzen du”. Gabilondonesia ere deitzen zioten.



❖ *Regina Gabilondo frontoiko ardura-duna zen, Tiburcio Gabilondo senararekin batera.* Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa



❖ *Regina Gabilondo frontoian, ikusleen artean, 1944ko martxoan. Betaurreko ilunak daramatzen emakumearen, Glori Gisasolaren, aldamenean dago eta senarra dauka ezkerrean.* Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa



Elisabet Agirrezabal Enpresa kudeatzailea

❖ *Elisabet Agirrezabalen gaztetako erretratua.*

San Antonio auzoan jaioa, 1919. urtean, sei anai-arrebatatik gazteena zen. Hiru urte zituenean ama hil zitzaion, eta bere hiru ahizpek, bera baino askoz zaharragoak, egiten zuten amaren lana. Mimatu egiten zuten, baina errieta ere egiten zioten. Mojetan ikasi zuen sei urtetik hamabostera bitartean. 19 urterekin, Elisabet Aretxabaletako Industrias Beroa lantegiko bulegoan hasi zen idazkari lanetan. Ondoren, Donostian egin zituen bost urte, administrari gisa. Eta Vergara Textil ehun-lantegiko kudeatzaile bezala bueltatu zen Bergarara. Herriko lehen emakumezko enpresa-kudeatzailea izan zen.

Aparteko emakumea da Agirrezabal, bere garairako oso aurreratua. 19 urterekin motoan joaten zen Aretxabaletara, mobylette batean. Eta ondoren autoa erosi zuen. Symca 1000. Donostian atera zuen gidabaimena. Garai hartan Bergaran emakume gidari bakarra zela uste du. Ausarta zela esaten zioten, eta “Nubolari” deitzen zioten, orduko auto-karreretako idolo italiarraren izenez. “*Honbre, beste iñor ez zebilen, neu bakarrik*”.

Enpresa kudeatzaile moduan zituen lanak aipatzen ditu Agirrezabalek: “*Eskubide guztiak neuzkan, jentia hartzeko, botatzeko, gauzak ekartzeko, sartzeko... danerako. Eskubide dana*”. Makina bat buelta eman zituen Azkoitira, material bila, bere kotxearekin. Haria handik ekartzen baitzuten.

Ehun-lantegia konfekzio tailer batekin zegoen lotuta: Confeciones Vascas. “*Bat zien. Han erropak egitten zien. Guk telia egin, ta han erropak egin, ta gero asko eruaten giñuzen Santa Agedara, han josi ta plantxau ta egitteko, lana emu-tearren Santa Agedakue*”. Bera joaten zen Arrasatera, kotxea telaz beteta, josteko. “*Harek gustora hartzen zeбен, klaro, lana zeuken eta bittartian pagua. Ze-oze, ingreso bat*”.

Bera kudeatzaile lanetan hasi zenean, Vergara Textil 30 langile zeuden. Eta 50 bat izatera iritsi ziren. Gehienak gizonak ziren. Ehundegian emakumeak ere

bazeuden. Bulegoan bi gizon zeuden; beste denak emakumeak ziren. Berak bi emakume hartu zituen bulegoan, eta bere iloba ere bai, Jose Antonio. Kontxi Ilarduia eta Gloria Perez berarekin egon ziren lanean; Martin Arriaranen alarguna zen Perez. *“Eta danak langiliak, benetan langiliak”*. Emakumeek gizakumeek baino errendimendu hobea zutela dio, bai bulegoan eta bai tailerrean. *“Gertuago zeuan lana egitteko. Fiñagua askoz be, ba”*. Emakumea izateagatik gutxiago kobratzen zuela uste du. *“Beti gutxiao. Hori izan bazan gizakumia beti gehixao irabaziko zeban. Holaxe da. Hori egixa da”*.

Enpresa kudeatzaile lana ez zen erraza. Bera lanean hasi eta gutxira, greba egin zuten langileek. Egun osokoa. Labe Garaietan bezala kobratu nahi zuten. Bulegora joaten ziren eskabideekin, baina ezin zieten eman. Zorrak zituzten bankuekin. Sindikatuek artean ez zuten indarrik. Legeak gaizki ipinita zeudela dio; langileek ez zuten irabazten zutena kotizatzen. Berak aurre egin zion zuzendaritzari, lantegian hori jartzeko.

Urte txarrak ere izan zituzten, kredituak ordaindu ezinda. Bankuekin zituzten zor denak kitatu zituen, makina batzuk salduta. *“Azkenengo zentimoraino pagau neban. Makinak saldu, nagusixe! esan notsen: ‘Hauxe egin biha da’. Zorrrak pagau ta gero trankil geldittu. Ezebe barik? Ba ezebe barik”*. Lantegi askotan bankuei zorrak ordaindu gabe geratu zirela dio. *“Eta eurak diruakin. Ni ez, ni geldittu nitzan ezebe barik! Lurra behian eta zerua goixan, baina tranki”*. ❖



Tomasita Zabaleta Larrañaga

Emakume kooperatibista

Tomasita Zabaleta (1932-2004) Arane Erreka auzoko Ugabide baserrian jaio zen. Mariaren Lagundian ikasi zuen hamalau urte arte. Gero Iruñan ibili zen eskulan ikasketak egiten. Ondoren, Donostian ebakitzen eta josten ikasi zuen. Fagor Kooperatiban egin zuen lan bere bizitza osoan. Ardura-karguak izan zituen administrazioan, pertsonal arloan.

Trantsizio garaian Bergaran berebiziko garrantzia izan zuen “Promoción Cultural” kultura-elkarteko idazkaria izan zen. Azken urteetan, Bergarako Zahar etxe-ko lehendakaria izan zen, eta aldi berean Gipuzkoako jubilatuen ordezkaria Foru Aldundiaren aurrean. 2005ean Foru Aldundiak Tomasa Zabaleta Saria konbotatu zuen omenaldi gisa; Oñatiko zahar etxeak irabazi zuen. ❖

Espezializazioa lanean

Lan espezializatueta emakumeak ere hasi ziren lanean gutxinaka. Ehungintzako langileen atalean, Maria Dolores Peña aipatu dugu: Kimikari moduan jardun zuen Algodonerako laborategian.

Maripaz Alustiza Bergarako General Mecánican ibili zen lanean, deli-

neante bezala, 13 urtean (Arrasaten egin zituen azken bi urteak, Fageletron). Eskuz marrazten zituzten piezak. Hamar bat delineante zeuden, eta horietatik bi neska, Osintxuko Maria Jesus Epelde eta bera. 60-70eko hamarkadetatik aurrera, lan aukerak ugartu egin ziren emakumeentzat, eta hauxe da horren adibideetako bat. Ikasketen atalean aipatu bezala, Alus-

tizak Lanbide Heziketa ikasi zuen Arrasaten, delineante izateko. Marrazketa ikasketak ere egin zituen, eta margolaria da (ikus *Emakumea eta Artea* atala). Algodoneran osatu zuen bere lan-bizitza gehiena.

Bulegarien lan baldintzak

Asuntxi Gallastegi eta haren bulegokideek Labe Garaietan hamar egun opor izaten zituzten urte osoan, 50ko hamarkadan. Ez ziren inora joaten. Ondarroara batzuetan, Saturraranera. Beste batzuek, “oso aurreratuak” zirenak, Kataluniara joaten zirela dio, Sitgesera: Manso ahizpak, Luz Telleriarte...

Hasieran, lantegi guztietan egiten zuten lana larunbatetan. Algodoneran ere bai. “*Ostegun Santuan ere lanera joaten ginen goizez, eta sanmartziale-tan inbentarioa egiten genuen. Egun dena han pasatzen genuen. Ogitarte-ko bat ematen ziguten, eta hantxe egoten ginen goizeko zortzietatik arratsaldeko zortziak arte. Eta hori ez genuen kobratzen. Bestela aberatsak izango ginen!*”, dio barrez Maria Dolores Peñak. “*Ordutegia bagenuen, baina geratu behar baginen ba... Nik uste dut gauzak ikusteko modua desberdina zela. Gure fabrika izango balitz bezala egiten genuen lana. Ni oso gustura egon nintzen han*”.

Lucia Farrasen arabera, hamabost opor egun bakarrik zuten: abuztuaren 15etik 30era. Industrias Be-roan, Elisabet Agirrezabalek eta bere bulegokideek ere hamabost eguneko oporrak zituzten, eta gainerako langileek zortzi bakarrik.

Agirrezabalek dioenez, lehen, tailerrean emakumeek eta gizonezkoek ez zuten berdin kobratzen; emakumeek gutxiago, baina bulegoan ez. Bera kudeatzaile lanetan hasi zenerako, 1945 ingururako, berdin irabazten zutela dio. Lucia Farrasek uste du ez zuela kobratzen bere lanpostuari zegokion soldata. Ardura handiko lana zuen. Nagusien senide izateak ez zuen horretan asko laguntzen.

Tavesan, hasiera gogorra izan zela dio Peñak: banaketa handia egon zen, eta giro txarra. “*Tavesara joan ginenan eta LAB sartu zenean, soldata igoera izan genuen; ni asko kexatu nintzen sindikatuarekin, baina egia da lehen ez genituen gauza batzuk lortu genituela*”. Aurretik, Algodoneran “*ez zegoen sindikaturik eta ezer; sindikatu bertikala esaten ziotena zegoen: je-feak esaten zuena, eta listol*”.

3.7. Merkatariak, tabernariak eta negozio arduradunak

Negozioak (dendak, jatetxeak, tabernak, tailerrak, lantegiak...) gizonezkoen izenean zeuden normalean. Erroldetan eta dokumentuetan argi ikusten da. Ezkongabeak eta alargunak dira negozioen buru agertzen diren emakume bakarretakoak. Horrek ez du esan nahi dendetan, taberna eta jatetxeetan emakumerik ez zegoenik: familiako negozioetan, emakumeak gizonak beste egiten zuen lana. Are gehiago: batzuetan emakumeak ziren arduradunak, inongo paperetan ez agertu arren.

Industria eta Merkataritza Zerga ordaintzen zuten herritarren artean, 1938an % 7,8 ziren emakumezkoak: 444 lagunetik 35. Horietako 8 alargunak ziren; kasu batzuetan, emakumearen izena ere ez dator zerrendan: “Vda. de Pablo Ugalde” agertzen da, edo “Vda. de Jose Unzurrunzaga”. 1950eko sarreretan, berriz, emakumezko kopurua pixka bat handiagoa da: %13 dira. 544tik 71. Alargunak bi dira. Emakume gehienak merkataritzarekin lotuta agertzen dira.

Merkatariak eta dendariak

Jostunen atalean aipatu ditugu konfekzio tailer batzuk. Tela dendak ere bazeuden. Asuntxi Uribesalgoren arabera, Bergarako tela denda nagusiak Ugalde (Txaranekoa), Aranzabal eta



❖ *Emakume taldea mendian. Beheko ilaran eskumatik lehenengoa Maria Dolores Ugalde Txara' da. Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa*



❖ *Miren Azkarate lagunekin Gorlan, 14 urterekin; astoaren gainean dagoena da. Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa*

Maer ziren. Zaharrena Txaranekoa zela zioen Eulalia Elkorok. Dolores/Lolita Ugalde “Txara” alarguna zen arduraduna. Ehungintzarekin lotutako negozioetan batzuetan emakumeak zeudela arduran, hori dio Asuntxi Uribesalgok: “Txaraneakoak emakumiak zien, Aranzabalenekuak be bai”. Aranzabal ehun-lantegiko alaba batek, Ixiar Aranzabalek, tela denda zeukan Zubietan.

Florita Izuskizak gogoan du Barrrenkaleko arropa denda bat, emakumeak egoten zirena: “*Hor ezkinan dago floristerixia, hor ezkinan egon zan kamiserixa bat. Gisasola aitzak zien*”. Elisabet Agirrezabalek, berriz, Aiastui ahizpak aipatzen ditu: telak saltzen zizutzen, baita perfumeak ere, Bida-kruzetan. Melitoneneakoak mertzeria zeukala dio Miren Azkaratek. Bera hara joaten zela hari bila. “*Bere gizonak ikatza saltzen zeban kalez kale, eta andria egoten zan dendan*”. Eta Mujikaneko tela denda ere emakume batek zeramala, “*Mujikaneko alargunak*”.

Martina Agirre *Trapuk* tela denda zeukan Bidakruzetan, Patxi Berraondoren esanetan. Gracian arropa den-

dan ere emakume bat egoten zen, eta Felisa Zubikuak mertzeria zeukan, Barrrenkalean.

Miren Azkarateren amak ere tela denda jarri zuen alargundu zenean. Ez zitzaion pentsiorik geratu, eta zerbait egin beharko. Mirenek laguntzen zion dendan, 14 urterekin (ikus 131. orriko argazkia). Alaba zaharrena zen. Barrrenkalean jarri zuten denda; oso txikia zen, eta ez zuen izenik. Tela erosi eta saldu egiten zuten, gerraostean zaila zelako tela lortzea. Durango aldetik joaten zitzaizkien eroatera, gero base-rrietan saltzeko. Denda utzi zutenean, jostun lanetan hasi zen Miren.

Emakume asko daude Bergaran bizitza osoa dendan lanean pasa dutenak. Eulalia Elkorok zen horietako bat. Masterreka kaleko janari dendan egon zen beti, 30. zenbakian. Gazte-txotan Otazua ehundegian lan egin zuen, 30eko hamarkadan, eta gero beti dendan. Petra Juaristik ere bizitza osoa eman zuen dendan, San Pedro kaleko ferreterian. “Erratzuneko dendan” denetik saltzen zuten. Senarraren osabarena zen, eta Petrak lagun-
du egiten zion. Gero, denda bere esku geratu zen. Eta puntura arte egon da han, 90 urte bete arte. Lan honetarako elkarrizketatu eta hilabete gutxira hil zen, 95 urterekin.

Marta Arizabaleta *Bolintxok* ere janari denda zeukan, Artekalen. Miren Azkaratek bere izebaren berri eman digu: Jesusa Azkarate. Hark ere janari denda eduki zuen, Masterrekan; ardoa ere saltzen zuten. ‘Galtzairunekuak’ esaten zieten. Senarra representante zen, eta emazteak zuen dendaren ardura. “*Dendia egoten zan egun guztian zabalik. Erozein ordutan jentia etor-*



❖ *Petra Juaristi, 2013an lan honetarako egindako elkarrizketan.*

tzen zan hara". Beheko solairuan zuten sukaldea, eta logela batzuek ere bai. Beti gertu egoteko. "*Bi sarrera zeuzkan. Eta harek taberna ikutua beti izan zeban, zegaïttik han tertulixak egitten zien atsaldian. Emakumienak, e! Etortzen zien hango amandre bat, bestelako itsu bat... han brasera ipintzen zeuben aurrian, eta nere tia horrek atenditzen zeban dendia bertatik. Dana zan bat, dendia eta gero sala hori, eta gero sukaldia eta bueno... baina dendarixa izan zan tia. Tia Jesusa, Azkarate. Hori be izan zan emakumia, lanian segidu zebana hil arte*".

Azkaratek dioenez, euren etxe azpiko estankoko arduraduna Rufina Larrañaga zen, Jose Mari Berastegiren alarguna. Eraikin osoa zen Rufinarena. Gasolindegia ere bazegoen, zinema aurrean, eta Rufinak eramaten zuen hura ere. Antza denez, gerraostean kendu egin zioten, gerra irabazi zutenen tartekoei emateko. Anastasi Zangituk ere estankoa izan zuen, baina geroago.

Luzio Urzelairen amak janari denda zeukan Osintxun: Maria Gantxegi Lastur Goikoa baserrikoa zen, Deba partekoa, jostun lanetan ere ibilia. Soralueko Miren Osa ere denda horretan egon zen lanean aldi batean, Luzioarekin ezkondu eta gero.

Patxi Berraondoren arabera, Angelita Albisuak, Juanito Otaegiren (Anbrosionekoa) alargunak, janari denda zeukan. Eta Soarte janari dendan bi ahizpa ezkongabe egoten ziren, San Pedro kalean: Pamtika eta Maria. Ospiziokoak ziren, eta Soarte andreak -ezkongabea eta dendaren jabea bere kargu hartu zituen. La Riojana

fruta dendan Mila Mazorriagaren ama egoten zen, Ibarrola. Miren Lizarralde ere okindegi batean egin zuen lana, eta gero dendan, senarrarekin.

Asuntxi Gallastegiren ama etxeko dendan egoten zen, Barrenkalean. Eta izebak (aitaren arrebak) Zapatarikoan, hango dendan. Baina negozio gehienetan arduradunak gizonezkoak zirela dio Gallastegik. Baita Zapatarikoan bertan ere. Gizonik ez zenean, orduan geratzen ei zen negozioa emakumeen esku. "*Mugertzako dendan, emakumia egon zan gero, alargundu zanian*".

Askotan, senar-emazteak egoten ziren dendan. Mujika ferreterian, adibidez, Ageda eta haren senarra, Emilio Mujika, egoten zirela zioen Juana Maiztegik. "*Han Bidekrutzian dao, baina orduan zan Barrenkalian. Urte askuan egon ziran horren gurasuak. Gurasuen gurasuak*".

Alarguntzean, emakumeek bakarrik segitzen zuten negozioan, seme-alaben laguntzarekin. Alargun asko aipatu dizkigute: Galarreta zapata dendako andrea (Vinicio Berastegiren alarguna), Padarranekoa zapata dendakoa (Jesus Egizabalen alarguna), Ena perfume dendakoa (Solanaren alarguna)... Informatzaileek ez zuten emakume horien izen-abizenik gogoratzten; senarrenak bai, ordea. Emakumeen bigarren mailakotasunaren adierazgarri dela esango genuke.

Luisa Agirrezabalek, Luis Payrosen amak, alargundu zenean denda jarri zuen San Pedro kalean: "Merceria Moderna" izenekoa. Gero, tindategien atalean aipatu dugun moduan, Margola tindategiaren denda kudeatu zuen.

Angelita Torrek bitxidenda-erlojuegia zeukan; ezkongabea zen. Maria Dolores Peñaren amonak –aitaren amak– alpargata negozioa eduki zuen Barrenkalean, 7 zenbakian: “Oso ekin-tzailea zen”; senarra telegrafista zuen.

1944. urtean, Kontxita eta Blas Ugalderen ama egunkariak saltzen hasi zen plazako kioskoan. Alberdi zuen abizena, eta Urretxutik Bergarara lanera etorritakoa zen. Seme-alabek laguntzen zioten egunkariak banatzen. Kontxita Ugalde alaba erretiroa hartu arte ibili zen lan horretan, egunkariak saltzen.

Denda batzuetan eta tailer txikietan (konfekzioakoak, adibidez) ere banatzaileak egoten ziren. Neska gazteak izaten ziren sarritan. 1930eko erroldan bakarra topatu dugu: Consuelo Arregi Jauregi. Bere ama jostuna zen (Isabel Jauregi, 54 urtekoa); Bidakruzetan bizi ziren.

1938an Industria eta Merkataritza Zerga ordaindu zutenen zerrendan, arropa eta tela saltzen zuten hiru saltokitan agertzen dira emakumezkoak. Hirurak ere alargunak dira, eta senarrei erreferentzia eginez datoz, ez euren izen-abizenekin: Pablo Ugalde Beitiaren alarguna, Bidakruzetan; Jose Unzurrunzagaren alarguna, Konbenio kalean, eta Fernandez Martinezaren alarguna, San Antonion. Isabel Alberdi Askasibarrek mertzeria (joskintza denda) zeukan Iturrikoan.

1938an Luisa Agirrezabal Arresek drogeria zeukan San Pedro kalean. Alejandra Gantxegi Segarrak eta Dolores Larrañaga Alberdik buztinezko piezak saltzen zituzten, biek ere Barrenkalean. Nicolasa San Martin Pildainek zapatak saltzen zituen San Pedro kalean,



❖ *Adineko emakume bat bertso paperak edo aldizkariak saltzen. Ez dirudi Bergara denik, baina inguruko herriren batean izan behar du.* Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa

eta baita jatekoak ere (urdaia). Merkatu plazan, bi arrain-saltzailek zuten postua: Manuela Blazquez Jimenezek eta Elena de Pedro Piñerok.

1950eko Industria eta Merkataritza Zergaren sarreretan, ikusten da chungintzarekin lotutako negozioak ugaritu egin zirela Bergaran. Arropa eta tela saltzen zuten denda eta tailer mordoak datoz. Eta askotan emakumeak ziren arduradunak. Carmen Idarreta Sañudok, adibidez, egindako arropa saltzen zuen. Baita Josefa Garitano Azkarate-Askasuak (Ugalderen alarguna) ere: alkandorak. Biek Bidakruzetan. Eta Francisca Telleriarte



❖ *Janari denda tradizionala, 1990ean. Divina da dendaria.* Bergarako Udal Artxiboa. B.K.E. fondoa, Ariz-ondo

Alvarezek ere bai, Zubietan. Beste askok ehunarekin egiten zuten negozioa: San Pedro kalean Maxima Mondragon Albisuk eta Luisa Agirrezabal Arresek; Masterrekan, Maria Amena-barrek eta Celia Zabalajauregik; Zubiaurren, Josefa Urkijo Kortazarrek; Zubietan, Itziar Aranzabal Urkizuk; eta Bidakruzetan, Angela Marco Gantxe-gik. Gehienek kantitate txikian saltzen zituzten telak, baina ez denek: agiriaren arabera, Pilar Idarreta Sañudok “al por mayor” saltzen zuen Bidakruzetan.

Hiru mertzeria ageri dira emakumeen esku urte horretan. Bi Barrenkalean: Salvadora Azkarate Jauregi eta Felisa Elkoro-berezibar Maiztegi dira saltzaileak. Eta beste bat Artekalen, Ana Maria Gallastegi Zubiaurrerena. San Antonion, Maria Aranzabal Arzelusek zakuak, zorroak eta tela latzak saltzen zituen.

Emakumeen ardurapeko janari dendak ere ugari dira 1950ean: Arru-

riaga kalean, Valeriana Zubeldia Zabaleta; Zubiaurren, Sabina Garitano Iñurrategi, Maria Isabel Otaño Tartas, Rufina Agirrebeña Pildain, Lucia Baleztena Nazabal eta Asunción Galarza Zubiaurre; San Pedro kalean, Francisca Lizarralde Alberdi eta Jacinta Albeniz Barragan; Zubietan, Marina Barrenetxea-Arando Azkargorta; Masterrekan, Carmen Etxebarria Iglesias; San Lorentzon, Isadora Unamuno Ibarzabal eta Aurora Arzelus Arruabarrena (ardoa). Merkatu Plazan Candida Larrañaga Egiak harategia zeukan. Eta sei ziren hantxe bertan arraina saltzeko postua zuten emakumeak (ikus arrain-saltzaileen atala).

Bestelako denda eta tailerretan ere agertzen da emakumerik zerrenda horretan. Bi dira zapatak saltzen dituztenak: Zubietan Juana Iturricastillo, eta Bidakruzetan Venancia San Martin Pildain, Lonbideren alarguna. San Pedron erloju denda bat dago:

Justa Mugerza Osororena. Catalina Camacho Jauregik drogeria zeukan Bidakruzetan. Buztinezko ontziteria saltzen zuten hiru emakume zeuden: Dolores Cano Encuentra, Alejandra Gantxegi Legarra eta Dolores Larrañaga Alberdi. Sabina Muñagorri Garaiarrek, berriz, liburuak saltzen zituen, Bidakruzetan.

Tabernak, jatetxeak eta gozotegiak

Dendetan bezala, asko dira Bergarako taberna eta jatetxeetan lan egin-dako emakumeak (ikus *Hotelak eta apopilo-etxeak* atala ere). Familiako negozioan lan egin dutenak aipatuko ditugu batez ere. Eulalia Elkorok zioenez, Infernukua, betiko tabernetako bat (1890ean irekia), orain dutenen amandreak zeukan lehen. “*Ama Ni-*

kolasa zen eta bestia Matilde izango zan. Oso famosua izan da betik, e”. Miren Azkarateren arabera, gero Infernukuan andre-gizonak egoten ziren. Zurrutean, berriz, dena gizonak. “*Barruan, fregadera inguruan emakumiak. Sukaldian ta*”.

Zubietako Arando taberna-denda ere antzinakoa eta ezaguna zen. “Batzoki Txikixa” deitzen zioten, abertzaleen bilgune zelako. Jende asko ibiltzen zen bietan. Txikiteoan, eta jaten ere bai; Arandon bazkaltzen ematen zuten, Infernukuan afaltzen.

Barrenetxea-Arando ahizpak Arando tabernan ibili ziren lanean. Osabaren taberna zen. Mariñe Barrenetxea-Arando osaba-izebekin bizi zen, haiek ez baitzuten seme-alabarik. Mariñe (1917an jaioa) eta Erritxe (1924koa) ahizpek 13 urte arte moje-



❖ *Gizon taldea bazkaltzen eta zerbitzariarekin hizketan.* Bergarako Udal Artxiboko bilduma, Luis Ezenarro Arregi



❖ *Zumelaga jatetxeko langileak, 1969ko ekainean, San Antonioko jaietan. Ezker-eskuin, Antoni Zumelaga, Juanita Zabalo, Jose Maria Markina eta Margari Etxeberria.* Bergarako Udal Artxiboa. Miguel Angel Elkoroberezibar fondoa. Argazkilaria: Serafin Esnaola



❖ *Zabala jatetxeko neskak. Maria, Juanita eta Caridad Zabala Iñarra ahizpak eta Pilar Zabala (eskumako 1.goa, zutik).* Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa

tan ikasi zuten. Normala zen gero partikularrak hartzea, 14-15 urterarte, baina beraiek ez ziren ibili, etxean behar zituztelako. “*Errekauiak egitteko eta tabernarako be, badakizu, neska koskorra komeni...*”. Mariñeri esaten ziotena: “*Hik baiño gutxiu ikasitta etara jonau bizimodua, eta ondo jan!*”.

Zumelaga jatetxea 1943an ireki zuten Josefa Azkarateaskasua eta Martin Zumelaga andra-gizonek, San Antonion. 1972an, Anttoni Zumelaga alabak eta Jesus Arrese-Igorrek zabaldu zuten jatetxe berria, aurrekoa zegoen tokitik metro gutxira eta izen berarekin.

Asuntxi Gallastegik dioenez, Kanposeneko tabernan emakume bat egoten zen. Bazkariak eta meriendak ematen zituzten. Tabernetan lanean ibili diren emakume gehiago: Guria tabernako Isabel Gurrutxaga, Anttoni tabernako Anttoni Txintxurreta, Gaspar tabernako Anttoni Arregi, Bar La Unione Eustakia Telleria eta Angelita Mujika ama-alabak, Zabala tabernakoak... Suinaga ahizpek ere taberna zuten Artekalen, eta Angeles Larrañagak kale horretan zegoen bodegoi batean egiten zuen lana.

Miren Azkarateren arabera, taberna askotan senar-emazteak egoten ziren lanean. Itsasmendinekoa eta Etxaguenekoa aipatzen ditu. Etxague luxuzko kafetegia zela dio Asuntxi Gallastegik. Bergarako elitea joaten zela hara. Etxague tabernan neska mordoa egoten ei zen lanean; Aretxabaletakoak eta.

Angiozarko Nati Arrieta eta bere ahizpa, Arantxa, tabernari moduan ibili ziren lanean. Abelina ahizpari laguntzen, hura Elgetako Panaderokua



❖ *Bi gizon kantuan (ezkerrekoa Kikio da) Gaspar jatetxeko barra ondoan, eta gainerakoak begira, zerbitzariak barne.* Bergarako Udal Artxiboko bilduma, Luis Ezenarro Arre-

tabernara ezkondu baitzen. “Urte mordua egiñ nittuan”, dio Natic. Abelina Arrietak Elgetako Martintxorena tabernan ikasi zuen ogibidea. 13 urterekin joan zen hara, neskame. Ezkondu zenean, Itziar ahizpak hartu zuen haren lekua tabernan. Bateko eta besteko, Arrieta ahizpa guztiak, laurak, ibili ziren tabernan lanean.

Nati Arrietaren esanetan, sasoi hartan gizonezkoak bakarrik sartzen ziren tabernetan, emakumerik ez. Barrera atzean ez bazen, noski. Beraiek goiz samar hasi ziren tabernetara sartzen, hori bai. “*Gu geu ba tabernan akostunbrauta, eta juten giñan nora-baitt eta sartzen giñan tabernara, ezta? Baiña ez zeuan ondo ikusitta or-*



❖ *Arrieta ahizpak, 2010ean ahotsak.com-erako egindako elkarrizketan.*

duan. *Tabernara ta juatia ez zeuan ondo ikusitta. Igual zu juaten baziñan Bergara, ez ziñan tabernara juten, juten ziñan pastelerixara. Ta pastelerixan ba pastelak edo txokolatia edo jaten ziñuan, eta ala!*”.

Miren Osa Osintxuko Eusebio tabernan ibili zen lanean. Aurretik, bere ahizpa egon zen, Berta. Taberna izeba-osabena zen. “*Orduan bihar izeten zan familixakua, bueno, familixakua edo...*”. Konfiantzakoa. Jatetxea ere bazen, eta hiru jangela zituzten. Tabernari “Kiko” esaten zioten, baina Eusebio zen. Osabaren izena zuen. “*Nere aman aitzia zan tabernakua. Tia*”. Osa tailer batean zebilen lanean, Sacia torloju fabrika, eta asteburuetan joaten zen tabernara, trenez. “*Ene ba, jende asko zebilela eta zeoze ikasixaz lagunduaz...*”.

Errekan harrapatutako arraina eramaten zuen jendeak Eusebio jate-txera, eta bertan prestatzen zuten. Eibartik ere joaten ziren, dotore. Alfako langileak, adibidez. Eta baita Eibarko emakumeak ere. Bergarakoak baino liberalagoak zirela dio Osak. “*Pixkat zerak ziran: danak ezkonduak izaten zian...*”, baina hala ere, tabernan. Ezkontzak eta despedidak ere egiten zituzten Eusebio jatetxean. “*Pasakalle eta guzti*”. Hantxe ezagutu zuen Mirennek bere senarra izango zena. Senarrari begira ironiaz zioen: “*Hau be tabernan zela gutxi egotekua zan, hantxen ezautu giñan. Baina gero be ni asko joaten nitzan han laguntzera, tabernara*”.

Bergarako gozotegietan ere emakumeek zer esan handia izan dute. Raizabal gozotegia 1908an ireki zuen Basilio Raizabalek, umetatik Piaren

Gozotegian “aprendiz” lanetan ibili ondoren. Gaur egun, familiaren laugarren belaunaldiak jarraitzen du tradiziozko gozoak egiten. Miren Berasategi da gozotegian gogor lan egin duen emakumeetako bat, Juana Raizabal amarekin batera. Miren Azkarteren esanetan, “*aitta obradorian egongo zan, eta dendan emakumiak. Dendetan eta tabernetan emakume asko ibili zan lanian*”. Rosarito Larrañaga ere aipa dezakegu, Larrañaga gozotegikoa. Ama-alabak egoten ziren han ere. San Migel eta Alzelai gozotegietan ere emakumezkoak egoten ziren dendan. San Migelen Feli eta Jesusita Mujika ahizpak, eta haien ama, Justina; Irene Odriozola ere bai. ‘Otxakila’ okindegian, berriz, Rosarito Agirrezendoia egoten zen ogia saltzen, San Pedro kalean.

Ogidunak ogiak banatzen lan egiten zutenak ziren, eta askotan emakumeak izaten ziren. Carmen Garitanoandia oñatiarra neskame egon zen okindegi batean, Seguran, 13 urterekin; gero Bergarara ezkondu zen. Goizeko lauetan jaikitzen zen ogia egitera, eta ondoren ogia banatzen zuen, astoz. Ogiz betetako zakuak astoan hartu, eta bezeroei banatzen zizkien. “*Ni faten nitzan egunero Mutiloara ogixakin, astuan lau zaku ogi hartu eta Mutiloara. Eta orduan ogixak badakitzu ze balixo eben? Zazpi txakur haundi. ‘Setenta céntimos’*”.

Maria Pilar Larrañagak Alkortanekoak aipatu ditu: “*Panaderixia eta ultramarinos dendia zeuken, eta abellanak [kakahueteak] erosten giñuzen han. Baina orduan, pentsau zela dien gauzak, hango neskak txoferrak zien. Automobila zeuken, eta repartua ogi-*

xena automobilian egitten zeben!". Igone omen zuen izena haietako batek. Beste okindegi batzuetan ere ibili izan dira neskak ogiak partitzen, bai orduan bai gero: Errotan, Mizpildin, Otxakilanean...

1930eko erroldan, hauek dira "okin" gisa ageri diren emakumeak:

- Valeriana Zabaleta Aranburu. Alarguna, 35 urte. Urretxukoa (19 urte Bergaran). Dionisia eta Luis Alkorta seme-alabak ere okinak dira.
- Rosario (20 urte) eta Francisca (18) Agirreolea Beraza. Alaba bakarrak dira. Aita okina da (Elo-

rriokoa, 47 urte Bergaran). Bi zerbitzari dituzte: Raimunda neska-me (Elorrio, 20) eta Mateo okina (Arrasate, 17). San Pedron.

Beste okindegi batzuetan, emakumeek ere egingo zuten lana, baina erroldan ez dira langile gisa ageri:

- Errota erdikoa. Senarra okina. Emaztea (57) eta 3 alabak (24-22-19) "mis labores".
- Arizabaleta Bolu. Senarra okina. Emaztea "mis labores". Hiru seme okin, seme bat sastre eta alaba "mis labores" (19 urte).



Florita Izuskiza 'Oilagorra'-ko tabernaria

❖ *Florita Izuskiza (eskumakoa, amantal zuriarekin), Oilagorra taberna aurrean.*

Florita Izuskiza Barrenkalean jaio zen, 1927. urtean. Taberna zuten familian, "Oilagorra" izenekoa, eta ume-umetatik hasi zen han lanean. 13-14 urterekin. *"Laga nebanian eskolia, ba amak tabernan ipini nindduan"*. Josten ikastera ere joaten zen, taberna gaineko jostunarengana. *"Nik amai beti esaten notsan, nik maestria nahi nebala izan. 'Ze maestria? Zu jostera!'. Jostera, eta horra bialtzen ninduen, baina bakizu, tabernan lanian ta ze, josten nenbilela, diharka ama beti: 'Florita, etorriiii!'. Oseake, josten be ez ta tabernan be ez"*.

"Gero kortia be ikasi neban. Ezkontzeko erropak neuk egin nittuan hortxe: trajia, abrigua eta gorrua eta dana, hortxe. Eta gero ya beti tabernan. Nobixuakin, tabernara etortzen zan nobixua be, ta ezin urten... tabernan lanian, gau ta egun, jai ta aste, hori bai izan zan, enee".

Taberna *"pobrien negoziua"* zela dio Izuskizak. Gerra sasoian batez ere. *"Eta gero be bai, e! Tabernan orduan emakumia sartu be ez zan egitten. Gerora hasi zan. Gerora, baina ya ni ezkonduta nenguala, e. Aurretik gizakumia bakarrik. Ta ze zeuan ba? Txikiteua, kafia ta kopia... eta zerbezak botilan"*. Jatekorik ez zuten ematen, hasieran. Bera hasi zen pintxoak ipintzen, ezkondu eta gero. *"Eta janarixa emuten be bai, por ejemplo, Erramu Zapatuan eta bildotsa hiltzen giñuan eta bildotsa erreta. Angulak be bai. Orduan merke egoten zien. Eta Aste Santutan antxoak be bai. Bijilixia, antxoak emon dot nik hor... txandia hartzen, baina! Kiluak, e"*.

Sukalde zahar bat zuten, tximinia ere okertuta zeukana. Geroago, kazuelatxoak jartzen hasi zen: bakailaoa, arrautza piperrekin, patata tortillak, kroketak... denetik. Bazkariak ematen ere hasi zen, Jaunartzetarako ere bai. *"Eta gero kazia be bai"*. Taberna hasiera batean ehiztarien elkartearen bazena. Hori bai, semeak taberna hartu zuenean, sukaldea kendu zuen.

Eskolan ikasi ez zuena tabernan ikasi zuen Izuskizak. “*Nik justo ikasi neban: ‘sumar, multiplicar y dividir’. Kitto! Baina gero ikasi neban, bai. Gero hemen hasi zienian ‘el iva y no iva’. Dana neuk egitten neban, e, tabernako kontuak. Dana eskuz. Egunero-egunero apuntatzen*”. Hasieran gizonak Labe Garaietan egiten zuen lana, eta tabernan ere bai. Gero, zerrajera utzi, eta biak hasi ziren tabernan lanean.

Tabernako lanak asko ziren. Bezeroekin egoteaz gainera, sukaldeko lanak eta garbiketa egiten zituen Floritak. Egurrezko zoruak ez zuen lan makala ematen: “*Makurtuta, zepillo batekin, ra-ra-ra. Ondo raskau! Garbittu jaboiaikin eta akla-rau urakin. Harik eta fregonak agertu zian arte. Orduan erreago, baina egurra ez dozu garbitzen fregoniaikin azulejuan moduan. Pentsau be ez. Estropajua be bazeuan. Eta ekonomikia garbitzeko, puf! Haura be zan... bueno... Nik oin sarrri esaten dot: nik oin beste 15 urte gutxiau baneuka, birgerixak egingo neuke! Zeaittik oin bakizu? Mikrohondasa dala, txapia dala... Bixiguak-eta erreta nao ni han parrillan, tabernan, e! Ekonomika gainian. Kazarixendako. Orduan ez zeukazun ezebez! Lababajillasa ta...*”.

Edariak fresko mantentzea ere ez zen erraza, hozkailurik ez zutelako. “*Gero izotzakin be bai. Ez zeuan izotzik. Eta izotz fabrikia zeuan han behian, eta handik izotza ekartzen ta... Gasparrenekuak euki zeбен bat. Izotz barrak. Kriston barrak izotzanak. Gero, hori be, makinak etara zeбен. Hori be ipini zan. Helaua be orduan etxian egitten zan, helaua; eskuakin manibeliari emun eta emun eta emun. Sanmartzialetan eta, helaua eukitziarren tabernan. Pentsaizu zelako adelantua dan, oin dana bertan daukozu!*”.

1938ko Industria eta Merkataritza Zerga ordaindu zuten herritarren zerrendan hiru taberna-jatetxe datoz emakumeen izenean. Justa Elkoro Gabilondok fonda zeukan Goimendin. Eta Bidakruzetako bi taberna emakumeen esku zeuden: Juana Larrañaga Arrieta eta Nicolasa Oregi, Berraondoren alarguna. Gozogile bakarra agertzen da: Manuel Larrañaga Alberdiren alarguna, San Pedron. Izenik ez dator.

1950eko zerrendan taberna-jatetxeetan beste hiru emakume datoz: Bidekruzetan Gregoria Arratibel Irazusta, eta Zubiaurren bi: Manuela Palomero Cobrejas eta Maria Paz Zubialdea Zabala. Eta emakumezko hiru gozogile agertzen dira: Osintxun Petra Gantxegi Barrenetxea-Arando, eta San Pedro kalean beste biak: Jacinta Arana Amutxastegi eta Carmen Sanz de la Cuesta Montoia. ❖

Ile-apaintzaileak

Bada negozio bat emakumeek euren gain zutena: ile apaindegiak. Etxean jartzen zuten negozioa, jostunek bezalaxe. Miren Azkaratek dioenez, pelukerek igande goizetan ere lana egiten zuten. Eta normalean ez ziren autonomo moduan jartzen. Gehienak ez ei ziren ausartzen; bere kasu berean egoten zirela dio (ikus lan baldintzak, *Jostunak* atalean).

Gregori Azkarate -1911n jaioa- eta bere ahizpa Margarita Bergarako lehenengotako ile-apaintzaileak izan ziren, biak ezkongabeak. Beraiek ile-apaindegia jarri zutenean, inguruetan ez zegoen besterik eta kanpotik ere joaten zitzairen jendea. Hala ere, hasieran jende gutxi ibiltzen zen, eta bere ahizpa bakarrik egoten zen: “*Ni orduan joaten nitzan Txaranera [konfekzio tailerra] lanera*”. Ohitura zabalduz joan zen neurrian, ez zitzairen lanik falta izan. Pelukerian ez zen egoten or-



❖ *Lide Oregi Bigarren Jaunartze egunean, Azkarate ahizpek egindako permanentearekin.*



❖ *Gregori Azkarate. 1994an egindako elkarrizketa.*

duan txandarik, eta jende asko egoten zen zain.

Azkarate ahizpek 1937. urtean jarri zuten Bidakruzetako ile apaindegia, Camachoneko botikaren gainean, baina urte batzuk lehenago hasi ziren ile-apaintzaile lanetan. Lehenengo permanenteak kableekin egiten zituzten; gerora plantxak hasi ziren. Permanentea egiteko, gutxienez hiru ordu behar izaten zuten, argindarra oso motela zelako. Lide Oregiri Azkarate ahizpek egin zioten lehenengo permanentea, Jaunartzea egiteko: “*Kabliekin aparato elektriko haura buruan ipinitta... Elektrokutau ta ez giñan egitten kasualidadez... Sei urtekin edo*

egin neban. Sei urte neuzkan, eta permanentia egin zosten! Permanentia, sei urtekin. Atzian “a lo garçon” ebai zosten. Permanentia sei hilabetetik behin egitten zan. Gero izaten zan Pazkuetarako, Gabonak...”. Bigarren Jau-nartzerako ere permanentea egin zioten, orduko argazki batean ikus daitekeenez. Oregik dioenez, bere sa-soian Zubietan ez zegoen ile apaindegirik emakumeendako: “Zubittan ez, Zubittan barberua”.

Asuntxi Uribesalgok dio hilean behin joaten zirela ile apaindegira. “Bidegurutzian, Artekalen... bazeren batzuk. Etxietan egoten zien”. Lonbide-neko zapata dendaren gainera joaten zen bera, Bidakruzetan, Julirengana; Elgoibarrekkoa zen izatez. Asuntxi Gallestegi ere Lonbide gainera joaten zen ile apaindegira, umetan. “Bi pelukera zien. Pelukero bat be bazeuan han”. ‘Anguanekoak’ esaten zieten. Eta gero Castañaresena joaten hasi zen, Bida-



❖ *Angelita Castañares ile-apaintzailea, 1992an.* Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa

kruzetan. “Hiru aizta ziren”. Julia, Kontxita eta Angelita. Agirre dendaren gainean zuten ile apaindegia.

Irene Gantxegik Barrenkalean egiten zuen lana. Arruriaga kalean eta San Antonion ere bazeuden ile-apain-



❖ *Castañares familia, ezkontza batean, 1946an. Ezker-eskuma aurreko ilaran, ama, Juan Jose Hernando, Angelita Castañares, Kontxita Castañares, Orbe eta Miren Castañares.* Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa

tzaileak. Arruriagan “Sabasekoa” zegoen. Lucia Farrasek gogoan du San Antonioko ile apaindegia, Mari Tere Etxeberriarena. San Antonion gizonena eta emakumeena zegoen. Gaztetan ilea moztera bakarrik joaten ziren. Geroago hasi ziren permanentea eta abar egiten.

Isabel Jauregi antzuolarra Bergara joaten zen ile apaindegira. “*Bastante azkar hasi zan. Ni gaztia nintzala Bergara juten giñan pelukerixara. Permanentia, orduan permanentia urtian bat edo bi egitten zien, eta gero haura moldau biher izeten zan ahal zan moduan etxian handik aurrera*”. Gogoan du umetan ile motza erabiltzen zutela, baina etxean moztzen zietela dio. Eta ez zegoela burua sarri garbitzeko ohiturarik: “*Garbittu? Orduan burua garbitzia-eta iñoi akordau be ez-takitt egitten jakon*”.

Benita Unamunoren arabera, sasoi bateko baserritarrak ez ziren ile apaindegira joaten. Ilea luze eramateko ohitura zegoen, kopetekin. Bere garaian ere ez ziren sarri joaten: “*Ni neuk solteretan melena. Ezkondu nitzanean be permanentia egin, ta melena. Gero, umia umian gainian, eta pelukerixara juateko sarri astirik be ez, ta ilia luzetu ta batu illia, ta moñua. Moñoik ezian, ba pelukerixara sarri juan biha da, ezta? Bestela illiak narras, ba gaizki emuten dabe. Hola, txima batzuk euki arren, behintzat rekojiduta*”.

1930eko erroldan agertzen diren ile-apaintzaileak:

- Maria Arriaran Bolinaga. 20 urte. Bilbokoa. Urtebete darama Bergaran. Ahizpa eta biak osaba-izebe-kin bizi dira. Barrenkalean.

- Carmen Unamuno Ibarzabal. 19 urte. Gurasoekin bizi da. 6 anai-arreba dira. San Lorentzon.
- Margarita (30) eta Gregoria (19) Azkarate Alberdi. Martina ahizpa jostunarekin eta gurasoekin bizi dira. Zubiaurren.

1938an Industria Zerga ordaindu zuten ile-apaintzaileak:

- Maria Arriaran Bolinaga. Barrenkalea, 21
- Margarita Azkarate Alberdi. Bida-kruzeta
- Julia Castañares Retolaza. San Pedro
- Carmen Unamuno Ibarzabal. San Lorentzo

1950ean Industria Zerga ordaindu zutenak:

- Josefa Altolagirre Igartua. Masterrera
- Margarita Azkarate Alberdi. Bida-kruzeta
- Concepción Castañares Retolaza. Bidakruzeta
- Maria Teresa Etxeberria Jauregi. San Antonio
- Irene Gantxegi Barrutia. Barrenkalea
- Maria Telleria Urkizu. Osintxu

Negozioen jabeak

Lide Oregiren amaren baserrian teila lantegia zuten. Arabatik ekartzen ziztuzten langileak. “*Ta etxian eukitzen zittuen kriaue moduan. Zeuken basarrixan ipinita ba kriaueendako tokixa,*

ba igual bost edo sei, edo lau edo zazpi, ez dakitt zenbat. Eta ekartzen zittuan Arabatik, etxeko umiak erderaz ikastearren". Haiei jaten emateko ardua etxeko emakumeek zuten. Negozioa, ordea, mutilen esku zegoen. Hiru mutil eta bi neska ziren. Eta bi anaik jarraitu zuten negozioarekin. Oregiren ama, Luisa Arregi, jostun ibili zen. Ohikoa izaten zen hori, etxeko negozioarekin gizonezkoek jarraitzea.

1930eko erroldan "industriari" bakarra da emakumezkoa, Lasagabaster ehun-lantegiaren jabea: Flora Lasagabaster (Bulegarien atalean ere aipatua). Alarguna. Eskoriatzakoa jaio-tzez, 33 urte zeramatzan Bergaran. Lau seme eta lau alaba zituen. Seme zaharrenak (21 eta 19 urte) "bulegariak" ziren; beste denak ikasten ari ziren. Neskame bat zuten. Denborarekin negozioa semeen esku geratu zen, nahiz eta alabak ere eduki zituen.

1938ko Industria eta Merkataritza Zerga ordaindu zutenen artean, lan-

tegietan ere ageri dira emakume bakan batzuk arduradun/nagusi gisa: Carmen Saenzek, Montoiaren alargunak, zementu lantegia dauka San Pedron. Eta Valeriana Alkorta alargunak ogi-orea egiteko tresneria eta labea Arruriagan. Angiozarko ur saltoa Maria Gantxegi Zabalaren ardurapean dago eta Atxuriondokoa, berriz, Agirrezabalaren alargunaren eta haren seme-alaben esku (ez dator emakumearen ize-nik).

1950ean Industria Zerga ordaindu zuten herritarren artean: San Antonioko zapata lantegian, Agapita Iturri-no Igarza; Arruriaga kaleko iltze fabrikari, Valeriana Zabaleta Aranburu; Arruriagako okindegian, Maximiana Zabaleta Aranburu; Masterrekako sargardo lantegian, Josefa Zabala Sasiain; Zubietako eta San Pedroko zerategietan, hurrenez hurren Casilda Salsamendi Lizarralde eta Jacinta Albeniz Barragan. Angiozarko ur saltoaren ardura Maria Gantxegi Zabalak zeukan.



Rosita Azkarate Azkarate Tabakalerako arduraduna

❖ *Rosita Azkarate (beheko ilaran erdiko), 1940ko hamarkadan. Ezkerrean anaia du, Jose Maria Azkarate apaiza, eta eskubian Gloria Agirrebeña. Bergarako Udal Artxiboko bilduma, Elena Odriozola Saizar*

Rosita Azkaraterena ezohiko kasua da, Tabakalerako arduraduna izan baitzen. Miren Azkaratek kontatu digunez, bere lehengusina Enseyntzan ikasitakoa zen; “*monjetan ikasittako eskolia zeukan... eskolante ona zan, e!*”. Kontuak eramaten hasi zen Tabakaleran. Orduko arduraduna, eraikinaren jabea, plazentziarra zen, Ameriketara ibilitakoa, baina Bergara bizi zen. “*Euki zeban laguntasun bezela Rosita, nere lehengusiña hori, kontuak eruaten eta beran ofizinan euki zeban. Eta hori ya hil zanian, nagusi hori, konsegidu zeban Rositak... ez zan berak Rositai lagatzia, e. Hori konsegidu bihar zan ba ya Madrildik, kargu hori. Eta Rositak lana egin zeban, ikusi zeben Rositak ondo eruanda zittuala urteroko lanak danak, eta berak hartu zeban subalterna hori*”. 1930eko hamarkadan gertatu bide zen hori, bukaera. “*Gero beran anaiak ekarri zittuan lagun bezela, baina bera izen zan horren jabe, buru eta jabe. Rosita Azkarate Azkarate*”.

Gloria Agirrebeña -1912an jaioa- tabako biltegian ibili zen lanean, 44 urtean: “*Ni laguna zela nitzan Rositana, sartu ninduen tabakuen almazenian. Ta egun guztia egitten neban almazenian, egitten neban harekin lanian, jornala irabazten. Jornala eruaten notsan amai, eta ama be pozik eta bueno, jan egitten giñuan ta bizi giñan hola. Eta han egin dittut... berrogetalau urte edo egin dittut tabakuakin, almazenian*”. Handik hartu zuen erretiroa, 76-77 urterekin.

Lehenengo Orueta medikua bizi zen etxearen azpikaldean zegoen biltegia; gero lekuz aldatu zutela dio Agirrebeñak. “*Tabakuandako bakarrik ipini zeben. Bergan bertan, baina ez herri-herrixan, puxkat apartetxuau. Erosi zeben gaztiok [Rositak eta bere anaiek], ta ipini zeben haura tabakuandako bakarrik. Ta gero tabakua izaten zan inguru danei partitzeko. Ez zan herrirako bakarrik, e. Bergarak eukitzen zittuan Mondrao, Oñati, Plazentzia, Eibar, Zumarra... inguru horren danen estankuak*”. Donostiatik ekartzen zuten tabakoa.

“*Tabakua saltzen zeben estankero danak etortzen zien ‘sakia’ egittera esaten zana, etortzen zien, eta pedidua egitten zeben: ‘Hau bihar dot ta hori bihar dot*

ta bestia bihar dot'. Han egitten zan fakturia, tabakaleran, eta gero harekin joaten zien bankuan ingresatzera. Eta gero etortzen zan transportistia, kamioia-kin edo autobusakin edo etortzen zien transportistak, eta harek eruaten zeбен jenerua. Kajak hartu eta oso-osuan kajak. Nik emoten notsen kajak harei. Nik emoten notsen: hamendik bi kaja, hemendik lau kaja, eta emoten notsen hola. Eta hola egin giñuan urte harek danak, haretzekin batera egin neban nik lana".

Rosita Azkarate Azkarate 2009ko otsailean hil zen, 88 urterekin. Beraz, 1920 urte inguruan jaioa izan behar zuen. ❖

Emakumezko "merkatariak" **1930eko erroldan**

1930eko erroldan "merkatari" gisa datozen gehienak gizonetzkoak dira. Denda gehienak gizonen izenean dau-de. Eta kasu bakar batean agertzen dira senar-emazteak biak "merkatari" moduan:

- Toribio Uribesalgo (55 urte) eta Juliana Alberdi (54 urte), Bidakruze-tan. Seme-alabarik ez dute euren kargu; bi zerbitzari dituzte, 33 eta 20 urteko neskak.

Beste guztietan, merkatarien emaz-teak etxekoandre moduan datoz. Nahiz eta badakigun gehienetan hori ez zela horrela. Bi kasu hauetan, adibidez:

- Raizabal gozotegia. Jose Berasate-gi, gozogilea, 27 urte. Emaztea: Juana Raizabal, "sus labores". Juanak gozotegian egin zuen lana bizitza osoan.
- Meliton Zurinaga, 57 urte, "merkataria". Emaztea: Casilda Mendi-zabal, "sus labores". Denda zuten San Lorentzon, eta biak egoten zi-ren; alargundu zenean, Casilda bakarrik.

Erroldako emakume "merkatari" denak alargunak edo ezkongabeak dira:

Barrenkalean:

- Dolores Larrañaga Alberdi. Ez-kongabea. 66 urte.
- Alejandra Gantxegi Legarra. Ez-kongabea. 60 urte.
- Isabel Jauregi. Alarguna. 47 urte. Antzuolarra.
- Juana Agirrezezeaga Agirreolea. Alarguna. 41 urte. Zazpi seme-ala-ba ditu (Mujika, gehienak eskolan).

Artekalen:

- Josefa Antonia Telleria. Alarguna. 56 urte.

San Pedron:

- Jacinta Arana. Alarguna. 63 urte. 2 semeak gozogileak, Larrañaga Arana. Bi neskame ditu (Antzuola 24 eta Soraluze 17).
- Nicolasa San Martin. Ezkongabea. 1872. Familiako burua.
- Carmen G. de la Cuesta. Alarguna. Lantziego-Araba, 7 urte Bergaran.

- Pia Bagazgoitia. Alarguna. Semea (Etxaniz), haren emaztea eta umeak berarekin bizi dira.
- Encarnacion Aranes. Ezkongabea. 40 urte. Ahizparekin eta haren senarrarekin bizi da (5 seme-alaba dituzte), Konbenio kalean.

Bidakruzetan:

- Venancia San Martin. Alarguna. 51 urte. Bi alabak "sus labores" (24 eta 18 urtekoak) eta semea, berriz, "dependiente" (20 urte).
- Agirreolea Danborenea anai-arrebak: Felix (46), Marciala (50), Eufemia (48) eta Manuela (44). Ezkongabeak.
- Nicolasa Oregi. Alarguna. 59 urte.

San Antonion:

- Nicasio Fernandez (Santander). Hiru alaba eta seme bat ere "merkatari": Jesusa (23), Anparo (21), Nieves (19) eta Nicasio (16); beste lau seme-alaba ikasten.

Elosun:

- Magdalena Loiola. Alarguna. Semea ere "merkatari", 39 urtekoa. Bi alabak, ordea, "mis labores" (41) eta "zerbitzari" (25).
- Elisa Amosarrain. Gurasoekin eta lau anai-arrebarekin bizi da.

Beste ogibide batzuk ere badatoz 1930eko erroldan, denda eta negozioekin lotutakoak: Rufina Larrañaga Ortuzar (alarguna, 53 urte) "estanke-ra" da, Zubietan. Lorenza Madinabeitia (34 urte) arrain-saltzailea, Bidekruzetan.

3.8. Baserritarrak

Baserriko emakumeen lanak aparteko atala merezi du. Izan ere, kaletarren bizimodua eta baserrikoa erabat dira diferenteak. Baserria lantokia da. Ordutegirik gabekoa, gainera. Beti dago zer egina baserrietan: animaliak, baratza, soroak, basoa... Baserritarrek kaletarrek baino lehenago ikasten zuten lanean. Eta neskek, baserriko lanez gainera, etxekoak ere egin behar izaten zituzten. Kaletarrek baino dezentente baldintza okerragoetan, egin ere. Izan ere, mende hasieran urik eta argirik ez zegoen baserri askotan. Arropa garbitzera errekarara joan behar zuten. Umeak zaintzea ere emakumeen eta neskatoen ardura zen. Eta baserrietan kalean baino handiagoak ziren familiak. Askotan ez zuten eskolara joateko aukera handirik ere.

Mercedes Agirrek zioenez, emakumeak gizonezkoak baino lan gehiago egiten zuen baserrian. "*Gizonak be lan asko egitten eben, baiña emakumiak zatixa gehixao; etxien eta kanpuen. Kanpuen emakumiak danak saillian egitten eben lana. Ta etxera etorritakuen, gizona sikira bazkalostian puxkaten egon. Ta harek ontzixak jaso edo zerak egitten, ta atzera lanera!*".

Emakume baserritarrak baserrian pasatu ohi zuen bizitza osoa, lanean. Eta handik irteten zenean, gehienetan lanerako izaten zen. Baserriko produktua kalean saltzeko, normalean. Neska gazteek igande arratsaldean erromeriara joateko aukera zuten, baina edade batetik aurrera, hori ere ez.

Hori bai, 1930eko padroian begiraturuz gero, konturatuko gara emakume baserritarrak ikustezinak direla. Gehien-gehienak etxekoandre moduan agertzen dira, eta ez baserriko lanei lotuta. Normalean senarra da “nekazari” bezala agiri dena; emakumeak, agertzen diren ia denak alargunak dira. Badaude salbuespen batzuk, hala ere. Semerik ez den baserrietan alabak “nekazari” bezala agertzen dira noizean behin, baita alaba askoko baserrietan ere (ikus aurrerago datorren zerrenda: *Emakume baserritarrak 1930eko erroldan*).

Baserriko lanak

Baserriko lanak amaigabeak izaten dira. Baserrian denetik egin behar izaten zuten emakumeek, umeak zaindu eta etxeko lanak egiteaz gainera. Baratzeko lanak, sorokoak, animaliak zaindu eta jaten eman...

Baserri gehienetan zeuden idiak, eta umetan itulan egin behar zuten. Neskek zein mutikoek. Idi edo behi aurrean ibili, goldearekin edo arearekin zihardutenean, abereak ez desbideratzeko. *Benita Unamunoren* arabera, bere senarraren arreba gazteena, Maria Luisa, oso iaioa zen horretan: “*Pentsaizu, goiko mendiko gari-soruak danak burdinaratu egitten zien, neguan. Gure gizonak zenbat aldiz esaten eban, gure Maria Luisa hori gaztetxua, itulan, bazkaixa aldian eruanda. Bazkaltzeko denboran ze egin dau? Idixak soltau, libre laga dittue. Eta gero berriz uztarrixan lotu bihar atsaldian! Idixak saltoka, jo hara eta jo hona. Eta zenbat bidar esaten eban gure gizonak, e? Frente*



❖ *Bergarako Olariaga baserrian ateratako erretratua.* Egilea: Indalecio Ojanguren. guregipuzkoa.net

emun, zu, neska gaztiak! Saltoka, bai? Frente emun ta idixa geratu”.

Aipatzekoa da baserri batzuetan emakumeek ez zutela behiak jezten ikasten; nahita egiten zuten hori, langintza hori gizonen esku utzi. Horrela egunero ordu jakin baterako bueltatzen ziren etxera. Izan ere, askotan gertatzen zen gizonak tabernara joan eta etxerako bidea ahaztea. Hori bai,



❖ *Neskatila itulan, neska-mutikoen ohiko lana baserrietan.* Argazkilaria: Indalecio Ojanguren. Iturria: herritmo

emakume askok jezten zituzten behiak; gaztetatik ikasten zuten, gainera. Carmen Garitanoandiak, adibidez, behi denak berak jezten zituen.

Lan astun asko zeuden baserrian, baina gari lanak ziren gogorrenetakoa: “*Garixak, akaberarik ez dauke garixan lanak! Akaberarik ez. Erein, simaurtu, jorratu, ebai, metatu, gero atzera zabaldu ta jo...*”, zioen Osintxuko Ola baserriko Anizeta Agirrek.

Mariasun Ubera askoz gazteagoa da, 50 bat urte geroago jaioa, baina berak ere ezagutu zuen gari jotzea, eta hautsez beteta geratzen zirela dio: “*Hautsakin, ikusi ezin alkar, holaxe! Eztarrixan... trgau ezinda. Eta nik gari jotia bukatu orduko, ez dakit ba alerjixia edo hautsari, gari jotia bukatu orduko harrapatzen neban kriston katarrua, eta amaittu ezindda geratzen nitzan*”. Baserriz baserri ibiltzen ziren. “*Ezin izaten nittuan basarri danak bukatu. Etxe bakoitzetik bi lagun joaten ziran. Gu gazte-gazterik hasi giñan gari jotera joaten, aittaren orde. Eta esaten oskun: ‘Zuek joan, eta basarriko ugazabari galdetu zuek ze lan egin biha dozuen’. Lan diferentia egoten ziran. Batzuk egoten ziran ba kargak egin, bestiak eruan, azaoak makinara pasatu... Joaten giñan, eta ipintzen giñuzen mahaixan, bultza egitten garixari*”. Makinakoari gari azaoak ematen. Sei bat lagun egoten ziren mahaihan, katea egiten. “*Gu beti mahai puntan, hauts guztiak hartzen!*”.

Anizeta Agirrek baserrietan linua ereiten zen garaia ere ezagutu zuen. Hark ere lan handia zuen, erein, jaso, landu eta hari mataza bihurtu arte. Juana Joxepa Letek horixe bera zioen: “*Liñuak lan asko dau, nee! Iru-*

teako zenbat lan! Gabian hamaikak-hamabixak aldera artien, hola ardatzian liñua egittten honek andra zaharrok”. Hilari Gantxegik lihoarekin lotutako esaera zaharra aipatzen zuen: “*Ehunak ehun lan*”. 1922an jaiotako Maria Aranguren antzuolarrak ere ondo gogoan zuen linua. Lan izugarria zuela dio. Amak linuarekin haria egiten zuen, eta ehulearengana eramane, tela egiteko. Artilearekin egiten zuten puntua emakumeek. Ixabel Belarrek dioenez, artilezko galtzerdiak egiten zituzten, gizonezkoentzat, lau orratzekin.

Ubera ahizpak neskak ziren denak. Eta denetik egin behar izan zuten. Ganadu-jatekoak egiten zituztenean, Ma-



❖ Irazabal Aundi baserriko gorugilea, 1947. urtean. Argazkilaria: Indalecio Ojanguren. guregipuzkoa.net

riasunek segarekin ebakitzen zuen belarra. “*Eta gure bittarteko aiztiak astuakin eruaten eban etxera. Ni, hartu segia, eta belarra ebatera, eta aiztia belarretara, jira buelta astuakin*”.

Garia errotara etxeko mutikoek eramaten zuten normalean. Baina neskek ere egin izan dute lan hori. Mariasun Upera, esaterako, Ibarrola errotara joaten zen: “*Errotara faten giñan, ba astuan kargau garixa edo biha zenduana*”. Artoa ere izan zitekeen. Dozena bat baserriren artean zuten errota. “*Errotara juatia gustau egitten jatan. Mutil batzuk be fan egitten ziran batzutan errotara. Ta tokau zeikian parian joatia, eta ikustia, eta pentsaizu baina zenbat bide zeuan gure basarrittik errotara! Eguan, nik zer dakit, ordu erdi? Kriston juanaldixa zeuan! Eta zorrua zaindu biha zan... Beti errotara joateko prest*”.

Gauza bera gertatzen zen basoko lanekin. Mutil asko zeuden baserrietan mutilek egiten zituzten. Baina neska askori egokitu zitzaion baso lanetan ibiltzea ere. Hankak goitik behera urratuta bueltatzen ziren etxera, prakarik ezin zuten erabili eta; gaizki ikusita zegoen. Maria Aranguren antzuolarra, esaterako, 19 urterekin basora joaten zen lanera, etxeko gizonekin. Begoña Zubizarretak ere egiten zituen basoko lanak, bera bakarrik geratu baitzen aitarekin baserrian.

Maria Argialde ere ibiltzen zen basoko lanetan: “*Garó ebatera be segia-kin*”. Egundoko sailak ebakitzen zituen, segarekin. “*Neu juaten nintzan ganauakin eta akuluakin, hartu burdixa ta, aide!, garotara*”. Bere senarrak igitaiarekin ebakitzen zuen: “*Aldiko garo bat, aldiko garo bat. Ta nik jota*



❖ *Begoña Zubizarreta, 2010ean ahotsak.com-erako egindako elkarrizketan.*

keia. Diferentzia edarra. Guk egitten giñuzen lanak han! Han beheko zulo-tik bixkarrian, hara gora bixkarrian al-tzatzen nittuan, bixkarrakin”.

Ganadu ferietara eta landareak eroatera ere normalean gizonezkoak joaten ziren. Baina Mariasun Upera ere joan izan da landareak eroatera.

Baserriko “etxeko lanak”

Baserrian lehengaiak ugari, baina dirua urri zutenez, kanpotik ahalik eta produktu gutxien erosten saiatzen ziren. Oinarri-oinarrizkoa bakarrik: gatz, azukrea, olio, tela... Autosufizientzia zen giltza. Eta emakumea giltzari eragiten ziona. Baserri askotan arropak etxean egiten zituzten, eta baita xaboia ere. Upera ahizpen baserrian, adibidez, izebak egiten zituen xaboi pastilak. Hori bai, harrikoa xaboirik gabe egiten zuten, gero ur hori txerriari ematen ziotelako, arto uruna edo ogi zati bat botata.

Ogia etxean egiten zuten. Toki batzuetan, gatz ere bai. Txerria hiltzen zutenean, urtean behin normalean,

emakumeek egiten zituzten txorizoak eta odolosteak; baita urdaiazpikoak gazitu ere. Etxeko tomatea egiten zuten. Fruta eta gaztainak batzen zituzten. Sagardoa ere etxean egiten zuten askok; horretan ere parte hartzen zuten emakumeek: sagarrak batzen, botilak garbitzen... Baserri batzuetan erlauntzak zituzten, eztia izateko.

Ohikoa zen arropa garbitzera erre-kara joatea. Nati Arrietak gogoan du bere amak buru gainean eramaten zuela arropa, 50eko harmakadan. Ordurako baserri batzuetan bazuten kanilako ura, baina ez guztietan. Baserri gehienetan maizterrak ziren, eta ezin zuten horrelako gasturik egin.

Ixabel Belarren baserrian, Angiozarko Gontzarrin, argirik ez zuten izan etxean berak 14 urte bete arte, eta urik ere ez 1959 urtera arte. Iturrira joaten ziren ur bila. “*Ta ura ekartzen giñuan... Gero, haunditxuauak egin giñenian, erateko ura... Edarria baki-tzu zer dan? Edarria hola kobrezko zer batzuk, ta eukitzen dittu aro batzuk bueltan. Ta sorkixa, egin hola zer bat, sorkixa esaten jakona, eta buruan ekartzen giñuan ura, eta ba kilometro bat baiño gehixau izango zan. Olaitturitik*”. Lixiba ere egiten zuten etxean: izarak ur berotan eduki, hainbat egunez egurrezko tiñan, albergan edo errekan jo, lehortu...

Hilari Gantxegik askotan egin zuen lixibia: “*Haura lixibia, jabondu ta han dana tolosturan ipiñi eta hautsakin, sutako hautsakin egosi eta erramua ta elauntz zatixa-ta sartuta baldan*”. Goi-tik behera ur beroa botatzen zioten. “*Usain bat edarraua ta kolore bat edarraua...! Ta gero zeñek baiño zeñek erropa zuri edarraua esegi!*”. Ixabel Be-



❖ *Bi emakume iturrian, 1930. urtean.*

Argazkilaria: Indalecio Ojanguren. Iturria: herritmo

larren esanetan, “*erropak jabondu etxian egitten zien, baiña gero astuan hartu, enda solo barrenian euen Paio-rriko iturrixa. Aska bat euen han, ta haraxe eruan astuan, ta gero han aklarau. Izerak eta bi lagunen artien puntatik hartu ta bihurtu izerioi, ba-koitzak punta banatik, ta atzera astuan hartu ta etxera*”.

Hilari Gantxegik dioenez, argindarra ezkondu ostean jarri zuten. Aurretik petrolioarekin eta kandlekin moldatzen ziren. Carmen Garitano-andiaren arabera, San Prudentzioko baserrian argindarra bazuten baina urik ez. “*Gure amak ez euen ezautu sukaldian urik. Pentsaizu, 57 urtekin hil zan... eta ez eben ezautu urik*”. Maria Mugerzaren baserrian ere kanilako urik ez zuten, eta bueltaka ibiltzen ziren beti. Marmitekin. “*Etxian urik ez badaukazu... kriston ur pillia gasta-tzen da, el*”. Ubera ahizpak ere nagusitxoak zirela jarri zuten etxean ura. Iturrira joaten ziren ur bila eta garbitzera. “*Gazte hazitxuak*” zirela iritsi zen garbigailua euren etxera. Baserri as-

kotan garbigailua oso berandu iritsi zen, eta iritsita ere ez zuen beti funtzionatzen: argindarra makala izanik, ez zuten izaten makina martxan jartzeko nahikoa indar.

Dominga Beitiak gogoan du bera umea zela ahizpak hartzen zituen lanak: “Ene, gure Margari koittaua. Gu ume kuadrillia, bakizu, txikixak, eta barriñoi haundi baten ipintzen zuen ur epela, han danak garbi-garbi eitten gaittun. Beste baldian sartzen gaittun, han akalaratzen gaittun, eta izeran batekin edo toallan batekin o ez dakitt zekin koittauak sikatu. Ta hala, martxan garbi-garbi egindda! Gure Margarik zenbat holako! Eske amak egin ezin zun dan-dan-dana egitten zun gure Margarik. Haura zan gure ama, zeatik amak beste lan batzuk egitten jarraitzen zun, eta gure ama hauraxe zan”.

“Gizonak ez zebe egitten orduen han ezebe etxeko jiran. Ta geiñera besitiak egitten dabena apreziau ez! Haura berez egitten zalakuen!”. Mercedes Agirrek zioenez, umea umearen atzetik izaten zuten emakumeek: “Urte bigarrenago barrixa. Haura hazten danian beste bat barrixa, hurrengo beste bat barrixa”. Eta gizonek borondate gutxi erakusten zuten umeak zaintzeko ere: “Ez zebe pentsatzen, andriak egitten baeban lanik ez zebe apreziatzen. Haura, balorerik ez zotsen emoten hari. Ta umia egittia ta umia haztia, ba, ezebe ez zalakuen. Bai. Ta ez die horrek hola, el”.

Gizonek, umea pixka bat koskortu arte, ez zioten jaramonik egiten: “Gizonak ezta ikuturik be! Gero zeoze, altzuan euki edo, kontu batzuk esan umiari. Egitten jakuena, beste batzuk

beittu be ez igual, baiña bueno, jenerala... beria dau ta. Ezta? Baiña, holaxe. Eulixak jaten basarrixan umiek. Eulixak jaten. Ta andrak lana besterik ez zebe eukitzen, ta banastan baten ipini umia ta lanera! Edo garbiketia egin edo etxeko zeoze egin edo... sorora erunda hantxe ipinita be bai ta, damera egitten eben”. Lehengo bizimodua negargarria zela dio Agirrek, batez ere emakumearentzat: “Bai, enee! Emakumia, orduen geizki bizi izen zan emakumia. Geizki, oso geizki be. Eze-rreza!”.

“Lehengo basarrixa andrentzat txarra izen be zan, e. Bueno, oingua be bai, baiña oin diperentia da, baiña lehenguan aldian oin ona, e”, dio Maria Mugerzak, Osintxura ezkondu zen azkoitiarrak. “Andrak etxeko lanak danak egin bihar izeten zittuen, ta kanpuan lagundu biher”. Umeak ere emakumeen kontu, eta haiek ezin bazuten, ingurukoek: “Aittitte ta amama, gauza ez zienak. Umezaintzia hare!».

Kalera saltzera

Kalera plazara eta esnea partitzera joaten ziren neskato eta emakumeen lana oso gogorra zen. Euri ala eguzki, bide luzea egiten zuten joan-etorria egiteko. Euritako eta jantzi apropos gabe ibiltzen ziren. Batzuk oinez joaten ziren, karga buruan edo ahal zuten tokian jarrita; eta askotan zela-halako astoekin. Baina esan beharra dago kalera joatea arnasbidea ere bazela zenbait emakumerentzat. Senarraren etxera ezkondukoentzat, adibidez. Baserriko giro itogarritik irteteko modua zen; lagunekin egotekoa, jendea ezagutzekoa.



❖ *Bergarako hainbat emakume baserritar, eskuetan kapoiak dituztela, 1910eko uztailan. Errenta-ordaina izan daiteke. Ezkerretik eskuinera: “Bolu” edo “Santa Ana errota”, “Zearreta”, “Elorregi Domiñena”, “Elorregi Zelaikoa”, “Azkoï”, Dolores Gabilondo “Ugarte”, “Basarte”, “Pagaldai”, “Iraburu”, “Elorregi Goikoa”, “Azkarruntz-Azpikoa”, “Azkarruntz-Balento” eta “Larrea” Bergarako Udal Artxiboa. Kultura departamentuko bilduma*

Bergaran plazan zegoen azoka, orain aurrezki kutxa dagoen eraikinean, lehenengo pisuan. Bi sarrera zituen, plazatik eta Artekaletik; jende gehiena Artekaletik sartzen zen. Bergarako hainbat auzotatik joaten ziren baserritarrak hara, euren produktuak saltzera. San Pedro elizaren ondoan zegoen astotokia; hantxe uzten zituzten abereak.

Rosario Aranzabal Angiozartik Bergarara joaten zen tratuarekin, 60ko hamarkadara arte. Arrautza dozena ugari eramaten zituen larunbatetan plazara saltzera. Etxeko jeneroak saldu, eta olio eta halakoak erosten ziren kalean. Gidabaimena atera zue-nean, saltzera Arrasatera joaten hasi zen.

Maria Luisa Alberdi, berriz, Ubera auzoko Egurbide-haundi baserritik joaten zen plazara, barazkiak saltzera. San Juan auzoko Ariztizabal baserriko Maria Angeles Larrañaga ere



❖ *Maria Angeles Larrañaga, 2008an ahotsak.com-erako egindako elkarrizketan*

urte askoan joan izan zen Bergarara baserriko generoa saltzera, hasieran astoarekin eta gerora kotxearekin, eta baita Zumarragako eta Soraluze-ko azoketara ere.

Etxeetara joatea ere ohikoa zen, produktua zuzenean eramatera. Esnea, adibidez, etxez etxe partitzen zuten. Erdigunean zein auzoetan. Esnedunak aritzen ziren lan horretan. Egunero-egunero, igandeak barne.

Maritxu Garitano esne partitzera joaten zen, astoarekin. Aldaiegia auzoko Garitao baserritik. “*Ni juten nintzonan hartu astua eta goizian Bergara. Bergaraiño ez, Altos Hornosera. Hortxe izaten najittunan esne-partitziok. Amak esaten jostanan: ‘Bueno, azkar etorri, gero Bidebasora jun bihon bazkaixakin eta’.* Urtetzen giñustanan Maritxu Amuskibarkua, Juli Aldai-Etxeberrikua eta bueno, hiru-lau bat hola nere antzekuak esniekin. Nik esaten notsan, “bueno, nik gaur prixia jonat, e, basora jun biha jonat bazkaixakin-da. Eta ahal dabenak ahal daben moduan etxeratu. Juten nintzonan eta amak bazkaixa gertautu”. Aitari babarrunak eramaten zizkion, basora, eta elkarrekin bazkaltzen zuten. “Eruaten najittunan; bazkaltzen giñunan, aittak esango jonan, ‘bueno oiñ lokamustxo bat edo’. Han garo pillan baten edo. Geuk ebaitzen giñuan garo-moltzon baten gainian bota zakua aittak, eta egitten jonan lokamuso”.

Bergarako baserri batzuetatik inguruko herrietako azoketara joaten ziren saltzera, gertuago geratzen zitzaizkielako. Mariasun eta Maria Angeles Ubera ahizpak Eibarrera joaten ziren esne saltzera, Goimendi auzoko Bergaretxe baserritik. Eugeni Uberak

dioenez, “*orduan emakumiak kalera biagia, etxeuak, solokuak eta danak egiñ biha izaten zittun*”. Lortutako diruarekin generoa erosten zuen etxerako. “*Eta sobrantia amamari. Posiblemente entregau egingo eban*”, dio Maria Angelesek.

Mariasun Ubera: “*Guk ekarten genduan esnia kalera. Etortzen giñan astuakin, kargauta esniekin kalera... eta goguan jakanat erosketak, jateko gauzia, erosi biha zana erosten giñuan denda batian han. Ta apuntau eta apuntau eta apuntau. Eta esnia be ekarten zan astian, eta kobratzen zan domeketan esniori. Bat ero egoten zan hillian behin pagatzen zebana, edo bi, topia jota. Gehixenak pagatzen zezen domeketan esnia. Domeketan kobratzen zan esnia. Ta astian eruaten genduan generua, ze amak ez zekan dirurik, orduan apuntau errekauiak eruaten giñuzenak dendan apuntau egitten zittuan dendarixak. Eta domekan kobrau esnia, eta astelehenian kalera etortzen giñanian haura kontua pagatzen genduan. Domekako esne-diruakin. Pagatzen zan haura kontua, eta berriro be aste guztia, atzera listia, kontua-kin eruaten zan. Okela pixkat zapatuan eruaten genduana, ze aste guztian okelarik ez. Zapaturako eta domekarako okelia, eta astelehenian... bai okelia eta bai dendako kontua, astelehenian pagau harek, domekako esne diruakin, eta berriro aste guztiko generua erosi bihar zana, atzera zorrretan”. Ama bizi zen artean horrela ibili ziren. Ez zuten kaleko jornalik etxean.*

Mariasun Uberak 18 urterekin atera zuen gidabaimena, 1965ean,



❖ *Maria Angeles Ubera, 2004an aho-tsak.com-erako egindako elkarrizketan.*

esneak kalera eramateko. Baina hasi, astoarekin hasi zen. “*Marmitak altzau ezinda, jesus*”. ‘Balazarak’ jartzen zizkieten astoari, alde bietara zintzilik geratzen diren saskiak. “*Hiru bat marmita sartzan ziran alde bakoitzian. Eta marmitak bardin ipini bihar pixua, bestela alde batera egitten zeban eta. Errekauek be ba hantxe. Eta gero norbera, astua ez bazeuan oso kargauta, gainian, astuan jarritta*”. Maria Angeles Ubera dioenez, “*etxietan partitzen zan. Bueno, batzutan sobratzen zan, eta plazara juten gain saltzera*”. Marmita handitik esnea txikira bota, eta txikiarekin joaten zen etxeetara. Izan ere, bestela ezin zuen pisuarekin.

Maria Angeles Ubera oso umetan hasi zen astoarekin joaten. Amamak egiten zuen hori, baina gaixotu egin zen. “*Haura gaixotu zanian, ni hasi nitzan. Eta harek erabiltzen eban bihorrera. Astua baino altuagua da. Bihor zaharra zan, mantsua. Ta lehelengo denpora askuan harekin ibili nitzan. Altua zan ta ni ez nitzan ailegatzan. Nik ez dakit, zazpi-zortzi urte eukiko neban. Txatxar-txatxarra nitzan ni. Gero ama be ibili zan, baina*

gutxi ibili zan”. Mariasunek, ondotik: “*Etxakanan astirik eta!*”.

Eibarko azokara saltzera amama edadetu asko joaten zela dio Maria Angelesekin. “*Amama zaharrak, moiñuakin. Painelua ipintzen eben, hiru puntakin hola. Gainera, gona luze-luziak. Eta gero amantal haundi-haundixa gainetik*”. Baserritar dotoreena Zozolako (Zuazola) Ines zela dio. “*Zapata takoiekin, e! Eta amantalik sekula be ez, eta ekartzen ebanian puntilliakin amantala ipinita! Dotoria zonan haura! Beti zapata takoiekin etortzen zonan, tiki-taka, tiki-taka, tiki-taka, toma ya!*”.

Ixabel Belar Arrasatera joaten zen esnea saltzera. “*Behin 14 urte ezkeror duan Arrasatera baserriko esniakin juan bihar izaten zan. Kanposantutik bueltan*”. Bergara baino gertuago geratzen zitzairen Arrasate Gontzarritik. “*Bezeruak egoten zien, ta harei eruen biha jakuen esnia, egunero. Enda ba astuakin*”. Mutiko batzuek ere egiten zuten lan hori. Goiz jaiki behar izaten zuten. Barazkiak ere eramaten zituzten: “*Asteko errekauek edo, orduan tratu haundirik ez zan eoten, porruak ero, azak ero, koliflora ero, ta harek eruen ta arrautza batzuk, ta holaxe*”.



❖ Ezkerrean, bi neska gazte –bata asto gainean, bestea marmitarekin- eta eskuman adineko bi emakume, asto banarekin, plazarako bidean. Argazkilaria: Indalecio Ojanguren. Iturria: herritmo

Baserriko ekonomia

Baserrietako ekonomiaren ardura emakumeak zuen neurri batean. Hark administratzen zuen esku artera iristen zitzaion diru apurra. Baserrietan dirurik ez zen izaten, eta erraza zen zorrak egitea. Etxeko norbait hiltzen zenean, adibidez, hileta elizkizunak ordaintzeaz aparte, bertaratutakoak afaltzera gonbidatzeko ohitura zegoen.

Benita Unamunok -1905ean jaioa- hiru eguneko ezkontzak ezagutu zituen baserrietan. Gonbidatuek oiloak eramaten zituzten opari gisa. Emakume ezkongaiak arrioarekin joaten ziren baserri batetik bestera, gurdia idi pare dotorea jarrita: ehunezko arropak, laiak, goruak, altzariak... Etxe onekoa bazen, batzuetan arrio bi egiten ziren. Ezkontzea, beraz, ez zen merke ateratzen.

Angiozarko Rosario Aranzabalek eta haren senar Sebastian Aranzabalek (hurrenez hurren 1926an eta 1933an jaioak) ere gogoan zituzten sa-soi bateko ezkontza haiek. Sukaldaria kanpotik eramaten ei zuten normalean, ordainduta. Txahala hiltzen zen etxean, eta sarritan jendeak gau osoa pasatzen zuen bertan ospakizunetan; “txakur errondia” deitzen zitzaion. 20 pertsonatik gora elkartzen ziren etxean. Etxekoentzat ardura eta gastu handia izaten zen.

Auzoko jaietan “gonbidautza” egiteko usadioak ere kalte handia egiten zion etxeko ekonomiari, Ubera ahizpek diotenez. Goimendin Santixau egunean senide ugari joaten ziren etxera bazkaltzera. Mariasun Ubera: “*Danak etortzen ziran bazkaltzera, eta senidiak ez diranak pe bai. Eta amak egitten zi-*



❖ *Hiru gizon eta hiru emakume, laian, 1915ean Baliarrainen. Neskatilatxoa aldame-
nean, lurrean eserita.* Indalecio Ojanguren. Iturria: herritmo

ttuan zorrak, urte guztirako be bai. Urte guztia egoten zan haretxen zorra pagatzen. Etxian oilaskuak hazten zittunan halakotxe egunerako baka-
rrik. Hainbeste lagun! Bera jaira fan be ez zan egitten. Mezetarako astirik be ez zeban eukitzen, hantxe. Eta hain-
beste lagunendako bazkaixa. Baina gu gaztetxuak giñan, eta hutsa laguntzen gontsan. Ezin lagundu, ez. Umiak. Be-
rak esaten eban gaiñera: 'Hauxe don jiria! Urte guztirako zorrak eginda ge-
ratu hauxe bazkaixa, jaixetan baz-
kaixa egittiarren'. 60 lagun inguru ba-
tzen ziren bazkaltzeko. Eta afaltzera ere asko geratzen ziren. Amari tia Do-
loresen laguntzen ei zion. Aitak soinu txikia jotzen zuen, eta etxean musika izaten zuten, erromeria.

Baserrietan ekonomia emakume-
aren kargu zegoen arren, gizonek ez

zuten beti dirua haien esku uzten. Ha-
laxe kontatzen zuen Mercedes Agirrek:
"Gaur basarrixan Don dare danak,
Don! Andrak be manejatzen dabe
beste estilo batera, ta gauziakin dirua
hartzen dabe geiñera. Esniakin, arrau-
tziakin, klase danakin diru asko har-
tzen dabe, ta manejaue egitten dira ho-
beto. Ta orduen gizonak hemen esa-
ten zebeu: bildotsak saldu, bildotsen
dirua gizonak, ganauak saltzen bazian
gizonak harek diruak, ta andrak esne
puskiakin ta arrautziakin hartzen
ebenakin ibili deittielu. Etxeko neze-
sidadiak harek handik egin deittelu.
Holaxe".

"Danana, etxeko danana arduria
berak erun bihar. Danan arduria,
umiena. Hainbeste ume! Zerekin jan-
tzirik ez eta". Familia gehienak ume
asko izaten zituzten baserrietan. Mer-

cedes Agirrek zioenez, “Hamar umetik beherakoik ez euan. Nahiz eta jazteko ezebe ez eta nahiz jateko ezebe ez euki, umia ugeri. Eta beti abadiak ‘ekarri egin bihar dala umiak asko”. Emakumearen bizimodua honelaxe laburbiltzen zuen Agirrek: ume ugari mundura ekarri, lan asko egin eta jateko ezer gutxi izan. “Umiak ugeri eukitzeko eta lan ugeri egitteko. Ta ezebez jateko gauza dezenterik! Ez zeuen dirurik eta! Emakumia gorrixak pasautakua da. Danok”.

Janari gutxi egonez gero, emakumea zen jan gabe geratzen zena: gizonari eta umei ematen zien lehenengo. “Gizona aurretik, bai. Azkenengo sobratzen zanakin haura. Egongo zien besterakuak be, beren burua maitiago zebenak, baiña jenerala holaxe. Holaxe. Geñera kafe puskat pagatzeko ez zeben eukitzen ta... Ezebez. Dirurik ez. Ezek ez zeban balio ta. Dozena arrautziak zazpi txakur haundi. Zortzi-zazpi... Patatiakin, kiluakin txakur haundixa ta hiru xemeiko bi kilok. Ostien-go gauza guztiek halaxe eren. Ezekin be dirurik hartu ez, ta nun eukiko zinuñuan ba jazteko ta zetarako... alperrik euen gauzia merke! Zuk ez badaukazu...”. Horixe esaten ei zuen bere ama zenak. “Ezekin dirurik hartu ez, miserixa baten bizi zien orduko emakumiek”. Bizimodu latzak izaten zituzten gehienek. Gazterik hiltzen ei ziren.

Baserrian ez zegoela soldatarik gogorazten du Maria Mugerzak: “Kalien bakoitzak bere suelduek... eo ferrobiarioxo edo kaminero... bakoitzak bere jorنالtxue. Baina basarrixan orduik ez da egoten. Eta basarrixan kineznaik ez da eoten. Ta hartzen dozunian bi pezeta, ordun gorde behar zi-

ñuan bat okasiño baterako: eo kriauentzako edo beste zeozetarako. Beste pezeta harekin pasau bihar zinuñun”.

Maria Pilar Larrañagaren ustez, lantegiak salbatu zuen baserritarra. Baserritar askok bi lan batera egiten zituzten: baserrian eta Labe Garaietan. Eta halaxe hasi ziren dirua ikusten. “Han (baserrian) bizi dan emakumia be ba txahal bat noiz salduko begira, harek dirua nundik etarako dau? Lau patata saldu, ta zenbat diru eterakozu ba? Ez dakizu... Hemengo basarriko personia fabrikiak salbau dau”.

Baserritar asko maizterrak ziren, eta urtean behin ordaintzen zuten errenta. Ixabel Belarrek gogoan du Bergarara joaten zirela, ordaintzera. Aitonarekin joaten zen, astoan. Dirua eta kapoiak. Bakailaoa ematen zien bueltan. 14 bat urte zituela erosi zuten etxea.

Ezkontzearen garrantzia, baserrian

Maiozazkoak gizonezkoak izaten ziren. Etxera ezkontzen ziren alabek nebarik ez zuten, normalean. Familiak handiak izaten ziren baserrietan, eta ez zegoen tokirik denentzat. Maria Aranguren antzuolarrak argi azaltzen du: “Lehen izeten zana basarrixan: bat etxerako eta gero beste danak ba fuera”. Maiozazkoa geratzen zen. “Eta beste danak... krieda edo monja batzuk... eta ahal dan lekural”.

Batzuk neskame eta morroi joaten ziren, beste batzuek moja eta fraide, zenbaitzu Ameriketara ere bai. Ezagunak dira Ameriketara joandako



❖ *Baserriko familia baten erretratua. Hauek dira kideetako batzuk: Norberta Salsamendi (erdiko ilaran eserita), Eladia Jauregi Mayora (eserita), Bixente Jauregi Jauregi, Carmen Jauregi Jauregi, Toribio Jauregi Berasategi “Altzeta” eta Josefina Zelaia Salsamendi. Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa*

euskal artzainak. Gehienak gizonezkoak ziren, baina emakumezko batzuk ere animatzen ziren Ameriketara joaten.. Angiozarren badugu horren adibide bat: Eulalia Ugalde (ikus 163. orriko koadroa). Begoña Zubizarreta-ren ahizpa eta anaia zaharragoak ere Ameriketara joan ziren. Baita Anizeta Agirreren ahizpa bat ere, bere hurrengoa.

Baserriko neskentzat bereziki inportantea zen senarra topatzea. Ezkongabeek, baserrian bizitzen gelditzen baziren, sarritan neskame lana egiten zutelako. Baserriira ezkondatakoaren familiarentzat. Baina kobratu gabe, noski. Etxeko lanak, baserrikoak, umeak zaindu, josi... bertan bizi-zearen truke. Kaletarrek normalean

aukera gehiago zuten etxetik kanpo lana aurkitu eta euren bidea egiteko, ez ezkondu arren.

Lide Oregi: “Gure amak esaten dau neskak nahikua lan eukitzen zebela ba kriaui: horren danak erropak garbittu, ta dana. Ta gero, klaro, bera zan gaztenetakua, eta anai zaharrena etxera ezkondu zan, eta klaro, haren umiak pe bakizu, etxian daonak ba lagundu... ta hori. Gure amak esaten zeban berai lan asko tokau jakola egittia denbora haretan. Baina gazterik ezkondu zan”.

Horrenbestez, neska askorentzat ezkontzea ihesbidea zen. Bizitzan aurrera egiteko modua. Batzuek baserritik alde egiteko bide moduan ikus-

ten zuten, eta beste batzuek neska-metza uzteko bidetzat; ezkondu artean, zerbitzen ibiltzen ziren han eta hemen.

Askotan baserritarrekin ezkontzen ziren. Baina besteren baserrira ezkontzea ere ez zen beti gozoa. Emakume batzuek asko sufritu zuten, ez zirelako egokitzen. Senarraren gurasoekin, batez ere etxeakoandrearekin, harremana ez zen beti erraza izaten. Etxekoandreak indar handia zuen baserrian. Sarritan bera izaten zen erabakiak hartzen zituen, baita etxeako dirua kudeatzen zuena ere. Eta kontuan izan behar da lehen betiko ezkontzen zirela. Dibortzioa ez zen posible. Hortaz, etxeako amona hiltzean bakarrik bihurtzen ziren etxeakoandre. Eta batzuetan beraiek haien jarrera bera izaten zuten. Gaztetan horrek asko sufriarazi arren, errainari berdina egiten zioten: menpean hartu.

Maria Mugerzak baserrian lana erruki gabe egiten dela dio. Eta normalean iruditzen zaio gaur egun emakumeek baserrira ezkondu nahi ez izatea. Industriaren gorakadarekin batera, baserriak husten hasi ziren. Baserrietako mutilak ezkongabe geratzen hasi ziren. Neskek ez zuten baserrira ezkontzerik nahi, bizimodua oso gogorra zelako. Mugerzak dioenez, senarrarekin ezkondu beharrean, fami-

lia osoarekin ezkontzen ziren. “*Neri ez jatan tokau hori. Koñata bat bakarrik zeon, ama ez zan bizi. Baina jenerala-jenerala ezkontzen zan amaginarreba, aitaginarreba, aittitte ta amama zaharrak be igual... eta gero amaginarrena eta aitaginarreban seme-alabak, koñata koñatu egitten zienak jeneralin etxetan zan. Eta gizona, maiorazgua, zaharrena, harekin ezkondu, beste gazterixia batzuk kriaui harahona... beste batzuk etxian... eta hara ezkontzen zanak gero ezkontzen zan gizonakin, eta gabeko lanak. Beatzin bat hilabete pasautakuan gero umia're etortzen zan. Etortzen ez bazan, akatsa. Ez zula eukiko. Batzuei tokatzen zan ezin eukitzia. Hala funtzionatzen zuen*”.

Batzuetan ezkonberriak umea izan, eta senarraren anai-arrebak artean Jaunartzea egin gabe egoten zirela dio Mugerzak. Jaioberria eta haren osaba-izebak, denak umeak zirela, alegia. “*Andra haura, basarrira juten zana, gizonakin ez zan ezkontzen, e? Gizonakin ezkontzen zan papela egitten zun lekuan, juzgauan eta elizan. Gero familiakiakin ezkontzen zan haura*”. Denekin ondo konpondu beharra zeukan, eta norbere umeak ere hantxe hazi. “*Hori jakinda, zein ezkonduko zan basarrira?*”.

Emakumeak Ameriketara

Ameriketako emigrazioaren hastapenetan, Mundu Berrirako bidea hartzen zuen euskal emigrante ohikoa 15 urtetik 25era bitarteko gizon ezkongai izan zen. Baina ondorengo urteetan emakumeak ere hasi ziren bide bera hartzen aurrez joandako ahaide batek edo herriko batek deituta edota, besterik gabe, iragarki batek animatuta. Gizonezkoen kasuan bezala, arrazoi ekonomikoak zirela-eta auzartzen ziren mundu ezezagun batera abiatzera. Baina beste bizimodu bat probatzeko gogoak ere bultzatzen zituen, emakumeentzat hain estua eta aukera gutxikoa zen garai hartako Euskal Herrian. Hala erakusten dute Eulalia Ugalderen, Cecilia Urizarren, Catherine Urquiluxen eta beste hamaika emakume emigranteren adibideek.

Eulalia Ugalde, 1897an Angiozarren jaioa, 11 urtez gero neskame hasita zegoen, eta adin nagusikoa zen anaiak Idahotik idatzi zionean Ameriketara bizimodua errazago aterako zuela esanez, eta nahi izanez gero lana zain zeukala Mountain Homeko Bengoetxeatarren hotelean, ez zuen besterik behar izan erabakia hartzeko. Eulaliak aurrez ere buruan ibilia zuen Ameriketara zortea probatzeko ideia. Paper guztiak prestatu, eta anaiak bidaia ordaintzeko bidali behar zion diruaren zain geratu zen. Anaiak huts bat egin zuen, ordea. Dirua zuzenean arrebari bidali beharrean, neskame zegoen Neguriko Goioagatarren jauregira, baserrira bidali zuen, eta amak gorde egin zion. Herriko apaizaren sermoiek izango zuten eraginik amaren portaeran. *“Zuek, gurasook, duzue erru guztia, umeei Ameriketara joaten uzten diezulako!”*, aurpegiratzen zien apaizak herritarrei. *“Diziplinari alde egitearren joaten dira hara, eta behar ez diren gauzak egiteko askatasuna dutelako”*. Nolanahi ere, diruak non bukatu zuen jakin zuenean, bere irabaziak etxera bidali ordez bankuan gordetzen hasi zen Eulalia, bidaia ordaintzeko kopurua osatu arte. Aurrenekoz bere buruaren jabe, bihotz alaiarekin abiatu zen Eulalia Mundu Berrira¹⁰. ❖

¹⁰ Asun Garikano. *Far Westeko Euskal Herria*. Pamiela, 2009. 194-195 o.

Baserritik kanpo lan egitea

Baserriko neska batzuek ehungintzan ziharduten lanean. Kaletik gertu dauden baserrietakoek batez ere. Baina ez ziren asko. Adibide bat jartzearen: Lesarri-soro baserriko hiru ahizpa eta Laspiur baserriko lau alaba harigileak ziren, 1930eko eroldaren arabera. Segurunez, gehiago izango ziren jostun lanetan zebiltzanak (ikus jostunen atala).

Baserriko gizonak lehenago hasi ziren lantegian lanean emakumeak baino. Eta hori Bergaran aukera paregabea zegoela. Baina baserri askotan ez zegoen ondo ikusita emakumeek lantegian lana egitea; askoz normalagoa iruditzen zitzairen neskame joatea.

Ubera ahizpek diotenez, ohikoa zen baserriko mutilak lantegira joatea lane-ra. Baserriko neskak tailerrera lanera joatea, ordea, gaizki ikusita zegoen. Gero-ra, poliki-poliki hasi zen emakumea lantegi munduan sartzen. Ordura arte, neskame. Aitaren anai denak tailerretan zebiltzan lanean. Neskak, berriz, neskame. Mariasun Uberaren hitzetan: “*Lehenau, neskia zanak... tailerrian neskak oso gutxi ibiltzen ziran*”. Maria Angeles ados dago: “*Bajezia zan! Banaka-banaka hasi zittunan... Bajezia zan, buf, lotsagarrixa zan*”. Akordatzen da berari eta beste bati tailerrera sartzeko esan zietela, eta etxeko enreakzioa zein izan zen, eskuak burura eramatea: “*Bueno, bueno, bueno, bueno! Neskak tailerrera? Horraittio!*”. Zenbat bider esan dot nik: *han laga bazoskuen tailerrera juten, beste bizimodu bat eta beste berriketa bat eukiko genduan! Etxera dirua eruan-goto genduan behintzat, ta zer? Bizitza oso-rako geure postua hortxe eukiko genduan edarra!*”.



❖ *Mariasun Ubera, 2004an aho-tsak.com-erako egindako elkarrizketan.*

Mariasun Uberak dioenez, “*neskia orduan tailerrera joatia ikusten zan... gaizki. Izaten zan, izango bazan moduan e... fulana estilora edo. Kasi holaxe ikusten zan*”. Baserriko pentsakera zen hori batik bat. Mariasunek uste du baserrian ez zela komeni emakumeak kalera joatea, eta horregatik izango zela.

Etxean asko izanez gero, neskame eta morroi (ikus neskameen atala) bidaltzen zituzten beste baserriren batera. 1930eko padroian adin guztietako neskame baserritarrak agertzen dira: 13 urtetik hasi eta 39 urte bitartekoak.

Herri gehienetan, emakumeentzat aukera gutxi zegoen lantegietan. Maria Aranguren antzuolarra 14 urterako “guarnizionerian” hasi zen lanean, 1936an, bere beste bi ahizparekin batera. Antzuolan, larrutegian joskintza lanetan. “*Gu hiru aizta ibili giñan hor. Orduan ba beste lanik ez zeuan eta danak haraxe. Gu egon giñan 40 bat, neska eta mutil. Beste enpresak, horrek zien gizonenak. Ba kurtiderixak. Neskendako ez zeuan. Eta orduan neskak geratzen zian... ba zerbitzera jun biha zian edo bestela monja*”.

Goi mailako ikasketak orokortzeak ere aldaketa ekarri zuen baserriko bizimodura. Pentsamoldea aldatuz joan zen.



Felisa Eguren Eguren

Postaria

❖ *Felisa Eguren, “Angiozarko korreua”.*

Angiozargo Altzuain (Altzuaran) baserrian jaioa, 1910ean. Ez zuen asko ikastetarik izan, justu-justu irakurtzen eta idazten; batuketak egiten ere bazekien. Iruain (Irigoien) baserrira ezkondu zen, Rufino Ruiz de Eginorekin. Haren ama zen etxe-koandrea, emakume zorrotza, eta ezkonberriak haren esanetara egon behar izan zuen.

Senarra baserritarra zen, eta postari kargua ere bazuen. Baina Felisa zen lan hori egiten zuena. Izan ere, Bergarara joaten zen egunero, esneak partitzera, eta bere gain hartzen zuen posta zerbitzua ere. Udaletxe ondora, berdura-plaza azpira joaten zen posta eramatera eta jasotzera. Langintza horretan zebilen emakume bakarra zen Bergaran. “Angiozargo Korreoa” deitzen zioten.

Rojillo zaldiarekin eta karroarekin joaten zen Felisa Angiozartik Bergarara. Esnea batzen zuen, auzoko guztien marmitak, gero herrian partitzeko. Errekadista lanak ere egiten zituen. Errekaduen porteak kobratzen zituen. Denetik eramaten zuen, eskatzen ziotena: pentsua, Santa Lutzia aseguru etxeko kontribuzioak, bankuko letrak... pertsonak ere bai, batzuetan. Pisu handiak erabiltzen zituen askotan.

Felisak eta Rufinok hamar seme-alaba izan zituzten. Ganadua, baso lanak eta ehiza ziren senarraren ardura nagusiak. Aitagarrebarenak, berriz, ardiak. Amaginarrebak etxeko jira eta diru kontuak eramaten zituen. Felisa kanpoan zen bitartean hura eta haren ahizpa ezkongabea egiten ziren umeen kargu, baina bueltan Felisak ez zuen atseden hartzeko tarterik izaten. Baserriko lanak ere egiten zituen: baratzeko lanak, sorokoak...

Seme-alabek ere azkar asko ikasi behar izan zuten baserriko lanak egiten. Alabetako bat hamaika urterekin Felisarekin joaten zen kalera, laguntzera. Felisak diabetesa zuen, eta, sasoi hartan ez zutenez tratamendu egokirik jasotzen, ata-keak izaten zituen sarri. Behin halako atake gogor bat izan zuen alabarekin ze-

goela, eta neskatilak eraman behar izan zuen zaldi-karroa baserriraino, atzean ama aieneka zuela. Felisak harriak zituen besikulan, kolikoak izaten zituen, eta bi koma diabetiko izan zituen. Tifusa ere pasatu zuen. Emakume gogorra zen, bizitzak zaildutakoa. 1984. urtean hil zen¹¹.

Asuntxi Uribesalgori Felisa Egurennek eramaten zion esnea etxera. Lucia Farra sek gogoan du San Antoniora ere joaten zela. “Angiozarko Karteria” esaten zioten. ❖



Maria Argialde Errotaria

❖ *Maria Argialde, 2004an ahotsak.com-erako egindako elkarrizketan.*

Maria Argialde 1917an jaio zen. Labegaraietako Gaztelumendi baserrian adoptatu zuten. Neskatila zela, neskame egon zen Bergarako aberats-etxe batean. Gerra garaian, Gernikan egokitu zen bonbardatu zutenean. Handik itzuli eta Telleriarenean ibili zen zapatagintzan eta Francoren armadarentzako kartutxogerrikoak egiten.

22 urterekin Uberako Bolu baserri-errotara joan zen, neskame. Inazio Askasibar etxejaunarekin ezkondu eta errotari bihurtu zen. Argialdek ogia ere egiten zuen, astean behin. Baita baserriko lanak ere, basokoak barne. Denetik egitea egokitu zitzaion. “*Errotan lana egin bihar zan, eta txandaka egitten giñuan*”. Gauez ere egiten zuten lana: “*Takala-takala-takala. Ohera juaten bazan be, hasten zanian taka-taka-taka...! Ail, hustu da. Levanta. Hustu egin dala garixa ta atzera bete egin bihar dala*”.

Errotan pisu handiekin ibiltzen ziren. Jendeak errotara asto gainean eramandako zakuak, laurogei kilokoak, bizkarrean kargatzen zituen Argialdek. “*Hau-*

¹¹ Felisa Egurenen familiakoek emandako informazioa.

ra zonan ona, haura! Errebentau? Ez giñuan errebentau. Nik etxakiñat zela... Neuk kargatzen nittuan eta. Gizona ez bazeon, neuk kargatzen nittuan. Holako haundixa zanian, gaiñera, alturatxo batera altzau, eta gero handik, daunba! Eta gero handik astora". Abortu bat ere eduki zuela dio, horregatik. "Ez nintzonan fan medikuana be".

Gerraostean, estraperlo garaian, gauez ehotzen zuten, isilpean. "Etortzen zien gabian, gabeko orduetan. Eta gu ixotzen. Txandaka orduan bai egitten giñuala txandaka. Bat lo egittera ta bestia bestekaldera. Txandaka. Ta atia taunba-taunba jotzen... Gurian gizona jartzen zan bihotzekua emoteko moduan. Sustautu. Multia be kendu zoskuen eta". Guardia Zibilak. "Hoge mila pezeta edo zittunan eta, ordurako. Harrapau egin zoskuen eta, etxia errejistau dana!". ❖

Anizeta Agirre ere ibili zen errota-ko lanak egiten, Bolu errotan. Base-rritarrek garia eta artoa eramaten zu-ten erro tara, eta beraiek eho. Alea gal-bahetik pasatu behar izaten zuten. "Dana eskuko lana! Errotara bota or-duko dana galbahetu bihar garixa!". Errotak bi harri zituen, bata azpian eta bestea gaine an, eta haiek pikatu egin behar ziren. Ebaki txikia egin behar izaten zitzaion piketearekin, bestela ga-ria apurtzen zuen. Zortzi egunean behin harria jaso eta pikatu behar, irin fina irteteko. Harriak pikatzeko lana kontu handiarekin egin beharrekoa zen: "Piketiak aproposak egoten dia ta kuello haundixakin arraia haundixa egitten bajako, golpe haundixa emo-ten bajako, apurtu egitten dau harri-xa. Ta ebai txiki-txiki bat egin biher izeten jako. Pikete harek egitten dabe ebai oso txikixa, garixa... iriñak fiña ur-tengo badau. Haura gogor jotzen bada, ba, iriña bastua".

Lana eta festa, baserrian

Baserriko auzolanak bazuen festatik ere. Gari ebakitzea eta jotzea auzola-nean egiten zuten, eta orduan afari ederra egiten zuten. Gari joteetan ondo pasatzen zuten Ubera ahizpek: afaldu ostean parranda modukoa egi-ten zuten gazteek, berriketaldia. Mariasun Ubera: "Haxe juergatxua pa-satzearren gari jotera juteko gustora! Bestela... buuuuf. Ondorenian, ba juerga: afarixa, eta hantxe, gaztiak al-karrekin. Juergia edo". Maria Angeles Ubera: "Soinujolia eguan, eta soinu-a jo... dantza egin eta holaxe".

Lide Oregi ez zen baserritarra, bai-na gustura joaten zen "Soldaukua" ba-serrira, gari-joten laguntzera. "Or-duan danak egitten zebe n auzola-nian". Neskek gari-metak ganbarara eramaten zituzten, eta mutilek han jo. Gero merienda ematen zieten. "Seku-lako ambientia, inportantiena hori

zan!”. Artoa aletzera ere joaten ziren. “Guri gustau egitten jakun. Bakizu, batian kantuan eta zerian, artua aletzen”.

Emakume baserritarrak 1930eko erroldan

1930eko erroldan, baserrietan kasu gehienetan senarra nekazari moduan agertzen da, baina emaztea ez: “mis labores”, etxeko lanetan. Emakume ezkonduak, ogibide bati lotuta agertzen direnak, baserri munduan:

Elosun:

- Senar-emazteak nekazari. Gregoria Alberdi (29) eta Valentin Gabilondo (29). 2 ume txiki.

Basalgon:

- Senar-emazteak nekazari. Josefa Lizarralde. Lau alaba ere nekazari. Petra, Josefa, Isabel eta Eugenia Makazaga. Beste alaba bat (23) zerbitzaria. Beatxurtu baserrian.
- Senar-emazteak nekazari (64/60). Alaba bat (28) nekazari eta bestea (20) oihalgile. Oianguren baserrian.
- Senar-emazteak nekazari (36/34). Seme-alabarik ez.
- Senar-emazteak nekazari. 17 eta 15eko alabak eta 14ko semea nekazari. 3 ume eskolan. Untzetazpikoan.
- Senar-emazteak nekazari. Bi ume txiki. Untzetazpikoan.

- Senar-emazteak nekazari. Untzetaginekoan. 6 seme-alaba.
- Senar-emazteak nekazari. Galarragan.
- Senar-emazteak nekazari. Gallastegiazpikoan.
- Emaztea nekazari (Bergara, 30). Senarra armagile (Soraluze, 38). 3 ume eskolan Gallastegin.
- Senar-emazteak nekazari. 24ko semea nekazari. Iriben.
- Senar-emazteak nekazari. Lau ume eskolan. Iriben.
- Senar-emazteak nekazari. 4 seme-alabak eta izeba nekazari. Iñarra baserrian.
- Senar-emazteak nekazari. Alaba Oihalgile, semea nekazari. Iñarra baserrian.
- Senar-emazteak nekazari. 2 ume txiki. Amutxastegi Berrian.
- Senar-emazteak nekazari. 13ko alaba nekazari. 10-9-6-3 urtekoak. Gallastegitorrean.
- Senar-emazteak nekazari. 2 ume. Eguren baserrian.
- Senar-emazteak nekazari. 4 seme-alabak nekazari. Intxuzabal baserrian.
- Senar-emazteak nekazari. 4 ume eskolan. Intxuzabal baserrian.
- Senar-emazteak nekazari. Gaztandolan.
- Senar-emazteak nekazari. 2 ume eskolan. Bergara Etxeberrin.
- Senar-emazteak nekazari. 54 urteko ama nekazari. Seme-alabak:

27koa modista, 26ko mutila nekazaria, 24koa armagilea, 22koa arotza, 19koa harakina, 17ko eta 14ko neskak nekazariak; hiru ume eskolan (9-6-5) eta 3 urtekoa. Bergara Etxeberrin.

- Senar-emazteak nekazari. Lezetan.
- Senar-emazteak nekazari. 4 ume txiki. Lezetan.

San Juan:

- Senar-emazteak nekazari. 3 ume txiki. Iloba (16ko neska) nekazaria. Neskamea (13). Aristizabal.
- Senar-emazteak nekazari. Morroi 1. Arizkarren.
- Senar-emazteak nekazari. 14ko alaba nekazari. 5 ume txiki. Atxotegin.
- Senar-emazteak nekazari. 2 ume txiki. Aita alarguna (66) nekazari. 16ko neskamea. Atxotegin.
- Senar-emazteak nekazari. 3 seme-alaba nekazari. Aita alarguna (77) nekazari. Eleizalden.

San Migel auzoa, Angiozarren:

- Emaztea nekazari. Senarra sarrailagilea. 16 eta 14ko alabak nekazariak. 5 ume txiki, 13tik beherakoak. Loidietxeberrin.
- Senar-emazteak nekazari. 4 seme-alaba: zarrailagilea, neskamea, nekazaria eta eskolan. Zabaletagainekoan.
- Senar-emazteak nekazari. 3 ume txiki. Zabaletagainekoan.

- Senar-emazteak nekazari (Elorrio, 3 urte Bergaran). Semea eta alaba nekazariak. Sagastan.

- Senar-emazteak nekazari. Semea eta alaba nekazariak. Ugar ten.

- Senar-emazteak nekazari. Arraten.

- Senar-emazteak nekazari. Semea eta alaba nekazari. Jauregiazpikotan.

- Senar-emazteak nekazari. 2 semeak nekazari. Altuben.

- Senar-emazteak nekazari. Alaba politikoa eta semea nekazariak. Alaba (26) modista: Rosario Albistegi. 2 ume etxean. Urdingoan.

- Senar-emazteak nekazari. 3 seme eta alaba nekazariak. Iruben.

- Senar-emazteak nekazari. Iribe-koetxetxon.

- Senar-emazteak nekazari. 3 ume. Altunan.

- Senar-emazteak nekazari. 3 alaba nekazari. 14 eta 12 urtekoak eskolan. Morroi 1. Zuluetazpikotan.

- Senar-emazteak nekazari. Seme-alabak: 22ko mutila nekazaria, 21ko jostuna, 17ko neskamea, 13ko neska nekazaria, 14ko mutila nekazari, 3 ume eskolan eta 2 ume txiki. Gorontsarriazpikotan.

3.9. Beste lanbide batzuk

Gizartea aldatuz joan da, eta harekin batera lanbideak. Ondorengo ofizio hauetan ere aurkitu ditugu emakume bergararrak lanean. Lanbide gehien-tsuak galduta daude egun.

Abarketagileak

Abarketak asko janzten ziren sasoi batean. Eta ez bakarrik etxean edo lanlekuan. Udan kalean ibiltzeko edo erromeriara joateko ere oso erabiliak ziren, zuriak batik bat. Mariñe Barrenetxea-Arando: “*Dana alpargatia. Lehenau ez zeuan besteik!*”.

XIX. mende bukaeran Bergaran 320 pertsonak egiten zuten lana abarketagintzan; gizon, emakume zein ume. Modu tradizionalen egiten zituzten, tailer txikietan eta etxe atarrietan. Herrian abarketa lantegia egiteko proiektua egon zen arren, ez zuen aurrera egin. Industrializazioarekin, Azkoiti bihurtu zen abarketen herria. Bergaran, ogibide hori desagertzen joan zen pixkanaka.



❖ *Lide Oregi, 2004an ahotsak.com-erako egindako elkarrizketan.*

Mendearen lehen erdian, hori bai, artean baziren abarketak egitera deikatzen ziren tailertxoak Bergaran. Lide Oregik ezagutu zuen Zubietan bat, oso umea zela, 40ko hamarkadaren hasieran. Bere amamak, Josefa Iturbek, han lan egin zuen: “*Alpargatak egitten zien han. Pio “Legazpi” esaten zotsen, ez dakitt Legazpittik etorritakua edo. Baju baten egitten zeban. Eta gure amamak be egitten zeban baitta. Han ate aurrian etara, eta alpargatak juan zoruak zertzen eta gertatzen*”. Jesusa izeneko emakume bat ere aipatzen du Oregik, amamarekin batera abarketagintzan aritzen zena: “*Benigno enterradorian andria*”.

Auzo berean bizi ziren Barrenetxea-Arando anai-arrebek ere ezagutu zuten tailer hori. Geroago, beste bat egon ei zen, handiagoa. Abarketak bi lan ditu nagusiki: espartzuzko zorua egitea eta oihala jostea. Askotan langintza biak etxeetara ateratzen ziren, eta emakumeek egiten zituzten. Mariñe Barrenetxea-Arandoren arabera, “*abarketagilliak bazien, bi bai behintzat. Pio Legazpi, eta bestia zela zan? Gero ya tailerra egon zan abarketak egittekua. Haura ya tailerra, baina bestiak eskuz*”. Erritxe Barrenetxea-Arandok ere gogoan zituen: “*Sarrittan umetan begira egoten nitzan, zela zertzen zeben. Eta gero gure izeko batek egitten zittuan zoluak. Egitten zittuan zoluak, alpargeten zoluak. Itxuria, emon egingo zittuen etxerako, lana egittekko. Eskuz egitten zeben. Nik ez neban telia josten ikusten, baina zoluak egitten bai*”.

1930eko erroldan Eugenia Gantxegi (ezkongabea, 66 urte) “alpargatera” dator, Masterrekan.

Arropa-garbitzaileak, “lixiberak”

Hainbat labadero publiko egon zen Bergaran, lixiba egiteko. Miren Azkarate ez zen inoiz joan leku horietara arropa garbitzera, eta bere ama ere ez. Etxean garbitzen zuten arropa. Baina labaderoak ezagutu zituen: “*Hor Frontoi onduan zeuana, haundi bat, ta gero ospittal inguruan zeuan beste bat. Zabalotegin, mojetan onduan zeuan beste labadero bat be bai. Horrek ezautu egin nittuan. Baiña han ya jentia lanian garbitzen-eta hola... ez dot uste ya*”. Baserrietan eta auzoetan gehiago erabiltzen zituzten. Elisabet Agirrezabalek bai, gogoan du auzoko emakumeak San Antonioko labaderora -orain kapila dagoen tokian zegoen- joaten zirela arropa garbitzera. Euren etxean, Aurea ahizpa joaten zen labaderora. “*Batzuk erre kara juten zien*”.

Sasoi batean baziren “lixiberak”, inorendako arropa garbitzen zuten emakumeak. Aberatsentzat, normalean. Agirrezabalek dioenez, San Antonion bakoitzak berea garbitzen zuen. Azkaratek ere ez ditu lixiberak ezagutu, baina etxean entzunda daki bere birramonak eta birraitonak langintza horretan jardun zutela. Familia dirudunen arropa garbitu ohi zuten. “*Nere amandria; amandria ez, bisabuela. Baiña garbittu egitten ei zeban gizonak. Han errekan; orduan erreka garbi-garbixa ei zetorren. Loïnak eta hartzen zittuen. Zuurtin bizi zien [Zubiurruti, Ozaeta auzoa]. Eta harek zeuken, etxe batzuk zeuzken kalian, notarixuaneko etxia ta ez dakit zeïnen etxia, erropak garbitzen zotsenak*”.

Azkarateren birraitonak errekan garbitzen ei zuen arropa, eta amonak plantxatu eta entregatu, astoarekin.



❖ *Bi emakume arropa garbitzen labadero batean, 1946an.* Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa

“*Seguru asko, pentsatzen dot amandria etorriko zala astuakin edo erropak eruatera Zuurtira, ta aittajaunak, nere bisabuelo, errekan garbitzen zittuala erropak. Gero amama edo bisabuelak plantxauko zittuan, eta gero entregau etxetara*”. Arraroa da, normalean gizonezkoak ez baitzebiltzan langintza horretan. Emakumeak ziren arropa garbitzen zutenak.

Emakumeak ere ibiliko ziren Bergaran lan horretan, baina guk ez dugu ofizio horrekin lotutako testigantzarik jaso. Antzuolan bai, ordea. Juliana Aranguren antzuolarrak ezagutu zuen enkarguz arropa garbitzen zuen emakume bat: “*‘Antoni Lixiberia’ esaten gontsan, eta albergia etxia baiño harutzatzuao zeuan orduan, eta hantxe jotzen zittuan. Nik ez dakit, hamabost bat eguneko izarak edo ze egongo zian. Lehengo izarra gogor, ehunezko izarra gogor harek-eta. Eta haretzek garbitzen zittuan. Danetara ez zan juten, baiña hola esandako tokittara jun egitten zan haura, eta berak egitten zittuan garbittasunak*”.

Lisatzailleak

Lehenago baziren kanporako plantxatzen zuten emakumeak, “plantxadorak”. Miren Azkaratek dioenez, Beheko Kondearen etxean dontzeila moduan lan egindako neska bat, lorazainaren alaba, Cristina Etxaniz, plantxatzailea zen. Ez zen bakarra. “Beste bat be bai, hortxe Guenkalian bizi izan zan. Harek be plantxan egitten zeban. Solteria zan haura. Gregori”. Mojek ere jarduten zuten sasoi batean: “Ta gero plantxan hola, ailletzatzen zienian komuniuak eta hola, gero ko urtetan, Moja Zaharrrak egitten zeben. Baten batek lagatako erropia izaten zan, komunioko erropia. Eta haura garbittu eta plantxau ta berriztu, ta beste baten-dako izaten zan”.

1930eko erroldan plantxatzaile baten izena agertzen da: Dolores Epelde Irizar, 33 urtekoa. Bere ama alargunarekin bizi zen, Bidakruzetan.

Koltxonerak

Koltxoi modernoak ez ziren zabaldu 1960ko hamarkadara arte. Aurretik artilezkoak izaten ziren, artamalu-tazkoak ez zirenean. Artilea trinkotu egiten da denborarekin, koltxoia gogortu egiten da eta, urtean behin gutxienez, zorrotik atera eta jo egin behar izaten da artilea, harrotzeko. Eta baziren lan hori egitera dedikatzen ziren emakume profesionalak, “koltxonerak”.

Asuntxi Gallastegik pare bat ezagutu zituen. Bata Frontoian bizi zen eta bestea Zubietan: “Gure etxera Zubittako hori etortzen zan. Eta he-

men Frontoikuai be “koltxoneria” esaten zotsen. Etxera etortzen zien. Soltau ta josi. Etara lana guztia ta makkilekin jo. Harrotu. Ni akordatzen naiz, Zapatarikuan”.

Asuntxi Uribesalgok gutxienez hiru ezagutu zituen, bat Zabalotegin, beste bat Artekalen eta beste bat Goenkalean. Eta kalean egiten zen lana: “Zabalotegin, eta gero ‘por ejemplo’ Guenkalian, oin mobimentu gehixao ibiliko da baiña orduan gitxiao, ta hantxe jotzen zittuen. Hartu hola bixkarran, ta eruaten zittuen”.

Lucia Farrasek ere ezagutu ditu auzoan, San Antonion: “Hamen San Migel kalian zeren bi; bat Etxaniz, koi-ttaua, zenbat koltxoi egin ete zittuan. Eta beste bat, Errasti”.

Trapu-biltzaileak

Trapu zaharrak bildu eta “birziklatu” egiten ziren, oraindik berba hori existitzen ez zen garaian. Emakumeak izaten ziren askotan lan hori egiten zutenak, “traperak”.

“Matilde Traperia” oso ezaguna izan zen: Matilde Gomez. Santander aldetik etorritakoa zen familiarekin. Ondo ezagutu zuen Lucia Farrasek, San Antonion bizi baitzen: “Matilde Traperia, famosia. San Migel Kalekua hori be. ‘Chica guapa, bonita’, eta mutillei be edozeini. Eta ‘auto-stop, la primera que inventó’”. Irabazi ahal gastatzen ei zuen, zurruta gustatzen zitzaion eta. Ezkondua zen, baina bera ei zen negozioaren ardura-duna.

Asuntxi Uribesalgok, berriz, dio “Nieves la Trapera” esaten ziotela den-

da baten jabeari. Nieves Fernandez zen. Asuntxi Gallastegik beste bat ere aipatzen du: “*Beheko Estaziñuan bizi zan ‘Traperia’ esaten zotsena*”.

Errekadistak

Errekadistak oso inportanteak ziren sasoi batean. Administrazioaren aurrean gestioaren bat egin behar zela hiriburuan, edo norabait pakete bat bidali edo nonbaitetik ekarri, erreka-distarekin harremanetan jarri eta bera arduratzen zen. Hainbesteko bat ordaintzen zitzaion, “portiak”, eta kito. Errekadista bakoitzak bere hiriburua izan ohi zuen: Donostia, Bilbo edo Gasteiz.

Emili Egiluz urte askoan ibili zen errekadista. Bilboko atzera-aurrera egiten zuen, trenez. Aitarengandik etorri zitzaion ofizioa Emiliri. Aita gaitoxotu zenean, anaia hasi zen. Baina hark ere utzi behar izan zuen osasun arazoengatik, eta harrezkero Emili ibili zen. Goizean joan eta arratsaldean itzultzen zen. Iluntzean, etxeetara banatzen zituen errekaduak. Asuntxi Uribesalgok ondo ezagutu zuen, aldamenean bizi baitzen. “*Neska majia. Gero beroi ibili zan, Emili. Karruakin eruaten zebe estaziñora, ta gero trenian juaten zien. Ta, klaro, gero Maltzagan egin bihar ziñuan aldatu bes-te trenera. Oseake nahikua zeuken paketiekin. Ezta oingo moduan furgo-netan sartu eta juaten diela*”.



❖ *Taldea Gorlako iturrian, 1943an. Emili Egiluz errekadista ere badago (eskumatik 2.a izan daiteke).* Bergarako Udal Artxiboko bilduma, Arantza Arana Ormaetxea

Arrain-saltzaileak

Arrandegiak baziren Bergaran, baina "arraindunak" (hala esaten zaie Bergaran arrain-saltzaileei) kalez kale eta auzoz auzo ibiltzen ziren. Buruan otarra hartuta aspaldiko denboretan; esku-gurdiz, zalgurdiz edo furgonetaz, geroago.

Elisabet Agirrezabalek gogoan du zela ibiltzen ziren saskia buruan: *"Buruan hartu zestua ta etortzen zien San Antoniora be bai. Kanpotarrak ez, Bergan bertan bizi zienak"*. Lucia Farrasek hainbaten izenak eman ditu: *"Emakumiak karruakin Angiozarraiño ta Antzuelaraiño, ta karruakin. Bazauan bat, gure etxepian bizi zan. Marina, Manuela? Arrese, "Kapaiñana" esaten zotsen. Gero beste bat Martokuan, Carmen. Haura zan Ber-*

meokua, "Carmen la bermeana". Gero honek Moreno honek, oin be peska-derixia daukenak, horren amandria ibiltzen zan. Gero Txabeanequak, harek furgonetiakin ibiltzen zien ama ta semiak".

1938ko *Contribución industrial y de Comercio* delako udal-zerga kontsultatu dugu, eta bi arrain-saltzaile bakarrik ageri dira postuarekin merkatu-plazan: Manuela Blazquez Jimenez eta Elena de Pedro Piñero. 1950an, berriz, sei: Edelmira Lijo Perez, Maria Aranbarri Lersundi, Lucia Aranbarri Lersundi, Carmen Lekuona Zulueta, Emilia Moreno Blazquez eta Ines Mercader Oiaguren. Ikusten da tarte horretan asko gehitu zirela emakume arraindunak. Arrain postua zutenak kalez kale eta auzoetan saltzen ere ibiltzen ziren askotan.



❖ *Arrain-saltzaileak kalean, etxez etxe esku-gurdiarekin, 1947an.* Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa. Egilea: T. Jauregi



Blazquez-Moreno, arraindunen familia

❖ *Manuela Blazquez eta senarra, Juan Moreno.*

Manuela Blazquez Jimenez (1891-1981, Cuevas del Valle) Avilatik Eskoriatzara joan zen bizitzera, senarrarekin batera; hark, Juan Morenok, trenbidea eraikitzeko lanetan ziharduen. Eskoriatzatik Bergarara joan ziren gero, eta arrain eta itsaski banaketa familiaren jarduera nagusi bilakatu zen. Gutxienez 1938rako Manuelak arrain postua zuen Bergarako merkatu plazan.

Manuelaren seme-alabek hartu zuten amaren lekukoa. Artean umeak zirela, Paco eta Juanita Morenok etxez etxe eramaten zituzten amaren arraindegiko enkarguak, Bergaran. Primitiva Morenok 15 urterekin Ondarroan porturatutako arraina eta itsaskiak banatzen zituen Debagoienean. Bergaran ez ezik, baita inguruko herrietan ere. Emilia Moreno, berriz, postuan egoten zen (haren ize-nean zegoen 1950. urtean).

Primitivaren semeak jarraitu zuen familiako negozioarekin, Joxe Gaunak. Miren Elorriaga emaztearekin batera, arrandegia zabaldu zuten Toki-Eder kalean.¹²



¹² Informazioa: <http://goiena.net/blogak/itxaseder/doc> webgunetik, jada desagertua.

4.1. Emakumea politikagintzan

Politika dute lanbidetzat gaur egunean hainbat emakumek. XX. mende hasieran ez zen hala. 1925. urtera arte, politikagintzan ez zen emakumerik izan: Euskal Herriko lehenengo emakume zinegotziak Josefina Oloriz eta Carmen Resines izan ziren, Donostiako Udalean. 1929an, Oloriz Donostiako alkateorde bihurtu zen. Primo de Riveraren diktadura garaian gertatu zen hori, eta aukeratuak alderdi bakarra zen Unión Patriótica-koak ziren. Espainiako gobernuak orduan eman zituen lehen pausoak emakumearen eskubide politikoen errekonozimenduan. 1925ean emakume ezkongabe “emanzipatuei” eta alargunei boto eskubidea emateko legea onartu zuten. Ezkonduak eta euren kontura bizi ez ziren emakume ezkongabeek, ordea, ez zuten eskubiderik. Aitaren edo senarraren menpe zeuden. Esan beharra dago, hala ere, ez zela hauteskunde demokratikorik izan, eta ezin izan zutela aukera hori baliatu.

Horrenbestez, Bergarako emakumeek ez zuten bozkatzeko aukerarik izan II. Errepublika iritsi zen arte. 1931ko abenduan onartu zuten emakumeen sufragio eskubidea, eta händik urte bira jarri zen praktikan. Izan

ere, II. Errepublikako lehen hauteskundeetan, 1931ko ekainean, emakumeek ezin izan zuten parte hartu. Sufragio pasiboa soilik onartu zen: emakumeak hautagai izatea, alegia. Hauteskunde haietan hiru emakume aukeratu zituzten: Margarita Nelken, Clara Campoamor eta Victoria Kent, hirurak ezkertiarak.

Euskal Autonomia Erkidegoan 1933ko azaroaren 5ean eman zuten bozka lehen aldiz, gizonetzkoen pare, 23 urtetik gorako emakumeek. Euskal Estatutuaren erreferendumean, hain zuzen ere. Boto eskubidearen onarpenarekin batera, emakumeei zuzendutako mezuak hasi ziren agertzen. 1933ko azaroaren 19an ospatu ziren hauteskunde orokorretan, talde politiko guztiak saiatu ziren emakumeen onespena eskuratzen. Zerrendetan lau emakume aurkeztu ziren: Pilar Karrera, Dolores Ibarruri, Maria Rosa Pastor eta Julia Alvarez. Emakumeak beren lan eskubideak, eskubide zibilak eta politikoak aldarrikatzen hasi ziren. Esparru horretan bi izen nabarmendu ziren: Dolores Ibarruri “La Pasionaria” diputatu komunista eta Federica Montseny anarkista, Estatuko historian ministro kargua izan zuen lehen emakumea.

II. errepublika garaian emakume talde dezente sortu ziren alderdi politikoei lotuta. Ezagunena EAJren Ema-



❖ Ezkerrean, emakumea bozka ematera animatzen duen 1936ko kartela, Frente Popularraren aldekoa. Eskuman, Eibarren emakumeak lehen aldiz bozkatzeko, 1933ko azaroan, Euskal Estatutuaren gaineko erreferendumean Indalecio Ojanguren

kume Abertzale Batza da. Dena dela, Errepublika garaian ere oso gutxi izan ziren udaletan karguak izan zituzten emakumeak. Errepublikak ez zuen asko iraun, eta gerrak dena hankaz gora jarri zuen. Francoren diktadura garaian, berriz, emakumea etxera bidaltzeko politikak jarri zituzten abian. Eta lege aurrerakoiak bertan behera utzi. Banaka batzuek ibili ziren politikan. 60ko hamarkadaren akaberan hasi ziren aldaketak, eta emakume zinegotziak trantsizio garaian hasi ziren ugaltzen. Esan daiteke udalerri gehienetan lehen emakume zinegotziak 70eko hamarkadakoak direla. Izan ere, 1976. urtean egin ziren lehen hauteskunde askeak.

Emakume Abertzale Batza: **Emakumeetakoak**

1922an emakumeek ez zeukaten ordezkariarik ez PNVn eta ezta CNV al-

derdian ere. Emakumeak aberriaren aldeko borrokan parte hartu behar zuen ala ez eztabaidatzen ari ziren. Batzuek, Purificacion de Gorostiza Garbiñek eta Karmele Errazti Etxakinek, prentsan idazten zuten, baina oso kritikatuak izaten zen hauen ausardia. Hitzaldietara oso emakume gutxi joaten zen. Urte horretako apirilean, Ambrosio Martin O'Daly irlandarrak emakume abertzaleei zuzendutako hitzaldia eman zuen Bilbon (Elias Gallastegi EAJko presidentearen eskariz). O'Dalyk o *Cumann nan Ban* emakume talde klandestinoari buruz hitz egin zuen: emakume irlandar haiek politikan ez ezik borroka lerroan ere ibili ziren.

Hantxe bertan sortu zen lehen emakume abertzale taldea: *Organización Femenina Euzkadiana*. Irlandarren eredua hartuta, baina alderdi militarra bere egin gabe eta ikuspuntu erlijiosoa gaineratuta. 50 lagunek eman

zuten izena, Gallastegik bultzatuta. Egun gutxiren buruan egin zuten lehen bilera formala, EAB izenarekin. Karnele Errazti (Markina-Xemeingoa) zen presidentea.

EABren sorreran erlijioaren eragin handia nabari da, eta emakumearen papera ere oso tradizionala da: 1. artikulua. *El objeto de esta asociación será la unión de todas las mujeres vascas amantes de Jaungoikua y Lagi-zarra, para difundir por Euzkadi, valiéndose de cuantos medios estén a su alcance y en consonancia con su sexo y condición, la doctrina que en el referido lema se encierra, desarrollando sus actividades e iniciáticas principales, orientadas al aspecto social vasco y de carácter cultural y benéfico*. Helburua: *“Asistir moral, material, patriótica y políticamente, a todos aquellos hermanos nuestros en ideal y raza que lo necesiten. Tratará de aliviar los dolores del necesitado y nivelar el desequilibrio de justicia, mediante la practica de la caridad cristiana”*. EABko emakumeak *“eficaces auxiliares”* direla diote, *“en las funciones propias nuestras, en las que también hay tesón, firmeza y sacrificio”*.

Militarrek desegin zuten EAB, Primo de Riveraren diktadura hastearekin batera, 1923ko irailaren 23an. 1931ko ekainean berregituratu zen, Bilbon, II. Errepublikako sasoian. Eta orduantxe izan zuen indar handiena.

Bergarako EAB 1931ko urrian ipini zen martxan. *El Día* egunkarian (1931-10-05) dator ospakizunen berri. Batzokian *“Abaroa eta babesa”* lana antzeztu zuten, eta hainbat ekitaldi egin zituzten: bandera bedekatu,

dantza saioa, mitina, erromeria... Baina taldea lehenxeago sortu zen. *El Día* egunkariak karguen izendapena zekarren, 1931ko abuztuaren 5ean. Hitzek hitz ekarri dugu hona:

Presidenta: Doña Victoria A. de Oregui

Vicepresidenta: Doña Elisa B. de Mujica

Secretaria: Doña Ana Ch. de Arana

Tesorera: Doña Miren Aguirreolea

Vicesecretaria: Doña Luisa Berasategui

Vocales: Doña María Villar, doña Victoria Oñate, doña Elvira Zabaleta y doña María Errasti

Adierazgarria da emakume ezkonduen kasuan senarren abizena datoze, haien jabegokoak balira legez, eta euren ezkutatu egiten dela: Bittori Aranburu zen lehendakaria eta Anita Txintxurreta idazkaria.

Bergarako EAB 400 bazkide izatera iritsi zen. 1936an, 10.000 emakume zeuden afiliatuta Gipuzkoan. Eibartarrak ziren Deba ibarreko ordezkariak Gipuzkoako batzarretan; Mercedes Kareaga eta Miren Garate. Presidente, berriz, Tene Muxika idazlea zen, Debakoa. Gipuzkoako hizlarien artean, baina, Miren Agirreolea bergarra aipatu behar dugu. Bera izaten zen Bergarako emakumeen izegan hitz egiten zuena.

‘Emakumeen’ jarduera garrantzitsuenetako bat Euzko Ikastola Batza izan zen: euskarazko eskolak sortzea eta andereño lanetan jardutea. Dantza, kantua eta antzerkia ere erakusten eta egiten zuten. Ibilaldiak eta fes-



❖ *Begarako Emakume Abertzale Batzako kideetako batzuk. Goitik behera eta ezker-eskuin: 1. ilaran: Juste Amenabar (3.a), Petra (San Antonio errotakoa) (4.a), Miren Agirreolea (5.a), Anita Azkarate (6.a), Asuntxi Idarreta (7.a). 2. ilaran: Maria Ardatza (2.a), Juanita Zabala (3.a), Luisa Berbelzu (4.a), Isabel Elkoroiribe (5.a), Maria Errasti (6.a). 3. ilaran: Angelita Marco (1.goa), Gallastegi (2.a), Maria Amenabar (3.a), Balbina Idarreta (5.a), Maria Oianguren (6.a). 4. ilaran: Maria Luisa Zabala (1.goa), Luisa Berasategi (2.a), Maria Billar (Lasturritxa) (4.a), Bittori Oñate (5.a), Nieves Zabaleta (6.a). In-txorta taldea. Juste Amenabar*

tak antolatzen zituzten, eta EAJren aldeko propaganda egiten zuten. Kati-xima erakusten zuten. Eta behar-tsuei laguntzea ere beraien zereginen artean zegoen: gaixoak bisitatu eta familia behar-tsuei laguntzea, batez ere Gabonetan, Batzokian prestatutako “kanastillekin”, arropa eta janari otarrakin. Bergaran, Gabonetan 250 afari, arropa lote eta “kanastilla” banatzen zituzten. Gerra hasi zenean, berriz, gudarientzat arropak josi zituzten, eta haientzat janaria ere prestatzen zuten.

Maria Victoria Arizmendik dioenez, honakoak ziren Batzokiko martxa eramaten zuten emakumeak: Amenabar ahizpak, Azkaratenekoak, Ma-

ria Oianguren, Idarretanekoak, Zabalaneakoak... Emakume Abertzale Batzaren burua, berriz, hasieran Bittori Aranburu zen, eta gero Rafaela Ezpeleta, Goenetxe okindegikoa. Gero moja joan zen Ezpeleta.

Florita Idarreta maistra (ikus bere biografia *Maistrak* atalean) astebuka-eretan joaten zen Batzokira, gimnasia eta dantzak ikastera. Bazkideen kuotak jasotzen ere ibilia zen, etxez etxe, Sole Lizarralderekin batera. Miren Agirreolea eta Miren Oregi ere ibili ziren inoiz langintza horretan. Idarretak doktrina erakusten zien umeei, auzo-etan, eta Aranzabaleneakoek gauza bera egiten ei zuten.

Baxili Mendizabal ere emakumeetako zen. Baita Ana Azkarate eta Kar-mele Etxeberria ere. Asko ziren, eta ezin izan ditugu denen izenak jaso. Sasoi hartako argazki batean, 25 emakume ageri dira; Intxorta taldekoek identifikatutakoen artean hauek daude: Petra (San Antonio errotakoa), Anita Azkarate, Asuntxi Idarreta, Maria “Ardatza”, Juanita Zabala, Maria Luisa Zabala, Luisa Berbelzu, Isabel Elkoroiribe, Maria Errasti, Angelita Marko, Gallastegi, Maria Amenabar, Balbina Idarreta, Maria Ojanguren, Berasategi, Maria Villar, Bittori Oñate eta Nieves Zabaleta.

Batzokian antzerki taldea zuten (ikus *Antzerkia* atala, aurrerago). Pilar Murgoitio, antzerki taldeko gainetako neskak bezalaxe, emakumeetako zen. “*Gu beti Batzokikuak izan ga, beti hantxe*”. EAJn afiliatuta zeuden. “*Beti juntetan be urten nitzan ni*”. Mitinetara beti joaten ziren, “*sin fallo*”. Lagun denak abertzaleak zituen. “*Ama be beti egoten zan Batzokixan*”. Antzezlanak ez ezik, kantuan ere asko egiten zuten: “*Neri asko gustatzen jatan kantua be*”. Murgoitio musika ikasi zuen Batzokian, Joxemari “Pizkulin”ekin. “*Eta jostekuak be egitten giñuzen*”.

Antzerki taldeaz gainera, bi dantza talde zeuden Batzokian: mutilena eta neskena. Leku askotara joaten ziren

dantzara. Maria Victoria Arizmendi pospolina izan zen. Baita Elisabet Agirrezabal ere. Gogoan du bere ahizpek umeendako arropatxoak josten zutela, “kanastillak”. Bera dantzak ikastera eta antzezlanak ikusterera ere joaten zen Batzokira, baita meriendatzera ere. EABn emakume asko zirela dio Agirrezabalek: “*Mordua zien, e, mordua*”. Miren Azkarate ere joaten zen Batzokira gerra aurrean, patioan gimnasia egitera. Petra Juaristi ere bai, antzezlanak ikusterera.

Gerra hasi zenean, EABko kide asko ihesi joan ziren. Bittori Aranburu eta bere senarra, adibidez. Maritxu Oianguren irakasle moduan joan zen Belgikara, ume talde batekin (ikus bere biografia *Maistrak* atalean). Bergaran geratu zirenetako batzuek, berriaz, zigortu egin zituzten. Elisabet Agirrezabalen ahizpak, esaterako (ikus ‘emakumeen aurkako errepresioa’, aurrerago).

Gerra hasi zenean, Dolores Altuna Bergaran geratu zen. Anaia aurrera joan zen; gudarien kapitaina izan zen, eta kartzelan egon zen gero. Pilar Murgoitioren etxean inor ez zen gudari joan. Ez politikan gehiegi sartzeko esaten zien aitak. Ez zuten Bergaratik ihes egin, eta arazorik ez ei zuten eduki. Baina emakumetako batek ere ezin izan zuen bere jardunean jarraitu. Isilik eta geldia egon beharra izan zuten.



Bittori Aranburu Urkiola

EABko gidarietako bat

❖ *Bittori Aranburu.* Bidegileak

Urretxukoa zen jatorriz, 1884an jaioa, baina zeresan handia izan zuen Bergarako Batzokiko emakume taldean. Bittori Bergarako EABko lehendakaria izan zen lehenengo, eta idazkaria gero. Bizente Oregi zinegotzi jeltzalea zen bere senarra. Bidakruzeta ka-lean bizi ziren, San Martin plazako ertzeko etxean. Bi seme-alaba izan zituzten: Miren eta Josu Oregi (1919-1995); semea idazle eta kulturgile ezaguna izan zen.

Gerra garaian ihesi joan zen familia. Bittori eta alaba Bordelera joan ziren Habana ontzian, 1937ko maiatzean, eta handik Donibane Lohizunera. Bueltan, Bergaran bizi izan ziren. 1946 urte inguruan, Zubiartea etxea egin zuten Santa Marina elizaren aurrean. ❖



Miren Agirreolea Arana

Emakumeetakoa eta mitinlaria

❖ *Agirreolea Arana familia. 1926 inguruan. Ezker-eskuin, Patxi Agirreolea (jesuita), Juliana Arana Jauregi ama, Marcos Agirreolea, Miren Gurutze Agirreolea (neskatila), Eustaquio Agirreolea aita eta Juana Agirreolea (moja) Bergarako Udal Artxiboa. Eustaquio Aguirreolea fondoa*

Miren Gurutze Agirreolea bergararra politikan nabarmendu zen. Bere aita Eustakio Agirreolea (1867-1952) margolari eta argazkilari ezaguna zen, eta ama Juliana Arana. Familia oso elizkoia zen, eta zinez abertzalea ere bai; Batzokiaren bueltan ibiltzen ziren. 1931ean Bergarako Emakume Abertzale Batza sortu zenean, Miren Agirreoleak diruzain kargua hartu zuen. Mitinlari moduan ere jardun zuen, emakumeen izenean, hainbat tokitan.

Juana Maiztegik ondo zekizkien Mirenen kontuak, lagun minak ziren eta. Juana gaztetxoa zenean, Monzonen etxera elkarrekin joaten ziren biak. “Miren Agi-

rreoleak-eta jenerua eruaten zebeu, eta ni horrekin joaten nitzan hara. Baina joaten giñan sukaldera. Eta han emoten zoskuen pastak. Erak etxian eginddakuak, kozineriak". Eustakio Agirreolearen tailerrean ere egoten ziren, Barrenkalean, hura lanean zebilen bitartean beraiek ere zerbait egiten.

Gerra hasi zenean, Eustakio Agirreolea atxilotu egin zuten. Ondoren, familia osoa Donostiara joan zen bizitzera. "*Eta gehixau ez zien etorri*". Maiztegi gogoan zuen atxiloketa hura, eta gerra nolako kolpe latza izan zen: "*Aitta oso persegiduta izen zan. Detenidu egitten zittuzten, eta haura be detenidu zebeu. 'Con pena de muerte' egon zien. Ez dakit zenbat denbora egin zebeu, zeatik ya zaharra zan. Gero Donostiara jun zien, eta danak hil zien, eta geratu zan bakar-bakarrik nere lagun hori. Miren Agirreolea. Eta joan zan Burgosera monja. Ta oin-txe puntuan hil da*". Aurretik, beste ahizpa batek bide bera zuen egina: moja zen hura ere. Sor Juana karitateko alaba zen Lugon; 1915an joan zen.

Agirreoleak mitinlari moduan egindako lanaren adibide batzuk aurkitu ditugu. El Día egunkarian Orion izandako ospakizun baten berri eman zuten, 1932ko ekainaren 7an: "*En primer lugar salió al balcón el joven versolari Ignacio Arizmendi, que improvisó unos versos muy adecuados al acto, en torno al Estatuto que provocaron grandes ovaciones. En segundo lugar salió a hablar la señorita Miren de Aguirreolea. Esta comenzó saludando en este día de gran felicidad para las emakumes oriotarras, en nombre de las de Bergara. Su discurso, que fue escuchado con gran interés y corroborado en muchos pasajes con grandes ovaciones, versó sobre la posición en que se han colocado los tradicionalistas a quienes hace un llamamiento haciéndoles ver la conveniencia de que voten el Estatuto. Luego hizo un canto a las libertades vascas, de esas libertades que pueden conseguirse mediante la aprobación del Estatuto, que conviene a todos. Terminó su hermoso discurso la emakume vergaratarra con un entusiasta grito de Gora Euzkadi que fue contestado por todos. La señorita Miren de Aguirreolea, que por su energía y por su palabra dulce y penetrante supo adentrarse en el alma de los oyentes, sobre todo entre todas las emakumes que la oían, recibió al terminar su oratoria una ovación grandísima*".

1932ko uztailean Bergarako Batzokiko kideak Sukarrietara joan ziren, Sabino Aranaren hilobia bisitatzen. El Día egunkarian aurkitu dugu hau ere (1932-07-27): "*Tras el responso rezado por el sacerdote, Miren de Aguirreolea lee una sentida súplica y deposita un ramo de flores en la tumba, como símbolo del cariño de nuestros corazones*". 1932ko abuztuan, Olabarriako Batzokia inauguratu zutenean, ere hartu zuen hitza Agirreoleak (El Día, 1932-08-23): "*La simpática y bella Aguirreolea'tar Miren dice que trae el abrazo de las emakumes de Bergara. Demuestra que nuestro nacionalismo no es política, sino vida del pueblo, que por falta de quienes debieron de hacer que viviera, se moría. Pide a las emakumes de Olaberria que formen cuanto antes el EAB, deseando que allá cuando se inaugure su centro, los abertzales asistentes al acto no hablen otra cosa que el euskera*". ❖



Juste Amenabar Gallastegi Emakumeetako eta antzezlea

❖ *Juste Amenabar, frontoian izandako bazkari batean, 1960 inguruan. Udal Artxiboko bilduma, Ana Julia Irigoien Oiarzabal*

Juste Amenabar emakumeetako zen. Oso pertsona ezaguna izan zen herrian, kultur mugimenduan zeresan handia izan zuena. Baita gerraostean ere. Juste Amenabar eta haren ahizpa Maria oso aktiboak izan ziren gerra aurretik Batzokian, dantza eta antzerki arloan batez ere. Gerraostean ere bai, Txomin Amasorrainekin batera, antzerki taldean zein Urretxindorrek kantari taldeari lagutzen.

Antzezle lanetan ez ezik (ikus *Antzerkia* atala), taldeko ordezkari moduan ere jardun zuen. 1935eko urrian Bergarako Emakume Abertzale Batzak antolatutako jaietan, Batzokiko hitzaldiaren aurkezpena Amenabarrek egin zuen (El Dia, 1935-10-18). “*Aurkezpena: Amenabar tar Juste andereñoak labur baña egoki biribildu zigun; eta gogoz txalotu genuen*”.

Amenabartarrak ere ihesi joan ziren gerra garaian, Batzokian ibiltzen ziren beste asko bezalaxe. Miren Azkarateren arabera, gerra aurrean Amenabarrenekoak zapatagintzan ibiltzen ziren: aita eta semea. Gerra garaian haiek hil egin ziren; gerratik bueltan, tailerra berriz ireki eta etxeko alabek jarraitu zuten lanarekin. Justa eta Maria ahizpak ziren arduradunak, biak ezkongabeak. Lane-ko zapatak eta botak egiten zituzten, gizonentzat. “*Asko balio zebe emakumiak zien. Maria Txantxote, Idarretanekuak... horrek danak lagunak zien. Batzokiko lagunak izango zien. Gerra denboran danak igesi egin bihar izan zebe, eta hor ibili zien Franzian eta Belgikan ta... Lekutan! Eta gero ba bueltau zienian jarraitu zebe eren lehengo lanetan*”.

1950ean Industria eta Merkataritza Zerga ordaindu zutenen artean ageri da Amenabar, eta jartzen du joskintza lantegia duela, Masterrekan. Jertseak egiten zituzten. Bere ahizpa Mariak, berriz, tela saltzen duela jartzen du dokumentu horretan. Bergaran hil zen Juste Amenabar, 2008ko martxoaren 9an, 93 urterekin. ❖

Beste emakume talde batzuek

Emakumeen antolaketa ez zen alderdi nazionalistara mugatu. Emakume tradizionalistak ere balore tradizionalak defendatzeko antolatu ziren. Talde ezagunena *Agrupación Femenina Tradicionalista (Margaritas Carlistas* bezala ezagunagoak) izan zen. 1937ko apirilean, margaritek emakume falangistekin bat egin zuten.

Maria Pilar Larrañagak gogoan du nazionalak Bergaran sartu zirenean, lehenengo moroak, gero fletxa beltzak, eta gero falangistak eta erreketek sartu zirela, ilaran. Eta erreketeen aurretik, Bergarako neskak. Margaritak. *“Las voluntarias margaritas, y claro’, harek zien gu baino zaharraguak zien. Les estoy viendo’... eta enbidixia gainera! Txapir dotore eta borla doto-*

re harekin!”. Margaritak kantinera moduan joaten ziren. *“18-19 urteko neskak, neska politak eta dotoriak”*. Ez daki Margaritak asko ziren, baina botereak jarritako abantailak izan zituztela dio. Besteak beste lana ematen zieten.

Círculo Carlista Bidekurutzean zegoen, Batzokiaren ondoan. Karlista asko zegoen Bergaran, eta haiek ere hainbat ekintza antolatzen zituzten gerra aurrean; antzerkiak, besteak beste. Eta baziren karlisten egoitzara joaten ziren emakumeak ere. Baina ezer gutxi dakigu haiei buruz. Lucia Farrasek dioenez, Regina Gabilondo “Gabilondosia” zen karlista nabarmenetako bat.

Ezkerreko tendentzien barruan, emakume sozialistak ere talde ezberdinetan antolatu ziren, *Círculo Fe-*



❖ Eskumako hainbat emakume besoa altxata, Elgetako plazan, 1938ko apirilean. Malabian milizianoek hildako Ruperto Elkorori omenaldia egin zioten. Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa



❖ *Neskatila margaritak, Bergarako plazan, 1936ko abenduaren 9an. José Moscardó generala Bergarara joan zen, eta herriko seme kuttun izendatu zuten.* Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa

menino izan zelarik taldeetariko bat. Aipatu beharreko beste taldea *Acción Nacionalista Vasco* (ANV) emakumeen taldea izan zen, 1937ko urtarrilean sortu zena altxamenduaren kontrako borrokan parte hartzeko. Talde honetan emakumeak nahiko gutxi izan ziren, eta euren ekimena gudarrien arropa eta ikurren osaketa lanera mugatu zen. Bergaran ez zuen talderik izan.

Bergaran, errepublikarrek dezenteko indarra izan zuten. Mujika Ferrereriaren gainean egon zen Centro Republicanoa, Bidakruzeta kalean, eta gero Oilagorra tabernan, Barrenkalean. Alcalá Zamora II. Errepublikako presidentea Bergarara etorri zenean, Lucia Farrasek berak eman zion lore-sorta. Farrasek gogoan du emakume errepublikanoak ere bazi-

rela: Maritxu Lopez “*La Rubia Peligrosa*”, Marina Ilarduia, Pia García, Bakaikoa... Neska ederrak ei ziren. Dantzaldiak egoten ziren egoitzan, eta antzerkiak ere egiten zirela dio Farrasek. Bere aitak erosten zituela libretoak; oraindik etxean dute “*Manitas de plata*” izenekoak. Neskek ere egiten zuten antzerkia: Bakaikoanekoa, Ilarduianekoa, Florentina... ditu gogoan.

Maritxu Lopez “*La Rubia Peligrosa*” 16 urterekin joan zen etxetik. Madril nobioa izan zuen. Ezpainak pintatuta eramaten zituen. Ez zen mezetara joaten. Bergarako erresidentzian hil zen. Maria Diez zuen gelakide; biak ziren erretzaileak, eta mojak ernegatuta egoten ziren beraiekin. Diez gerrako umea zen. Errusian egon zen urte askoan; han hazia, 1956an eto-



❖ *Bergarako errepublikarrak, tartean emakume dezente (Lopez, Bakaikoa...) Intxorta taldea*

rri zen Bergarara. Alderdi komunista-
takoa zen.

Intxortakoek diotenez, Bergarako miliziana bat fusilarekin joan zen Elgetara. Barrenkalekoa ei zen, baina izenik ez dakite. Txapel frantses batekin ibiltzen zen gerora, plazako arkupetan egoten zen; ezpainak margo-tuta eramaten zituen hark ere.

Lucia Farrasen aita errepublikano ezaguna zen: Ramon Farras, Izquierda Republicanako kidea, eta gerra hastean komisario izendatu zuten. Nazionalak sartu baino bi egun lehena-go, irailaren 21ean, familia osoak alde egin zuen Bergaratik. Aita borrokara joan zen, frontera. Ama eta hiru alabak, berriz, Castroko Mioño auzora joan ziren. Baserri batean hartu zituzten; jaten ematen zieten, eta neska-mutikoak behizain ibiltzen ziren.

Handik Cabezón de la Salera joan ziren, han ehun-lantegia zegoelako. Amak bertan egin zuen lana, diru apur bat lortzeko. Handik Ribadesellara joan ziren, eta gero itsasontziz Frantziara. La Rocheletik, berriz, trenetara Kataluniara. Francoren tropak Bartzelonara sartzen hasi zirenean, Mollóra, Frantziako mugara joan ziren kamioietan. Azken zatia oinez egin zuten mendian zehar, elurretan. Muga zeharkatu zutenean, jendarmeei arakatu egin zituzten, eta Fréjuseko kontzentrazio esparrura eraman. Ia urtebete egin zuten han. Ondoren Biarritzera eraman zituzten, eta Biarritzetik Tarbes inguruan dagoen Capvern-era. Etxetik astebeterako irteten zirelakoan, eta ia lau urte egin zituzten hortik zehar. 1936an irten eta 1940an itzuli.

Errepublikanoen artean, Sol, Aurora eta Luz Telleriarte ahizpak ere aipa ditzakegu, denak ere izen “argitsuak”, nahiko ezohikoak sasoi hartan. Vicente Telleriarte zen haien aita, Bergarako errepublikano famatuenetakoa. Izquierda Republicanakoa.

Guda ondoren, emakume nazionalista eta ezkertiarren kontrako errepresioa sistematikoa izan zen. 40 urtean emakume talde batek izan zuen nagusitasun osoa, Sección Femenina taldeak, Falange Españolako emakumeek osatzen zutena (ikus aurrerago). Gerraostean, Auxilio Social ere jarri zuten Bergaran, behar gehien zuen jendeari jaten emateko. Falangeko emakumeak egoten ziren bertan.

4.2. Gerraren ondorioak emakumeen bizitzan

Gerrak ondorio asko eta larriak ekarri zituen herritar denentzat. Gizonezkoak ziren frontera joan ziren gehienak, eta askotan haien ikuspegitik kontatzen da gerra. Baina emakumea izan zen pisurik handiena hartu zuena. Dirurik gabe eta sarritan etxerik gabe, batetik bestera ibiliz, familia osoa aurrera atera behar izan zuen. Askok lana bilatu behar izan zuten.

Hildako emakumezkoak

Gerra sasoiaren hainbat emakume hil ziren Bergaran, errepublikarren hegazkinen egindako bonbardaketetan.

1937ko apirilaren 15ean 57 urteko Dolores Arregi Arrinda San Antonioko zubian hil zen, bonba batek jota; senarra Ondarretan zeukan, kartzelan. Egun berean Algodonera ehun-lantegia ere bonbardatu zuten, eta han beste zazpi emakume hil ziren¹³:

Maria Balenziaga Jauregi. 31 urte
Irene Juaristi Aranburu. 17 urte
Cecilia Goitia Arozena. 19 urte
Eusebia Guridi Erostarbe. 53 urte
Juana Guenetxea Aranzabal. 15 urte
Paulina Garmendia Belar
Clara San Martin

Mariñe Barrenetxea-Arandoren laguna zen hildakoetako bat, Irene Juaristi: *“Nere lagun bat be hil zan. Natalion arrebia. 17 urteko neska gaztia hil zan. Fabrikan lanian diharduala, bonbak sartu eta...”*. Zaurituak ere egon ei ziren: *“Florentxi eta”*. Lau gizonetzko ere hil ziren. Algodoneran hildako zazpi emakumeek nazionalen eskutan zegoen Burgosko Intendentziarako arropa kakia egiten ziharduten une hartan. Ez beraie borondatez; gerra garaian lantegi asko militarizatu egin zituzten. Emakume horietako batzuek senarrak frontean zituzten, errepublikaren aldekoekin.

Zortzi urteko Lucia Loiti Agirre ere gerra garaian hil zen, granada batek jota. Eta 17 urteko Juliana Igarza Loidi ere bai. Bergarako San Juan auzoko Arizkar baserrikoa. Balkoian zegoela, jolasean ari zen soldadu batek botatako balak hankan jo zuen. Zauria gaiztotu, eta Legazpiko ospitale militarrean hil zen 1937ko martxoan.

¹³ Intxorta 1937 taldeak emandako informazioa.

Maria Pilar Larrañagaren lehen-gusina bat, 30 urteko Francisca Ojanguren Iribekanos, fusilatu egin zuten. Angiozarkoa zen, Arrasatera ezkondua, eta hantxe hartu zuten preso. *“Nere lehengusiña bat afusilau egin zeben. Ba beran gizona zan komunista, ‘muy abanzau. Recien casaus estaban, y aquel habia ido para adelante’. Pentsaizu, haura afusilau egin zeben. Donostian afusilau zeben. Eta haren anaia, 19 urtekua, boluntarixo derriorrian eruan zeben, eta gerran hil zan. Etxe batekuak, e, anai-arrebak. Arrasaten kristonak egin zittuen!”*

Angiozar auzoan emakume miliziano bat, posizioa defendatu zuen az-



❖ *Francisca Ojanguren eta haren senarra: Roman Bereizbar. Biak hil zituzten.* Intxorta taldea

kenekoa izan zena, auzotarrek hilik aurkitu zuten. Arrietan, bide bazterrean, Sollube menditik erretiratu ostean. Nongoa zen ez dakigu, nor zen ere ez.

Emakumeak, etzeko ekonomiaaren arduran

Familia asko egoera tamalgarrian geratu ziren. Kasu askotan emakumeak bakarrik zeuden, umeekin, senarrak gerran edo preso zeudelako. Diru iturririk gabe geratzen ziren. Eta lanean hasi beste erremediorik ez zuten. 1937-38ko Langileen Erroldan, lanean eta lan bila dabiltzan herritarrak ageri dira, eta horien artean senarrak eta aitak “ausente” dituztelako lan eske dabiltzan emakumeak asko dira. Batzuek seme-alaba askoko familiak dira. Adibidez, Prisia Sotil, 35 urtekoa, lan bila zebilen, senarra “ausente” zuelako eta lau seme-alaba zituztelako. Gizonen faltan, baserri askotan ere emakumeen kargu geratu ziren lan guztiak.

Batzuek fusilatu egiten zituzten eta beste batzuek borrokan hiltzen ziren. Denboraldi luze baterako kartzelan sartzen zituzten beste asko. Kasu guztietan, emakumea zen familiako ekonomiaaren arduradun bihurtzen zena. Nati Arrietaren aita, adibidez, Donostian eduki zuten preso; ama lau ume txikirekin geratu zen, txikiena lau hilabetekoa. Ama batera eta bestera ibili zen, senarra libre utzi zezaten. Alonso Vega jeneralarengana ere joan zen, arrazoi eske.

Florita Izuskizaren aita gerrara joan zen, 42 urterekin: *“Andria laga, lau seme-alabakin eta gerrara; frentian*

egon zan”. Amak tabernan egin behar zuen lan, eta ume gehienak Elosura bidali zituen. “*Nik 9 urte, bestiak 7 eta gaztena, harek lau urte edo. Haura amakin, hemen*”. Antzuolan ere egon ziren denboralditxo batean, baina ez luzaroan. Nazionalak Bergarara sartu zirenean, erreketek eta militarrek euren tabernara joaten ziren bazkaltera. “*Ekarri zoskuen kozineria. Toni, Bidekrutzian bizi zan. Hor gertatzen zebeñ janarixa. Guk goseik orduan ez giñuan pasau! Ni akordatzen naiz alemanak zela arrautza prijidua ‘bien fritos’ eta dozena bat arrautza bakoi-tzak jaten zebeñ! Eta zerbezak? Kriston atxurrak harrapatzen zebeñ!*”. Kafea egiteko makina kendu nahi zietela dio. “*Tokau zan rekete bat, Aurelio zeukan izena, oso ondo portau zan. Berba egin zebeñ, eta ez zoskuen kendu. Baina pintxe bat zeuan, kristonak paretan eskribitzen zebeñ: ‘Si le pillamos al dueño de aquí, hay que fusilarle’ eta kristonak esaten ibiltzen zan*”.

Florita Izuskizaren aita Asturiasen harrapatu zuten. Eta ama itzultzailearekin joan zen hara: “*Traduktoría eruan bihar! Erderaz ez zekixan, eta Uberako abadiakin joan zan Asturiasko puntara*”. Hainbat kartzelatan eduki zuten preso: Sorian, Santoñan, Bilbon, Ondarretan... Bitartean emazteak berak bakarrik atera zuen aurrera familia. Bere ahizparekin batera egoten zen tabernan. Senarraren izeba batek ere laguntzen zien tarteka, tia Felipak, gertu bizi baitzen.

Lucia Farrasek aita ezagutzeko aukerarik ez zuen izan ia, gerraren eta kartzelaldien erruz. Aitak Frantziara egin zuen ihes, eta han Argelès eta

Gurseko kontzentrazio esparruetan eduki zuten. Muga zeharkatu bezain laster, berriz, atxilotu eta Huescako kartzelara eraman zuten. Handik Barzelonako Modelora, eta ondoren Bilboko Larrinagara. Kartzelatik irten eta urtebetera hil zen, bat-batean, 43 urterekin. Ama alargun geratu zen, berrogei urterekin, eta ez zuen inolako pentsiorik jaso. Alabek ikasketak bertan behera utzi behar izan zituzten, eta lanean hasi ziren.

Ihesaldia

Familia asko etxetik joan ziren, ihesi. Dena utzita. Negozioak, bizibidea... Batzuek arrazoi politikoengatik egin zuten alde, beste batzuek beldurtu egin zirelako eta zenbaitzu bota egin zituzten, euren bizilekuak borrokalekuan zeudelako. Edo milizianoen zein soldaduen babesleku bihurtzen zirelako. Bergaratik 1.200 herritar joan zirela agertzen da Bergarako artxiboko zerrenda batean, baina Intxorta taldekoek uste dute askoz gehiago izan zirela.

Ixabel Belarrek eta bere senideek zazpi hilabete egin zituzten etxetik kanpo. Beraien baserria, Angiozarko Gontzarri, borrokalekuan zegoen, erdi-erdian. Koltxoiak jartzen zituzten leihoetan, balak ez sartzeko. “*Eukitzen giñuzen koltxoiek bentanan ifinitta, balak katiatzeko, baiña hala ta guzti be pasau egitten zien. Eta eoten giñen lurrien etzindda, tirua zanien*”. Euren ukuilura zauritutako eta hildako soldaduak ekartzen zituzten. Eta halako batean etxetik bidali zituzten, fusilekin apuntatuta. “*Etorri zienian, bi llurgarrixa izen zan*”. Senitarteko ba-

tzuen etxera joan ziren, eta gero handik ere bidali egin zituzten, eta Elorrion egon ziren. Milizianoek ardi eta behor gabe utzi zituzten.

Kaletik baserrira joan zen jende asko, babes bila. Benita Unamunoren baserria ere bete egin zen: “*Ume pillia. Gerratian hemen 15 ume egon zien, 13 urtetik beherakuak. Ezta berriketia, e!*”. Emakumeen ardura zen haiek denak zaintzea. Amandrea oso bizia zen, eta hark laguntzen zien. 7 hilabeteen 20 laguni jaten eman beharra izan zuten: “*Zorrak bai orduantxe!*”. Gainera, esnetarako erabiltzen zuten astoa eraman zieten milizianoek. Ondoren, konpainia oso bat izan zuten baserrian: kapitainak, tenienteak, soldaduak... eta haiei ere arrautzak eta esnea eman behar.

Soraluzeko Benita Gallastegi ere ihesi ibili zen. Amarekin eta ahizpa-

rekin. Lehenbizi Bilbora joan ziren, gero Frantziara Habana itsasontzian, handik Valentziara, ostean Bartzelonara... urteak egin zituzten batetik bestera. Lana egitea ere egokitu zitzaion, diru apur bat ateratzeko. Britainan egon zirenean, Cadahisen, etxalde batean ibili zen ilarra batzen eta belar-lanak egiten. 15 urte zituen. Gero taberna batean ere bai, zerbitzen. Irabazten zuen dirua amari ematen zion. “*Eta haura pozik! Kafia erosteko ta, badakizu*”.

Bueltan, Gallastegi ahizpei Soraluzen ez zieten lanik eman nahi. “*Jun giñan danera, fabrika danak. Jun giñan aitzia ta bixok fabrika batera: No-no, no tengo trabajo, eztao lanik, ez, ez’. Jun giñan lan billa, baina iñok ezautu ez*”. Urretxura joan ziren lanera, osaba baten lantegira. Eta gero Soraluzen bertan lortu zuten lana, Al-



❖ Emakume asko bakarrik geratu ziren gerra garaian, familiaren kargu. Irudian, soldadua, bost emakume eta 12 ume, 1937ko maiatzean. Goiko ilaran eskumako 4.a Nicolasa Lazpiur da. Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa

berdi laban lantegian. Benitak 17 urte zituen, eta ordurako makina bat lanetan jarduna zen.

Bueltan, asko etxerik gabe zeuden. Hutsetik hasi beharra izan zuten berriro. Barrenetxea-Arando anai-arrebek diotenez, errequisa asko egon zen: ihes egindakoen etxeak hustu egin zituzten. “*Hartu danak, eta ala! Bueltan etorri zienian gero, etxiak hutsik! Eta erreta bat, e? Etxe bat erre egin zeben. Lehenengo sakeau, eta gero erre. Kondekua. Hementxe. Dana ostu eta erre*”.

Maria Pilar Larrañagak ere gogoan ditu errekisak. Agirrebeña etxean gertatu zena, esaterako: “*Haren etxeko balkoittik trastiak erre kara bota zituzten. Bertara, e, erre kara! Handitxik hartu eta erre kara botatzen. Handik hona etorri zienian geure etxeko ganbaran bizitzen egon zien. Bihako!*”. Ez zuten nora joan.

Lucia Farras eta bere familia etxera itzuli zirenean, etxea hutsik aurkitu zuten. Idazteko makina ere ostu egin zieten. Beraiek etxetik eramandako arropak eta gauzak, berriz, batetik bestera ihesi zebiltzala galdu zituzten. Amandreak aitaren paperak desagerrarazi behar izan zituen, baina Perez Galdósen “Episodios Nacionales” bilduma osoa salbatu zuen, la-torrizko kaxetan ortuan lurperatuta.

Ihesi joan ez zirenei ere hainbat objektu kendu zizkieten. Erreketeez idazteko makina eta irratia kendu zizkietela dio Elisabet Agirrezabalek. “*Eta aittak urten zotsen eskilarara: Les advierto a ustedes que esos elementos que llevan no son de mis hijas, son mios*”. Alabak emakumea-

koak ziren. Monzonen etxean erreki-satutako gauza mordoa zegoen, eta aitari handik nahi zuena hartzeko esan zioten, gero. Baina beraien gauzarik ez zegoen han, eta ez zuen ezer hartu.

Emakumeen kontrako errepresioa

Emakume batzuei ilea kaskamotz moztu zieten. Miren Osak dioenez, bere senarraren (Luzio Urzelai) izebak ezkutatuta egon ziren gerra garaian. Marta eta Kontxita Aranberri. Ilea zerrora moztu zioten Kontxitari, Osintxun. “*Erreketiak edo ez dakit zeintzuk etorri zian, haretxek*”. Luzioren aita auzoalkate nazionalista zen, eta hura preso eraman zuten, Donostiara; justu-justuan libratu zen fusilatzetik. Ama bakarrik geratu zen etxeko dendan, eta burua galdu ei zuen. Luzio amonaren etxera eraman zuten, Segurara.

Maria Pilar Larrañagak ere gogoan zituen kaskarra moztutako beste batzuek: “*Ene, kaskarra moztuta dao? Nik ezautzen neban, hemen Belengo baserri hontako neskia, Estefani, una chica guapisima. Pero claro, tenia dos hermanos que estaban en el frente. Pues le llevaron ahí. Y luego otra, Zizili, que es de Zubiaurre... chicas bien guapas, pero*”.

Intxorta taldekoek beste batzuen berri ere eman digute. Osintxun Filomena Gallastegiri ere moztu zioten ilea. Klean, berriz, Ana Txintxurretari eta Norberta Ezpeletari. Ilea moztu, eta errizino olio eman zieten. Eta ez hori bakarrik, atxilotu eta kartzelaratu egin zituzten.




❖ Ana Txintxurreta Jauregi (ezkerretik 1.goa), bere familiarekin: Isabel Jauregi ama (2.a), Martin Arana semea (3.a), Elisabete Arana alaba (4.a, zutik) eta Damian Arana senarra (eserita). Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa

Ana Txintxurreta Emakume Abertzale Batzako idazkaria zen. Senarra ere EAJkoa zen, Damian Arana; hura atxilotzera joan ziren, baina gizona gaitxo zegoen, bihotzeko arazoekin, eta ezin izan zuten eramane. Emaztea hartu zuten haren partez. Juana Maizte-gik hala kontatzen zuen atxiloketa nola gertatu zen: “Gure beheko... bizi zan andria zan nazionalistia. Eta Monzon ezkondu zanian be haura jun zan ‘con un ramo de flores ta... un poco destacada’. Eta goiz baten, gure aitta joaten zan, ortua zeukagun, eta goizao jaiki, seirak aldian edo jaikitzen zan eta joaten zan ortura. Eta atia eragi zebanian, ‘se encontro con...’, ez dakit zenbat zien. Txapia zeuken hola, ‘una chapa dorada. Y eran los que se dedicaban a detener y a matar’. Eta gure

aittak ikusi zittuanian sustau egin zan. Eta gero zan beheko andria, detentzera etorri zien, kotxe baten sartu eta eruan zebe ‘a la calle San Miguel. Es una calle estrecha-estrecha’. Eta pentsau zeban ‘que le iban a matar. Ella que se queria confesar’. Eta kasoik pe ez. Eta han hartu zebe beste bat. Beste andra bat. Eta gero eruan zittuen, eta ez zekixen nun zeren, baina bateon baten bittartez enterau zien Donostian zeuala. Eta oso delikadia zeuan. Ez dakit zenbat denborra egin zeban, eta gero ya ekarri zebe”.

San Migel kalean atxilotu zutena Norberta Ezpeleta Leturia zen. Senarra UHPko milizianoa zuen, Blas Unamuno. Ezpeletak zazpi hilabete pasatu zituen kartzelan. Haren senarra, be-



❖ 1937an Anita Txintxurretak bere seme Martintxori Ondarretako kartzelatik idatzitako eskutitza, mutikoaren zazpigarren urtebetetzean.

rriz, hil egin zuten. Intxortakoek jaso dutenez, Kanpazarreko borroketan zauritu zuten, 1937ko apirilean; anbulantzian Elorriorako bidean zihoa-zela, denak harrapatu eta bertan hil zituzten.

Lucia Farrasek dioenez, gerraostean Ramona Arruabarrena ere Bergarako espetxean sartu zuten. Orduan ezagutu zuen herriko kartzela Luciak, bisitara joanda.

Elisabet Agirrezabalen ahizpak Batzokian ibiltzen ziren gerra aurretik. Han aurkitutako zerrenda bat zela eta, zigortu egin zituzten. Rosario eta Aurea afiliatuak ziren, eta bi ahizpak zigortu zituzten, baina Rosario gehiago. “Zaharrena horretxeatik izan zan kastigadia, oso kastigadia”. Gerra garaian soldaduen uniformeak garbitzen eduki zuten egun osoan: “Angiozarko

bidian ipini zeben deposito bat, eta haura gaixotu hantxe egin zan. Etor-tzen zan zorritz jositta. Zikinkerixia... Jateko gogoik be ez zeban eukitzen. Haura izan zan tristia, el”. Zortzi edo bederatzi emakume eraman zituzten horrelako lanak egitera. Trini Agirre-beña zen zigortuetako bat. Etxetik atera gabe egoten ei ziren Agirerrezabal ahizpak, batez ere Rosario, frontera bidaltzearekin mehatxatu zuten eta: “Etxetik be ez zeban urtetzen koittaduak, billurrakin”.

Maria Pilar Larrañaga akordatzten da emakume batzuek nora joatera derrigortu zituzten: “Gaztelu azpikaldian etxe haundi bat dao, dao zerria. Hor ipini zittuen labaderuak eta duxtak soldauendako-eta garbitzeko. Tenian que ir ahí a hacer los trabajos, las limpiezas y las cosas de

esos'. Soldauak lagatzen zittuen erro-pak garbittu eta gauzak egittera. 'Obligaus', e!''.

Lucia Farrasen arabera, hainbat emakume derrigortuta eduki zituzten Sección Femeninaren egoitzan lanean, Monzonen etxean. Arretxe abadearen arrebak nazionalistak ziren, baina josten erakustera behartu zituzten. Aurea eta Rosario Agirrezabal ahizpak ere behartuta ibili ziren lanean hantxe.

Larrañagaren osaba desterratu egin zuten, politika kontuengatik. Legorretan zegoen, eta ezin zuen Bergarara itzuli. Emaztea bakarrik geratu zen, hiru seme-alabarekin, Angiozarren. "Gizonak trintxerak egittera moduan, nere tia etxeko idixekin mendira eruaten zeбен muniziñua eruatera. Harek umiak bakarrik laga etxian, bihako laga! Eta burdixa hartu, eta mendira ganauakin tia. Gizona ez zaon, desterrauta zeuken. Eta hoixe egin zotsen. Nere tiak gabero-gabero eruan biha izaten zeban muniziñua ba esaten zotsen lekura. Hara edo hona. Zelako billurrak pasau ete zittuen! Orduan personia hiltzeko ezebe ez zan bihar, e!''.

Isunak ere jarri zituzten. Juana Maiztegiren aitari, besteak beste: "Para el Tesoro Nacional esan, eta dirua kendu". Elisabet Agirrezabalen familiari ere berdin: "Ipini zoskuen kuotia. Zela ipintzen zeban? Donativo. Donativo moduan, eta multia zan, e!''.

Bergarako hainbat emakumeri bahitu zizkieten ondasunak. Besteak beste hauei (Intxorta taldeak emandako informazioa): Bittori Aranburu Urkiola, Maria Diez Sánchez, Maria Escalante López, Concepcion Gabi-

londo Barros, M^a Josefa Ganuza Lar-dizabal, Plácida García Jimenez, Dolores Gorriti, Concepcion Ortiz de Urruela, Juana Palmira Alvarez eta Maria Urkizu Zurbano.

Gerrako eta gerraosteko ekonomia

Gerra hasi zenean, lantoki gehienetan lana gutxitu egin zen. Lehengaiak falta ziren, eta ehun-lantegietan ezin zuten normal lan egin. Hori bai, lantoki batzuetan orduantxe hasi ziren emakumeak lanean. Izan ere, gizonetakoak gerrara joanda zeuden, eta haiek ordezkatu zituzten.

Maria Aranguren antzuolarra uhalgintzan hasi zen lanean, 1936an, Antzuolan bertan. Olanar narru lantegian. Gerra amaitu zenean, lana ere amaitu egin zen, eta neska gazte asko lanik gabe geratu ziren. Guarniziorriako lana amaitu zitzaizenean, neska asko moja sartu zirela dio Arangurenek, etxean traba ez egitearren.

Gerraostean, errazionamendua jarri zuten. Ezin zen nahi beste janari eduki etxean. Asko dira sasoi hori ondo gogoratzen dutenak, oso berandu arte iraun baitzuen. 1939tik 1952. urtera bitarte. 1941 urterako etorri zen gosea. Barrenetxea-Arando anai-arrebek diotenez, jende asko gaixotu zen gerraostean, janari eta garbitasun faltarengatik. Tuberkulosi kasu asko zeuden.

Denda izan zuten Mariñe Barrenetxea-Arandoren hitzetan, "gerra ostian falta zan dana. Diruik ez zeuan, eta jeneroik pe ez zeuan. Ezebez. Eskerrak basarrikuak zeukenei esnia eta



❖ Maria Aranguren, 2005ean ahotsak.com-erako egindako elkarrizketan.

gero morokilla". Patata ere baserriren batetik ekartzen zuten. "*Gero etorri zan estraperlua, eta orduan ya errezaio. Pagauta ondo, baina etxera ekartzen zotsuen jenerua. Kafia ta olixua ta*". Emakume batzuek ere ibiltzen ei ziren estraperlo kontuetan: Nikola eta Xixili. Katalintxo izeneko batek ere edukitzen ei zuen estraperloko irina.



❖ Mariñe Barrenetxea-Arando, 2003an ahotsak.com-erako egindako elkarrizketan.

Baserrian kupoa jarri zuten: uzta- ren zati bat udaletxera entregatu beharra. Garia, babarruna, patata... Ixabel Belarrek dioenez, gariaren zati bat Bergarara eramaten zuten; asto- arekin joaten ziren, eta erraziona-

mendua ekartzen zuten bueltan: olio- a, azukrea, garbantzua: "*Gauza haundirik ez, astuan lekua geratzen zan onddiok. Ba... olixua ta, beste azukar apurren bat eta. Asko ezin ekarri, ez euen!*".

Guardia Zibila baserrietara joaten zen miaketak egitera, askok gariaren zati bat ezkutatu egiten zutelako. Benita Unamunoren baserrian guardia zibilei askotan eman zieten jaten, eta lotan ere geratzen ziren batzuetan. Errotara ere isilpean eramaten zuten garia askok, ezin baitzen eho. Unamunok ere isilpean eramaten zuen garia errotara, astoan: "*Ibilera negargarrixak*".

Gerraostean, jakiak ez ezik beste produktu batzuk ere urritu egin ziren. Telak lortzea, adibidez, ez zen erraza, Lide Oregik dioenez: "*Tela fabrikak bai, baiña bakarrik egoten zan zurixa, izarendako, eta azula. Bestelako telaik, nik uste dot, nik entzunda amai zail- lla zala orduan...*". Asuntxi Uribesal- goren arabera, telarekin ere izaten zen estraperlorik. Inspektoreak joaten zi- renean, Txaraneko dendatik beraie- nera eramaten zituzten jositako arro- pak.

Gose garaian gertatu zitzaien pa- sadizoa kontatu zigun Maria Pilar Larrañagak. Gauez patata ostu zieten, baratzetik. Ama alarguna zen, eta sei seme-alaba zituen. Goizean aman- drea ortura joan zenean, patata guz- tiak eraman zituztela konturatu zen.

Gerraostean, kaleko jendea base- rrietara joaten zen tripa-truke lan egitera. Gosea berdintzeko.

4.3. Frankismoaren ondorioak

Etzetan soldaduak hartu behar izan zituzten, derrigortuta. Maria Pilar Larrañagaren etxean bi italiar izan zituzten. Erreketeak eta soldaduak ere egoten ziren. Amari ate osteko txorizo denak jan zizkioten, akordatu orduko. *“Gerra denporan esaten dotsuena egin biha dozu, hor ez dao bueltaik, eta personak, etxera bialtzen dotsuen personei be lekua egin bihar”*. Maria Victoria Arizmendiren etxean ere bi soldadu hartu behar izan zituzten. Baita Elisabet Agirrezabalen etxean ere. 15.000 soldadu inguru igaro ziren Bergaratik; Bizkaiko ofentsibarako toki ona zen. Intxortako frontea hor egon zen hilabeteetan, Bergara soldaduz beteta egon zen. Eta batzuek bertan geratu ziren.

Euskararen kontrako jarrera nagusitu zen. Mariñe Barrenetxea-Arando: *“Barrenetxeatar Rosa Miren. Jattetxea eta jattetxea’ zeukan jarritta [izebak]. Dana euskeraz”*. Nazionalak sartu zirenean, kartela kendu zuten. *“Euskera usainik pe ezeben nahi, e? Zeuken gorrotua euskeriandako. Euskeria eta abertzaletasuna bat egitten zittuen”*.

Eskoletan umeei *Cara al sol* kantaraztea ohikoa bihurtu zen. Eta ikur frankistak ere bai. Francoren irudiak jarri zituzten non-nahi, baita lantegietan ere. Algodoneran, esate baterako.

Jada aipatu dugu Francoren diktadura garaian lege aurrerakoi asko bertan behera utzi zituztela. 1938an ezkontza zibilak debekatu zituzten, eta 1939an dibortzioaren legea aldatu zuten. Lanarekin lotutako legeak ere



❖ *Algodonerako langileak 1940 urte inguruan, ospakizun batean, jangelan besoak altxatuta Francoren argazkiari begira.* Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa

egin zituzten. Emakume ezkontuek ezin zuten senarraren baimenik gabe lanik egin (ikus *Familia eta Lana* ataleko *Ezkontu ostean lana egitea*). Ezkongabeak izanik ere, lanpostu askotan ez zuten emakumerik onartzen (epaile, fiskal, polizia...); eta soldatak baxuagoak ziren beti. Zigor Kodeak (1942) gogor zigortzen zuen emakumearen fideltasun eza, baita metodo antikonzeptiboen propaganda egitea ere.

Sección Femenina

Emakumeak etxekoandre eredugarria izan behar zuen, emazte eta ama perfektua. Horretarako, mutilentzat soldaduska zegoen bezala emakumeentzat Servicio Social-a jarri zuten. 1937an, 17-35 urte bitarteko ezkon-

gabe eta alargunentzat. Zerbitzua ospitaletan eta laguntza zentroetan egiten zen, haurrak eta gaixoak zaintzen, janaria ematen...

Falangearen Sección Femenina (de F.E.T y de las JONS) erakundean -Pilar Primo de Rivera zen burua, Falangearen sortzailearen arreba- sei hilabeteko ikastaroa egin behar izaten zen. Josten ikasten zuten, jana presatzen, falangeko abestiak... Titulu hori gabe ezin zuten hainbat elkartetan izena eman, pasaporterik edo gida-baimenik lortu, ez eta enpresa askotan lan egin edo zenbait karrera ikasi.

Pilar Primo de Rivera: *“Las mujeres nunca descubren nada. Les falta, desde luego, el talento creador, reservado por Dios para inteligencias varoniles. Nosotras no podemos hacer*



❖ *Telesforo Monzonen etxea, Olaso dorrea, mende hasieran. Falangekoek eraikina okupatu, eta hantxe jarri zuten Sección Femenina.* Bergarako Udal Artxiboa. B.K.E. fondoa, Ariz-ondo

más que interpretar mejor o peor lo que los hombre nos dan hecho". Sección Femeninako aldizkarian gizonaren menpeko izateko aholkuak ematen zituzten: beti dotore eta eder egoitea, pazientzia izatea, sumisioa... "Senarrak emaztea babestu behar du, eta hark senarraren aginduak bete".

Bergaran, Telefono Monzon jeltzalearen familiari erreklutatutako etxean (Olaso dorrean) jarri zuten Sección Femenina, lehen pisuan. Hantxe egiten zen Zerbitzu Soziala. Asuntxi Gallastegiri ez zioten piano titulua eman, ez zeukalako eginda. Gero egin zuen, pasaporte ateratzeko, Frantziara joan nahi zuelako. Lucia Farras ere "kanastillia" eta "Servicio Sociala" egitera behartu zuten. Pasaporte atera nahi zuen. Eta Zerbitzu Soziala egin da ere arazoak jarri zizkioten, aitaren fitxa politikoa ikusi zutelako.

Monzonen etxean josten egiten zuten, Falangeko 14 puntuak ikasi... Azterketa egiten zuten, eta jositakoa entregatu. Sukaldean, berriz, Lasanean ikasten zuten. Etxekoandre onak izateko prestatzen zituzten. Maria Dolores Madinabeitia zen arduraduna. Hori bai, errepresioaren atalean aipatu dugun moduan, behartutako jendea ere ibiltzen zen lanean.

Maribi Arregi oñatiarrak Merkataritza ikasketak egiteko derrigor egin behar izan zuen Zerbitzu Soziala. Karrera bost urtekoa zen, eta urtero joan behar izan zuen Sección Femeninako

egoitzara, Donostian. Udan joaten zen. Gogoan ditu ikasgaiak: "Ziran *labor, gimnasia, los 27 puntos, canto*...' *Canto*' zan Cara al Sol. Lehenengo erakutsi oskuen bainika tipikua, gero 'Corte y Confección' be bai. Sukaldia be bai erakusten oskuein, sukaldian egitten be bai. Gero, titulua etarateko, Sección Femeninan emuten oskuen holakotxe pin baten moduan; kolore desberdiñak euzen, maillak igoten zoiazenian kolore desberdiñak euzen, eta nik akabo nebenian, ba neuken uste dot berdía zala, baiña gero titulua lortzeko egin bihar neben kanastilla bat, eta klaro, ni ya lanian hasitta, orduan amak kanastilla erosi eben, presentau geben nik egindako moduan eta orduan emuten otsuen beste pin bat beste kolore baten, ez takit gorrixa edo urdiña zan koloria, eta ya horrekin titulua lortzen neben 'de Perito Mercantil'".

"Kanastillia zan... gaur esango geke ume batendako bihar zan dana, jaixoten zanian. Ez zan prenda bat, ez, zan ajuarra esaten dana erderaz, 'para el bebé'. Teorixan kanastillia 'era para los niños pobres', praktikan edozeiñek daki nora oian, baiña 'desde luego' pobriari ez. Zeatik kanastillak izaten ziran, gaiñera ipiñi egitten otsuein zenbat prenda, mantoiak, zenbait kamisetatxo, zenbait jerseytxo, faldoiak, dana. Sección Femeninara presentaitteko egitten ziran batzuk oso bereziak".

Mende hasieran, balio tradizionalaletan oinarritutako familia zen nagusi. Etxea eta umeak bere ardurapean zituen emakumeak. Lan karga handia izaten zen, baina errekonozimendu urrikoa. Familia ugariak ziren asko, eta ez zegoen gaur egungo aurrerapenik. Emakumeak ezkontzea eta familia osatzea zuen egiteko nagusia bizitzan. Etxea eta familia ondo gobernatzeko prestatzen zuten umetatik. Josten ikasten zuen, jana prestatzen, etxeko lanak egiten, umeak eta gaitxoak zaintzen...

Familia aberatsetan zein pobreetan, denetan gertatzen zen hori: emakumea etxerako zen. Ezkondu aurretik, hori bai, ohikoa zen lana egitea; batez ere familia xumeetan eta erdi mailakoetan. Neska asko 14-15 urterekin hasten ziren lanean. Oinarritzko ikasketak egin eta berehala. Batzuetan –baserri giroan bereziki– baita lehenago ere. Herri askotan neskametzak izaten zen ohikoena, baina Bergaran gehiago ziren ehungintzan aritzen zirenak neskameak baino. Dirua etxean entregatzen zuten, eta familiaren beharretarako erabiltzen zen. Zenbaitean, baita anaien goi mailako ikasketak ordaintzeko ere.



❖ Dolores Irazabal Aranzabal eta Gregorio Ugarte Beitia euren bost seme-alabekin: Sabina, Jose Ramon (jaioberria), Julio, Begoña (atzean) eta Maria Antonia. Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa

Familiaren ardura

Familiaren kontzeptua oso zabala zen: ez zen norberaren seme-alabetera mugatzen. Senide guztiak barne hartzen zituen familiak, etxe berean bizi ziren denak. Gurasoak, aiton-amonak, osaba-izebak, anai-arrebak... Eta etxeko emakumeek zeukaten familiaren ongizatearen ardura. Haiek zaintzeko betebeharra.

Normala zen alabaren bat etxerako geratzea, gurasoak zaintzeko. Batzuetan, alaba ezkongabeak etxeko neskame bihurtzen ziren; gurasoen menpe zeuden edo etxera ezkondutako senidearen zerbitzura bestela. Hala bizi ziren ezkongabeen bizimodua oso latza zela dio Maria Dolores Peñak, independentziarik ez zutelako: *“Anai baten kontura bizi behar zuten. Nire izeba, adibidez, etxean egon zen nire aitarekin... ezkongabea zelako, eta lagundu egiten zigun. Ez dakit nik sekula eskertu ote genion guregatik egin zuen guztia. Hari eskerrak joan ginen Madrilerara”*. Ama eta seme-alabak Madrilerara joan ziren, ikasketak egitera. *“Izeba aitari laguntzen geratu zen. Bestela ezinezkoa izango zen, noski. Orduan ezkongabea izatea zer zen... eta orain ez dugu inoren menpe egon beharrik! Independentzia ekonomikoa falta zen”*.

Peña ere ezkongabea da, eta aita-rekin bizi izan zen hura hil zen arte. Baina lanera joaten zen, eta askatasun handia zuen. Etxeko lanak egiteko neska bat zuten. Erdi-go mailako familietan nahiko ohikoa zen etxean neskamea izatea. Diru gutxiren truke, neskato gazteak eramaten zituzten beraiekin bizitzera (sarri baserritarrak izaten ziren; asko Berga-

ra inguruko herrietakoak; ikus neskameen atala). Asuntxi Gallastegik eta, adibidez, etxeko lanak egiteko neskamea zuten; sei anai-arreba ziren, eta guraso biek egiten zuten lana etxetik kanpora.

Askok izan ziren gurasoen ardura hartu zuten emakumeak. Batzuek etxeko lanak egiten zituzten. Beste batzuek, berriz, dirua eramaten zuten etxera. Askok lantegian egiten zuten lana; bazuten aukera, beraz, beren kasa bizitzeko; independentzia ekonomikoa izateko aukera. Baina ezkongabeek (mutil zein neska) etxean jarraitzea zen ohikoena, beste etxe batera lanera joaten ez baziren behintzat (zerbitzari edo). Diru iturri inportantea ziren etxerako. Asuntxi Gallastegi bulegaria, esaterako, amarekin eta izebekin bizi zen, eta ez zuen etxeko lanik egiten. Berak dirua eramaten zuen etxera, eta haiek etxea gobernatzen zuten.

Gloria Agirrebeña 14 urterekin hasi zen lanean, 1936an, eta erretiroa hartu arte jardun zuen. Ez zen ezkondu, eta gurasoen ardura izan zuen. Gloriak bost anaia zituen, eta bostak ezkondu ziren. Gurasoeekin bizi izan zen, San Antonion, haiek hil ziren arte. Gero bakarrik. Azken urteak Mizpirualde egoitzan eman zituen.

Emakume asko etxera ezkontzen ziren, senideen kargu egiteko. Horixe izan zen Asuntxi Uribesalgoren kasua. *“Bestela, laguntasunik ez zuen. Ni joan banitza...”*. Familia eta lana uztartzen ikasi zuen. Garai hartan ama ere sasoikoa zegoen, eta ondo moldatu zirela dio.



❖ *Asuntxi Uribesalgo bordatzailea, senarrarekin eta bi alabarekin, 1961ean.*

Bergarako Udal Artxiboa. Argazkilaria: Roman Larrañaga

Maria Pilar Larrañaga ere etxera ezkondu zen. Senarrak eta biek bizitzera Arrasatera joateko aukera eduki zuten, senarrak hantxe egiten baitzuen lana. Baina Bergaran geratu ziren: ama gaixo zegoen, eta bi anaia ezkongabe zeuden etxean bizitzen (beste bi ahizpak, berriz, Eibarren bizi ziren). “Zela juango ga ba gu Mondrauera ama lagata, honek bi mutillokin?”. Larrañaga ez da erabakiaz datutzen: “Ez dot euki penarik be, e? Holaxe izeten dien kontuak”.

Elisabet Agirrezabalek, berriz, mutil-laguna utzi zuen familiaren kargu egiteko. Madrilgo kimikari batekin ibili zen urte askoan. “Haura Madrilen bizi zan, haura kimiko zeuan ya, be-

ran despatxua zeukan”. Ezkontzeko proposamena egin zion, eta berak ukatu. “Orduantxe esan notsan: ‘Ez, Ramon, ezkondu ez, akabau egin bihar dogu’. Etxian ez neban nahi lagatzia zeuan moduan. Neu bakarrik nenguan orduan lanian, ta aitta ya edadetua. Ta geldittu nitzan...”. Mutila utzi zuen, pena handiz. Baina Agirrezabalek ere ez du damurik. Egin behar zuena egin ei zuen. Horrek barne la-saitasuna ematen dio.

Umeen zaintza

Umeak eta lana bateratzea ez zen batiere erraza izaten. Garai hartan lantegietan ezin zuten amatasun baxarik hartu. Segituan hasten ziren lanean. Algodoneran, umeei titia emateko gela bat zegoen, mende hasieran. Asuntxi Uribesalgo akordatzten da emakumei lantegietara umeak nola eramaten zizkieten. Porterian ematen zieten titia, etxekoren batek umea hara eramanda.

Lucia Farras haurra izan eta zortzigarren egunera itzuli zen lanera. “Zeinek egin bihar dittu nominak?”, zioten kezkatuta bere lantokian. Behin bakarrik hartu zuen baja, 38 urtean. Juana Maiztegi jostunak gogoan zuen bere amak zioena: “Ama jostuna izen zan, eta berak esaten zeban familixia eukitzen zebanian, bigarren egunian edo ohian tablia ipini, eta ya ebagitzen hasten zala. Bigarren egunian. Esaten zeban: ‘Nik berriz umeik eukiko ez baneu, gobernauko nitzake ondo’”.

Arrasaten jasotako sehaska kantu hau adierazgarria da oso. Pedro Zumelagari bere amak haxe abesten zion:

*Ume txikia negarrez dago
ama emazu titia
amak emango titi goxua
lo egiteko gustora.*

*Lo egiteko gustora eta
ama lanian dabilla
Aita gaiztua tabernan dago
pikaro jokalaria*

Umeek lan handia ematen zuten. Gaur egun baino kontenplazio gutxiago zegoen arren, baliabideak ere urriagoak ziren. Florita Izuskiza tabernariak, adibidez, arazoak izan zituen lehen umeari titia emateko, esnea falta zitzaiolako. “*Harek pasau zittuan gosiak! Bularra emoten, ez neukan bularrik, nere amak ez zeban sinisten... bera bularrakin hazitta dana. Nik derrior bularra euki biha neban!*”. Ezkondu eta gero ere, normala zen amaren esanari jaramon egitea; eta zer esanik ez teiltupe berean bizi baldin baziren. “*Ta aman isilixan hasi giñan esne puxkat emoten*”. Tabernara eramaten zion esnea baserri-
tar batek, Izuskizak lanean jarraitzen baitzuen.

Izuskizak dioenez, umeen arrokek ere lan handia ematen zuten. Egosi egin behar izaten ziren: “*Klaro, leña ez zala ona, ipurdia gorritu egitten zebala ta. Eta sutan egosi, lapiko baten, egosi-egosi egin, aklarau eta ixegi. Eta sikatu. Kriston zerak zien, hola-kotxe tela mehe batzuk, finak. Jaio-berrixendako be izara zaharrekin egindako erropia hobe zala. Harizkua. Harekin kamisetak-eta egitten, hobe zala ta. Zertzuk, baina! Enfin. Oin ikusitta... oin hazten dabe umiak errez!*



❖ *Miren Azkarate jostuna, alabetako bategin.* Bergarako Udal Artxiboa. Argazkilaria: Jesus Urkiola Laspiur

Bueno-bueno, alde edarra! Oin, ipini paketia, bota eta libre”.

Umetako gaixotasunak ere gehiago izaten ziren orain baino: elgorria, eskarlatina... katarroa ere errazago harapatzen zuten, etxeetan berogailurik ez zelako izaten. Bigarren umea jaio eta berehala hil zitzaion Izuskizari, bronkoneumoniarekin. Umeak jaio eta berehala bataiatzeko ohitura zegoen, eta bere ustez orduantxe hoztu zen, elizan.

Umea izan eta aste batzuetara, berriez, *martopilak* egiten ziren. Auzoko emakumeak bisitan joaten ziren, ama agurtu eta jaioberriari ongi etorria egiteko. Maria Mugerzak dioenez, horrek ere lana ematen zuen. 20ko koadrila edo gehiago, eta denentzat otordua prestatu behar. “*Arrozkoletxia, okelia saltsan...*”.

Lanean zebiltzan emakumeek (baserri-
tarrek salbu) normalean batez

bestekoa baino seme-alaba gutxiago izaten zituzten. 1930eko erroldan ikus daitekeenez, lau seme-alabakoak familia dezente daude, baina gehienek gutxiago dituzte. Padroi horretan, zortzi seme-alaba zituzten bi datoz eta sei-ko beste bi. Hona hemen horietako batzuk:

- Maria Ines Balzategi (Bergara, 1890) oihalgileak eta senarrak (mekanikoa) zortzi seme-alaba zituzten. 17, 14 eta 13ko alabak oihalgileak ziren. Eta gainerakoak txikiak (8-6-5-3-1).
- Claudia Gallastegi Gantxegi modistak (42 urte) eta haren senarrak (arotza, 41 urte) zortzi seme-alaba zituzten: 19ko mutila arotza, 17ko eta 15eko mutilak oihalgileak, 12ko neska zerbitzaria eta beste lau ume eskolan.
- San Antonioko oihalgile batek (Urretxu, 1886) eta senarrak (tindatzailea, Bergara) sei seme-alaba zituzten, bi mutil lanean (metalurgian eta harigile) eta besteak txikiak.
- Osintxuko harigile batek (Bergara, 39) eta haren senarrak (armagilea, 45) sei seme-alaba zituzten. 16ko alaba harigilea eta 5 ume eskolan.

Gerraostean Francok jaiotzaren aldeko politika bultzatu zuen. Pilar Primo de Riverak halaxe zioen: «*La misión de la mujer española es dar hijos a la Patria y cuidar de su hogar*». Gose garaia izanagatik, familia ugarien kopurua igo egin zen. Horrek zaildu egin zuen ezkonduetako emakumeek etxetik kanpo lan egitea. Nahiko lan bazuten bestela ere.



❖ *Florita Izuskiza, 2004an ahotsak.com-erako egindako elkarrizketan.*

Carmen Garitanoandia 14 senide-ko familian hazi zen. “*Etxe danetan euzen tremendako ume pillak. Leku danetan*”. Gerraostean Francoren gobernuak familia ugariak saritzen zituela gogoratu du. 14 seme-alabatik gora zituztenak. “*Oso baju ez eben ipini topia. Hamalau umetik gora euki biha zittuen, eta gure amak 14 euki eben, eta gero kitto, hondatu zan eta 57 urtekin hil zan gure ama. ‘Cancer de matriz’*”.

Etxeko ekonomia

Etxeko dirua emakumeek administrazten zuten askotan (ikus *Baserriko ekonomia* atala ere). Eskura ko-bratzea zen ohikoena, nahiko berandu arte. Dirua emakumeek gordetzen zuten, beraz, eta haiek erabakitzen zuten gastuak nola egin. Aipatu dugun moduan, seme-alaba ezkongabeek ere amari ematen zioten soldata. Asuntxi Gallastegik, esaterako, etxean entregatzen zuen jor-nala. Behar zuen dena ematen ziotela dio, baina beharrak ere gaur egun-goak baino txikiagoak zirela.



❖ *Mari Cruz Mendibil Maiztegi sukaldean, palanganan Maria Jesus Urkiola alaba garbitzen, 60ko hamarkadaren hasieran.* Bergarako Udal Artxiboa. Jesus Urkiola fondoa. Egilea: J. Urkiola

Elisabet Agirrezabalek aitari ematen zion soldata (aita alarguna zen), eta hark paga ematen zion, libretan jaritzeko. Maria Dolores Peñak ez, baina ez zen ohikoena: *“Familia askotan bai, baina niri sekula ez zidaten etxean eskatu”*. Aitak nahikoa irabazten zuen, eta hura egiten zen etxeko gastuen kargu ere; aurrezteko esaten zion alabari. *“Aurreztu eta aurreztu... eta ea horrek hil arte irauten digun!”*.

Asuntxi Uribesalgok dioenez, izebak eta berak -elkarrekin bizi ziren eta biak aritzen ziren bordatzen- erdibana kobratzen zuten ezkondu eta gero; aurretik, izebak jasotzen zuen dirua, eta berari paga ematen zion, bankuan sartzeko. Etxe askotan, baina, amak etxeko ekonomiaaren arduraduna izaten segitzen zuen; hil artean, edo po-

sible zen artean. Lucia Farrasen etxean, amak administratzen zuen etxeko dirua; Luciak zein senarrak irabazten zutena. Behar zutenean hari eskatu, eta kito.

Familia berria osatzen zutenen kasuan ere emakumeak hartzen zuen diruaren ardura normalean. Miren Azkarate jostunak berak kudeatzen zituen etxeko diru kontuak. Bankuko kontuak ere berak zeramatzan normalean, senarrak lan orduetan ezin izaten zuelako joan. Baina kasu askotan ez zen hala izaten.

Maribi Arregik dioenez, Frankismo sasoian *“emakumiak, ezkondu eta gero, ez geukan firmarik ezertarako bez. Ni 1966xan ezkondu nitzan, eta onddiok edozein bankuan kontu bat eraitteko gizonen baimena bihar neben. Eta gizonen firmia. Nik neukana kartillia, umetatik dakozuna, ha be pasau bihar izan zan Bittorren izenera, bixon izenian, ta nik dirua etarateko Bittorren firmia bihar neben. Oin tarjetak dauz, baiña orduen ez, eta edozein tramite egitteko, gizona bihar zeben, gizonen baimena. Bestela ezin zan”*.

Etxearen jabea ere oso gutxitan izaten zen emakumea. Oinordekoen artean gizonetakoak lehenesten zituzten. Negozioak ere semeen esku uzten zituzten normalean.

Padroian «propietarias» moduan agertzen diren emakume ia denak alargunak edo ezkongabeak dira, 1930ean:

- Rosa Iraeta. 79 urte. Ezkongabea. Barrenkalean.
- Fermina (51), Marina (50) eta Raimunda (38) Mendizabal Laborda. Ezkongabeak. San Pedron.

- Casimira (65) eta Juliana (62) Gerrikabeitia. Ezkongabeak. Neskame bat dute. Bidakruzetan.
- Adelaida Aldasoro. Ezkongabea. 50 urte. Neskamea dauka. Bidakruzetan.
- Francisca Agirre Apaolaza. Ezkongabea. 59 urte. Bidakruzetan.
- Maria Arieta Araunabeña. Alarguna. Elorriokoa. Barrenkalean.
- Julita Gabilondo. Alarguna. Zubietan.
- Concepcion Ortiz de Urruela. Alarguna. Sevillakoa (1867). 4 seme-alaba ditu. Eta 7 zerbitzari. San Pedron.
- Manuela Martinez. Alarguna. Bilbokoa. Bi neskame ditu. San Pedron.
- Florentina Galdos. Alarguna. Eskoriatzakoa (1858). San Pedron.
- Baldomera Leunda. Alarguna. 70 urte. Bidakruzetan.
- Maria Valeria Velar. Alarguna. Elorriokoa. 78 urte. Neskamea dauka. San Lorentzon.
- Iturbe baserrikoa. Alarguna. 42 urte. Goiauzon.
- Maria Alberdi Arispe. 42 urte. Ezkondua. Senarra: rentista, 70 urte. Arruriagan.

Etxeko lanak

Etxeko lanak nesken kargu zeuden, etxe guztietan. Sukaldeko lanak, garbitasuna, oheak egitea... Asuntxi Uribesalgok dioenez, gizonezkoek ez zuten etxean ezer egiten. Maria Dolores

Peña ados dago horrekin. Bere etxean oso aurrerakoiak ziren ikasketa konfuetan. Baina etxeko lanekin, ordea... *“Ez, hori ez. Hori emakumeok. Berdin ikasi arren, anaiek ez zuten ezer egiten. Udan etortzen ginenean aitak klase partikularrak jartzen zizkigun denoi, ordu guztietan. Hurrengo ikasturterako... edo dena delakoa. Baina etxekoa bai, emakumeok egiten genuen”.*

Are gehiago: gaizki ikusita zegoen gizonek lan horiek egitea. Miren Azkaratek ezohiko kasu bat aipatzen du, garaian batere normala ez zena. Katalina Zarautz jostunarena. Haren senarrak etxeko lanetan parte hartzen zuen. Salbuespena zen, eta esamesak sortzen zituen herrian: *“Hiru ume zeuzkan, eta josten egitten zeban.*



❖ *Karmen Jauregi Jauregi, erratzarekin eta palarekin, 1930eko hamarkadan. Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa*

Hari gizonak asko laguntzen zotsan etxeko lanak egitten. Hari bai, orduan, e! Ez zan normala. Gainera, geizki ikusten zan. Emakumiak erak geizki ikusten zeбен gizakumia etxeko lanak egitten. Bai, ez zan ondo ikusten. Emia edo, bueno. Ez zan ondo ikusten". Zarautzen senarra ere lanean zebilen. Janaria prestatzen zuen, eta umeei afaria ematen zien.

Miren Azkaratek dioenez, bere anaiek ez zuten etxeko lanik egiten, eta berari ez zitzaion ondo iruditzen. "Jai egunetan guk egitten giñuan etxia ondo-ondo garbittu aizta bixen artian. Eta nere anaiak egoten zien lo, ohian. Eta harek jaikitzen zienian guri amak, neri ero nere aiztiari esaten zotsen: 'Etarra erropak, zure anaiari etarra erropak'. Eta erropak egoten zien, barruko erropak eta eren erropak eren kuartuan, eren armaixuan. Kuartuan bertan, armaixuan. Eta harei erropak etaratzeraz jua bihar izeten giñuan ni edo nere aizta. Eta ni hasarretu egitten nitzan: 'Ama, hori geizki dago, e!'. 'Horrek ez dira gizonen lanak', amak. Orduko mentalidadia hola zan, gizonen lanak ez ziela". Ordurako ahizpa biak lanean zebiltzan. Miren tela dendan: "Eta gero astian beste lanak egin. Ofizinetara joan, tela eske... Orduan telak-eta oso zailak zien aukeratzeko, ekartzeko, erosteko, eta ofizinetara joan".

Mariano Martinezen kasua ere apartekoa izan zen. Etxeko lanak egitea egokitu zitzaion, oso umetatik. Anai-arreba zaharragoak neskame eta morroi joan zirelako. Zazpi senidetik hirugarrena zen, "eta errekauek danak nik egin bihar. Nik etxian ba umiak zaindu eta errekauek egin. Eta

holako gauzak egin bihar danak". Etxean ia etxekoandre bezala zegoela kontatu zigun Martinezek.

Heriotzarekin lotutako erritualak

Etxekoren bat hiltzen zenean, emakumearen bizkar joaten ziren ardura gehienak. Bere eginkizuna izaten zen hildakoa garbitzea, janzteaz eta hilku-txan ipintzea. Batzuetan auzoko emakumeek laguntzen zieten. Hildakoa aurrean zelarik erreztatzen zen arrosarioa gidatzea ere emakumeen lana zen. Auzo guztietan zeuden arrosarioa esatera hara eta hona ibiltzen ziren emakumeak. Elisabet Agirrezabalek zera diosku: "Gizakumiak iñobe ez zan etortzen errosaixora... Harek tabernara! Txikitua hartzera".

Eta gero gaubela gobernatu behar. Jende multzo handi samarra biltzen zen hildakoaren etxean gaua pasatzera; ardoaz eta pattarra ohi baino eskurago egoten zen, eta komeriak izaten ziren sarri zurrutean pasatutako gizonekin.

Benita Unamunok kontatzen zenez, hileta ondoren bazkaria egiten zen. *Entierru-bazkariaz* edo *ondra-bazkaiaz* esaten zitzaion. "Azkenian epel-epel egiñ eta danak kantuan igual, bertsotan igual. Hil eta gero bazkaiaz, hainbeste laguni pagau eziñal!". Normalean taberna baten egiten zen, eta hiletara etorritako senide eta hurkoei ematen zitzaien. Zubi-tako Arando tabernan egiten zen ondra-jan asko. Horrela kontatu ziguten bertako alaba Mariñe eta Erri-txek: "Baten bat hiltzen zan, basarri batekua igual, eta etortzen zan, eta esaten zeban: 'Bueno, bestia bezala,

e, haren moduan, *dana berdin*”. Eta bazkaria ez zen izaten nolanahikoa: “*Lehelengo zopia. Haragixakin egindako saldiakin, zopia. Zea, zopakuakin. Orduan ez zeuan fideoik, e? Gero, garbantzua beti egoten zan. Garbantzua aziakin edo leka-patatak edo ze berdura zeon zerian sasoian, ba hori. Gero, legatz prijidua. Eta gero haragixa saltsan. Gero postria eta kafiak. Pattarrak. Frutia eta galletak. Galletak beti eta gero frutia, segun, sasoikua. Edo bestela pikuak edo... piku sikuak*”.

Sasoi hartan aukera gutxi egoten zen ondo jateko, eta jendea ez zen prest egoten hileta-bazkariei ihes egiten uzteko. “*Orduan gehixau apreziatzen zan. Nola etxetan babia eta babia eta babia jaten zan egunero, basarritan be. Holako bat egitteko jendia zain egoten zan*”. Familia askorentzat luzarorako zorpetzea ekartzen zuen hileta batek. Ez zen bazkaria bakarrik, urrutitik etorritako senideak afaltzen eta gaua pasatzen ere askotan gertatzen ziren hildakoaren etxean.

Lutoa erabili beharra zegoen gero, urtebetez gutxienez. Horrek suposatzen zuen lanarekin: arropa berriak josi, zaharrak beltzez tindatu, petatuak ipini... Denak emakume-lanak.

Eta hurrengo egunetik hasita, *bederatziurrena*. Bederatzi egun jarraian joan behar izaten zuten hildakoen etxeko emakumeek goizean goiz egiten zen elizkizunera. Gainera igandero “sepulturara” edo “mantara” joan behar etxeko emakume batek; belaunikatzeko aulkiaren aurrean zapia ipintzen zen, eta haren gainean argizaio-la edo kandela.



❖ *Benita Unamuno. 1988an egindako elkarrizketa.*

Eta handik urtebetera, *urte-meza*. Orduan egiten zen doluaren amaiera irudikatzen zuen *manta-jasotzia*. Eta meza amaitzean, tabernan hamarretakoa elizkizunera etorritakoentzat, zenbait lekutan *txilipalia* esaten zitzaiona. Beste gastu bat.

Auzoa, familiaren luzapena

Auzoa familiaren luzapena zen batzuetan. Harreman estua zegoen, eta batez ere emakumeak ziren sare hori josten zutenak, elkarri lagunduz. San Antonioko elkartasuna aipatzen du Gloria Agirrebeñak: “*Bat premiñan baldin badao, bat gaixua, ta hari laguntzera joan. Ta alkarri lagundu. Auzokuak, auzokuak illaran egoten giñangu danok*”.

Auzo berean jaio baina Labegaraietan bizi izan den Maria Pilar Larrañagak elkartasuna nabarmentzen du. Etxeko atea ez zuten giltzaz ixten, eta normala zen bizilagunak -normalean emakumeak- etxera bisitan joatea, berriketan jardutera. Bere ama gaixo

zegoenean, bisita asko izaten zituela dio. *“Nik nere teillapian nausixak, pertsona nagusixak ondo zaindduta beti ikusi dittut. Gaztiak, errespetuz gu... Guk ‘aittajuna’ eta ‘amandria’ danei esaten jaun (nahiz eta ez izan)”*.

Maria Pilar Larrañagak aipatzen du nola joaten ziren inguruko baserrietara lanera. Beti prest zeuden laguntzera joateko. Gari-jotzera, artoa, sagarra edo babarruna batzera... Ekaitza zetorrela ikusten bazuten, adibidez, *“gure ama-ta atxintxika joaten zien, e”*, inork deitu beharrik gabe.

Hileta erritualetan aipatu dugu norbait hiltzen zenean auzoko emakumeek lagundu egiten zutela. Senideei lagun egin, erreztatu... Sasoi batean, emakume batzuek opil handi batzuk, *olatak*, eramaten zituzten zu-

mitzezko otzara batean hileta-elizkizunera. Gerrarekin bateratsu galdu zen ohitura. Olatak hilobian utzi, eta gero Beheko Ospitalera eramaten ziren. Abadeek ere jasotzen zuten bere partea.

Erosteriak (plañiderak) ere ez dira hain aspaldikoak. Hiletetan negar egiten zuten emakumeak ziren. XIX. mendearen amaieran baziren artean. Benita Unamunok bazuen haien berri, etxean entzunda: *“Nik ez dot ezautu, baiña baten bat hiltzen zanian negar egittekua egoten ei zien ipinitta. Harek negar egingo eben goguakin, e?”*.

Ezkonduraren lana egitea

II. Errepublikak haize berriak ekarri zituen. Erligioari indarra kentzeaz gainera, 1931ko Konstituzioarekin hainbat lege onartu zituzten: emakumeen boto eskubidea, dibortzioaren legea, berdintasun legea... Gero Francok bertan behera utzi zituen denak, 1939an. II. Errepublikaren aurretik zegoen giro itxia berreskuratu zuten: elizkoia eta oso matxista. Eredu zaharkitu hori biziberritzeko hainbat ahalegin egin zituzten, eta ez zitzaien zaila gertatu, Errepublikak oso gutxi iraun zuelako eta ez zelako benetako aldaketarik egiteko astirik izan.

Emakumeari zuzenean eragiten zioten neurriak hartu zituen Francoren gobernuak. Emakumea etxera bidualtzeko neurriak, alegia (ikus Frankismoaren ondorioak, *Emakumea, politika eta gerra* atalean). 1939an emakume ezkonduari langile moduan izena ematea ukatu zitzaion. 1975. urtera arte senarraren baimena behar izan zuen lana egiteko. Lantegietan la-



❖ Maria Pilar Larrañaga (eskumakoa) Donostian, Maria Beitiarekin.

nean ari ziren emakumeek, berriz, ezkontzean lana utzi behar izaten zuten (1942-1962 urteen bitartean 'borondatezko lan uztea' sinatu behar izaten zuten, ezkontza baino hilabete lehenago). Izan ere, ezkonduz gero bazuten nork mantendua. Gerra aurretik ere bazen pentsaera hori, emakumearen tokia etxea zela. Eta gerraostean ezkonduetakoan lana uzteko ohitura egonkortu egin zen. "*Mentalidade hori zuen. Generalian danak lagatzen zeben, e*", dio Asuntxi Gallastegik.

Bergaran ez dugu jaso lana uztera derrigortutako inoren testigantzarik, baina horrek ez du esan nahi gertatzen ez zenik. Arrasateko Tere Arregiri, esaterako, zerrajeran gertatu zitzaion 1955an. "*Orduen ezkonduete derrigor urten biher zauen. Ezkonduet, kale-
ra. Danak. Ezkonduete ezin zeikien geratu, segi lanien. Han matrimonio bat zauen hori legia etorri aurretik ezkonduete, eta enbarazaute zauela be bueno... danak mimau egitten zauen! Eta familixia ta auki ta gero segidu zauen jubilau arte, baiña ezkondu danok danok urteten gauen. Ya ezin zeiketzun lan egin. Etxeko lanak egin eta etxie... kasu egin. Eta umiek ekarri*".

Maria Dolores Peñak dioenez, "ofizinetan, ohikoa zen ezkontzean emakumeak lana uztea. Bizitza ikusteko beste modu bat zen. Baina badaude lanean jarraitu dutenak ere". Hori bai, gutxi izango dira, bere ustez, ogibidea garatzeagatik ezkondu gabe geratu zirenak. "*Agian nire aitaren garaian...*". Peñak berak ez zuen erabaki konszienterik hartu.

Emakumea gurasoen menpekota izatetik senarraren jabetzakoa izatera pasatzen zen. Ezin zuen kontu ko-



❖ Eugeni Ubera, 2004an ahotsak.com-erako egindako elkarrizketan.

rronterik ireki, ez lanik egin, senarraren/gurasoen baimenik gabe. Lana egiten zutenek ere ezin zuten beren diruarekin nahi zutena egin, senarraren sinadura gabe. Baziren ganadu tratua gogorarazten duten usadioak ere: ezkontzetan, sasoi batean senargaiak arrak (urrezkoak, zilarrezkoak...) ematen zizkion emaztegaiari. Hona hemen Ubera ahizpek ohitura horri buruz diotena:

- Eugeni: "*Lehen esaten zan. Honekin erosi dot nik andria*". A ze eseria!"
- Maria Angeles: "*Emakumiak kriadak zittunan gizonenak*".
- Mariasun: "*Klaro ba. Pentsau berak erosi ebela, eta gero, 'ala!, a servir'!*".

Baziren lanean jarraitzen zuten emakumeak ere, noski. Hori bai, normalean sekula ez senarrak baino gehiago irabazten. Miren Azkarate jostunak, adibidez, kontua zuen gizonak baino gehiago ez irabazteko, hura ez zedin gutxiago sentitu. "*Nere bizimoduan gastua gizonak irabazten zebana baino gehixau, kontua euki-*



❖ *Miren Azkarate jostunaren argazkia, Txomin Arraigo senarrarekin eta Elisabeth eta Maite alabekin, 50eko hamarkadan.* Bergarako Udal Artxiboa. Argazkilaria: Jesus Urkiola Laspiur

tzen neban, bera ez gutxitzeko, zegaittik orduan hori zeuan. Gizakumiak zeukan berak mantendu bihar zebala familixia, eta bestela geratzen zan puskatxo bat e... hori zeuan, e! Eta eukitzen neban beti kontu hori“.

Emazteak lanean zebiltzanean, inguruko emakumezkoek laguntzen zieten etxeko jirarekin: amak, ahizpa ezkongabeak, alaba zaharrenak... Lucia Farras lanean zen bitartean, haren amak egiten zuen etxeko jira. Farrasek dio orduan etxean amonak egoten zirela lanerako. Amandreek lan handia egiten zuten: janaria prestatu, umeak zaindu... Laguntzeko inor ez zeukanak, berriz, lanetik bueltan egiten zituen etxeko lanak. Edo aurretik. Asuntxi Uribesalgo bordatzaileak, esaterako, arratsaldez josten zuen, eta goizean errekaduak egiten zituen, etxerako erosketak. Etxeko lanak egitea ere tokatu zitzaion, bere ama eta izeba zahartzen joan ziren neurrian.

Bestela, laguntzailereren bat bilatzen zuten, ordainduta. Miren Azkarateri arratsaldetan emakume batek zain-

tzen zizkion umeak; goizetan umeekin egoten zen, eta arratsaldez josten.

Esan dugun moduan, lantegietan lanean ziharduten emakume askok uzten zuten lana ezkontzeko. Etxean lan egiten zutenek ez hain sarri. Beste diru iturri bat zen etxerako, eta posible zen batzuetan gehiago eta besteetan gutxiago lan egitea, egoeraren arabera. Baina hala ere, etxetik lana egiten zutenak gutxi zirela dio Miren Azkaratek.

Lantegietan zebiltzanek ordutegi jakina zuten normalean. Etxean lan egiten zuten emakumeen kasua apartekoa da. Jostunena eta ile-apaintzaileena, adibidez. Horiek ez zuten ordutegi finkorik, eta ahal bezala uzartzen zituzten familia eta lana. Kasu gehientsuenetan etxean lan egiten zuten emakumeen lana oso baldintzatuta zegoen (Ikus *Jostunak* ataleko lan baldintzak).

Familiako negozioan lan egiten zuen emakumea ere oso lotuta zegoen (dendetan, tabernetan...). Eta zer esanik ez baserritarra. Baserrietan emakumeak etxe barruko lanez gainera, sorokoak egiten zituen, eta bera izaten zen baserriko produktua saltzera joaten zena ere.

1930eko padroian, San Antonion eta Osintxun agertzen dira emakume ezkondu langile gehien. Gehienek ehungintzan ziharduten. Urte horretan Bergaran langile moduan datozen emakume ezkonduak, kaletarrak (baserrietakoak ez datoz hemen):

Masterrekan:

- Tindatzailea. Trinidad Eguren Larrañaga. 27 urte, ezkondua eta urtebeteko alaba.

Barrenkalean:

- Telegrafoetako laguntzailea. Alicia de Dios (Leongoa). Senarra telegrafoetako ofiziala da (Madrilgoa). 2 urte daramatzate Bergaran.

Arruriagan:

- Oihalgilea. Bere senarra tindatzailea. Zazpi urteko alaba dute.

San Pedron:

- Sukaldaria. Dominga Velasco. Plazentziarra (18 urte). Senarra txoferra du.
- Oihalgilea. Angela Etxeberria (39 urte). Senarra trenbideko langilea. 4 seme-alaba.

Bidakruzetan:

- Praktikantea. Amparo Ramon Moreno. Madrildarra (6 hilabete Bergaran. Transeunte). Senarra Malagakoa du, igeltseroa.
- Oihalgilea. Jacinta Aranzabal (39). Senarra kontramaisua du (Gasteiz). Lau seme-alaba (10,8,5,4) dituzte.
- Oihalgilea. Feliciano Isasmendi (Aretxabaleta, 1900). Senarra serenoa da (Zumarraga, 1890). 3 seme-ala eskolan (10-12-14). 12 urte daramatza Bergaran.

Zubiaurren:

- Nekazaria. Eustakia Kortazar Zurutuza. Eskoriatzakoa (54 urte). Senarra metalurgian (Elorriokoa, 69 urte). Bi seme txofer eta alaba (25) etxeko lanetan.
- Jostuna. Eulalia Iñarra (36 urte). Senarra metalurgian. 5 ume txiki.

San Antonion:

- Oihalgilea. Maria Garmendia (46). Senarra tindatzaile (Elorriokoa). Lau seme-alaba eskolan. Gizonaren aita beraiekin, alarguna (1852).
- Oihalgilea. Maria Ines Balzategi (Bergara, 1890). Senarra mekanikoa (Bergara, 1889). 8 seme-alaba. 17, 14 eta 13ko alabak Oihalgilek. Besteak: 8-6-5-3-1. Ume asko Lazkaon jaiok dira.
- Oihalgilea (Urnieta, 40). Senarra tindatzailea (Bergara, 55). Hiru seme-alaba eskolan (14-11-9).
- Oihalgilea (Lakuntza-Nafarroa). Senarra tindatzailea (Leon, 50). Lau seme-alaba: 20koa oihalgile eta besteak eskolan (13-10-8). 28 urte Bergaran.
- Oihalgilea (Zugarramurdi). Senarra ajustadorea (Gasteiz). 3 ume txiki.
- Oihalgilea. Elorriokoa. Senarra tindatzailea (Bergarakoa). Bi ume eskolan.
- Oihalgilea (Palentzia). Senarra tindatzailea (Valladolid). 2 ume. 16 urte Bergaran.
- Oihalgilea (Urretxu, 1886). Senarra tindatzailea (Bergara, 1880). Sei seme-alaba, bi mutil lanean (metalurgian eta harigile) eta besteak txikiak.
- Oihalgilea (Eskoriatza, 1882). Senarra tindatzaile (Zumarraga, 1882). Bost seme-alaba. Alabak etxeko lanetan (30 eta 34 urtekoak). Mutilak lanean (oihalgile, igeltsero eta zapatari).

- Oihalgilea (56 urtekoa). Senarra tindatzaile (60 urte). 80 urteko ama alarguna. Semea tindatzaile (18) eta alaba Oihalgile (16).
 - Oihalgile (Valladolid, 28 urte). Senarra ajustadorea (Bergara, 27). 8 urteko alaba.
 - Oihalgilea (Palentzia, 1893). Senarra harigilea (Agurain, 1887). 3 ume txiki. 22 urte Bergaran.
 - Oihalgilea (Avila). Senarra metalurgian (Avila). 8 urteko alaba. 8 urte Bergaran.
 - Oihalgilea (Ziordia-Nafarroa). Senarra tindatzailea (Logroño). 7 urteko semea. 10 urte Bergaran.
 - Oihalgilea (Avila). Senarra metalurgian (Avila). Ama alarguna. 11 urteko lehengusua eskolan.
 - Oihalgilea (Huesca). Senarra tindatzailea (Huesca). 16 urteko semea tindatzaile eta gainerakoak txikiak (14-11-7-2). 18 urte Bergaran.
 - Oihalgilea (Badajoz). Senarra tindatzailea (Burgos). 13 urteko alaba zerbitzari, 10eko alaba eskolan. Hiru hilabete Bergaran. Antzuolan daude erroldatuta.
 - Oihalgilea (Nafarroa). Senarra metalurgian (Nafarroa). 2 ume. 5 urte Bergaran.
 - Harigilea. Asuncion Albisua (40). Senarra ere harigilea (48). Bi ahizpak ere harigileak dira. 79ko ama etxean dute, eta 17 urteko iloba bat.
 - Harigilea (Andoain, 1881). Senarra igeltseroa (Bergarakoa). 14 urteko alaba zerbitzari.
 - Harigilea (Bergarakoa). Senarra metalurgian (Avila). 4 ume txiki.
 - Harigilea (Zizurkil, 22). Senarra metalurgian (Bergara, 42).
 - Bobinatzailea (Ermua, 1898). Senarra tindatzailea (Bergarakoa). Alaba eskolan.
 - Bobinatzailea (Uribarri-Ganboa). Senarra tindatzailea (Gasteiz). 17 urteko alaba Oihalgile, eta beste hiru ikasten (15-9-7). 22 urte Bergaran.
 - Atezaina (Aramaio, 1881). Senarra tindatzailea (Bergara). Alaba (19) oihalgile.
- Osintxun:
- Maistra. Angela de Ariznabarreta Oñagoitia (Berriz, 1890). Senarra armagilea (Soraluze, 40). 13 urteko semea eskolan.
 - Jostuna. Maria Gantxegi 35. Senarra oihalgilea (Bergara, 36). 2 ume txiki eskolan.
 - Jostuna. Marta Gantxegi, 23 urte. Senarra armagile (Soraluze, 31). Ume 1.
 - Jostuna. Claudia Gallastegi Gantxegi, 42 urte. Senarra arotza (Bergara, 41). 8 seme-alaba: 19ko mutila arotza, 17ko eta 15eko mutilak oihalgileak, 12ko neska zerbitzaria eta beste lau ume eskolan.
 - Harigilea (Elgeta 30). Senarra armagile (Bergara, 40). 3 ume txiki.
 - Harigilea (Oñati, 49). Senarra tejedor (Soraluze, 51). 2 seme tejedor (19/14) eta 1 eskolan.
 - Harigilea (Soraluze, 37) Senarra armagile (Bergara, 39). 3 ume txiki.

- Harigilea (Bergara, 24). Senarra oihalgilea (Antzuola, 35). Ume txiki 1.
- Harigilea (Bergara, 33). Senarra armagile (Soraluze, 36). Ume 1.
- Harigilea (Bergara, 35). Senarra armagile (Bergara, 41). 3 ume.
- Harigilea (Bergara, 40). Senarra trenbideetako langilea (Bergara, 43). 3 ume.
- Harigilea (Madril, 37 urte) Senarra oihalgilea (Bergara). 5 ume (0-13).
- Harigilea. Senarra trenbideetako langilea. Ume 1.
- Harigilea (Bergara, 39). Senarra armagilea (45). 16ko alaba harigilea eta 5 ume eskolan.
- Harigilea. Senarra ajustadorea.
- Harigilea. Senarra arotza. Ume 1.
- Harigilea. 30 urte. Senarra oihalgilea (42). 4 ume txiki.
- Harigilea. 27 urtekoa. Senarra jorنالaria (28). 2 ume txiki. Galarrolaza Berrian.

San Lorentzon:

- Jostuna. Gregoria Ugalde Larrañaga (Bergara, 36). Senarra bizargina (Bergara, 37). 4 ume eskolan.
- Jostuna. Emilia Barrenetxea-Arando (Bergara, 44 urte). Senarra errementaria (Elgeta, 44). 16ko eta 20ko alabak oihalgileak, 18koa modista eta bi ume eskolan.
- Oihalgilea (Bergara, 29). Senarra tindatzailea (Elgeta, 30). 2 ume txiki.

- Oihalgilea (Bergara, 29). Senarra eskribaua (Bergara, 32). 2 ume txiki.

Zubiaurren:

- Oihalgilea (Logroño 28). Senarra metalurgian (Logroño, 32). 3 ume txiki. 6 urte Bergaran.
- Oihalgilea (Avila, 22). Senarra bizargina (Bergara, 23). Ume jaioberria.
- Oihalgilea (Bergara). Senarra metalurgian (Avila). Ume jaioberria.
- Harigilea (Gabiria, 41). Senarra nekazaria (Bergara, 44). Bi alaba (20-17) Harigilea. Besteak (6-10-14) ikasten.
- Uhalgilea (Arrasate, 33). Senarra tindatzailea (Lasarte, 25). 20 urte Bergaran.
- Nekazaria. Eustakia Kortazar Zurutuza (Eskoriatza, 54). Senarra metalurgian (Elorrio, 69). 2 seme txofer eta alaba (25) etxeko lanetan.

Angiozarren:

- Maistra. Dolores Gorriti Munarriz. Iruñekoa (1879). Senarra igeltseroa (Logroño). Semea ere maisua (20 urte).

Aipatzekoa da alargun asko ere lanean zebiltzala. Batzuek familia ugariak zituzten. Seguruenez gehienak horregatik hasiko ziren lanean, familia aurrera ateratzeko, alargundutakoan (ikus dendarien atala eta *Lantegieta-ko langileak* atala).

Emakumeek lana eta aisialdia nola uztartzen zituzten ikusiko dugu atal honetan. Umetetatik ikusten ziren diferentziak nesken eta mutilen jardunen artean, baina heltzen zihoazen neurrian handitu egiten ziren. Kirola egitea, adibidez, mutilen kontua izaten zen. Tabernan ibili, edan eta erretzea ere bai. Paseatzea, erromeriak eta zinema ziren neska gazteen denborapasa na-



❖ *Neskatila panpinarekin.* Bergarako Udal Artxiboa. Argazkilaria: Toribio Jauregi

gusiak. Baserritarrentzat, erromeriak bakarrik. Huraxe zen neska-mutilek elkar ezagutzeko zuten toki bakarretakoa. Eta astean egun bakarra izaten zuten horretarako, igande arratsaldea. Gainerako egunak lan egunak ziren.

Umetako jolasak

Errekan bainatzea eta jolas egitea izaten zen kale aldeko neska-mutilen udako denbora-pasa estimatuena. Leku asko zeuden bainatzeko: Bentako eta Ibarbaltzeko Osinak Labegaraietan, Martoko presa, ibaia Zubietan eta San Lorentzon, Agorrosineko presa, Zubikoan potzua, Erroterdi eta Bointxo San Juan aldera... Barrenetxea-Arando anai-arrebak Zubietan ibiltzen ziren. “*Bai, gutxi, baiña bainatzen giñan. Mutillak gehixao. Gu ez Agorroñera. Lehenengo hor, kanalian. Hor presa txiki bat, ta gero hor kanal bat*”. Belaunetarainoko uretan ibiltzen ziren arrantzan-edo. Erritxeren arabera: “*Zapaburuak behintzat bai. Harrixak jaso, eta zapaburuak harrapatzen. Ezkailuren bat edo beste be bai. Jolasa asmau egin bihar, telebisiñoik ez zeuan. Kanpuan jolasten giñuan*”.

Lide Oregi, berriz, San Lorentzoko elizaren atzeko aldean bainatzen zen. Juana Maiztegi errekan ibili bai, baina ez zen bainatzen. “*Mutillak bai, baina gu ez. Mutillak igarixan ta zekixen,*



❖ *Mutiko taldea Algodonerako kanalean bainatzen, 1940ko hamarkadan.* Bergarako Udal Artxiboa. Mikel Murgizu Bakaikoa

gure anaiak eta. Ibiltzen zien igarixan, eta gu ez”. Emakume gutxi jakiten zuen igerian. “Oso rarua igarixan jakitzia orduan andrak! Baiña gure amak bai, bazekixen. Basarrikua zan, Altos Hornos aldian, eta zauken telle-rixia, erak. Eta hortik pasatzen zan kanala, eta han ikasitta berak, bere basarrixan onduan. Harek itxuria han asko bainatzen zien”. Elisabet Agirrezabalek ere badaki igerian. San Antoniokoak kasta handikoak ziren. “Gu oso atrebidak izan giñan, e! San Antonion lau edo bost bagenden”.

Luz Telleriarte “peskak egiten” (uretan jolasean) ibiltzen zen ibaian. “‘Peskak’ egiten genituen. Errekan ibili. Alpargata zahar batzuk jantzita. ‘Ama, lagatzen diguzu peskak egiten?’ Eta gero bainatu ere bai... ez asko, egia esan, ez zen asko baina-

tzen”. Baina neskak eta mutilak gutxi nahasten zirela dio: “Ez dut gogoan neskak eta mutilak sekula batera bainatu izana. Elkarrekin ezkutaketan-eta jolastu bai, baina bainatu...”.

Sasoi batean arropa zaharrak izan ohi ziren bainu-jantzi. Dolores Altunak zera dio bainujantziaz: “Articulo de lujo”. Gero hasi giñan horrekin”. Lide Oregik ere ez zeukan hasieran: “Soiñeko bat gordetzen giñuan, hola bat estropeauta zeuana, baiñatzeko, eta alpargata zaharrak. Eta ni gogoratzen naiz lehelengo-lehelengo zein agertu zan trajedebaño batekin hara, erre-kara. Bergako tela azul horrekin eginda, trajedebaño bat. Bueno, neri asko gustau jatan! Erak zeuken denda bat eta zeuken enpresa bat zerana, textillana, eta klaro, orduan telaik eta oso zailla zan lortzia, gose denboran eta.



❖ *Maria Pilar Larrañaga (eserita) lagunekin errekan, Ozaeta parean 1944 urte inguruan. Soinekoekin bainatzen ziren.*

Eta guri danoi asko gustau jakun". San Antonioko Maria Pilar Larrañaga eta haren lagunak ere soinekoarekin bainatzen ziren (ikus argazkia); eta igeri ere egiten zuten. Asuntxi Gallastegik eta haren ahizpek, oster, umetatik zuten bainujantzia. Puntuzkoa. Aitak automobila zeukan, eta Debara joaten ziren umetan.

Lide Oregi ere Debara joan izan zen mojekin urtean pare bat aldiz. Alokatu egiten zuten bainujantzia. *"Alkilau egitten zan Deban eta hori... Ta klaro, dirua kostatzen zan. Alkilau ta bata bainatzen zanian busti-bustixa bestiari sartu ezindda ta holakuak eginda gare! Eta gaiñera zien puntozko...*

hartzen zebe sekulako pixua. Etara ezindda, bestiak, hurrengiak jazteko ta bueno...". Gurasoekin ere joaten zen urtean behin. Miren Azkarate ere urtean behin joaten zen gurasoekin Debara, taxian. Juana Maiztegi, berriz, sarriago joaten zen. Barrenetxea-Arando anai-arrebek senideak zituzten Zaurautzen, eta txikitatik ezagutu zuten hondartza.

Hamalau bat urte arte, neskak eta mutilak sarri egiten zuten jolas elkarrekin. Txirikilan ('txikileroika' ere esaten zaio) Garizuman egiten zen, eta batera jokatzeko zuten. Luz Telleriarte: *"Txikileroika eta kalderoika. Oso polita zen txikileron eta kalderon. Aitak beti errieta egiten zigun"*. Gorde-gordeka ere bai. Eulalia Elkorok zioen kaniketan eta sokasaltoan ere mutilekin ibiltzen zirela. 'Neska-jolasak' ziren, berriz, tortolosak eta txandorrika ibiltzea: harri zapal bat hanka-bakarka koadroz koadro mugitzea.



❖ *Maria Argialde (eskumakoa) eta beste neska bat hondartzan.*

Erdi borrokan eta elkar xaxatzen ibiltzea ere jolasa zen sasoi hartan. “Gu gerria egittera joaten ginan frontoira, San Antoniokuak, neska-mutilak, danak balientiak. Eta gero palizia hartu eta etxera!”, kontatu digu Elisabet Agirrezabalek. Ez daki San Antonion askatasun gehiago zuten ala ez, baina ausartagoak zirela bai. Gorri fama zuten, eta horrek ere emango zien lizentziaren bat akaso.

Emakumeak eta kirola

Pilota gizonezkoen jokotzat hartu izan da, baina ez da beti horrela izan. Eulalia Elkorok jo eta su ibiltzen zen: “Beste leku batzutan ez, baina gu igual-igual ibiltzen giñan”. Pilar Murgoitiok ere egiten zuen, baina eskuak handi handi egiten zitzaizkion eta utzi egin

zion jokatzeari. Etxean mutilen jolasetan ez ibiltzeko esaten zioten: “Harei laga erak ibiltzen, zuek neskak ibili!”. Luz Telleriartek ere jokatzen zuen, palaz. “Guk pilotan jokatzen genuen kalean, baita pilotan etxeko hormaren kontra ere. Akordatzen naiz gure lagun batek palak izten zituela. Palak ateratzen zituen eta pilotak, eta kalean jolasten genuen”. .

Bergaran ez, baina eskualdean baziren emakume pilotariak, “rake-tistak”. Profesionalak, gainera. Lucia Farras: “Nere amak zeukan lehengusiña bat, raketistia zan Eibarkua, ‘y mal mirada’. Extranjeruan eta ibiltzen zan. Pilar Agirre. Ameriketan-eta raketista. Eibarren bazeuan holako... Eibarkuak izan die gu baino espabilauak beti!”.

Futbolearen ez zuten emakumeek jokatzen, baina ikustera asko joaten zi-



❖ *Pol-pol mendi taldeko kide batzuk Gorlan, 1947. urtean.* Argazkilaria: Indalecio Ojanguren. guregipuzkoa.net

ren Agorrosinera. Eta ekipoari segika kanpora ere bai. Eulalia Elkorok senarra zuzendaritzakoa zuen. “*Neuk be hemen inguruko herrixak gehixenak futbolera joanda ikusitta dauzkat. Orduan Hor Konpon zan. Ondarroara eta Motrikura, Azkoiti, Azpeitti... Irunera eta Renterixara ta Donostira, ta bueno. Mondrauera eta Eibarrera eta Elgoibarrera no digamos nada*”.

Mendirako zaletasun handia egon da Bergaran, Pol-pol Taldearen inguruan, batez ere. Florita Izuskiza asko ibilitakoa da gaztetan. “*Asko ibili naiz ni mendixan, e? Gorlara ta... Gorlan lehenengo buzoia ipini zeбен Itxu-mendin, neu izan nitzan madrinia. Eta eukiko neban, ez dakitt nik, 16-17*



❖ *Bi emakumezko eta gizon bat Urbian eskiekin, 1957. urtean.* Bergarako Udal Artxiboa. Jesus Urkiola fondoa

urte”. Ezkondu eta tabernako ardura hartu zuenean, dena utzi behar izan zuen. “*Ni ezkondu ezkerio, nik tabernan lana, besteik ez dot egin!*”. Lucia Farrasek senarra oso mendizalea zuen, eta bera ere joaten zen noiz edo noiz. Emakume mordoxka ibiltzen ei zen Pol-polekin.

Antzuolako Maria Arangurenek ere zaletasun handia zuen gaztetan mendirako. Goizean goiz ilargi betearekin Antzuolatik irten, eta Aizkorriara joandakoa da behin baino sarriago. Asuntxi Gallastegi ez da mendizalea izan, baina gaztetan Idurixoko kobazulora joaten ziren bera eta lagunak linternak eta kandelak hartuta. Mendirako zela jantzen ziren esaten du Florita Izuskizak: “*Soñokua! Orduan prakak ez*”. Botarik ere ez zuten: “*Keba!, zapatillak. Oingo moduko zerik ez zeuan orduan, keba! Pentsau be ez. Alpargatak edo halakon bat*”.

Neguan Urbia aldera eskiatzera joaten ziren bergararren artean, emakumeren batzuk ere egon zitezkeen. Jesus Urkiolak ateratako 1954ko argazki batean neska bat agertzen da, galtzak jantzita, eskiekin. 1957ko argazki honetan, berriz, bi ikus ditza-kegu, baina badirudi ez direla bergararrak:

Aipatzekoa da 1952. urtean Agorrosinen egin zen gymkanan neska gazte batek parte hartu zuela; motoarekin oztopoak gainditzen ibili zen, gizonetzkoen galtza zabalak jantzita. Esan digutenez, Amezketakoa zen.

Bizikletan ibiltzea zen beste denbora-pasa kutun bat. Inor gutxi izan zuen bizikleta gerra aurrean zein gerraosteko lehen urteetan, eta alokatu

egiten ziren. Hainbat “alkilerrista” zegoen Bergaran. Udako domeka arratsaldetan ohikoa zen neska talde batetik bizikletak alokatu, eta ibilaldi luze bat egitera irtetea.

Angiozarko Maritxu Garitanok historia polita kontatzen du, hika gainera. *“Artien nik ez naukanan bizikletaik, eta pentsau dou neska gaztiok bizikletak alkilau, eta Oñetira. Altos Hornosen egoten zonan alkilerra, hoixe, Barrena. Etxakiñat ba, atsalde guztia pezeta bi edo. Eta orduantxe guk Luisitak eta bixok jersiak egin barriak. Ama siestan eta hartu jerseik one-noi, ta lotu manibelian, eta jun gaittun. Zubillagatik gora bagoianaz, eta jarri don haura aurrian. Hasi don esiak egitten, ditz-ditz, noiz jausiko, ez jausiko... Neri haren errubetan trabatzen jatan nere erruberia, nahasten gaittun eta bixok lurrera. Eta zer eta nere jersioi etxatan ba dana grastu han! Haura penia!”*

Zinema, dantza eta erromeriak

Telebistarik eta Internetik ez zen garaian zinea zen mundura irekitako leihozabalena eta norberaren kezkak, beldurrak eta ametsak proiektatzeko gune magikoa. Gustu eta aldarte guztietarako pelikulak ematen zituzten: gerrakoak, bakeroenak, beldurrezkoak, barregarriak... Baina maitasunezkoek sortzen zuten ikusmin handiena.

Erljioari buruzko atalean aipatuta daude zinearekin lotutako kontu batzuk. Zine-zaletasun handia zegoen Bergaran, leku guztietan bezala. Goi-ko Zinea (Anbrosiona, Novedades) eta

Behekoa (Salón AZI-ONA, Cinema Bergara gero) zeuden, eta sasoi batean frontoian ere ematen ziren pelikulak. Beheko Zinea elizari lotua zegoen Acciona zen garaian eta hara joateko ez zen arazorik izaten, baina abadeek eta mojek Anbrosionera ez joateko esaten zuten. Dolores Altunaren arabera, *“kritikak, segun ze pelikula zan!”*. Baina ez zen astero joaten, diruz urri samar ibiltzen zelako. *“Dirua euki ezkerio, hiru txiki kostatzen zan entradia, orduan; 15 zentimo”*.

Asuntxi Gallastegik dio 3R eta 4 kalifikazio zutenak ezin zirela ikusi. Pilar Murgoitio joaten zen: *“Bai, baina noiz? Neska haundi egin ta gero”*. Ez zen garestia, baina hala ere ezin domekero joan: *“Lantzian behin. ‘Ama, oso politta ei da’. Eta ‘Bueno, igual jongo zate’”*. Luz Telleriartek ume-umetatik izan du zinemarako zaletasuna. Frantzian ikusi zituen lehen filmak, sei urterekin, familiarekin batera gerrari ihesi zebilela. Gero, Cámara izeneko zine aldizkaria hartzen zuten etxean. *La dama de las Camelias* eman omen zuten Bergaran, nahiz eta 4 kalifikazioa izan, “arriskutsuena”, bera Frantziatik itzuli baino lehen.

Zinearekin batera, erromeriak eta dantzaldiak ziren olgeta-bide estimatuenak. Baina olgeta baino askoz gehiago zen dantza. Auzo txikietan izan ezik, eskola ezberdinetan ibiltzen ziren neskak eta mutilak. Lantegian ere gutxi nahasten ziren. Tabernetara gizonak bakarrik sartzen ziren. Dantza zen neskak eta mutilak elkartu ahal ziren ia leku bakarra. Eta han sortzen ziren bikote berri gehienak. Luz Telleriarte: *“Mutilekin berba egiteko modu bat zen. Bestela noiz egon*



❖ *Gazteak San Martzialgo erromerian dantzan, 1947an.* Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa

zintezken mutilen? Eskolak ere aparte zeuden eta”.

San Martzialgo erromeria da Bergararentzat kutunena, aspaldiko denboretatik gainera. Baina bezpera ere jai, San Pedro Eguna. *San Pedro-*



❖ *Sotera Gallastegi. 1985ean elkarriketatu.*

San Martzialak ziren orduan, ekainak 29 eta 30. Honela deskribatzen ditu 1888an Barrenkalean jaiotako Sotera Gallastegik bere gazte-denborako San Pedroak: “*San Pedro bezperan ohi-tturia izeten zan, aparteko gauza bat jentian artian: poza. Eta gero illuntzian Salbia. Eta Salberako etorten zien kriaue eta kriaue zeren danak eta eren etxetara. Eta han eren ongi-etorrixak egin alkarri ta gero Salbera. Ta Salbetik ertendakuan, ba egoten zan pasakallia kale danetati, hasi Beheko Plazan, uste dot, eta gero Bidekutzera. Eta Bidekutzian bi, “toketak” esaten gontsan, bi pieza, toketak zien orduan”.*

Oso egun alaiak ei ziren. “*Haretzek zien jaixak, eta alegriak gainera. Etzeuan han burrukaik eta”.* Eta hurrengo egunean festa handia: “*Eta gero*



❖ *Sanmartzialetako aurreskuan neska-mutilak biribilean, 1930eko hamarkadan. Emakumeetako bat Maria Pilar Zabala Frias da.* Bergarako Udal Artxiboko bilduma, Miren Oregi

San Pedro Egunian, ba lelengo izeten zan danboliña, kaleik kale; goizian diania, eta gero bandiak egitten zeban rekorridua. Gero meza nausittara. Meza nausittara joaten zan aiuntamentua ‘en corporación’, esaten zan bezelaxe”.

Eta hurrengo egunean San Martzialera. Letania errezatuz igotzen zen prozesioan, eta atzean idi-parea gurdia-ekin, gainean zahagi-ardoa zuela. “*San Marzialera goizian letañoa egoten zan sei tterdittan. Ta bastante jente joaten zan. Eta letañoakin igo, han mezia entzun eta gero txokolatia*”.

Aurrekua zen San Martzial Eguneko momenturik inportanteena. Mutilek bakarrik dantzatzen zuten aurrekua, baina jendeartetik neska bana atera behar izaten zuten haren aurrean dantzan egiteko. Eta adi egon

behar! “*Eta hola koskor samarrak giñan artian ba batian han eta bestian hemen ibilli batzuk ein hantxe. Ta ia pentsatzen hasi giñanian neskak ete giñan edo hola zeoze, ba han arasan jarritta iñok etarako ete giñuzen. Asko aurrekuak eta, porsiakaso be presente*”.

Jai arratsaldetan San Martin Plazan edo Espaloian egiten zen dantza, Udal Bandarekin eta txistulariekin. Udan Espaloian. “*Hori izaten zan Pazkuak arte. Pazkuetatik gero San Martiñetara Espaloian eoten zan musikia*”, dio Nati Gabilondok. Hamarretan amaitzen zen musika, baina askok ezin izaten zuten azkenera arte geratu, Juana Maiztegik, adibidez. “*Ta domekan egoten zan musikia Espoioian. Kioskua badao espoloian, eta*

hantxe. Eta jotzen zittuen bi pieza, eta gero deskantsua. Eta gero berriz bi pieza. Eta guk ordenia zeukoun: hamarretan etxian". Moiuazpiko Celestina Oteiza estu hartu zuten behin etxean berandu joateagatik. "Gero, geruau, Espaloira juten giñan musikara. Espaloian be musikan egon, ta gure Maria ta be gu baiño... Gu, Martina ta ni geratu atzenengo piezak joteko. Eta harek pixkat lehentxuau etorri bai, eta etxera jun giñanian... ai ama! Hurrengo egunian baldauta! Zelakuak, zertzuk hartu giñuzen guk, enee!".

Negu partean San Martin Plazan. Zera kontatzen du Luz Telleriartek: "Plazan ere dantza izaten genuen. Hamabi urterekin ez dakit joaten nintzen, baina hamalaurekin bai. Eta go-goan dut seietatik zortzietara izaten zela plazakoa. Musika bandak jotzen

zuen, eta txistularien bandak. Seietan hasten zen. Seietan bandak bi pieza jotzen zituen. Sei ta erdietan txistuek bi pieza jotzen zituzten, sueltoan egiten zen dantza. Zazpietan bandak jotzen zituen bi pieza. Zazpi ta aerdietan txistua, sueltoan egiten zen dantza txistuarekin. Eta zortzietan bukatu egiten zen. Hiru piezarekin bukatzen zen. Lehenengoa tango bat ala fox bat izaten zen, horrelako zerbait. Bigarrena jota bat izaten zen. Eta hirugarrena pasodoble bat. Eta gu irteten ginen dantzara, neskak neskekin, eta mutilak gerturatzen zitzaizkigun dantzara; edo ez ziren etortzen, klaro. Normalean azken hiruretan animatzen ziren mutilak, lehenengoetan ez".

Euria egin arren ez zen dantzaldia eteten. Florita Izuskiza: "Kriston zaparradekin, eta aterkin ta guzti dan-



❖ *San Martin Agirre plazan, jendea dantzan.* Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa



❖ *Luz Telleriarte, 2006an ahotsak.com-erako egindako elkarrizketan.*

tzan, hortxe”. Luz Telleriartek antzina-minez gogoratzen ditu momentu haiek: “Euria zenean guardasolarekin egiten genuen dantza. Ez esan ez daukala bere xarma, e. Polita zen!”.

Neskak bikoteka irteten ziren dantzara, eta mutilen zain geratzen. “Mesedez” zen dantza eskatzeko formula. Florita Izuskiza: “Holaxe, etortzen zien

pareja, eta “mesedez”, ta dantzan egin ta akabatzen zanian bakoitza bere aldetik”. Mariñe Barrenetxea-Arando: “Dantzan egitten zeben, eta mutillak jua eta etara. Kanpotik joaten zian, eta neskiak “faborez...”. Luz Telleriartek ere gauza berdintsua dio: “Mesedez edo por favor edo dena delakoa”. Mutilak ba ei zituzten beren martingalak eurek nahi zutenarekin dantzatzeko: “Bizkarra emanda zeunden igual, eta mutilen batek igual zuek biotako norbaitekin zuen interesa, eta iup, buelta ematen zizun dantza egitean”.

Eta jakina, kalabazak ere ematen ziren etorritako mutilak gustukoak ez zirenean. “Kalabazak be emuten ginen, segun. Gustatzen ez jakunai, kalabazia”, dio Dolores Altunak. Dantzari baldarrei ematen zietela, diote bartzuek. Gotzon Barrenetxea-Arando: “Bestela, buenooo... kalabazak? Eten



❖ *Bi bikote dantza lotuan eta Migel Uribesalgo soinu jotzailea, San Juan egunean Aozaratzako erromerian. Maritxu Urrutia Ricardorekin dantzan eta Carmen Mendibil Jose Mendibilekin. Bergarako Udal Artxiboa. Jesus Urkiola Laspiur fondoa*

*barek kalabazak!”; Mariñe Barrene-
txea-Arando: “Dantzari ona danari
ez, baina pixkat torpiai... ba badaki-
zu!”.*

Arrazoi ezberdinak egoten ziren kalabazak emateko. Miren Azkaratek dio bekatu ez egiteko ematen zituela, orduan dena zelako bekatua eta. Dena dela, halako erru-sentimen bat izaten zuen zenbaitek kalabaza emanez gero; Pilar Murgoitiok, esaterako: “Harek behin hartu ezkerio ez die berri-
etortzen, kalabaza emonak. Geu be
matrakagixak giñan. Txarrak ez, bai-
na matrakak bai”. Baziren sekula ka-
labazarik ematen ez zutenak ere. Zera
dio Luz Telleriartek: “Gauza bat: gure
koadrilan sekula ez genuen kalaba-
zarik eman. Eta ez beti gustokoak zi-
relako, e. Sekula. Ez dakit, niri irudi-
tzen zitzaidan ezetz esatea gutxieste-
a zela”.

Eta baziren dantza loturik sekula
egin bakoak ere, Gloria Agirrebeña ho-
rietako bat: “*Nik bakarrik dantzia
sueltua ikasi neban, sueltua bakarrik.
Danboliña eta trikitixa, sueltua. Aga-
rraurik ez neban ikasi*”.

Kalean gora eta behera, paseoan

Oso errotutako usadioa zen herrian ze-
har paseatzea. Kalean gora eta behe-
ra ibiltzen zen jendea musika isilik ze-
goen bitartean. Emakumeak gehiago,
gizonak tabernetara sartzen ziren eta.
Erritxe Barrenetxea-Arando: “Neskak
debrazete heldu ta gora ta behera, gora
ta behera! Nik beti esaten dot: kalera?



❖ *Juana Maiztegi jostuna, 2005ean
ahotsak.com-erako egindako elkarriz-
ketan.*

*Kalera nahikua egin giñuan gaztetan!
Nahikua, enee Maria eta Jose! Hu-
rrango piezia jo arte, ba ez dakit, or-
duerdi edo, hiru ordu laen edo ze ize-
ten zan. Gora ta behera, gora ta be-
hera”. Juana Maiztegi ere berdintsua
zioen, barrez: “Domeka atsalde guztia
pasatzen giñuan kalia gora eta be-
hera. Barrenkalia, Plazatik Bireku-
tzera, Gasparren kantoetik Plazara Bi-
rekutzeraino. Dantzari egin plazan
eta gero kalia gora ta behera, gora ta
behera. ‘Agur’, ‘agur’; hurrengo buel-
tan, ‘agur’, ‘agur’”.*

Eta antzina-antzina, aberatsak es-
paloi batetik eta pobreak bestetik ibil-
tzen ei ziren paseoan. Erritxe Barre-
netxea: “*Nik ez neban ikusi, baina gure
amak esaten zeban. Pobriak nundik?
Seminaixopetik? Batak alde batetik
paseatzen zebela*”.

Paseoan ibiltzeak bidea ematen
zuen jantzi berriak eta modako orraz-
kerak luzitzeko. Juana Maiztegi: “Do-
tore jantzitta. Bakoitzak ahal zebana-
kin. Pasiatzen ibiltzen giñan gero. ‘De
pieza a pieza’ ba... pasiau. Modak ego-
ten zien: batzuk gona luziak, motzak...
ointxe bezelaxe, kanbixau egitten zan.
Frekillua be bai, eruaten zan”.

Bergarako emakumeek dotore fama zuten. Pazkuetan inguruko herrietako neskak begira izaten zituzten, orduan estreinatzen zuten-eta arropa. Miren Azkarate jostunak dio konfekzioak arropa nasaiagoa ekarri zuela, aurretik estuagoa erabiltzen zela. Amaren garaian txaketarik ez ei zegoen, eta amantal eta guzti joaten ziren erromeriara, jaiegunetako amantal zuriaz. Bere garaian kortsea txikitatik erabiltzen zuten, “goruntza”. Eta 14 urtetik aurrera faja, nahiz eta argal-argal egon. Goruntzak etxean egin-dakoak izango zirela uste du. Ez daki zertarako ipintzen zuten, tenteago ibiltzeko edo.

Mirenek dionez, gaztetan takoi-dun zapatak erabiltzen zituzten, eta 18 urtetik aurrera makilatu egiten ziren. Baina orain baino gutxiago. Belarri-takoak jaio orduko jartzen zizkieten.

Beltzaran jartzea gerraosteko kon-tua da. Artekaleko eta Goenkaleko bat-zuk ur-depositoan egoten ei ziren eguzkia hartzen. Miren Azkarateren amaren sasoian azal zuria zegoen modan, eta arroz-hautsa ematen zu-ten aurpegian. “*Baiña nere gazte den-porarako morena egotia ya politta zan*”.

Emakume aitzindariak

Beti izan dira bere garaiari aurea har-tuta ibili diren emakumeak. Erlijioa-ren atalean aipatuko dugu jostunari eskotedun jantziak eginarazten zizkion andrearen kontua. Baziren “oso libe-raltzat” zituzten beste bi emakume ere:

Ventura eta Candidita Larrañaga, Ba-rrenkalekoak. Lehengusinak ziren; ihesi ibili gerra garaian, eta orduan es-pabilatu ei ziren. Ez ziren mezetara jo-aten, eta sasoiko gehienak baino ire-kiagoak ziren harremanetarako. Ho-rregatik, haien inguruko esamesak sortzen ziren herrian.

San Antonioko bi ahizpa ere na-barmendu ziren, Mari eta Mertxe Lo-peze. “La Rubia Peligrosa” esaten zioten Mariri. Zentro errepublikanoan ibiltzen ziren gerra aurrean. “*Zan rubixa-ru-bixa bat*”, dio Lucia Farrasek. Gerra-ostean ere San Antonion jarraitu zu-ten bizitzen. “*Oso guapak ziren aitzak*”, dio Miren Azkaratek: “*Jesuita izan-dako batekin ezkondu zala ta, infer-nora ya, zuzen-zuzen infernora zoia-la haura. Haura infernuan zeuala! Ho-lakotxiak sartu zoskuen. Harek libe-radak zien. Harek aurria hartu zos-kuen, urte askotako aurria*”. Eibarko emakumeak ere diferenteak ei ziren. Sozialistak, beste pentsaera batekoak. Baina beraiek, mojetako kumeak.

Emakumeak ez ziren tabernetara sartzen, senarrarekin edo senargaia-rekin izan ezik, edo gizonezkoren ba-tek gonbidatuta. Erritxe Barrenetxea: “*Gu nobixotan genbiltzela ta, or-duantxe hasi zan, arratsaldian kafe-txua hartzen ta zeoze. Ta holaxen. Au-rretik ez zan sartzen tabernara*”. Ma-ria Pilar Larrañaga: “*Gu kafeterixara sanmartzial egunian. Edo noizbaitten ‘alguno que se estiraba, a la pastele-ria’*”. Asuntxi Gallastegi ere San Mar-tzial egunez sartzen zen bakarrik ta-bernara. Deportibora, kafea hartzera.

Lorelei kafetegia ireki zuten hiru-rogeiko hamarkadan, eta orduan hasi ziren emakumeak normaltasunez gizon



❖ *Neska-mutil taldea espoloiko kantinan.* Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa

barik hara sartzen. Luz Telleriartek dio eurak izan zirela lehenak, Lorelei aurretik, gainera. “*Eta kontuan izan gauza bat, neskak orduan ez ginela tabernetara joaten. Gu hasi ginen joaten, primeran akordatzen naiz, 54. urtean edo hasi ginen joaten. Beharbada pixka bat lehenago*”. Zalantzan ibili ziren, joan ala ez, ez baitzekiten zer eskatu. “*Azkenean erabakia hartu genuen. Ez nuke esango lehenengoak izan ez ginenik. Eta horrelaxe hasi zen*”.

Ez zegoen berez tabernara emakumeak sartzeko debekurik. Gaizki ikusia zegoela... hori baliteke. Baina ohitura falta ere bazela uste du Luzek: “*Ez dakit gaizki ikusita zegoen... ohi-turarik ez zegoen. Eta hasi ginenean, inork ez zuen ezer esan. Askotan gertatzen da hori; zerbait egiteko ohi-turarik ez dago, eta gero behin norbait egiten du, eta beste batzuek berdina egiten dute*”.

Zinean-eta ikusten ziren emakumeak zigarroarekin, baina lizunkeria handitzat hartzen zen neskek erretzea. Bergaran ez zuten erretzen Miren Azkarateren gazte-denboran. Gerora bai, ezkontzetan-eta. Amaren osaba bat Kuban bizi izan zen, eta han normala ei zen emakumeek erretzea. Baina baziren salbuespenak Bergaran ere. Asuntxi Gallastegik erretzen zuen 14-15 urterekin, Zapatarikoan. Izebak haserre egiten zion, baina amonak defendatu egiten zuen: esaten omen zuen ezagutzen zuen emakume base-rritar batek pipan erretzen zuela, bronkiotarako ona zelako. Maite Mujika Frantzian egon zen frantsesa ikasten, eta bueltan bokilarekin erretzen zuen.

Gloria Agirrebeña tabako biltegian ibili zen lanean. Agirrebeñak ere erre zuen, probatzeko: “*Fumau be egin neban. Bai, aprobau egin neban zelakua*”.



❖ Luz Telleriarte Egidazu (motadun soinekoarekin) bere lagunekin, 1946an. Marisol Manso (eskumatik 1.goa), Dorita Manso (Eskumatik 2.a), Miren Agirre (Luzen gainekoa) eta Carmen Jauregi (ezkerretik 2.a). Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa



❖ Maite Mujika Berbelzu, hondartzan, 1956. urtean. Bergarako Udal Artxiboa. Jesus Urkiola Laspiur fondoa

zan, eta esan neban: 'Enee, honek, honek... tripia ez dau betetzen honek! Jatekua ez da hau', eta kendu neban. Kendu neban, ze gusto daukan ikusi, ta kendu neban haura. Nik ez dot fumau. Ez dot nahi izan".

Gizonak prakekin eta emakumeak gonekin, hori zen orduko janzkera. 1970 ingurura arte oso zaila zen emakume prakadunak ikustea. Maite eta Nere Mujika aitzak izan ei ziren horretan ere lehenetakoak. Zera dio Maria Dolores Peñak: "Gu beti gonekin, unibertsitatean ere bai". Eta 1927an jaiotako Florita Izuskizak: "Orduan prakak ez. Prakak emakumiak noiz jazten hasiko zien ba? Ni hasi zienian hasi nitzan frakekin, bai. Orduan eukiko neban ba 50 urte edo gehixao".

Emakumeek gidabaimena izatea ere ez zen ohikoa. Elisabet Agirrezabal



❖ *Bi emakume moto gainean, 1958an.* Bergarako Udal Artxiboa. Jesus Urkiola Laspiur fondoa

izan zen autoa gidatzeko baimena ateratzen lehenetarikoa. Baina aurretik motorrean, mobilettean, joaten zen Aretxabaletara lanera, 1939an hasita. Laster atera zuen autoak gidatzeko baimena. Donostian, 1945 aldera. “*Ta esaminak egin nittuan Donostian gainera. Ta Aldapetan, enee! Oin goruzko jun biharrian beruzko noia... Baiña lelenguan etara neban haura be*”.

Asuntxi Gallastegik ere hogeitaka urterekin atera zuen. Ugaritzen hasita zeuden ordurako gidabaimena zutenak. Berari ez zitzaion gidatzea gus-tatzen, eta Lucia Aperribai adiskideak eramaten zuen autoa hortik zehar zihoazenean.

Oporrak pasatzera kanpora joatea oraintsu orokortu den arren, izan dira honetan ere aitzindariak. Elisabet Agirrezabal Zaragozara joan zen opo-

rretan, Aretxabaletan lanean zebilela (1939-43). “*Menudas andanzas! Gabilan bailera joan, eta goizeko lauretan txokolatua hartzen, txurruekin, ohera juan baino lehenau. Aittak ez zeban jakin hori, behin be ez zeban jakin*”. Zaragozako giroa oso bestelakoa ei zen, “sala de fiestasak” eta zeuden. Bergaran artean ez. “*Zaragozako bueltia komeni zan espabilatzeko!*”. Bulegoko hiru lagun joan ziren, “oso espabiladak”. Trenez joan eta hotelean egon ziren. Bakarrak izango ziren Bergaran kanpora joaten. Geroago, Benidormera eta Galiziara ere joan ziren. “*Benidorrera juaten giñan taxisian, gaiñera. Hombre!*”.

Maria Dolores Peña ere joaten zen Benidormera lagunekin. “*Nik hogeta-mapiku urte izango nituen orduan. Diru pixka bat izaten hasi ginenean, orduan. Margarita Orueta, medikua- ren alaba, Mari Tere nire lehengusi-*

na...”. Mariasun Plazaola ere ez da izan etxean egotekoa. Madril, Paris, Erroma... “*Bastante gazteik juten giñan. Madriden be izenda gare. Barzelonara be behin joan giñan. Valenzian be bai. Erroman be izen giñan. Parisen be izenda nao...*”. Gehienak ezkongabeak ziren, eta lanean ari ziren denak; independentzia ekonomikoa zuten.



❖ *Mariasun Plazaola, 2010ean aho-tsak.com-erako egindako elkarrizketan.*

Aisialdia baserri eta auzoetan

Kaletarren aisialdiaz jardun dugu orain arte, baina ez da ahaztu behar Bergarako biztanleriaren % 30 inguru baserri eta auzoetan bizi zela sasoi batean, eta baserri eta auzo horietako asko oso urrun daudela hirigunetik. Eta olgeta-bideak oso ezberdinak zirela batean zein bestean.

Elosu, Angiozar edo Uberakoak, esaterako, urtean behin bakarrik hurbildu ohi ziren herrira festa egitera. Pazkuetan. Etxeko jaunak gehiago, feriarra jaitsi ohi baitziren hilean behin, eta

batzuk gehiago gainera, Elgoibar edo Arrasateko ferietara ere joaten zirelako. Emakumeak ez ziren feriarra joaten.

Baserriko emakume asko jaisten zen herrira astoaz esnearekin eta ortuko gauzekin; batzuk egunero, beste batzuk astean behin. Horietako banaka batzuk hamaiketaketoxoa egiten geratzen ziren Zubietako Arando Tabernan, bertako alaba Mariñe Barronetxea-Arandok kontaktatu zuten: “Bai, zapatu goizian etortzen zien. Eta etortzen zien astuekin, Elgetatik be bai, e? Elgetatik, Osintxutik, etortzen zien berduriakin eta baserriko gauzekin plazara. Ta bueltan, guk zaltaixa zeukagun, hor lagatzen zittuen astuak, eta eukitzen giñuan, gurian izaten zan kazuelakada bat haragi saltsakua. Plater txikittan, e, raziño haundixa ez, baina pixkat hola. Haragi saltsakua. Jeneralian mezklaua esaten zotsen: arda zuri eta baltza, baxoerdi. Eta joaten zien primeran gero ya etxera”.

Ia ehun urte jo behar da atzera “errondak aurkitzeko. Anizeta Agirrek dioenez, lehen baserrietan emakumeek linu iruten pasatzen zuten negua, eta parranda egiteko ere aprobeztatzen zuten. “Orduen erronda galantak egitten zien. Negu guztia liñua iruten, irun esaten jakon. Ta juntau andra mordua ta... Gero gabien errondia”. Erronda zer zen azaltzen du: “Errondia, ba, etorten zien mutillak edo, inguruetakoz zerak, eta han andrakumiak egoten zien gorutan egonda, liñuori iruten, harixa egitten egonda. Ba fiesta moduan, batzuk kantautan, beste batzuk dantzatan egin ta... Langintza horretan zebitzenian, gero gabian parrandia izango zan”.

Izan ere, auzolanean egiten zen behar asko: gorueta, lurreta, gari-jotzea... eta bilera haiek aprobetxatzen ziren festa egiteko. Dantzan eta kantuan bakarrik ez, aspaldian galduta dauden jolasetan ere jarduten zuten. “Abarketa-zaharka” esaterako. Hilari Gantxegi: “Ba, abarketa zaharrak jarten zien behien, lurrien; danak illaran alkarren pegante. Ta atzeta bat, haura nun euan topau bihar eban. Ta atzekua pasau ta nun euan topau bihar; ta ez ebanian topatzen, ba, haren ipurtostian... Makurtzen zanian, bestiak aldameneti bli! bla! ipurdien. Ahal ebanak ahal eban zapladia batzaillai!”.

“Erle batzen” zen beste jolas bat : “Erle-batzia, ai danez, kapela haundi bat jantzi, horrek lehen zeak zien ba, kapela beltzak, ardilaniakin egindakuak, urik-eta pasatzen etxakonak, eta hartaikua jantzi, ta beste tunika bat ero, alkondara bat danen



❖ *Hilari Gantxegi. 1985ean elkarritzketatua.*

gainddi, ta, iiiiiiiiii! Ta erle-batzia, ta han huts egitten ebanai belarrondokua. Diooo, jota... baiña emon belarrondokuak...”.

Auzoetako erromeriak ziren baserriarrentzat dibertsiorako eta neska-mutilak elkar ezagutzeko gunek. Jai-arratsaldetan izaten zirenez, sukaldea ondo jasota utzi behar izaten zuten etxean emakumeek erromeria-



❖ *Baserri giroko erromeria.* Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa

ra joan ahal izateko. Auzo eta auzune guztietan egiten zen erromeria, guxtienez urtean behin, santuaren egunean. Eta leku batzuetan ia jaiero, uda partean behintzat. Gizonezkoek ordaindu egin behar izaten zuten dantzan egiteko, soinu-joleei ordaintzeko. Emakumeek ez.

Azkarruntzen (Labegaraiaeta), filarmonika (eskusoinua) eta panderoaz egiten zen. “*Erromeixia, bai. Gu gaztiak giñanian Azkarruntzen egitten zan jaiero. Dana kamiñuan egitten zan erromeixa guztia. Filarmonikia eta pandera, haura zan orduko zera guztia*”, zioen Benita Unamunok. Angiozarko Goimendin ezpainetako soina nahikoa zen festa ipintzeko, Ixabel Belarren arabera: “*Ermittan, San Migelen, ezpanetako soina jotzen eban batek. Ta hantxe, dantza moduko batzuk edo. Auzokuak bakarrik, han bertako auzoko hamabi etxetako edo. Domekero*”.

Neguan kartetan eta Garizuman txirikilan jokatzeko zuten herriguneeetatik urrin dagoen auzune horretan: “*Eta neguen baserri baten, Zulotazpi-kuen, jokuen egitten giñuen, hogeita-maika egitten zan orduen. Eta bestela udan, mutillak boletan*”.

Elosun ere festa handia egiten zen Otabetan. Bergarako kaletik gertu dagoen Moia Azpiko Celestina Oteiza sarri joan izan zen. Baina aurretik baserriko lanak eginda. “*Jolin! Lehenengo ibili bedarra batzen tximiñua bezelaxe, eta sakristixara dotriñara lagatzen bazoskuen joaten... Eta gero oiñez dinbili-danbili izardi batian Elosura erromerixara. Elusun dantzaldi bat egin, eta atzera etorri hari gero oiñez!*”. Eliza aurrean eta Santutxuan, bietan ezagutu du erromeria.



❖ Celestina Oteiza. 1985ean elkarrizketatua.

Elgeta ondoko Asentziokoa ere famatua zen. Eta Urkiolara edo Arrate-ra ere joaten ziren ausartenak, bost edo sei orduko bidea oinez eginez.

Angiozarko Maritxu Garitanoren pasarte honek ederki asko azaltzen du zelakoak ziren baserriko nesken ibilerak erromerietan: “*Erremeixaik ez giñunan lagatzen, ene! Elgetara ta. Elgeta lekutan jaon Gaittaotik. Juten giñustanan, gaiñera agostuan izaten zittunan andramaixak, beroik haundiñeko zerak eta. Juten giñustanan Aldaiko eta Aldaietxebarriko eta danok, ixotzen giñunan Asentziara, Asentziotik handik Elgetara. Elgetara jun eta piezaik be ez, han be ez. Geratu? Pentsau bez. Ukatuta. Ene!, ‘hauxe pieziau behintzet, ai, hau bai dala politta!, hauxe egingdakuen, hau egingdakuen etxera. Hau geinddakuen etxera’, illuna egitten jakunan eta, etorri hari gero mendiz mendi. Baiña kan-tu baten etorten giñustanan, billurra be eukiko giñunan, e. Baiña bat eta bi ez giñustanan etorten, kuadrillia, danak neskak, e. Eta kuadrillia etorten*

giñustanan kantu baten, hor Angu-zarko basarriko txakur danak zaunkaz giñuzela. Ene!, noizko ailegau etxera... Eta etxera ailegauta deskantsatzen giñustanan baiña, hurrengo egunian jun hari berriz zerera, berriz basora. Eneel!”.

Neskak koadrilan itzuli ohi ziren gehienetan erromeriatik. Baina mutilak neskari etxeraino laguntzea ere ohikoa zen. Usadio oso errotua zen “neska-laguntzia”. Hau kontatzen du Nati Gabilondok: “*Batzutan baten batek bai (laguntzen zoskun). Beste batzutan bakarrik geratzen zan, neska kuadrillia juntau ta bakarrik etxera*”. Mutilak ez ziren etxe ondora arrimatzten, eta ez ziren musu ematen saiatzen: “*Orduan etzauan holako kontuik. Dana pekatua zan. Han behian geratzen zien enjeneral. Orduan bat baiño gehixao izaten giñan mutillakin izaten giñanak, eta han behian, Zubibarri esaten jakon zerian behian partitzen giñan. Gero ya neskak juntau atzera, ta nesken komentarixuakin atzera etxera banan-banan*”.



❖ *Nati Gabilondo, 2010ean aho-tsak.com-erako egindako elkarrizketan.*

Neska-laguntzera joan eta mutila harrika hartzea ere gertatzen zen inoiz, batez ere mutila kanpotarra zenean. Benita Unamunok dio bergarar batzuk Elorrioko bati jaiero harrika egiten ziotela, eta honek, higuinduta, behin pistola atera eta tiro egin zuela. Ez zioten gehiago harririk jaurti. “*Orduan pistolak libre euazen. Nere aittak be pistola eukitzen zeban*”.

Mutilen arteko borrokak oso ohi-koak ziren erromerietan. Sasoi batean, gerra aurretik batez ere. Ez ei zegoen erromeriarik borroka barik. Bada festari halako kategoria bat ematen ziola dioenik. Mondrauetarrek eta osintxuarrek zuten borrokalaria fama. Baina ez ziren bakarrik. Benita Unamunok bere begiekin ikusi zuen borroka Asentzion. Horrela kontatzen du: “*Oin laztana edozein modutara dao. Baiña orduan delito haundixa zan mutillak neskiai laztana emutia, e! Neu be han neuan... Bergararrak zien, ta hasi zien, obatu neskiai eta laztana. Anaia zeuan han. Hasarratzen jako, hasi die demandan, eta hasi die burrukan...*”. Apartatzera joan zen lagunaren anaia, eta aurpegia ebaki zioten. Hurrengo batean honek jotzailea eza-gutu tabernan, eta botilaz jo buruan, eta hil egin zen handik egun batzuetara kolpearen ondorioz. Amandreak galdetu ei zion erasotzaileari: “*Baina ze egin dozu?*”. Eta hark erantzun: “*Nik artua opillakin pagau*”.

Erromeria giroko koplak

Kantuek ondo islatu ohi dute garai bakoitzeko giroa eta pentsaera. Elorrioko Gazeta auzoan jaio eta Bergarako Aranengoegoa baserrira ezkondu zen Bixenta Larrañagak hiru kanta hauek abestu zizkigun:

“Errekonduan errota”

Errekonduan errota
haren gainian harria
harri gainian txoria
neskatxa mutil zale mutil...
neskatxa mutil zale
engainagarria
matrailatxo gorria
krabeliñatxua bezelakua.
Larrosatxuak bost orri
krabeliñiak hamabi
andre ederra nahi dabenak
errondan ibili sarri.
Andre ederra nahi dabenak
errondan ibili sarri.

Ederregia zera zu
soluan biharrerako,
hartizu kaballerua
kalian pasiorako.

Ama neuriak ezkontzeko
nere moduko batekin
nere moduko batekin
dotia emango didala
oillo-lokia bost txitekin.
Ama neuriak ezkontzeko
nere moduko batekin
dotia emango didala
oillo-lokia bost txitekin.

Begira nago, begira,
goiko kamiño berrira.
Noiz etorriko ete da noiz
nere maitia herrira?

Begira nago, begira,
goiko kamiño berrira
noiz etorriko ete da noiz
nere maitia herrira?

Ene maitia zer dezu?
Kolare txarra daukazu.
Kolare txarra daukazu.
Koloria mudatzeko
metal-ura edan bihar dezu.

Begira nago, begira,
goiko kamiño berrira.
Noiz etorriko ete da noiz
nere maitia herrira?

Tristerik nago tristerik,
tristerik eta bakarrik,
nobiua daukat gaixorik.
Oillo bat hil detsat baiña
ez duela mejoriarik.
Tristerik eta bakarrik.
Adiskide txarrakin baiño
hobe da bizi bakarrik.

“Gaztia nintzanian”

Gaztia nintzanian, denbora batian,
ez nitzan sosegatzen ezkondu artian.
Ezkondu eta lelengo gabian
Azak eta porruak [Orio] kalian.
Hamaika txorakeri egin degu
gaztiak giñan artian.

Hankak ariñak eta burua ariñago,
hankak ariñak eta burua ariñago,
dantzán hobeto daki artajorran baiño.
Ai, ai, ai artajorran baiño.

Artajorrara nua lur barri-barrira,
artajorrara nua lur barri-barrira,
bedarra jorratu ta artua sasira.
Ole morena, artua sasira.
Bedarra jorratu ta artua sasira.

Hankak ariñak eta burua ariñago,
hankak ariñak eta burua ariñago,
dantzán hobeto daki artajorran baiño.
Ai, ai, ai artajorran baiño.

Arrateko pikuak hiru adar ditu,
Arrateko pikuak hiru adar ditu,
neska mutilzaliak hankak ariñak ditu.
Ai, ai, ai hankak ariñak ditu.

“Mendiri mendi lainua”

Mendiri mendi lainua
pagori pagori usua
ez dezu errez harrapatuko
maiorazkuaren pausua.
Ez dezu errez harrapatuko
maiorazkuaren pausua.

Nere nobiuaren ama,
asto baten jabe dana,
haretzek ekarrik’ost neri
etxian bihar dan dana.
Nere nobiuaren ama,
asto baten jabe dana,
haretzek ekarrik’ost neri
etxian bihar dan dana.

Duela gutxi arte erlijioaren eragina ikaragarria izan da gizartearen arlo guztietan. Gizon eta emakume, denei eragin die, baina emakumeei gehiago, menpetasun egoeragatik. Ume-umetatik bideratzen zituzten katolizismora. Doktrina jakin behar zen Jaunartzea egiteko. Zazpi urterekin egin ohi zen “Komunio Txikixa”, eta 12-13rekin “Komunio Haundixa”. Giro gehienetan, doktrina ikastea inportanteagoa izaten zen eskola baino.

Igandea izaten zen asteko jai eguna. Larunbata lan eguna zen lantegietan; umeek ere eskola izaten zuten goizez. Eta igandearen zati bat erlijioarekin lotutako betebeharrei eskaintzen zieten. Domekero mezatara joan eta Jauna hartzea ia derrigorra zen. Eta domeka arratsaldetan, bezperetara. “*Domeka atsaldian bezperak egoten zien, eta harek be seguru*”, dio Nati Arrietak.

Gainera, etxean askotan egunero arrosarioa errezatzen zuten. Ostirale-



❖ Lau emakume buruan mantila jarrita, Goiko Plazan, 50eko hamarkadan: Rosario Zabala, Rosa Cabredo, Carmen Zabala eta Carmen Chirlaque. Bergarako Udal Artxiboko bilduma, Alfredo González Chirlaque

ro, bijilia egin behar. Garizuman, bijilia eta barau. Hilero, lehenengo ostiralez, konfesatu egin behar zen. Zaindariaren egunez, Domusantuz, Urteberriz, Natibitatez, Errege Egunez... elizkizun berezietan.

Arroparik onenak janzen zituzten mezatarako. Angiozarko Nati Arrietak dio Kontzetzino Egunez (abenduak 8) estreinatzen zirela neguko jantziak, berokia eta abar. Elizara buruan mantila jarrita joaten ziren emakumeak. Ondo plantxatuta eraman behar izaten zen. Egur-ikatzeko plantxa zuten etxean. “*Mantilla barrixa edo. Mantillakin juaten zan elixara. Mezia sagraua zan. Domekia, hara fan egin bihar zan*”. Mantillaz gain, arrosarioak eta eliz-liburua ere eraman behar ziren.

Eta urtero “Pazkuazkua” egin behar zuten: mundu guztia zegoen behartuta gutxienez urtean behin konfesatzera eta komulgatzera. Florita Izuskizak gogoan du abadeak sakristian egiten zuen erlijio-azterketatxoa gainditu behar zela horretarako, “Txartela” lortu ahal izateko. “*Han ipini biha ziñuan zure izena, eta gero komulgatzera joaterakuan entregau. Abariak konturatzzen zien zein joan zan eta zein ez*”.

Kalean zein baserrian, erlijioak bietan zuen pisu handia. Ixabel Belar domeketan goizeko seiretako mezetara joaten zen: “*Haxe izaten zan, gatziek seiretako etorri biha eben, ta gero ba nagusixek meza nagusira, hamarretako mezetara*”. Ordurako gazteak ganadutakoak-eta egiten zebiltzan, lanean. Baserrian jai-egunetan ere ganadu-gobernuak egin behar izaten zirelako.

Erromerietara ez ezik, zinemara ere asko joaten zen garai hartan, igande

arratsaldetan. Eta neskek ezin zuten edozein pelikula ikusi. Bergaran bi zinema areto zeuden, Goiko Zinea (Ambrosioren, Novedades), eta Beheko Zinea. Goikoan ordurako oso “lizunak” ziren pelikulak ematen zituzten, mozketak askorekin hori bai. Elizak oso begi txarrez ikusten zuen hara joatea. “*Bai, joaten giñan Ambrosion zinera. Gero mojak: ‘Quién ha ido al cine de Ambrosio? ¿Que se levante!’ Al otro había que ir*”, dio Lucia Farrasek. Eta jai-ki egiten ziren San Antonioko neska guztiak, “endredatzaileak”.

Rita Hayworth protagonista duen *Gilda* pelikulak (1946) zeresana eman zuen. Begoña Zubizarretak honela kontatu zigun: “*Dana pekatua. Behin joan ga seietako mezetara; mezia entzuten genden eta bakizu, sermoia, pulpittora zela igotzen zeben. Esan zeban: ‘Joan zan domekan pelikula haura ikusi zebana, danak deskomulgauta dare’. Ta egon nitzan pentsatzen eta ez naban ezebe ikusten. Ta nik esan naban: ‘Ni ze tonta ete nok, ez najuan ezebe ikusi nik. Ze bota ete juen?’ Eta ez euan ezer, ez euan ikusteko ezebe*”.

Pelikula bera ikusi zuen Elisabet Agirrezabalek ere. “*Behin juan nitzan*



❖ Rita Hayworth, zigarroa erretzen, ‘Gilda’ pelikulan.

aittan permiso barik. Zela zan haura, Frantzian emon zebeñ lelen, eta gero hemer Berkan emon zebeñ; ba, prohi-biduta zeuana... ‘Gilda’. Ez zeukan gauza haundirik, gainera”.

Gorputza ondo estalita ibili behar zen. Lucia Farrasek dio gonari behe-ra tiraka ibiltzen zirela beti. “Belau-netik behera hola beti, eskolan be hola beti. Manga motzak in joaten baza, ‘te ponían los manguitos, las monjas’. Nik baneukan lagun bat beti esaten ze-bana: ‘Que se jiben, yo voy sin man-gas’. Ta eguneru ipintzen zotsen...”.

“Dena zen pekatua”, da esaldirik errepikatuena gizon-emakumeen arteko harremanak komentatzerakoan. Nati Gabilondok haurduñ ezkontzera zihuan neskaren aurrean abade batek egindako sermoia gogoratzen du: “Or-duan dana zan pekatua, hau egin dozu, bestia egin dozu, ta dana peka-tua. Behin akordatzen naiz, neska bat zauan ezkondu egin bihar zebala ta es-taduan. Eta abadiak kulpittuan hau ta bestia ta ez dakit zer eta badakit zer. ‘Ezkondu egin biher eta hiru ezkon-tzera!’ kulpittuai hola jota, ‘hiru ez-kontzera!’”. Eta gehitzen du: “Muxu emotia zan pekatua, pentsamentua zan pekatua...”.

Andregaiari etxera laguntzen ere kontuz ibili behar zen, begiluze asko zegoelako. Lucia Farras: “Un poquito lejos del portal. Beti zeuan baten bat bestela. Control”. Eta ezkondu aurretik sexu-harremanik ez, jakina: “Eze-bez. Zero patatero”.

Elisabet Agirrezabalek zera konta-tzen du: “San Martzial egun baten oso soñoko politta egin zosten, berrixa, puxkat eskotaua. Ta aitta ohian

zeuan. ‘-Aitta, gustatzen jatzu? –Bai, politta, baiña eskandalosa zoiaz, e!”.

Baziren bere garaiari aurrea har-tuta zebiltzan emakume banaka ba-tzuk. Miren Azkarate jostunak bazuen bezero moduan gainerakoak baino li-beralagoa zen bat, gerra garaian kan-poan ibilitakoa. Hark eskote handia eskatzen zion: “Neri etortzen jatan bat, ta zan andra bat guregandik-eta gehi-xenengandik diferentia zana, gerra denporan joan zan beste lehengusiña batekin hor zihar eta. ‘Muy liberada, muy liberada’. Nik erropak egitten no-tsan, eta esaten zotan: ‘El escote has-ta aquí. Tú no te apures, que tú no pe-cas. Tú haces lo que yo te digo’. Ne-retako bazan, pixkat erreparua euki-tzen neban”. Moda aldatu ahala bera ere liberatu egin zela dio Mirenek. Ai-sialdia atalean sakonago jorratu dugu gai hori (ikus Emakume aitzinda-riak).

Gutxi, baina orduan ere baziren ateoak. Errepublikanoak, esaterako. Emakumezkoak ere baziren tartean, baina gutxi (ikus Emakumea eta po-litika atala). Lucia Farrasen aita zen ateo horietako bat. Ez zen elizara jo-aten, eta oso kritikoa zen elizarekiko. Garai zailak ziren horrela pentsatzen zutenentzat. Eskomikatua zegoela esaten ei zuen, umorez. Hala ere, Lu-cia eta haren ahizpak bataiatu egin zi-tuzten, Jaunartzea egin zuten eta eli-zaz ezkondu ziren. Garai hartako ia guztiak bezalaxe.

Elkarrizketatutako gehientsuek ja-rreara kritikoa dute bizitzea egokitu zi-tzaien giroaren aurrean. Lucia Farra-sek dio orain hobeto daudela gauzak. Orain “gatzean probatu” behar ei da le-henengo, eta interesatzen bazaizu,

ondo, eta bestela, agur. *“Gauza asko hobeto dare orain. Lehen zela egon giñan!, holaxe [eskuak lotuta] e! Gure amak esaten zeban: ‘Libertadia nahi giñunan? Libertinajia etorri don hona!’”*. Maria Dolores Peñak ere hura gehiegizkoa dela dio, orain beste libertate bat dagoela, eta ondo irizten diola.

Maria Pilar Larrañagak uste du abadeei errespetua baino gehiago beldurra zitzaiel. *“Zeatik zeuken mandua, eren eskutatik pasatzen zan gauza dana”*. Berak gertutik ezagutu-tako adibidea aipatzen du: Altos Hornosetik goizeko 6etan irteten ziren gizonak, gauez lan eginda, eta 6:30etarako mezatara joan behar izaten zuten. *“Elizia ‘es un estatus’, militarra dan bezelaxe eta bestiak dien moduan. Eta erak esaten dabena, zuzen badao ez baldin badao, erak esaten dabena! Handik pasau biha da dana”*.

Bada abadeei, zenbait behintzat, gauza bat esan eta beste bat egitea leporatzen dionik ere. Arrieta Larrañaga ahizpak: *“Orduan abariak bere pinituak egitten zittuen, e. Hartu neskaik ederrenak ‘Ama de Casa’. Ama de Casa hartu. Eta lan guztiak egin. Gero moja. Gero bere denporan moja. Baiña neskaik ederrenak... Etxian be konforme, porke zuk ezin ziñuan esan ‘abariak hori esan dosta edo hori egin dosta’, e. Etxian ezin ziñuan hori esan”*.

Dena dela, bada egoera hura pozik bizi izan zuenik ere. Gloria Agirrebeña, adibidez. Ez zuen mutilekin dantzarik egiten; begira egoten zen, eta konforme, gainera. Jasotako heziketa ona izan zela uste zuen, erabat normala.

Erligioarekin lotutako taldeak

Nerabezaroan mutilak Luistarren Kofradiako bihurtzen ziren eta neskak Mariaren Alaba. Baina ez ziren kongregazio bakarrak. Florita Izuskizak diosku Santa Marinan ume txikien kongregazioa zegoela, Haurtxo Jesus Pragakoarena. Prozesioa egiten zuten eliza barruan. *“‘Agur haurtxo maite, Jesus Pragakoa. Agur-agur-agur, gure anaitxo’, hoixe kantatzen giñuan”*.

Mariaren Alabak zen nesken kongregazioa. Zenbait elizatan ardurak izaten zituzten elizkizunetan: arrosarioa errezatzea, kantuak entseatu eta kantatzea, Maiatzeko Loretan parte hartzea, prozesioetan Amabirjinaren irudia eramatea, eta horrelakoak. Hilean behin bildu ohi zituen abadeak sakristian, eta han aztertzen zen neskek izandako portaera. Mutilekin dantzan egitea bekatu larria zen. Arrieta Larrañaga ahizpek (Nati, Arantxa, Itziar, Abelina) Angiozarko egoera kontatzen dute: *“Angiozar txikixa da, eta Angiozarren debekauta zeuan agarruan egittia. Ta klaro, egoten zian zain baztarrian Hijas de Mariakuak. ‘Ene, harek dantzan dihardu!’ Harek abadiak esaten otsen”*.

Gogoan dute konfesatzeko orduan abadeak galdeketa zorrotza egiten zela: *“Zainddu, ene! Harek dantzan egin dau’, abariak. Eta konfesau egin bihar, e! Zelako intenziñuakin dantzan egin dozu?” Ze intentziño? Jakin be ez ezer lelengo ta behin, eta gero dantzan egitteko intenziño guztiakin. Intenziño guztia dantzan egitekua. Ze intenziñokin? Berririo egingo dozu?”*.

Abariai ezetz esan bihar; hurrengo egunian dantzan egin bihar”.

Rosario Aranzabalek eta haren senarrak, Sebastian Aranzabalek, ere kontatu zituzten Angiozarko abade gogorraren kontuak: dantza lotuan ibiliz gero, ez zuela absoluziorik ematen, eta, gainera, 12:00etako mezara baraurik joan behar izaten zutela. Meza ondoren mutilak tabernara joan, eta ardaux goxoa eta barkilloak jaten zituzten; baina neskak ezin ziren sartu.

Kongregaziotik kaleratuak izan zitezkeen mutilekin dantza lotuan ikusiz gero. Eta desohore ikaragarria zen hori. Asuntxi Uribesalgok dio Azkoitian taldetik botatzen zituztela harrapatuz gero, baina Bergarako kalean ezetz. Zinta urdin-zuri-gorri bat zen Maria-ren Alaben ezaugarria, eta hura ken-

tzen zioten kongregaziotik botatakoari. Juana Maiztegiren arabera, mojek zigortu egiten zituzten mutilekin dantza eginez gero. Gogo-jardunak ere egiten zituzten, fedea indartzeko eta tentaldiei gogor eusteko.

Kongregazioez aparte, Acción Católica ere bazegoen, eta dezenteko indarra zuen Bergarako kalean, gerra-ostean. Asuntxi Uribesalgo bertako ki-dea zen. Hitzaldiak ematen zizkieten. Ez ei zuten fama on-ona ere; dantzan neskek kalabaza emanez gero, mutilek zera galdetzen ei zuten: “*Zer, Acción Católicaakua?*”. Acción Católicaan gizonak eta emakumeak zeuden. Emakumeetan, Laskurain eta Carmen Oiarbide ziren arduradunak. Bittori Larrañaga zen diruzaina, eta hura gaxotu zenean Uribesalgo bera ere ibili zen lan horretan.



❖ *Gogo-jardunaldietan parte hartutako Bergarako neska gazte taldea, 1946ko urtarilean, Osintxun.* Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa

Caritas ere gerraostean sortu zen, baina geroxeago. Lucia Farrasen esanetan, abadeek eta Falange ingurukoek gobernatzen zuten herria eta eliza. Gerraosteko lehen urteetan, gose garaian, Auxilio Social jarri zuten, behartsuenei jaten emateko. Farrasen arabera, euren sokakoekin akordatzen ziren bakarrik. Bai orduan eta baita geroxeago ere. San Antonion baziren familia pobre askoak, baina haientzat ez zen ezer egoten: “*Solomillua besapian hartuta komulgatzera joaten zirenendako*” ei zen dena.

Moja joateko ohitura

Gloria Agirrebeñaren lagun taldean lau neska ziren, eta beste hirurak moja joan ziren. “*Nik neuzkan bat, bi, hiru, hiru lagun eta neu lau. Hirurak monja jua zien. Oin esaten dotsut ze bizimodu eruan giñuan... Zenbat kalejira eta dantza erabili giñuan... Hortik kontua etaraizu ni be zela ibili naizen! Eta konforme halaxe, pozik halaxe. Asko maitte giñan eta pozik. Zuek jun nahi badozue, ni ez noia’.* Eta hamen.



❖ Maritxu Unamuno Urkiolak moja botoak egin zituenekoa, Iruñean, 1951. urtean. 24 urte zituen. Emilia Urkiola amarekin ageri da. Bergarako Udal Artxiboa. Jesus Urkiola Laspiur fondoa

Beste danak hil zien, zeruan egongo die nere zain”. Hiru nobio izan zituen. Formalak eta onak. Baina harremanek ez zuten aurrera egin, eta ez zen ezkondu.

Moja joateko hainbat arrazoi zeuden: batetik, familia ugarietan etxean denentzat ez zegoela tokirik. Bestetik, ohitura: alaba eta seme zaharrenak moja zein fraide edo abade egitea usadioa zen, eta ohorea zen familia-rentzat; etxeko kristau fedearen erakusle. Hortaz gainera, neskek umetatik jasotako heziketa zegoen. Baziren gogoeta espiritualak eginda edo fraide frantziskotarren hitzaldi sustuen ostean moja joaten zirenak ere.

Miren Osaren arabera, emakumeak lantegietatik “ejerzizio espiritualak” egitera ere bidaltzen zituzten. “En-

tzunda daukat enpresarixuak eukela konbenion bat eginda. Ejerzizio espiritualara be bialtzen zittuen, ordainduta. Ni akordatzen naiz... zerian be egonda nao: ejercicios espirituales. Lanetikan elejiduta, pagauta enpresiak. Donostian. Emakumieri. Eta konbenion bat eginda eukela... klaro, asko joaten ziala gero handikan monja. Monja, gero zera be bai monja jua zonan. Mari Tere Elorsegi. Ejerziziuak eginda-eta urtetzen zebela. Eta harek ez zeuken dote biharrikan. Lanian zeren danak”.

1930an, denera 118 moja bizi ziren Bergaran. Mariaren Lagundikoak 66, Trinitatekoak 32, Mariaren Zerbitzariak 12 eta Karitatekoak 8. Moja sartzten ziren herritarrak asko ziren, baina ezin izan dugu datu zehatzik jaso.

Orainsu arte leku gutxi izan du emakumeak artearen munduan. Sorkuntza artistikoa gizonaren eremu eskusiboa izan da; ia ezinezkoa da emakume idazleen, margolarien edo musika sortzaileen izenik aurkitzea garai batetik atzera.

Interpretazio mailan bai; aspalditxotik dabil emakumea eszenategietara igota dantzan, kantuan, antzerkian edo zinean, era profesionalean. Baina normalean jarraikortasunik gabeko kontuak izaten ziren horiek, eta hiri handietan errazagoa zen herrietan baino.



❖ *Mariaren Lagundiko interneak osatutako tuna, 20ko hamarkadaren bukaeran. Eskubitik lehenengoa, belauniko, Maria Victoria Oiarzabal da. Bergarako Udal Artxiboko bilduma, Ana Julia Irigoien Oiarzaba*

Musika

Musika-tradizio handiko herria da Bergara. Musika da emakumeak artean jorratu ahal zuen ia arlo bakarra. Ez da egon gaizki ikusita emakumeak solfeoa eta pianoa ikastea edo abesbatzan kantatzea. Familiatik etortzen zen gehienetan musika zaletasuna. Pianoa zuten etxeak ere ez ziren gutxi. Ez da ahaztu behar Bergararen ukitu aristokratikoa eta familia askoren bizi-maila ona.

Udaletxean debaldeko musika akademia zegoela kontatzen zuen Natalio Juaristik, baina hura mutilentzat bakarrik zen: “*Partikularrian ez, baina bestelako zeatan mutillak eta neskak aparte*”. Miguel Gonzalez Bastida bاندako zuzendaria zen hango irakaslea; neskak ere hartzen zituen, baina aparte. Erritxe Barrenetxea-Arando, adibidez, eskolatik irtenda solfeoa ikastera joaten zen. “*Lehen berdura plazia zana, hantxe goixan. Diretorian semiakin, Gonzalezekin*”. Erritxe eta

Mariñe ahizpei osaba Felixek ere erakutsi zien musika pixka bat, tabernan. Mariñe: “*Lelengo liburua erakutsi zos-tan bazkaloste baten. Lelengo solfeuana, hasi tta akabo! Bera musikua zan bai, eta gustau egitten jakon*”.

Juaristik dioenez, San Pedro kalean ere musika ikasteko akademia bat zegoen, Paulo Barrenarena. Bestela, Mariaren Lagundian ematen ziren musika-klaseak Bergaran. Hantxe ikasten zuten neska gehienek, ordainduta. Asuntxi Uribesalgok pianoa jotzen ikasteko gogo handia zuen. Baina ez zuen aukerarik izan. Monjetan bazegoen horretarako bidea, “*baiña nik beste piano bat ikasi bihar neban eta...*”. Marrazten eta bordatzen ikasi zuen, eta oso gaztetatik jostera dedikatu zen. “*Dibujua emon neban hoixe bihar zalako, baiña geldittu nitzan pena horrekin*”. Etxean ez zegoen pianorik, baina anaiak bazuen armoniotxo bat eta saio batzuk egiten zituen harekin. “*Zenbat bider gizonak esaten zostan: ‘Joan zaitte eta ikasizu!’; baiña lotsia emoten zostan*”.



Asuntxi Gallastegi

Musika irakaslea

❖ Asuntxi Gallastegi, 2013an lan honetarako egindako elkarrizketan.

Asuntxi Gallastegi 1933. urtean jaio zen, Barrenkalen. Sei senide ziren, lau neska eta bi mutil. Asuntxi txiki-txikitatik izan zuen musika ikasteko gogoia. Etxean pianoa zuten, eta amak bazekien jotzen. Mariaren Lagundian ibili zen eskolan, baina internekek bakarrik zuten musika ikasketak egiteko eskubidea, Maria Enekotegi senidearekin hasi zen solfeoa eta pianoa ikasten. Enekotegi Bilboko kontserbatorioko irakaslea izandakoa zen, eta Bidakruzetan ematen zituen klaseak (ikus haren biografia Maistrak atalean). Asuntxiarekin batera hainbat neska bergarar ibili ziren Mariarekin: bere ahizpa, Maria Jesus Inza, Ana Mari Azkarate...

Gallastegi Bilboko Kontserbatoriora joaten zen azterketak egitera. Ganbera musika ere egin zuen. Piano karrera zazpi urtekoa zen. Solfeoa laukoa. 17 urterekin amaitu zuen. Dena Bikain atera zuen, ikasgai bat izan ezik. Mariaren Lagundian pianoa alokatzen zuen, bi ahizpek ezin zutelako etxeko pianoan batera jo.

Berezkoa izan du pianorako abilezia Asuntxi. Sariketa baterako prestatzen ere ibili zen, baina irakasleak ez aurkezteko aholkatu zion, merezi arren ez ziotela lehen saria emango eta. Etxean ez omen zitzaion bere trebetasunari inolako inportantziarik ematen. *“Lehen ez zan, gure etxian ez behintzat; bape inportantziarik guri ez zoskuen emoten. Nik ikusten neban beste etxetan seme-alabak, bueno... hau egitten zebe eta bestia egitten zebe... Gure etxian ez zan halakua”*. Mutila izan balitz ere berdin izango zela uste du.

Maria Enekotegi gaixotu egin zen, eta Asuntxi haren klaseak ematen hasi zen, irakasleak eskatuta. Camacho anaiak izan ziren bere lehen ikasleak. Handik gutxira etxean ematen hasi zen: Pili Manso, Mari Carmen Gallastegi, Bolibar... lagun-talde handia etortzen zen. Ikasle talde handiak izan ditu gerora, hogeita hamar bat aldi berean. Bulegoko lana (Labe Garaietan) eta musika-klaseak batera eramane ditu. *“Ofizinatik etorri eta emoten nittuan klasiak. Eta bastante onak zien, zegatik etaratzen zittuen nota onak”*. Donostiako Kontserbatoriora joaten ziren azterketak egitera. Pedro Guallar organo jotzaile ezaguna bere ikaslea izan zen. ❖

Erromerietan musika jotzen zutenak normalean gizonezkoak ziren, baina aipagarria da emakume pandero jotzaileak ere bazirela inguruetan. Zeberioko Maurizia Aldeiturriaga, Oñatiko Primi Erostarbe eta Galdakaoko Romualda Zuloaga ziren ezagunenak. Romualda Zuloagak hainbat aldiz jo zuen Bergaran, Mariano Barrenetxea albokariarekin batera. Panderoa jotzeaz gainera, bertsoak kantatzen zituen eta irrintzilaria ere bazen.

Bergarako Orfeoia

Orfeoia instituzio inportantea izan da Bergaran. Oraindik ere bada baina sasoi bateko distira barik. 1923ean sortu zen, eta Don Roman Oiarzabal medikua izan zuen zuzendari 1970ra arte. Orfeioen Nazioarteko Lehiaketa irabazi zuen Santanderren 1923an.

Harrezkero batera eta bestera ibili zen, eta fama handiko abesbatza izan zen urte luzez. Gerrak etena ekarri zuen, baina 1947an berpiztu, eta lehengo distira berreskuratu zuen.

Lucia Farrasek berba hauek jartzen ditu Don Roman Oiarzabalen ahotan: *“Mira, fútbol no tenemos, y santos de procesión tampoco. Pero Orfeón en Bergara... Yo a ver procesiones voy a casa de mi hija en Málaga. Y a ver partidos a Bilbao. Pero Orfeón no hay por aquí como el nuestro”*. Harro egoten ei zen bere Orfeioarekin. *“Ta neska asko Orfeoian. Bai ba. Gero monjak be emoten zeben solfeo ta. “A las que tenían un poco [dirua], claro”*.

Asuntxi Uribesalgo Orfeoiaren bigarren jaiotzarekin batera sartu zen, 18 urte zituela. Izeba biak gerra aurretik ibilitakoak ziren, eta osaba musikaria eta kantaria zuen. Entsegutara pozik joaten zen, nahiz eta iluntzean izan. Urtero kontzertu handi bat egiten zen irailean, San Pedro elizan.



❖ *Bergarako Orfeoia, gerra aurretik, sortu zen urtean: 1923an.* Bergarako Udal Artxi-boko bilduma, Ana Julia Irigoien Oiarzabal



❖ *Bergarako Orfeoikoak 1954. urtean, Madrilerako hegazkina atzean dutela. Udal Artxiboko bilduma, Ana Julia Irigoién. Argazkilaria: Destello*



❖ *Orfeoiko nesketako batzuk, Madrilén 1954ko apirilean. Ezker-eskuin: Orueta (1.º emakumea), Edurne Agirrebeña (2.ª), Maria Teresa Etxaniz Inza (4.ª), Larrañaga (6.ª), Maria Jesus Inza (7.ª), Aranburu (8.ª), Asuntxi Gallastegi (9.ª) eta Maria Luisa Bastera Muruamendiaraz (12.ª). Udal Artxiboko bilduma, Ana Julia Irigoién. Argazkilaria: Destello*

“Konzertuak izaten zien ‘de alto cope-te’. Verdi, Berlioz, Escuderoren hileta, Carmina Burana...”. Bilboko orkestra etortzen zen, eta musika zuzendari famaturen bat ekartzen zen egun horretarako.

Hainbat bidaia egin zituen Asuntxi Uribesalgok Orfeoiaekin. Madrilen eta Salamancan egona da, esate baterako. 1954ko apirilean Madrilgo orkestra sinfonikoarekin batera eman zuten kontzertua, Monumental Cineman; Columbia disketxerako grabazioa ere egin zuten. Hegazkinez joan ziren, sasoi hartako argazkietan ikus daitekeenez; gehienentzat lehen aldia zen.

Ezkundu eta umeak izan zituenean, Uribesalgok utzi egin zuen, eta ez zen bueltatu. “Behin urten ezkerio zertara joango za?”.

Askok ziren orfeoian kantatzen zutenak, eta ezin denak aipatu. Jostunen atalean datorren Miren Azkarate, adibidez, Orfeoikoa izan zen. Madrilen izan zen hura ere. Baita Asuntxi Gallastegi musika irakaslea ere. Mojetan zebilela hasi zen Orfeoian Gallastegi, eta ia 50 urte egin zituen. 2000. urtean utzi zuen, Orfeoia urteurrena ospatu zen egunean. 70 bat kide izan ohi zituen Orfeoiak, gizon eta emakume, erdi eta erdi, gutxi gorabehera. Baziren bera baino adin handiagoko emakumeak. Josefina Lazpiur, Juste Aménabar... Gallastegiren ama ere Orfeoian kantatutakoa zen gerra aurretik.

Musika Bandan ez da egon emakumerik oraintsu arte. 1980 aldera sartu ziren lehenak. Pianoa bai, baina beste tresna gutxi jo ahal izan du emakumeak. Asuntxiren ahizpak gitarra jotzen ikasi zuen mojetan.

Dantza

Dantza taldeen aipamen txiki bat egingo dugu hemen. Dantza talde asko izan dira Bergaran, eta zertzelada batzuk baino ez ditugu emango. Bergarako Udalak bere dantza taldea zeukan gerra aurrean: mutilen taldea eta neskena. Dantza txapelketak ere antolatzen zituzten, San Martin Agirre plazan, eta hainbat herritako taldeak etortzen ziren Bergarara. Horren lekuko da Mauro eta Victor Azkona anaiek 1926an grabatutako *Bergara 1926* izeneko dokumentala. Dantza saioek jarraipena izan zuten gerraostean ere; euskal dantza folkloretzat hartzen zuten agintariekin, eta ez zitzaizen arriskutsua iruditzen.

Errepublika garaian, Batzokian dantza taldea sortu zuten, neska-mutikoen (aurretik aipatua); gerraren etorrerarekin desagertu zen, Batzokia bezalaxe. Gerraostean, berriz, Accion Catolicak bi dantza talde jarri zituen abian: kalekoa eta Labe Garaietakoa. Bi talde horiek elkarrekin egin zuten dantza Euskal Herriko hainbat tokitan, 40ko hamarkadaren bukaeran. Hona hemen 1949an Accion Catolicako dantzari moduan zebiltzan neska batzuen izenak: Encarna Peña, Miren Castañares, Rosarito Arenaza, Maria Luisa Inza, Itziar Arrieta, Arantza Goikoetxea, Elisa Garmendia, Enkarna Zezeaga, Pilar Biain, Miren Suinaga, Maria Luisa Inurrategi, Anita Agirre, Maria Luisa Osinalde, Beatriz Lazkano, Maria Luisa Basterra, Mertxe Lazkano, Lide Oregi, Konsuelo Martin, Alizia San Vicente eta Begonia Urbina.



❖ Gerra aurreko udal dantza taldeko neska-mutikoak, 1927 urte inguruan. Ezker-eskuin, neskak: Jaione Zabaleta, Maritxu Gabilondo, Mercedes Laskurain, Mujika Agirrezezeaga, Pilar Telleria, Petra Juaristi, Adelaida Soria eta Carmen Peña Urmeneta. Mutilak: Nicolas Gallastegi, Jose Ramon Peña Urmeneta, Alberto Osinaga, Carlos Ormazabal, Marcos Kortabarria, Esteban Juaristi, Markelin Etxeberria eta Felix Etxeberria. Bergarako Udal Artxiboa. Azpifondo administratiboa. Egilea: Gerardo Garcia

Maria Pilar Larrañaga Labe Garaietako elizako dantza taldean ibili zen. 1944 inguruan, "El vals de la viu-

da alegre" dantzatu zuten, Don Epifaniok zuzenduta.



❖ Maria Pilar Larrañaga (eskumako hirugarrena) Labe Garaietako dantza taldekoekin batera dantzan.

Antzerkia

Gerra aurretik, Errepublika denboran batez ere, oso indartsu egon zen antzerkia. Bergarako Batzokian antzerki talde mixtoa zuten, eta hainbat emakume zeuden bertan. Pilar Murgoitio zen horietako bat: “*Beti papelen bat eskuan dogula*!”. Murgoitioak aipatutako beste aktore batzuk: Lasturrietako Maria, Nieves Ormazabal, Ines ‘La Morena’, Juste Amenabar... “*Eskolako maestrak be bazeren, neskak, e, han okupauta. Ederki! Erde-raz ta euskeraz*”. Florita Idarretak Bittori Oñate ere aipatu zuen antzezle



❖ *Pilar Murgoitio, 2004an egindako ahotsak.com-erako elkarrizketan.*

gisa. Eta Dolores Altuna ere antzeztzen jardundakoa zen: “*Komerixak ta dana egitten giñuzen, e? Teatruak*”.



❖ *Batzokiko antzerki taldekoak, Erdi Aroko erara jantzita. Katalina Eleizegiren "Iatzu" antzezlana eman zuten 1934an Bergaran, Donostian, Eibarren, Arrasaten, Elorrión eta Tolosan. Ezkerretik eskumara, goitik behera 1. ilaran: Tomas Barrena, Luis Bikuña Artolazabal, Jabier Ulazia, Txomin Jauregi eta Leandro Kortabarria. 2. ilaran: Juste Amenabar, Nieves Zabaleta, Roman Jauregi, Carmelo Otaola, Maria Errasti eta Natalio Juaristi. 3. ilaran: Pilar Murgoitio, Martin Gallastegi, Bittori Oñate, Ines "Mandazain", Pakita Agirrezendoia, Luisa Galarreta eta Rafaela Ezpeleta "Guenetxe". Aurreko ilaran: Patxi Azkargorta, Aintzane Marcó, Miren Linazisoro, Felix Mujika eta Katalina Eleizegi (antzeztanaren egilea). Bergarako Udal Artxiboko bilduma, Natalio Juaristi Aranburu*



❖ *Santamañako antzerki taldea.* Intxorta taldea

Lucia Farrasek dio Regil ahizpak (Lucia, Francisca eta Eugenia) ere asko mugitzen zirela, eta antzerkia ere egiten zutela. Baxili Mendizabal, Xixili “Bikuñanekoa” eta Felisa Gabilondo “Patxikortanekua” gogoratzen ditu antzezle lanetan. Elisabet Agirrezabalen arabera, Felisa Agirrezabalek, Bilbora ezkondu zen ahizpak, ere antzerkia egiten zuen.

Juana Maiztegi ere joaten zen Batzokira. “*Joaten giñan teatruak eta, eta kantuak ikastera be bai*”. Antzerkia egiten zutenen artean Ines “La Morena”, Juste Amenabar eta Pilar Murgoitio zituen gogoan. “*Gu ez giñan sartzen hainbeste. Baina ikustera joan bai. Polittak. Guretako polittak zien*”.

Toki askotara joan ziren antzeztera: Eibar, Arrasate, Elgoibar, Soraluze... inguruko herrietara. Rafaela Ezpeleta zen antzezlanak zuzentzen zituenetako bat. Hala zioen Pilar Murgoitio. Ezpeletak esaten ziela nola ira-

kurri, nola mugitu... “*Emuten zoskuen leziñua, eta hori ikasi bihar. Karretillia moduan ikasten giñuan, baina gero haura bere tonua emuten eta erakusten...*”. Batzokian oholtza bat zuten antzerkia egiteko.

Errepublikanoek eta karlistek ere antolatzen zituzten euren antzezlanak, politikarekin lotutako atalean aipatu dugun moduan. Santamañako antzerki taldearen argazki bat ere lortu dugu, baina ez dugu talde honen inguruko informaziorik.

Gerrak eten zuen antzerkiaren loraldia, eta toki askotan giro hori ez zen sekula berreskuratu. Bergaran gerra aurreko teatroak jarraipena izan zuen, artean Frankismoa gordin-gordin zegoen sasoian. Ia miraria, sasoi hartako debeku eta errepresio-giroan. 1965an Ernai Taldea sortu zen, Juste Amenabar (ikus bere fitxa *Emakumea eta politika* atalean) eta Txomin Amasorrainen eskutik. Biak ziren ge-



❖ *Juste Amenabar eta Txomin Amasorrainek zuzendutako Ernai taldeko lehenengo antzezlaneko argazkia, 1966an: zutik, Juste Amenabar, Maria Isabel Arregi, Gotzon Bikuña, Arantxa Ibarzabal, Itziar Amenabar, Iñaki Arriaran, Txomin Amasorrain eta Xabier Zezeaga; eserita, Juan Luis Bikuña, Marikontxi Aranguren, Angelita Agirrebeña eta Mikel Lazpiur.* Bergarako Udal Artxiboa. Kultura departamentuko bilduma)

rra aurreko kultur mugimenduan parte hartutakoak. Justek zuzendari lanak egiten zituen batik bat, eta Txominek gidioen itzulpenak eta moldaketak. 1966an taularatu zuen Er-

naik bere lehen obra Bergaran, Antonio Maria Labaienen *Malentxo alargun*. 1970ean desegin zen taldea.

Hona hemen Ernai Taldearen obra baten iragarkia hitzez hitz:

Salón Novedades - Vergara

Loreil onen 21'an, eguaztena. 1969. Arratsaldeko 7'tan eta

Gaueko 10'tan. Euskal Antzerki jaialdia

Bertako ERNAI taldearen gain

ARGI IXPI BAT (Una luz en la noche) Antzerkizuna

Aldo Benedetti autore italiarraren sorkaria Txomin Amasorrain'ek

Euskeraz antolatua.

Banaketa: Juan Luis Bikuña, Mari Kontxi Aranguren, Itziar Amenabar, Arantxa Ibarzabal, Mikel Lazpiur, Iñaki Ibarzabal, Xabier Murua-mendiarrak.

Pintura

Margolaritzan, musikan bezala, tradizio handiko herria da Bergara. Baina gizonezkoen esparru itxia izan da duela gutxi arte. Maripaz Alustiza (1945) izan da esparru horretako atea zeharkatzen lehena.



Maripaz Alustiza **Margolaria eta pintura** **irakaslea**

❖ *Maripaz Alustiza, 2010eko San Migeletako pintura lehiaketan parte hartzen, Oñatin.*

Zubietan jaioa, 1945ean, Maria Rosa bizkiarekin batera; ama jostuna zuten eta aita elektrizista. Umetan, Dolores Gauna Ama mojararekin egin zituen lehen marrazkiak Maripazek, Mariaren Lagundian. Zazpi urterekin Bilboko moja ikastetxe batera bidali zuten, interna. Han gehiago sakondu zuen marrazkigintzan. Moja batek ematen zion klase partikularra, Bilbon. Hamabost urte zituela, familia batekin bizitzen jarri, eta akademia batera joaten hasi zen, Bilbon bertan. Bi urte egin zituen han: oleoa eta marrazkia ikasi zituen. Muralista zen irakaslea, oso ona. Gazte-denbora guztia Bilbon egin zuen.

Etxera itzuli eta delineazio ikasketak egin zituen Arrasaten, eskola profesionalean. Amaitutakoan, Bergarako General Mecánica enpresan hasi zen lanean delineante gisa (han 13 urte egin ostean, Algodoneran ibili zen).

Ordurako Bergarako artisten taldeko kidea zen Maripaz. Plazako ganbara batean zuten lokala. Dozena bat lagun ziren. Simon Arrieta izan zen lehen irakaslea. Jai egunetan aire libreko lehiaketak egiten ziren, eta batera eta bestera ibili zen taldearekin. Bera zen emakume bakarra. Jose Jabier Agirre, Agustin Amasorrain, Josu Ugalde, Arrasateko Altuna, Jesus Mari Lazkano... zeuden taldean. Normalean figuratiboa egiten zuten, baina naturatik beti. Simon Arrieta zen erreferentzia.

Kolore garbiak dituzte bergararrek, baita berak ere, eta haren eraginagatik dela uste du. Lehen hiru edo lau denda zeuden Bergaran pinturak erosteko, orain bakarra, Zangitu.

Alustiza gazterik hasi zen etxean pintura klaseak ematen. Neskak eta mutilak izan ditu ikasle. Berarekin hasitako hainbatek irten dute aurrera. Manu Muniategi ikasle izan zuen zortzi urterekin. Amaia Bengoak Arte Ederrak egin zuen gero, eta orain irakasle da.

Maripazek Bilbon bigarren saria jaso zuen Banco Bilbao Vizcayak antolatutako lehiaketa batean. Ilusio izugarria egin zion. Beste sari batzuk ere jaso ditu. *“Nik daukat premixo mordua, eta gehixenak Bizkaixan hartuta”*. Ez du uste emakumea izateagatik diskriminatua izan denik arte munduan. Lehiaketetan ez da jakiten zeinena den koadroa. Hori bai, bere ustez gizonak abantaila izan du beti, denbora libre gehiago izan baitu. Emaztea lanean eta gizona artista, asko ematen den “koadroa” dela dio: *“Gizona artista, baiña lanian andria... Hola izan da”*.

Deban, Azpeitian eta Bergaran egin ditu erakusketa indibidualak. Talde-erakusketak, asko. Berak koadro gutxi saldu du. Normalean oparitu egin izan ditu. Etxea koadroz beteta du. Bere ilusioa egitea da, eta gero eta hobeto egitea.

Eskulangintza ere aipatuko dugu, labur bada ere. Bergaran aspalditik dago Eskulangintza Tailerra. Udalaren lokal batean kokatuta dago, Zabalotegin. 1967an Bergarako Kultura Elkarteak sortu zen, Udalaren ekimenez, herrian kultura bul-tzatzeko: musika, pintura, eskulanak, jaiak... denetik. Hainbat talde sortu ziren, eta horietako askok gaur egun arte iraun dute. Eskulaneekin lotuta, zeramika da landu den arloetako bat. Altos Hornosen bizi zen emakume bat izan zen lehen irakaslea: Peña Aranburu. Azken urteotan, berriz, Ana Orgaz zeramista da arduraduna. Jende askok ikasi du buztinezko irudiak egiten akademia horretan. Beste arlo asko ere landu dira eskulangintza tailerrean: pintura, eskultura, tapizgintza, makrame... Eskulangintza zentro honetako erabiltzaile gehienak emakumeak izaten dira. ❖

Zer esan ondorio modura? Bergara herri berezia dela. Beste toki batzuetan baino aukera gehiago izan duela emakumeak lane-rako, ehungintzari esker.

Baina has gaitezen hasieratik: ikasketak. Neskek mutilek baino aukera gutxiago zuten ikasteko. Batetik, haien jakintza mailari ez zitzaion behar besteko garrantziarik ematen, etxea eta familia gobernatzeko jakitea-ekin aski zutela uste zelako, eta, bestetik, ikastetxeetan ere mugak zituzten. Moja ikastetxean interna zeude-nek soilik zuten Batxilergoa egiteko aukera. Familia dirudunetako alabek, alegia. Goi mailako ikasketak egiteko, berriz, herritik kanpora joan behar zuten, eta 50eko hamarkadara arte banaka batzuk izan ziren bide hori egin zutenak. Oso gutxi. Magisteritza, Erizaintza, Idazkaritza eta Merkataritza ziren “emakumeen ikasketak”, eta horietan unibertsitateko karreretan baino neska gehiago zeuden, eta lehenagotik. 30eko hamarkadan hasi zuen karrera lehen neska bergararrak, eta hurrengoek 40ko hamarkadan. Pixkanaka joan ziren zabaltzen aukerak, batez ere 50-60ko hamarkadatik aurrera.

Oinarrizko ikasketak egin eta berehala, neska gaztetxo asko hasten zi-

ren lanean. Gehienak ehun-lantegietan. Ehunka emakumek egiten zuen lana ehungintzan Bergaran. Aipatzeko da, hala ere, denek ez zutela begi onez ikusten neskek lantegian jardutea. Ehun-lantegietan lanean hasteko gutxieneko adina 15 urte bazen ere, 14rekin hasten ziren asko. Gizonezkoek baino gutxiago kobratzen zuten lan bera egiteagatik, baina beste herri batzuetan ez zen halako aukerarik neskentzat: industria gehienak gizonezkoentzat ziren. Lan zikina eta neketsua zen, baina ordutegi jakina zuten, eta gerora pentsioa jasotzeko aukera izan zuten. Hori bai, ezkontzean emakumeak lana uztea zen ohikoena. Etxekoandre ona izan eta familiaren kargu egiteko. Frankismo garaian, joera hori indartu egin zen; lege bat ere jarri zuten, emakumea lana uztera derrigortzeko. Alargunek eta ezkongabeek erretiroa hartu arte jarraitzen zuten fabriketan lanean.

Emakumeen ogibide nagusiak aztertuta ditugu lan honetan. Horien artean, jostunena. Modista eta jostunen taldea beste herri batzuetan baino handiagoa zen Bergaran, ehungintzarekin lotutako konfekzio tailer ugari zegoelako. Josten ikastea neska denen betebeharra zen, eta gero batzuek horretara dedikatzen ziren. Ez

zen ondo ordaindutako lana, ordute-girik ez zuten, gehienek etxean egiten zuten lana eta etxeko jira ere eraman behar zuten. Gehienek ez zuten pensiorik jasotzerik izan.

Zerbitzari eta neskame ibili ziren emakume bergararrak ere asko dira. Beste herri batzuetan baino gutxiago ziren, kaletar askok ehungintzan jarduten zutelako, baina baserriko neskak zerbitzera joateko ohitura ez zen galdu. Ume-umetatik bidaltzen zituzten norabait, zerbitzera. Baserri askotan ez zuten begiko emakumea fabrikari aritzea; neskametzak duinagoa iruditzen zitzaion. Neskameen lan baldintzak txarrak ziren: huskeria ordaintzen zieten, segururik ez zuten, eta nagusien esanetara egon behar zuten.

Emakume ezkonduak inude joateko ohitura, aberatsen umeak haztera, ere nahiko zabaldua zegoen XX. mendearen hasieran; nahiz eta horretarako emakumeak bere umea eta senarra utzita etxetik kanpo joan behar izan, denbora luzerako. Inudeak gerra aurreko kontua dira, eta ez da baserri mundura mugatzen.

Osasungintza zen emakumearen “berezko” beste ogibideetako bat. Ingurukoak zaintzea haren egitekoen artean zegoen. Ikasketarik izan gabe ere jarduten zuten horretan, mende hasieran. Emaginek erditzeetan laguntzen zuten, eta kuranderek gaitzak sendatzen. Neskek amengandik ikasten zuten. Erizaintza emakumeek egin zuten goi mailako lehenengotako ikasketen artean zegoen, Magisteritzarekin batera. Bergaran, tituludun lehen emagina 40ko hamarkadan hasi zen lanean. Ez zuten medikuek besteko izenik; erizanak bigarren mailan ge-

ratzen ziren, laguntzaile moduan. Mojak ere aritzen ziren gaixoak zaintzen.

Maistrak izango dira, seguruenez, tituludun ikasketak egitea lortu zuten lehen emakumeak Bergaran. Gerra aurrean. Emakumeek ume eta gazte-txoen heziketaren ardura izatea ontzat ematen zen, eta ikasteko balio zuten neskek maistra lanetan jarduten zuten. Oinarrizkoa erakusten. Hasieran, maisu-maistrek ez zuten titulurik. Gerora, bai. Gasteizera eta Donostiara joaten ziren Magisteritza ikastera. Irakasleak errespetatuak ziren, Don eta Doña esaten zieten, baina ez zuten askorik irabazten. Hainbat maistraren datuak lortu ditugu.

Idazkariak eta bulegariak ere baziren, lantegietan, tailerretan eta udalean lanean. Etxe gehienetan dirua administratzen zuena emakumea izan arren, mende hasieran oso gutxi ziren administrari langintzan zebiltzanak. Gerraostean ugaritzen joan ziren pixkanaka. Gehienek ez zuten Idazkari-tza titulurik; nahikoa zen oinarrizko ikasketak egin, eta kontabilitatea edo mekanografia ikastea. Bulegariak langile soilek baino baldintza hobeak zituzten lanean. Arduradun moduan gizonetzakoak izaten zituzten. Hori bai, badira emakume banaka batzuek lantegietan eta tailerretan ardura postuak lortu zituztenak. Horien berri jasotzea inportantea dela uste dugu, aitzindariak direlako, bidea zabalduta dute-nak. Telefonistek ere aparteko taldea osatzen zuten. Munduan telefonozerbitzua sortu zenetik (Gipuzkoan 1910ean) emakumeak ibili ziren lan horretan. Eta nola ez, Bergaran ere bai. Arduradunak emakumezkoak ziren.

Dendetan eta tabernetan ere emakume asko zebilen lanean. Hori bai, sarritan ez dira artxiboetako dokumentuetan ageri; “mis labores” egiten zutela dator, nahiz eta familiako negozioari inork baino ordu gehiago eskaini. Ikustezinak dira. Negozioen arduradunak gizonak izaten ziren normalean, haien izenean zeuden; emakumezko negozio jabe gehien-gehienak alargunak eta ezkongabeak ziren. Ileapaintzaileak ere aipatzekoak dira, euren negozio propioa jarri zutelako, etxeetan. Haien lan baldintzak jostunenen antzekoak ziren. Dendetan eta tabernetan ere ez zegoen ordutegirik; batzuek behintzat beti zeuden zabalik. Egiten zuten lanak, baina, errekonozimendu urria zuen.

Baserriko emakumeek, etxeko lanez gainera, baserrikoak egin behar izaten zituzten. Azokara joaten zirenak ere beraiek ziren normalean, esnea eta barazkiak saltzera. Hori bai, erroldan “mis labores” moduan datoz gehienak, eta ez “nekazari” moduan. Familiak kalean baino handiagoak ziren, eta haien ardura ere emakumeek zuten. Baserriko alabak kalekoak baino aukera gutxiago zuen ikasteko, eta umetatik neskame bidaltzeko aukera asko zuen, familia ugaria baldin bazen. Errotako lanetan eta postari lanetan ibilitako emakume baserritarrik ere aurkitu dugu. Ameriketara joan zenik ere bai.

Beste lanbide batzuek ere jaso ditugu: abarketagileak, lixiberak, lisa-tzaileak, koltxonerak, trapu-biltzaileak, errekadistak eta kalez kale ibiltzen ziren arrain-saltzaileak. Ogibide horietako batzuk mende hasiera aldera edo gerraren bueltan amaitu ziren. Antzi-

nako beste lanbide batzuen arrastoak ere agertu zaizkigu: linugintza, esaterako, mende hasieran desagertu zena.

Ogibideez gainera, emakumeek politikan izandako papera ere aztertu dugu. Eta ikusi dugu II. Errepublikara garaian mugimendu handia egon zela Bergaran, batez ere Batzokiaren bueltan. Gerrak eta ostean etorritako diktadurak eten zuen hori. Trantsizio garaia arte ezin izan zuen politikan normaltasunez jardun. Eta gerrak bestelako ondorioak ere ekarri zituen emakumeentzat. Gizonen faltan, lanean hasi behar izan zuten, askok herritik alde egin behar izan zuten, errepresioa ere jasan zuten... Frankismoan, emakumea etxera bidaltzeko neurriak hartu zituzten. Zerbitzu Soziala egitera behartzen zituzten, Falangeko arauak eta etxeko andre onak izaten ikasteko. Emakumearen askatasuna hainbat erataraz mugatu zuten.

Emakumeak lana eta familia nola uztartzen zituen ere ikusi dugu. Familiaren, etxearen eta umeen ardura izateak zein ondorio zituen. Ezkontzen zirenean, ala haurdun geratzen zirenean, emakume gehienek lana uzten zuten. Erlijioaren pisua oso handia zen, eta horixe zen emakumeen zeregina: etxekoandre zintzoa izatea. Baziren lanean jarraitzen zutenak ere, San Antonio eta Osintxu langile auzoetan bereziki. Baina halakoetan ere emakumeek etxeko lanak eta kanpoak uztartu behar izaten zituzten. Emakume guztiek jakin behar zuten josten eta janaria prestatzen. Eta ezkongabeek ere bazuten familiaren ardura: gurasoak, aitona-amonak, anaiak, ilobak... familia zentzu zaballean ulertzen zen.

Emakumearen aisialdiari ere tarte bat eskaini diogu. Astean egun bakarra zuten libre, igande arratsaldea, eta euren ekintzak nahiko mugatuta egoten ziren: dantza, paseatu eta zinemara joan. Batzu-batzuek mendira eta futbola ikustera ere joaten ziren. Baina hori ezkongabeak baldin baziren, eta nobio garaietan. Ezkonduz gero, emakumea aisialdi gabe geratzen zen kasu askotan.

Erljioaren pisua ere aztertu dugu, nahiko gaintetik bada ere. Elizak herritar guztiengan zuen eragina, baina emakumea bereziki zigortzen zuten. Bekatuen iturria zen, tentazioa, eta ia dena zuen debekatuta. Mutilekin dantza egitea, adibidez. Giro horrek emakumeen bizitzako esparru denetan zituen ondorioak, baita lanerako garaian ere. Asko ziren gazte-gazterik moja sartu ziren neskak.

Bukatzeko, Bergarako emakumeak artean izan zuen lekua ikusi dugu. Oso txikia. Goi mailako sorkuntza artistikoa gizonetzkoen eremua izan da urte askoan. Emakumeak orfeoian kantatzea eta pianoa jotzea ondo ikusita zegoen; musikarako trebetasuna aitortzen zitzairen, baina denborapasa moduan bakarrik.

Emakumeen jarduna ikustezina izan da urte askoan, eta, artxiiboetako agiriari soilik erreparatuz gero, ikustezina izaten jarraituko zukeen, neurri handi batean. Izan ere, ofizialki emakume gutxik egiten zuten lana; gizon eta emakume langileen kopurua ez da inola ere parekoa. Errealitatean, baina, Bergarako emakume langileak askoz gehiago dira. Jaso ditugun testigantzak horregatik dira hain garrantzitsuak, benetako historia idazten laguntzen digutelako.

Azterlan honek Bergarako emakumeek egindako lana erakusten du. Aukera berdintasunik ez zuten arren, pixkanaka nola egin zuten bidea. Beraien ahotsa jaso dugu, eta lehenengo pertsonan kontatzen dituzte euren esperientziak. Izandako eragozpenak, ibilerak eta lorpenak. Ikerketa lan honek Bergarako historia hurbilaren zati garrantzitsu bat ezagutarazteko balioko duelakoan gaude: XX. mendearen lehen erdiko bizimodua, izaera eta pentsakera. Izen-abizenekin. Genero berdintasuna bermatzeko, ezinbestekoa da lehenaldia ezagutzea, nondik gatozen. Duela oso urte gutxi gure herria nolakoa zen, eta zein bilakaera izan duen. Bestela, gauzak beti orain diren bezala izan direla pentsa dezakegu. Emakume haiek egindako lana errekonozitzeko, kontzientzia pizteko, eta bidea egiten jarraitzeko balio dezake. Bestalde, lan honek etorkizuneko ikerketarako hainbat lerro zabaldu dituelakoan gaude.

Memoria kolektiboa memoria indibidualez osatzen da, eta sare hori bergarar guztiek osatuko lukete. Beti egongo da, beraz, guk jasotakoa osatzeko beharra eta modua. Esperientzia eta iritzi gehiago bildu, artxiiboetan datu interesgarri gehiago aurkitu, izen-abizen gehiago jaso eta jasotako datuak zehazteko eta borobiltzeko aukera. Azterlan hau ibilbide oparo baten abiapuntua izatea nahiko genuke.

Sarreran adierazi dugun bezala, pertsona askoren ahotsak entzuten dira liburu honetan. 54 emakumeren ta 7 gizakumeren izenak datoz azpian. Esan liteke audioz eta bideoz grabaturiko lekukotasunak direla ikerketa-lan honen berezitasun nagusia. Grabazio gehientsuak eginak genituen lan honi ekin aurretik, eta Badiharduguk kudeatzen duen www.ahotsak.com webgunean zeuden kokatuta. Hainbat proiektutarako egindako elkarrizketak ziren, batzuk aspaldikoak. Egin kontu Anizeta Agirre, esaterako, 1992. urtean hil zela. Emakume horiek emandako informazioa batzuetan osatu gabe dago; gustura galdetuko genieke gehiago lanari buruz, eta garai hartako emakumeen izen gehiago. Baina hala ere oso interesgarria iruditzen zitzaigun kontatu zutena hona ekartzea. Grabazio horiek entzutea eta azterketarako interesgarriak diren pasarteak aukeratzea eta transkribatzea izan da egin-kizunetariko bat. Baina honez gain, beste bederatzi emakume elkarrizketatu dira 2013an. Berariaz lan honetarako. Ikerketa-gaiari lotutako galdeketa egin zaie, askoz ere zehatzagoa, eta informazio aberatsa jaso ahal izan dugu beraiengandik. Seinalatuta datoz zerrendan.

Agirre Elkoroiturbe, Anizeta (1888-1992)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/anizeta-agirre-elkoroiturbe/>

Osintxuko Laudatzen jaioa. Neskame hamar urterekin Galartza baserrian. Bilbon neskame Lekerikatarren handiki etxean. Jose Felix Lekerika Espainiako ordezkarri izan zen Nazio Batuen aurrean. Bi aldiz ezkondu zen. Olan eta Osintxu kaleko Tejerokoan bizi izandakoa.

Agirre Elkoroiturbe, Mercedes (1899-1994)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/mercedes-agirre-elkoroiturbe/>

Osintxuko Laudatzen jaioa. 16 urterekin Madrilera neskame, Manuel Taramonaren etxera. Handik etorri eta Donostian zerbitzari Hotel Lasan. Olan eta Osintxuko kalean bizi izandakoa.

Agirrebeña Lizarazu, Gloria (1912-2012)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/gloria-agirrebena-lizarazu/>

San Antonion jaioa. Oso gazterik, Moviella lantegian ibili zen urtebetez ehundegietan. Gero, josten etxean. Tabakobiltegian lanean hasi eta han jardun zuen 44 urtez. Eskualde guztiko tabakoa banatzen zuten.

Agirrezabal Arrese, Elisabet (1919)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/elisabet-agirrezabal-arrese/>

San Antonion jaioa. Mariaren Lagundian ikasi zuen. 19 urterekin, Aretxabaletako "Industrias Beroa"n hasi zen idazkari lanetan. Handik Donostiara, "Carrocerías Villar" lantegira. "Téxtil Vergara"k kontratatu, eta lantegi horren kudeatzailea izan zen urte luzez. Bergarako lehen emakume gerentea. Lehenetarikoa motorra eta autoa gidatzen. Lan honetarako el-karrizketatua 2013an.

Alberdi Arroitauregi, Maria Luisa (1925-1999)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/maria-luisa-alberdi-arroitauregi/>

Iurretako Oromiño auzoan jaioa, 25 urterekin Uberako Egurbide baserrira ezkondu zen. Baserritarra. Barazkiak saltzen zituen plazan.

Alberdi Oruesagasti, Evaristo (1926)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/evaristo-alberdi-oruesagasti/>

Osintxuko Orontzola baserrian jaioa. Baserritarra.

Altuna Garitano, Dolores (1929)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/dolores-altuna-garitano/>

Barrenkalean jaioa. Mariaren Lagundian ikasi zuen. Oregi ehun-fabrikan egin zuen lan, oso gaztetatik hasita. Emakume Abertzale Batzakoia izan zen.

Alustiza Larrañaga, Maria Paz (1945)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/maria-paz-alustiza-larranaga/>

Zubietan jaioa. Mariaren Lagundian ibili zen. Bilbon jarraitu zituen ikasketak mojen ikastetxe batean. Delineatzaile karrera egin zuen Arrasateko Lanbide Eskolan. General Mecanica-n lanean, eta gero Algodoneran, jubilatuta arte. Marrazki eta pinturako irakaslea denbora askoan. Margolaria, hainbat sariren irabazlea. Bergarako emakume margolari bakarra urte luzez. Lan honetarako el-karrizketatua 2013an.

Alzelai Irazola, Maria (1908-2000)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/maria-alzelai-irazola/>

San Migel auzoko Saizabal baserrian jaioa. Jostuna.

Aranguren Alberdi, Maria (1922-2007)

<http://www.ahotsak.com/antzuola/hizlariak/maria-aranguren-alberdi/>

Antzuolako Loieta baserrian jaioa. Herriko eskolara joan zen. Larru arloko Telleria fabrikan ibili zen lanean. Baserrian ere lan asko egingakoa.

Aranguren Txintxurreta, Juliana (1917-2007)

<http://www.ahotsak.com/antzuola/hizlariak/juliana-aranguren-txintxurreta/>

Antzuolako Basalde auzoko Altzeta baserrian jaioa. Baserritarra.

Aranzabal, Rosario (1926)

<http://www.ahotsak.com/elgeta/hizlariak/rosario-aranzabal/>

Goimendi auzuneko Larrañaga baserrian jaioa, Angiozar auzoan. Auzo bereko Zabaleta baserrira ezkondu zen. Baserritarra.

Argialde Azalza, Maria (1917-2009)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/maria-argialde-azalza/>

Labegaraietako Gaztelumendi baserrian jaioa. Oso gazterik, neskame kaleko handiki etxe batean. Gerra denboran, Gernikan zegoen bonbardatu zutenean. Handik itzuli eta Telleria fabrikan lanean, kartutxerak-eta egiten. Uberako Bolu baserri-errotara ezkondu zen. Baserritarra eta errotaria.

Arizmendi Aspiazu, Maria Victoria (1924)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/maria-victoria-arizmendi-aspiazu/>

Mariaren Lagundian ikasi zuen takigrafia, mekanografia eta kontabilitatea. Valladoliden eta Donostian atera zituen Baxiller eta Magisteritza tituluak. Akademia jarri zuen herrian Lide Mujikarekin eta Jose Amilibiarekin. Akademia hori izango zen Aranzadi Ikastolaren abiapuntu nagusia. Ikastolako andereño, jubilatuta arte. Lan honetarako elkarrizketatua 2013an.

Arregi Letamendi, Tere (1932)

<http://www.ahotsak.com/arrasate/hizlariak/tere-arregi-letamendi/>

Arrasateko Zigarrola auzokoa. Arrasateko Zerrajeran ibili zen lanean, ezkondu arte.

Arregi Zufiria, Maribi (1943)

<http://www.ahotsak.com/onati/hizlariak/maribi-arregi-zufiria/>

Oñatin jaio zen, Atzeko Kaleko Juanitosiena dendan. Hamar urte arte Benediktina mojen eskolan ikasi ondoren, merkataritza, dekorazio eta joskintza

ikasketak egin zituen. Mariaren Lagundian egon zen interna, Bergaran. Bizi guztia dendari.

Arrieta Larrañaga, Abelina (1924-2012)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/mahai-ingurua-bergaran-1/>

Angiozarko Errementarikoa etxean jaioa. Auzoko eskolara joan zen. Elgetako Martintxorena tabernara joan zen neskame 13 urterekin, eta han jardun zuen ezkondu arte. Panaderokua tabernako Julio Ugalderekin ezkondu zen.

Arrieta Larrañaga, Nati (1940)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/nati-arrieta-larranaga/>

Angiozarko Errementarikoa etxean jaioa. Auzoko eskolara joan zen. Neskame Arrasaten. Tabernari lanetan ibilia. Elgetako Etxebarri baserrira ezkondu zen.

Azkarate Alberdi, Gregori (1911)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/gregori-azkarate-alberdi/>

Zubiaurren jaioa. Perratzailearen alaba. Gregori eta haren ahizpa lehenetariko ileapaintzaileak izan ziren Bergaran.

Azkarate Urkiola, Miren (1929)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/miren-azkarate-urkiola/>

Bidakruzetan jaio, Masterrekan hazi. Mariaren Lagundian kontabilitatea eta mekanografia ikasi zituen. Gero, moztan eta arropa josten. Jostuna 45 urtez. Lan honetarako elkarrizketatua 2013an.

Barrenetxea-Arando Azkargorta, Erritxe (1924-2009)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/erritxe-arando-azkargorta/>

lariak/erritxe-barrenetxea-arando-azkargorta/

Zubietako Arando taberna-denda etxean jaioa. Mariaren lagundian ibili zen. Bizi guztia Arando tabernan eta dendan lanean.

Barrenetxea-Arando Azkargorta, Mariñe (1917-2013)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/marine-barrenetxea-arando-azkargorta/>

Zubietako Arando taberna-denda etxean jaioa. Bizi guztia Arando tabernan eta dendan lanean.

Beitia Urkia, Dominga (1936)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/dominga-domi-beitia-urkia/>

Oñatiko Araotz auzoko Agerreazpikoan jaioa. Auzoko eskolara joan zen. Neska-me 12 urterekin Larrñon, amaren jaio-tetxean, eta gero Bergarako kalean. Angiozarko Iribekoetxetxo baserrira ezkondu zen.

Belar Olabarria, Izabel (1914)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/izabel-belar-olabarria/>

Angiozarko Goimendi auzuneko Gontzarrin jaioa. Angiozarko eskolan ibili zen. Neskame Donostian eta Bergaran (Arte-txetarren etxean). Angiozarko Zuloetagañekora ezkondu zen. Baserritarra.

Elkoro Ugarte, Eulalia (1921-2012)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/eulalia-elkoro-ugarte/>

Masterrekan, Jauregi Etxean jaioa. Mariaren Lagundian ikasia. Dendaria, bizi guztian etxepeko janari-dendan.

Farras Laskurain, Lucia (1926)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/lucia-farras-laskurain/>

San Antonion jaioa. Mariaren Lagundian ibili zen. Gasteizen idazkari ikasketak hasi zituen baina bukatu baino lehen itzuli behar izan zuen. "Eibartxiki"ren torloju lantegian administrazio lanetan 38 urtez. Lan honetarako elkarriketatua 2013an.

Gabilondo Garitano, Nati (1934)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/nati-gabilondo-garitano/>

Buruñao (San Blas) auzoko Ziarretan jaioa. Frontoiko Eskolan eta San Juanen ibili zen. Aldaiegiako Gaztelugoikoa baserrira ezkondu zen. Baserritarra.

Gallastegi, Sotera (1888-1985)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/sotera-gallastegi/>

Barrenkalean jaioa. Grabatuta dagoen Bergarako lekukorik zaharrena.

Gallastegi Gabilondo, Asuntxi (1933)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/asuntxi-gallastegi-gabilondo/>

Barrenkalean jaioa. Mariaren Lagundian ibili zen. Labe Garaietan lanean, bulegari. Musika karrera egin zuen Bilbon. Piano jotzailea. Musika eta piano irakaslea. Bergarako Orfeoiko kidea urte luzez. Lan honetarako elkarriketatua 2013an.

Gallastegi Galarza, Benita (1923-2011)

<http://www.ahotsak.com/soraluze/hizlariak/benita-gallastegi-galartza/>

Soraluzen jaioa. Hainbat lanetan ibilia. Bergarara ezkondu zen, eta Bergaran bizi izan zen.

Gantxegi, Elisa (1912?)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/elisa-gantxegi/>

Osintxuko Eguzkitza baserrian jaioa. Umetan Soraluzeko Ospitaleko Eskolan ibili zen. Hamabi urterekin fabrika hasi zen lanean. Hamalau urtekin Gasteizera joan zen neskame. 20 urterekin ezkondu zen, Osintxura.

Gantxegi Iturbe, Hilari (1910-1995)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/hilari-gantxegi-iturbe/>

Osintxuko Eguzkitza baserrian jaio eta bizi. Baserritarra.

Garitano Elkoroiribe, Maritxu (1932)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/maritxu-garitano-elkoroiribe/>

Aldaegia auzoko Garitao (Gaittaa) baserrian jaioa. Osintxuko Olani baserrira ezkondu zen. Baserritarra.

Garitaonandia Lizarralde, Carmen (1928)

<http://www.ahotsak.com/oñati/hizlariak/carmen-garitaonandia-lizarralde/>

San Prudentzioko Elorrigoiti baserrian jaioa. Auzoko eskolan ibili zen. 13 urterekin hasita, Seguran, Bergarako Ugarte eta Oñatiko Biain baserrietan egon zen neskame. Oñatiko Azkarretara baserrira ezkondu zen.

Gaubate, Flora (1922)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/flora-gaubate/>

Osintxu kaleko Etxeberri etxean jaioa. Auzoko eskolan ibili zen. Arteche Hermanos hari-fabrika lanean hamar bat urtez. Bergaran neskame urtebetez, ezkondu aurretik. Auzoko Kantera etxera ezkondu zen.

Izuskiza Zubizarreta, Florita (1927)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/florita-izuskiza-zubizarreta/>

Barrenkalean jaioa, gerra aurretik Centro Obrero-a egon zen eraikin berean, Centro Republicano-aren aldamenean. Gaztetatik familiako tabernan, Oilagorran, lan egindakoa.

Juaristi Aranburu, Natalio (1912-2010)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/natalio-juaristi-aranburu/>

Zubietan jaioa. Auzoan bertan hasi zen eskolan. Bere ama Julitta zen maistra. Gero, Herriko Eskolan. Musika ikasi zuen udal akademian. Herriko abesbatzetan jardundakoa. Auzoko abarketa lantegian hasi zen lanean. Gero, Narbaizanean jarraitu zuen.

Juaristi Garitano, Petra (1918-2013)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/petra-juaristi-garitano/>

Barrenkalean jaioa. Mariaren Lagundian ibilia. Josten hasi zen lehendabizi. Hamalau urterekin Algodoneran sartu zen, baina gaixotu eta laga egin zuen. Josten jarraitu zuen. Patxiko Berraondo senarraren osabaren burdindegian, Erratzunean, hasi zen lanean eta han jarraitu zuen 90 urte bete arte. Lan honetarako elkarriketatua 2013an.

Laborda Astiazaran, Edurne (1932)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/edurne-laborda-astiazaran/>

Bidakruzetan jaioa. Mariaren Lagundian ibili zen lehenengo. Hamabi urterekin (1934) Bergarako ikastola sortu berrian hasi zen. Bi urte egin zituen han, gerra sortu arte. Jostuna.

Larrañaga Basauri, Maria Angeles (1935)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/maria-angeles-larranaga-basauri/>

San Juan auzoko Ariztizabal baserrikoa. Baserriko gauzeekin Bergaran eta inguruko herrietako azoketan asko ibilia.

Larrañaga Urrutia, Maria Pilar (1926)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/maria-pilar-larranaga-urrutia/>

San Antonion jaioa. Labe Garaietako eskolara joan zen. Bizi ere Labe Garaietan. Algodoneran egin zuen lan.

Larrañaga Zarraoa, Bixenta (1931)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/bixenta-larranaga-zarraoa/>

Elorrioko Gazeta auzoko Etxebarrin jaioa. Aranerreka auzoko Aranegoenengoa baserrira ezkondu zen. Baserritarra.

Lete Iribekampos, Juana Joxepa (1903-1992)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/juana-joxepa-lete-iribekampos/>

Elosuko Nordeauzoko Egizabal baserrian jaioa. Auzo bereko Narbaizazpikora ezkondu zen. Baserritarra. Umetan liganagintza ezagututakoa.

Linazisoro Lazpiur, Jabier (1927)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/javier-linazisoro-lazpiur/>

Barrenkalean jaioa. Sortu berria zen Bergarako Ikastolara joan zen gerra aurrean. Industria-gizona.

Maiztegi Elkoroberezibar, Juana (1913-2008)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/juana-maiztegi-elkoroberezibar/>

Barrenkalean jaioa, Gasparreneko etxean. “Escuela de Hogar”en ikasi zuen josten eta janaria prestatzen. Jostuna eta jostunen erakuslea.

Martinez Estevez, Mariano (1923-2012)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/mariano-martinez-estevez/>

Aita, gaztelarra, trenbidea egitera etorri zen. Herriko eskolan ibili zen. Anai-arreba zaharragoak neskame eta morroi joan ziren eta berak egiten zituen etxeko lanak. Gaztea zela hasi zen Sorluzeko Sacian lanean, baina gerora Bergarako Torunsa lantegira aldatu zen.

Mugerza Arregi, Maria (1930)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/maria-mugerza-arregi/>

Azkoitiko Urazarri (“Utxerri”) baserrian jaioa. Osintxuko Ontzola baserrira ezkondua. Baserritarra.

Murgoitio Gabilondo, Pilar (1905-2006)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/pilar-murgoitio-gabilondo/>

Espaloian, Untzueta Jauregiaren ondoan etxean jaioa. Han igaro zuen haur-

tzaroa. Gero Barrenkalera joan zen bizitzera. Mariaren Lagundian eta gaueko eskolan, Goenkalean, ikasi zuen. Movilla industria-gizonaren etxean neskame. 14 urterekin, jabe beraren fabrika lanean; hasieran ehundegiko langile, gero enkargatu.

Oregi Arregi, Lide (1935)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/lide-oregi-arregi/>

Zubieta kalean jaioa. Mariaren Lagundian ibili zen. Barrenkalera ezkondua. *Burdiña: errementariak eta perratzaileak* (2003) liburuaren egilea, Iñaki Arana semearekin batera. Gau-eskolako irakaslea.

Osa Alberdi, Miren (1934)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/miren-osa-alberdi/>

Soraluzeko Irure auzoko Eitzaga baserrian jaioa. Herri bereko Sacia torloju-fabrika ibili zen hamabost urtetik ezkondu arte. Osintxura ezkondu zen. Gero Bergarako kalera aldatu zen bizitzera. Tabernan ere ibilia.

Osoro Elkoroiribe, Tomas (1928)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/tomas-osoro-elkoroiribe-intxuzabal/>

Basalgoko Intxuzabal baserrikoa. Baserritarra.

Oteiza, Celestina (1916-2001)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/celestina-oteiza-jaia/>

Mugertza auzoko Moiuazpikoa baserrian jaio eta bertan bizi izan zen. Baserritarra.

Peña Urmeneta, Maria Dolores (1929)

Barrenkalean jaioa. Frontoiko Eskolan ibili zen umetan Kontxita Maiztegirekin. Bederatzi urterekin Gasteizera joan zen batxiller-sarrera prestatzera. Gero Madrillera bizitzera amarekin eta ahizpekin batera. Batxillerra egin zuen lehendabizi eta Kimikako lehen bi kurtsoak ondoren. Valladoliden lizentziatu zen. Algodonera-Tavesako Laborategian egin zuen lan jubilatuta arte. Lan honetarako elkarriketatua 2013an.

Plazaola Gallastegi, Mariasun (1933)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/mariasun-plazaola-gallastegi/>

Zumarragan jaioa, hamabost hilabeterekin etorri zen Bergarara. Frontoiko Eskolan ibili zen Kontxita Maiztegirekin. Gero Kontabilitatea ikasi zuen. Idarreta ehun-biltegian egin zuen lan urte askoan administrazio lanetan.

Telleriarte Egidazu, Luz (1930)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/luz-telleriarte-egidazu/>

Masterrekan jaioa. Sei urte zituela gerra irten eta Frantziara atzerriratu zen familiarekin. Hamaika urterekin etxeratu zen. Frontoiko Eskolan ikasi zuen, Kontxita Maiztegirekin. Ariznoa Hotelaren arduraduna urte askoan.

Ubera Zabala, Eugeni (1948)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/eugeni-ubera-zabala/>

Basalgo auzoko Goimendi auzuneko Bergaretxe baserrian jaioa. Baserrian lan egindakoa gaztetan. Eibarrera ezkondua.

Ubera Zabala, Mari Asun (1947)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/mari-asun-ubera-zabala/>

Basalgo auzoko Goimendi auzuneko Bergaretxe baserrian jaioa. Baserrian lan egindakoa gaztetan. Eibarrera ez-kondua.

Ubera Zabala, Maria Angeles (1944)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/maria-angeles-ubera-zabala/>

Basalgo auzoko Goimendi auzuneko Bergaretxe baserrian jaioa. Baserrian lan egindakoa gaztetan. Eibarrera ez-kondua.

Ugalde Alberdi, Blas (1923)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/blas-ugalde-alberdi/>

Mugertzan jaioa. Herriko Eskolan eta Seminarioan ibili zen. Hamahiru urterekin Oreginean hasi zen lanean. Gero, beste bi lantegitan ibili zen, Soralezeko Osu-man eta Bergarako Aranesen. 1944an amak plazako kioskoaren ardura hartu zuen, eta harrezkero Blasek ere egunkariak saltzen eta etxeetara banatzen jardun zuen.

Unamuno Mujika, Benita (1905-1992)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/benita-unamuno-mujika/>

Kokoteauzoko (Aranerreka) Azpilletan jaioa. Aldaiegia auzoko Aldaira ezkondua. Baserritarra.

Uribesalgo Bengoa, Asuntxi (1928)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/asuntxi-uribesalgo-bengoa/>

San Pedro kalean jaioa. Ospitalean eta Mariaren Lagundian ikasi zuen. Jostuna eta bordatzailea. Bergarako Orfeoiko kantaria. Lan honetarako elkarriketatua 2013an.

Urzelai Gantxegi, Luzio (1922-2009)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/lucio-urzelai-gantxegi/>

Aranerrekako Abrein baserrian jaioa. Ezkondu zenean Osintxun jarri zen bizitzen, baina gero Bergarara aldatu zen. Industria-gizona.

Zubizarreta Mujika, Begoña (1922-2011)

<http://www.ahotsak.com/bergara/hizlariak/begona-zubizarreta-mujika/>

Aritzeta auzoko Oruesagasti ("Usasti") baserrian jaioa. Frontoiko Eskolan ibili zen Kontxita Maiztegiarekin. Baserritarra.

A. Ibañez, A. R. Ortega, A. Santana, M. Zabala. *Casa, familia y trabajo en la historia de Bergara*. Bergarako Udala, 1993.

Aiape Arbe, Andrea. *Gernikar emakumeak XX. mendean: ahotsak eta bi- zipenak*. Gernikako-Lumoko Udala, 2006.

Arregui Barandiaran, Ana; Murgizu Bakaikoa, Mikel; Oregi Goñi, Arantzazu; Ruiz, Pablo. *Eustaquio Aguirreolea: pintore eta argazkilaria / Eustaquio Aguirreolea: pintor y fotógrafo (1867-1952)*. Bergarako Udala, 2002.

Askoren artean. *Bergarako Euskera*. UNED-Bergara. 1988

Askoren artean. *Emakumeak, hitza eta bizitza*. EHU. 2012

Aspiazu, Jose Antonio. *La historia desconocida del lino vasco*. Elkar, 2006.

Aspiazu, Jose Antonio. *Mujeres Vascas, sumisión y poder*. Haranburu edit., 1995.

Ballarin Domingo, Pilar. *La educación de las mujeres en la España contemporánea (siglos XIX-XX)*. Síntesis, Madrid, 2001.

Barinaga, John. *Valentin & Eulalia. The story of two Basque Emigrants who came to America, met, married, raised a family and made their living in the sheep industry*, copyright John 1985.

Barranquero Texeira, Encarnación; Pietro Borrego, Lucía. *Así sobrevivimos al hambre: estrategias de supervivencia de las mujeres en la postguerra española*. Malagako Diputazioa, 2003.

Bikuña Agirre, Juan Luis. *Bergarako Batzokia. Ehun urte abertzaletasunaren bideak jorratzen/ Batzoki de Bergara. Cien años abriendo camino nacionalista*. Sabino Arana Fundazioa, 2004.

Carmen Mondejar (ed.). *La Historia de las mujeres: Perspectivas actuales*. Madril, 2009.

Carreño, Miryam. *Chicas de la Postguerra. Un análisis sobre el aprendizaje de género. Historia de la Educación*. 22-23 zk., 2002 o. 79-104.

Colera, María; Korta, Mertxe; Stürtze, Alizia. *Emakumeak XX. mendeko historian*. Gaiak, 2002.

Del Valle, Teresa. *Emakumeak Euskal Herrian: erresistentziak eta haus-turak*. Gaiak, 2001.

- Elexpuru, Juan Martin. *Bergara aldeko Hiztegia*. Bergarako Udala, 2004.
- Garcia-Orellan, Rosa. *Mujer pasaitarra. Siglo XX*. Michelena, 2011.
- Garikano, Asun. *Far Westeko Euskal Herria*. Pamiela, 2009.
- Goitisoló Zumaran, Leire; Nicholson Gorostiaga, Amaia. *Atzoko hitzak josten: emakumeen ahotsakaz historia kontetan*. Elorrioko Udala, 2011.
- Imaz Martinez, Iñigo. *Urnietako emakumeak XX. mendean*. Eusko Ikaskuntza, 2011.
- Isazelaia, Jaione. *Linua, ehuna, artilea*. Bergarako Udala, 1997.
- Korta, Mertxe; Eugi, Sagrario; Stürtze, Alizia; *Emakumeak eta feminismoa mendebaldean*. Gaiak, 1999.
- Larrañaga, Polikarpo. *Emakume Abertzale Batza: La mujer en el nacionalismo vasco*. (I, II eta III). Auñamendi, Donostia, 1978.
- Lasa Astola, Arantza. *Historia de las mujeres de Eibar*. Eibarko Udala, 2011.
- Laspiur Zabala, Imanol. *Eibarko ikastolaren historia txikia*. Eibarko Udala, 1984.
- Llona, Miren. *Entre señorita y garçon. Historia oral de las mujeres bilbaínas de la clase media. 1919-1939*. Malagako Unibertsitatea, 2002.
- López García, José Luis. *1840-1940. Un siglo de industria algodonera en Guipúzcoa. Algodonera de San Antonio y Textil Lasagabaster, dos historias distintas y un destino común*. Doktoradutza tesi argitaragabea. Deustuko Unibertsitatea, 1994.
- Ortega Berruguete, Arturo. *Bergarako biztanlegoaren historia*. Bergarako Udala, 1996.
- Otero, Luis. *La Sección Femenina*. Edaf, Madrid, 1999.
- Perallón, José E; López, José Luis. *El mundo azul de Tavex*. 1996.
- Tranche, Mertxe; Loza, Silvia; Ruiz, María. *Historia de las Mujeres de Irún (1931-1992)*. Irungo Udala, 2011.
- Ugalde Solano, Mercedes. *Mujeres y nacionalismo vasco: génesis y desarrollo de de Emakume Abertzale Batza (1906-1936)*. Emakunde, Bilbo, 1993.
- Urza Olazabal, Manuela. *La Compañía de María en Bergara/ Bergarako Mariaren Lagundia*. Eusko Jaurlaritza, 1999.
- Urzelai, Antonio "Abrain". *Bergara: irudi eta kondaira. Semblanza histórica*. Bergarako Udala, 1990.

Valverde Lamsfus, Lola. *Familia, Ezkontza eta Jenero harremanen Historia Azpeitian/ Historia de la Familia, Matrimonio y relaciones de Género en Azpeitia*. Eusko Ikaskuntza, 2011.

Zabala, Jose Ramon. *Non zeuden emakumeak? La mujer vasca en el exilio de 1936*. Saturraran, Donostia, 2005.

ARTXIBOKO KONTSULTAK

Bergarako 1930eko errolda. Bergarako Artxiboa.

Industria eta Merkataritza Zerga 1938. Bergarako Artxiboa.

Industria eta Merkataritza Zerga 1950. Bergarako Artxiboa.

Langileen Errolda 1938-39. Bergarako Artxiboa.

1952ko udal agindua lantegientzat. Bergarako Artxiboa.

Langile langabetuen errolda (II. errepublika). Bergarako Artxiboa.

Udal maisu-maistren datuak. Bergarako Artxiboa.

Hijos de Arturo Narbaiza lantegiko langileen datuak. Bergarako Artxiboa.

Movilla ehun-lantegiko ehungileen datuak. Bergarako Artxiboa.

Agirien signaturak: B.U.A. 01 L/262, Administratiboa 02 C/ 0845-16, Administratiboa 02 C/3367, Administratiboa 02 C/1191-14, Administratiboa 02 C/1191-15, Administratiboa 02 C/0846-09, Administratiboa 02 C/1851-27, Narbaiza 22 C/681, Movilla 23 C/085-001, Movilla 23 C/086-00123, Movilla C/029, UCEM 07 C/1369-001, UCEM 07 C/1491-002, UCEM 07 C/1491-006.

Fondo Gordeak. KM kulturunea, Donostia.

Hemeroteka. KM kulturunea, Donostia.

